

Zubiri'tar' Iñaki  
Euskerazaintza'koa

# MENDEKUA



XIII-90

**Zubiri'tar' Iñaki**  
**Euskerazaintza'koa**

# **MENDEKUA**

Bilbao'ko Udalaren eta  
Bizkai'ko Foru Aldundiaren  
Laguntzaz  
"Euskerazaleak" Alkarteak argitaratua



## AURKEZPENA

Irakurri-barri dogu Zubiri'tar Iñaki idazle ugariaren azkenengo elebarria: MENDEKUA.

Benetan irakurgarria da elebarri au eta irakurten dan aldi guztian jarraigurea edo "suspense" bizi-bizia sortzen dau. Une baten be ez jako gogaikarri biurtuko irakurle arduratuari.

Bear ba'da, elebarriaren artean diran sail guztien artean zeifetara sartu bear dan jakin gura izango dau irakurleak. Eta ez da erreza elebarri au sail batera sartzea, baiña biren barruan izango litzakela uste dot; edo oitura-elebarrien artean edo ertzain-elebarrien artean. Lenengo saillean obeto, bear ba'da.

Oitura onak indartzeko, oso egokia da alde batetik, baiña beste alde batetik, elebarriaren atzean beti dago ertzain-arazo bat. Eta ez irakurlea arduraz izan daiten, ez. Korapilloa erreza da eta irakurleak ba-daki nondik nora doan arazoa.

Elebarri onetan aldia trebetasun aundiaz erabilten dau idazleak. Bear danean atzeratuta, baiña laster bere sasaira biurtzen dala. Amar bat urteren barruan betetzen da dana.

Aldiaren igidura, une batzutan bizkorra da, esaterako espetxeko urteetan, beste batzutan oso astitsua, esaterako azkenerantza dagoan Klemen eta Kepa Mirena'ren alkar-izketan. Orretarako arazoaren garrantzia kontuan dala.

Tokiak iru ardatz dauz: "Bikain", etxea ta espetxea, baiña ba-ditu urteera batzuk be, esaterako Ameriketara ta Europa'ra. Beste urteera laburrago batzuk be bai: Epaitegira, Ikastola Nagusira, Murube'ra, eleizara... landetxera, arezti-  
ra. Tokia oso egokiro erabillia da.

Oitura-elebarria dala esan dogu. Ona emen orain, oitura-arloan agertzen diran arazo batzuk eta onein bideratzea.

Elebarriaren oiñarrian mendekua dago eta asieran esan lei mendeku ori ontzat emoten dala, baiña azkenean arazo ori ederto bideratzen da.

Beste arazo bat, arlo onetan, espetxeko egoerea da eta arazo au beste idazle ospetsu baten idazti edo "nibola" areitan agertzen dan lez, irakasbide eder bat lez agertzen dan. Espetxeetan gizareratzea zelan egin leiken itauntzen ba'dogu, erantzun bat emongo dausku elebarriak.

Eta euskerea? Beti lez guztiz eder eta argia. Irakurleak amaika esaldi eder aurkituko dauz. Baita beste esaldi batzuk eztabadatzeakoak diranak be, ondo aztertu-bearrekoak.

Amaitzeko auxe esan bear: Fededun batek idatzia eta arlo onetan oso ondo bideratua dala.

Izango al dira irakurleak ugari.

OLAZAR'tar Martin'ek

I.S.B.N.: 84-88464-50-9.  
Depósito Legal: BI-1.987-92.  
Fotocomposición e Impresión:  
FLASH Composition, S.A.  
Ercilla, 11 - 1.º derecha  
48009 - BILBAO

## ADISKIDEA GOGORATUZ

Elebarri au amaitzean, adiskide miña neban Juan Martin Zabala Otaola'ri, idaztiaren estalkiarentzat marrazki bat eskatu neutsan, eta berak gogoz egin be. Bere azken marrazkia izango zana, urrean, andik laster gure artetik joan zan-eta. Liburu oneri argia ikusteko eretia eldu yakonean, adiskideari buruz zeozer esan barik, ezin naiteke geratu.

Gazterik, Asmalarien (Injiñeruen) Ikastola Nagusian ikasten asi zanean, Bilbao'ko Eusko Gaztedi'ko "Aberri" mendigoizale taldekoa billakatu zan. Errepublikako garaian, Madrid'etik agintari batzuk Bilbao'ra etozala, eta kaleak margozten zirala Euzkadi aldeko eskubideak aldarrikatuz, atxillo egin eben, eta Larrinaga'ko espetxean beste abertzaleekin, gure aberrian ezagutu izan dan lenengo gose-oporran tartekoa izan zan. Anai arteko guda zitala asi zanean, erasotzailleen aurka jagi zan, "teniente" maillan jarduten ebala. Dueso'n eta Puerto de Santa Maria'n iru urte emon ebazan atxillo, eta urtenda gero, asmalaritzan baimendu zanean, zapaltzaillearen aurka jarkipenean (erresistentzian) jardun eban urte luzeetan zear, guztitariko arrisku larriak jasanez.

Gure artetik igaz joan zan, jarkialdietan ziarduean lez, isillean eta zaratarik bage. Bere alde iñork ez eban gomuta-lerro bat bera be idatzi. Badirudi, Euzkadi aldeko aalegiñak gero ta lainotsuagoak agertzen dirala gaurregun, aldiaren bide latzak besteek egiñikoa oroimen-begiak lausotzen dauskuzalako...

Euzkadi'rekiko maitasunaren-maitasunez odol eta izerdiz Aberriaren arri bizian landu ebanetarikoa izan zan gure Juan Martin, berarentzat ezer eskatu barik, eta gaur gure artetik joan danean, negarrak begietan biotz-biotzez auxe diñotsat: Agur Juan Martin, Egun Andirarte.

Egilleak

## AURKIBIDEA

ORRIALDE

ZITALKERIA.....	1
BAITUREA.....	11
EPAIKETEA.....	33
OIÑAZEAREN ATZAPARRAK.....	59
BASAMORTUAN ZEAR.....	69
KEPA MIRENA'REN ASMOA.....	77
BAKE TA ITXAROPENA.....	83
MATXINADEA.....	91
ASKATASUNA.....	103
ARDURADUN NAGUSIA.....	111
“GOIENA”REN SORKUNDEA.....	123
GENTZANE.....	133
ASPALDIKO EZAGUN BAT.....	145
NAIGABEA.....	153
MARROKERIA.....	161
JOANA GOGORATUZ.....	169
GALDUTAKOAREN BILLA.....	193
IDAZTOSTE.....	201



Gau aretan areto eder eta apaiñeko sutondoan jesarrita, Klemen'ek, etxeko seme bakarrak, mukurren garrak begiztatzan ebazan betosko illunaz. Bazan ordubete bat edo gurasoak oeratu izan zirala, eta leku berean irauan etxeko mutil aberatsak, gogoeta kezkatietan murgilduta, bere egoera larriari iñongo urtenbidea emon eziñik. Izan be, luzaro baiño len bere egoereari konponketa bat idoro ezean, txarto ikusiko leuke bere burua.

Aspaldi aretan, karta-jokoan diruketa andia galdu izan eban, eta onen ondorioz, aitaren baltzuan ziarduan "Bikain" errediza-lantegiko diru-kutxatik, zorretan galduriko dirua ezinbestez atara izan eban, bera bizi izaten zan giroan, joko-zorrek ez ordaintzekotan txarto ikusiko leuke berè burua-ta. Jokorako griña madarikatua beratzaz jabetu izan zan, eta azken aspaldi aretan joko-etxe batzutan ebana ta ez ebana arriskuan jarri, eta onen ondorioz aitaren lantegiko kutxatik galdurikoa atara izan eban, egindako zorrek garbitzeko. Biaramonean, "Bikain" lantegiko diruzaiñak kutxaren egiztapena egingo leuke, illeko azken eguna zalako, eta On Endika'k ez leuskio edozelan be, berrogei urte areitan erabillitako oituereari uko egingo, au da, langilleen illeko saria atarata gero, bere zaintzapean egoan kutxearen egiztapena egitea.

Klemen'ek amaikagarrenez zigarroa piztu, eta ozta-ozta mustada gitxi batzuk emonda, sutara jaurti eban, artega igitzen zala besaulki erosoan. Noizbait, berandu izanik aretoko argiak amatau ebazan, eta lo-gelara joan zan, erdiz ausnartutako asmoari garapen osoa oean emoteko. Klemen'ek txikitarik biziera eroso izan eban, eta seme bakarra izanik, eregutan bizi izan zan, amaren aldetik batez be. Onek uste izaten eban bere semeak guztitariko palaguak izan ezik, zorigaitzokoa izango litzakela, eta augaitik aal eban giñoan aren naikeri guztiak bete oi ebazan. Aita, aitzitik, gogorragoa zan, eta ama bide guztiakaz Klementxu'ren oben eta akatsak estaltzen saiatzen bazan be, askotan iñotsan bere buruari, semeari emotsoen ezkuntza, egunen baten aren aurka gertatuko ez ete. Baiña izan be, On Klemen (Klementxu'ren aita) lanari buru-belarri emonda bizi izaten zan, eta mundu onetan zerbait maite izatekotan, izerdi ta buruaustez soturiko bere baltzua zan.



Urteak ziran On Klemen arotz bikaiñak, bere kabuz lan egitea erabagi ebanetik, eta apurka-apurka izen bat eta gizarte-mailla ospetsua jaritsi ebazan. Lanaren-lanez eta bere buruaren atsegiñari ordu asko ukatuz, ogasun andi baten jabe billakatu zan. Edeski onen asieran bere lantegian eun bat langillek jarduten eben, eta ordurarte lez jarraitzekotan, kopuru ori andituko litzake. Oraindiño berrogei ta amabost urtekoa zan, eta bere buruan asmo ugari ta andiak erabillezan. Aspaldi aretan bere buruausterik andiena, Klemen bere seme bakarra zan. Diru errazak eta amaren bigunkeriak mutillari egunen baten ondorio txarrak ekarriko leuskioez, eta izan be, irakaslerik onenak bere aukeran izan arren, dalako COU amaitzeko trinkili-trankala ibilli zan, eta azken urtea egiteko, ikastaro bi bete bear izan ebazan. Ikastola Nagusira sartzeko garaian, aitak eragindako semeak, Baltzularitza (empresarial) ikasketak autatu ebazan, baita pozik be esan bear, etxetik urruntsu jardungo leukelako.

Lenengo urte biak alan-olan aurrera atara ebazan Klementxu'k, baiña irugarrenaren orduko, biziera nasai ta lagun-artekoari emon eutsan. Onen ondorioz, ikaste-mailla galduta, urrengo urtean birrasi bear izan eban, baiña alperrikerrik gertatu zan, ikastaro osoa liburuak artu barik irauñ eban -eta. On Klemen'ek semearen bigarren uts-egitea jakin ebanean, eta aren alperkeriaz jakitun ipiñita, etxera ekarri, eta lantegira sartu eban. Andik laster gudaritzaldia etorri yakon, eta Barzelona'ko gudaritzi baten jardun bear izan eban. Uri andi onetan, Klementxu'k txarto ikusiko eban bere burua aitak bialtzen eutsan diruaz, zigortzat urri ta gitxitan etorkiolako. Baiña seme kutunaren egoeraz errukituta, amak, bear izaten eban baiño geiago igortzen eutsan ezkutuan, eta oneri esker polito konpondu zan, bere buruari iñongo atsegiñik ukatzen ez eutsala.

Gudaritza beteta, lantegiko idaztegira sartu eban aitak, aldiaren bidean baltzuaren gora-beerak ikasi egiazan. Edeski onen garaian, langilleen alogerak ainbatu, eskutitzak irakurri ondoren aitari emon, erabagi arruntak artu, eta olako eginkizunetan ziarduan. Azken illabete areitan bazirudian artezago ebillela, eta jokabide onen saritzat aitak diru-kutxaren giltza emon izan eutsan, eta beraz, onekin batera diru erabiltearen eskubidea. Kutxa au edegiteko, baiña, giltzaz gaiñera izkidun gurriltxu bat erabilli bear zan. Gurriltxuaren jarrera "BIKA" itza zan, lantegiko izenetik artuta. Aita, eta On Endika diruzaiñaz bestalde, Klemen zan kutxea erabilten eban bakarra, eta izan be, erabilte-eskubidea emon yakonetik, bere buruaren oneritxia mailla asko igon zan. Ogei ta iru urteko zan garai aretan, eta egiari zor yakon begiruneagaitik, esan bear da, Klemen mutil argi ta asmamen andikoa zala, eta ezpaibarik andik urtebete baztutara, erredizagintzaren ezkutune guztien jabe billakatu zan.

Zoritxarrez, baiña, naikeri ta griñentzat Klemen'ek diru asko bear izaten eban, eta lantegiko jardunaren saritzat artzen ebana oso urria zan orretarako. Ain zuzen be, ez ebazan lagun asko, baiña gitxi onein artean, bazan bat joko-etxeen bidea erakutsi eutsana, eta bear izaten eban dirua jaristearren, jokoari emonik, luzaro barik griña txar orren otseiña billakatu zan. Ikertzen ebazan joko-etxeen jendea zorrotza zan, eta egiñiko zorrak biaramonean nai-ta-ez kitatzeko ziran, bestelan zordunak larri ikusiko eban bere burua. Olan ba, eta geienetan jazoten dan lez, Klemen dirua gitxika jokatzen asi zan, baiña egunen bidean gero ta geiago. Bere zoritxarrerako, asiera baten irabazle billakatu zan, eta garaipen-adoreak eraginda, diru-jarrerak anditu ebazan.

Aspaldi batez diru-mordo baten jabe izan zan, baiña adu txarreko gau baten, eukana ta ez eukana galdu eban. Urrengo egunean, egindako zorra garbitu bear izango eban, bestelan gorriak ikusiko leukez. Buruari ekin eta ekin, noizbait oartu zan "Bikain" baltzuaren diru-kutxa bere aukeran ebala, eta ezinbestez, zor izaniko dirua artu eban, jakiña, gero irabaziko leuen diruaz ordezteko. Arrezkero, gora-beera batzuk jasan ebazan, baiña zelan edo alan, asiera baten gai izan zan ataratako dirua barriro sartzeko. Egun baten, baiña, ito ta larri oartu zan, kutxatik artutakoa milloi bi laurleko edo pezetaraiño igon izan zala, eta biaramonean illaren azkena izanik, langilleen sariak ordainduta, On Endika'k kutxako diruaren egiztapena egingo leukela... Urtenbideren bat idoro ezean, gertatzeko zana izugarria izango litzake. Gau aretan oean sartuta, buruan ebilkion zitalkeria garatzen eta osotzen asi zan, eta noizbait gora-beera guztiak ondo ausnartuta, nasaitasunezko oarpenaz lo geratu zan. Asmatutako egitamua zitalkeri izugarria zan, baiña Klemen okerrak ez eban buruan besterik bere ziurtasuna baiño.

Azpikeri aren ardatza, Kepa, idaztegiko ogipekoa izango zan. Mutil au Klemen baiño zerbait gazteagoa zan, eta baziran urtebete bi "Bikain"eko idaztegi ziarduala. Bein baten, idaztegiko garbi-lanen betekizuna eban Agate'k, Kepa Mirena bere semearentzat jardun bat eskatu eutsan On Klemen'eri, eta onek idaztegiko mutiltzat onartu eban. Kepa Mirena edo Kepa, idaztegiaren esaten eutsoenez, mutil garai ta txairoa zan, eta bere aurpegia agertzen zan baiño ederragoa izango litzakean, erabilli ez ba'leuz bere karantz atsegiña erdizka ezkututzen eben, betaurreko lodi ta merkeak. Begimen laburrekoa izanik, txikitarik erabillezan betaurreko itsusi areik, eta ain zuzen be, orregaitik bere lagunaren eztenkadak jasan bear izaten ebazan sarri askotan.

Kepa'ren gurasoek euren seme bakarrarentzat goi maillako irakaskintza nai izaten eben, baiña COU doi-doi egiñik, aita il egin zan. Alargundutako



Agate'rentzat aspaldi larria asi zan, semea ta biok onik atarateko. Ezibeste, "Bikain" errediza-lantegian garbitzaillearen jarduna lortu eban, eta egunoro, Larunbat-Igandeetan izan ezik, iru ordu emoten ebazan, atadia, zurubiak, idaztegiak, irolak etab. txukuntzeko. Orduan amazapi urteko zan Kepa Mirena'k ikasketak eten egin bear izan ebazan, eta denda andi batera, mezu-mutiltzat sartu zan, bere jardunik beiñena, bezeroek eskaturiko gaiak etxerik-etxe banatzea izanik. Ain zuzen be, ez eban sari egokirik irabazten, eta au zala-ta, bere amesik kutunena zan Ikastola Nagusira sartzea ezin egikean bete. Bearrizan onek eraginda, jardun oba baten billa aalegindu zan, baiña leku guztietan oztopo berbera idoro eban, au da, gudaritza bete barik egoala. Noizbait, zerbitzu ori beteta, etxera biurtu zanean, amaren bitartez, billaturiko jarduna "BIKAIN" baltzuan jaritsi eban.

Orduan ama-semearentzat aspaldi nasaiagoa asi zan. Biok irabazten eban, polito konpontzen ziran, Kepa Mirena'ren asmorik kutunena izanik, bearezkoa irabaztea amak garbiketeari uko egian, eta orduan etxean jardungo leuke, baiña oraindiño itxaron bear izaten eben. Laster agiri zan, ama-semearen onerako aldakuntzea. Bizi izaten ziran teillatupeko etxetxuan, errediza barriakaz bete izanez gaiñera, azpi-oialak, leio-errezelak baita lorak be ikusi zeitekezan.

"Bikain"go idaztegia lau zatiduna zan. Areto eder bat On Klemen'entzat mai andi bat az orniduta, batzar garrantzitsuak ospatzeko ta ikerleak abetaltzeko. Onen ondoko gelan, On Endika diruzaiñak eta Klemen'ek ziarduen. Urrutiagoko areto andi baten, sei bat ogipekok eta urrutizkin-neskeak lan egiten eben kondalari nagusipean. Eta azkenean, areto argi baten, iru marrazkilarik erredizen eredu barriak egiñez asmalari edo injiñeru baten pean ziarduen. Lantegiko beekalde zabalean eun bat langillek bearreko agintariekin, guztitariko langailluakaz lan egiten eben.

Asiera baten, Kepa Mirena'k beste ogipekoekin kondulari nagusipean jardun eban, lan arruntak eta mandatuak egiñez. Andik urtebete batera-edo, diru-zaiñari ta Klemen'eri laguntzearen, On Klemen'ek ogipeko bat ekartea erabagi eban, eta kondulari nagusiari eritxia eskatuta, onek Kepa Mirena esondatu eutsan, eta olan, Agate'ren semeak jardun barriari emon eutsan, baita pozik emon be, lan-saria goratu eutsoen-eta. Pozik egoan, benetan, Kepa Mirena betekizun barriaz, eta amarekin bat etorrita, urtebete baten buruan Agate'k lan egiteari uko egingo leuskiola erabagi zan. Onezaz batean Kepa Mirena'k Ikastola Nagusian ikasle jareitzat ikasketak asiko leukez, lan egiteari jarraitu bear izango leuskio-ta. Gazteak ez eban erabagi izan oraindiño, zelako ikasketa-motari ekingo leuskion, baiña oraindiño illabete batzuk

bere aukeran ebazan. Bitartean, ama-semeak iñoizkorik zoriontsuen bizi izaten ziran. Erabagi zan baita be, arratsaldeetan idaztegi-lanak amaituta, garbiketean egiteko ama etorreanean, Kepa'k jardun onetan lagunduko leuskiola, eta gero alkarrekin etxera. Era onetan Agate'ren egitekoa askozaz arindu zan.

Gau aretan bere azpikeri doillorra ondo asmatuta, Klemen'ek iñongo arrenkura barik ondo lo egin eban. Betidanik, ondoen etorkiona egitea oitu izan zan, eta berekoi itzela izanez gaiñera, berari bost ardura lagun-urkoari egiñiko kaltea. Esan zeitekean barruko edo kontzientzibakoa zala, eta augaitik ez eban kontuan besterik artzen, bere onura baiño, lagun-urkoaren naigabe ta zoritxarrek ardurarik txikiena be emoten ez eutsoela. Izan be, ez eban iñoiz benetako adiskiderik ezagutu, eta oraingo lagun urriak ez ziran besterik griña ta joko-laguntzailleak baiño, alkarrekiko maitasun eta eraspen barik. Lotan asi aurretik uste izan eban, bere asmoak ekarriko leukezan ondoreak ez zirala orren larriak izango. Eta gaiñera, urtenbiderik ez aurkitzekotan, ondoreak askozaz larriagoak izango litzakez bere buruarentzat, Kepa gixajo ta utsalarentzat baiño.

Biaramonean, neskameak goizeko zortziretan iratzarri ebanean, Klemen ikoti bat az jagi, arin baten jantzi, gosari ariña artu, eta astirik galtzeke uriko kaleetan zear, burnibideko geltoki nagusira abiatu zan. Bidarien erreskadea arin joian, eta txandea etorri yakonean, Marid'erako bide-txartela erosi eban. Jarraian, uriko portu-aldean egoan lantegira erri-berebillez abiatu zan. Goiz samar izanik, oraindiño ez egoan iñor idaztegian, eta kutxako gurgiltxua ta giltza erabilliz, barrutik berreun milla laurleko atara, eta estalki batera sartuta, len eroseriko bide-txartelarekin jakeko sakelara sartu eban. Luzaro barik, lantegiko langilleak eltzen asi ziran, oiko jardunai emoteko. Idaztegi jendea eldu baiño ez, Klemen'ek Kepa Mirena'ri dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Kepa, orain bertan, Donostia'ko "Errediza Batuak" eskaturiko gaiak eroateko zama-berebilla etorri da, eta garrantzi andiko bialketa dan ezkerero, zerorrek zamaketea zaindu dagizun gura dot, ia oraingo onetan gaiak iñongo arramazka edo akatsik bage eskuratzen diran. Badirudi bialtegi arduraduna aspaldi onetan ez dala bear beste arduratzen, eta ez dot iñongo kalte-eskaerarik artu gura. Zoaz ba, eta ez biurtu dana amaitu arte.

Joan zan Kepa Mirena, eta andik laster, Klemen iroldegiko alboan egoan jantzitegira joan zan. Iñor ez zala egiztatu ebanean, Kepa Mirena'ren jantzi-kutxearen atea zabaldu, eta soingaiñeko barruko sakelean, gerturik eroian estalkia sartuta, urrats arin eta isillez bere idaztegi biurtu zan. Une aretan, On Endika'k langilleen illabeteko lan-saria ainbatzen ziarduan. Alako baten, Klemen urreratu yakon, eta oiñazezko asperen sakona jaurtik, abopean eta itxura ituna aurpegian zear edatzen yakola,



– Ai ene, On Endika –esan eutsan–, egunotan lo egin eziñik nozu, naigabe itzelak artuta...!

– Zer ba...?

– Etxe onetan iñoiz ez litzakela jazoko uste nebana, gertatu da, On Endika, eta gaiñera, gaiztakeri orren egilleak, gugandik mezede andiak artu dauzala pentsaten dodanean, nire atsekabea are larriagoa da...

Klemen On Endikagana makurtu zan, eta iñork entzun egion bildurrez jota bai' litzan,

– Begira, On Endika –asi zan abopeka–, gure artean lapur bat dogu. Mingarria bada be, autorpen au egiteko ordua eldu da, eta isillean gordetea naiago baneu be, ezin dagiket jasan luzaroago egoera au. Siñistu egistazu, On Endika, aspaldi au niretzat inpernu bat izan da...

Isildu zan une batez, eta gero itxura minduaz, esatekoa guztiz iguingarria bai' litzakion, eta orduko On Endika'ren jakinaia mailla gorenetaiñio piztuta, onetaraxe jarraitu eban:

– Aspaldi onetan, jokabide ez-oitua oartzen asi nintzan Kepa' gan, kezka andi batek artuta-edo. Idaztegiokoak lana amaituta urtetan ziranean, amari laguntzeko atxakiz, emen bakarrik geratzen zan gabeko bederatziak arte-edo. Asikera ez neutsan jokabide orreri garrantzi andirik emon, baiña orain amabost bat egun, goiz baten, diru-kutxea edegiteko darabildan giltza, ezin neban idoro. Dalako giltz ori, maiko karpeta-barruan gorde daroat. Ez neban ezer esan, baiña egun aretan bertan eguberdian diru-etxetik biurtzean, giltza bere oiko lekuan egoan barriro be. Ekintza onek arritu ninduan benetan, eta buruari ekin eta ekin, nai-ta-ez be, nire suzmoak Kepa' gan jarri ziran. Izan be, idazgela onetan, zeuk, neuk eta berak diardugu. Zu edozein suzmotik kanpora zagoz, beraz...

– Baiña, Klemen –eten egin eutsan diruzaiñak–, zer arraio egingo eban Kepa' k giltzaz...?

– Begira, On Endika. Nire ustez, lana amaituta amarekin idaztegitik urten zan bein baten, giltza sakelan eroian, eta biaramonean, idaztegirakoan bidebatez giltzaren aldaki bat edozein tresnategian agindu, eta gero ni kanpoan nintzanean zuk oartu barik nire maiko karpeta-barruan aurregunean lez itzi, eta kitto.

– Zure suzmo ori egi izatekotan be, giltz ori alperrikoa da kutxea edegiteko, gurpiltxua era egokian erabilli bear dalako. Orduan bai erabilli daiteke giltza, eta ondo dakizunez, gurpiltxuaren jarrerea, au da, “BIKA” itza, zeuk eta biok bakarrik ezagutzen dogu, eta ez beste iñork..

– Zure ustea egokia da –eten egin eutsan gazteak–, baiña zeatz bat aztu

egin yatzu, eta auxe alegia: amari garbiketa-lanean eta gero etxerakoan laguntzeko atxakiaz, ordubete bitik gora emen diarduala bakarrik egunoro, eta beraz, naikoa astirik gurpiltxuaren izkiak zeintzuk diran ikasteko.

– Ez dot uste, Klemen, etxe onetan daukagun kutxearen gurpiltxu-jarre-rea, beste barik iñor gai izan leitekenik idoroteko. Kutxea erosi genduanean, saltzailleek ziurtatu euskuen, eziñezkoa zala iñorentzat gurpiltxuaren ezkutua jakitea.

– Geienetan baietz esango neuskizu, baiña gauza jakiña da, atzamarretan ukimen bereiziz ornidutako jendea badala, eta gurpiltxuari ekin eta ekin, izki egokia bere lekuan gertatzen danean, sen bereizi batek iragarten dautse dalako jendeari. Gaiñera, lenengo izki biak aurkituta, au da, “BI”, berez dator urrengoak “KA” izango dirala, gure baltzuaren izenetik artuta.

Isildu zan une batez Klemen, eta On Endika diruzaiñari oraindiño siñisteziñaren aztarnak aurpegian zear edatzen yakozala, gazte zitalak barriro:

– Dana-dala, On Endika, atsekabe andiaz bada be, esan bearrean nozu, gure artean lapur bat dogula, eta dalako orrek idaztegi onetan gurekin diarduala. Giltza ostendu zanetik, gabero amarretan idaztegi onetara biurtua nozu ama-semeak joanda, eta orduan kutxearen egiztapena egiñik, norbaitek dirua ataraten ebalu oartua naz, ez egunoro, baiña bai sarri askotan.

– Eta zergaitik ez nozu lenago jakiñaren gaiñean ipiñi...?

– Ez neban zalapartan jokatu gura. Asiera baten burura etorri yatan, une txarreko ekintza izan zeitekeala, eta bearrizana joanda, egilleak dirua barriro sartuko eban-edo... Baiña ez, ostutakoa gero ta geiago egiten zala oartu nintzanean, benetako lapurketa baten aurrean nengoala jakin neban. Atzo gabean kutxea erabillia ez zala egiztatu neban, baiña dana-dala, gaur goizean suzmo txar batek artuta, Kepa ona etorteko etxetik urten danean, jarraitu egin dautsat, eta uriko Geltoki Nagusian, ez dakit norako bide-txartela erosi egin dau.

Une batez isildu zan Klemen, eta naigabezko sasi-itxuraz,

– Orduan suzmo txar batek jota –jarraitu eban gazte lotsabakoak–, bialketa garrantzitsu baten atxakiaz, bialtegira igorri, eta jarraian kutxea zabaldu-ta, diru-egiztapena egin dot, eta izan be...

– Zer jazo da, Klemen...? –jakin-gurak eraginda eten egin eutsan diruzaiñak–.

– Izugarria da, On Endika, baiña berreun milla laurlekoen utsa oartu dot. Sentipen ezkutu batek eraginda, jantzitegira joan naz, eta Jaungoikoak barkatu beist egiña, baiña bere kaleko jantziak arakatu dautsadaz, eta soingaiñeko barru-sakelan berreun milla laurlekoak, eta Madrid'erako bide-txartel bat aurkitu dodaz...



Klemen'ek larritasun-itxuraz aurpegia eskuen artean ezkutatu eban. Entzundakoa siñistu eziñik, On Endika'k ez ekian zer esan. Diruzaiña arteza ta zintzo-zintzoa zan, eta ezin egikean somatu etxeko lagun bat olako lapur- ketea egiteko gai izan zeitekeanik. Gogoeta sakon bateri emonda gero,

– Aizu, Klemen –itaundu eutsan–, zenbat ostu dausku batatz-beste.

– Nire ainbaketaren arauz, milloi bi inguru...

Diruzaiñak didar bat jaurti eban diruketa itzel ori entzutean, eta kontuen liburua artuta, kutxara joan zan egiztapena egiteko asmoz, baiña orduan,

– Laga ori arratsalderako –eskatu eutsan gazteak–, eta orduan oiko egiz- tapena egingo dozu. Dagokiguna orain eginbide bat idoroatea da.

– Gure eginbidea, Klemen, niretzat beintzat argi-argi dago. Uriko er- tzaintza jakitun ipiñi bear dogu, lapurra lenbailen arrapatu dagian. Bestelan idaztegi onetako gutariko edozein lapurtzat artu izan daiteke, eta ori ez da bidezkoa, lapurra nor dan jakin ezkeru batez be.

Zintzo izanez gaiñera, On Endika zorrotza be bazan. Bere buruan ezin sartu olako pekatua egiteko iñor gai izan leikela. Gaiñera, milloi biren lapur- keta...!

– On Endika –esan eutsan Klemen'ek naigabezko itxuraz–, ikaragarri bayat be, esan bearrean nozu, zuzen zagozala, eta neuk be ez dodala ikusten beste biderik.

Jarraian, egiteko asmoa eztabaidatu eben, eta noizbait bat etorrita, On Endika ertzaindegira abiatu zan. Andik ordubete batera-edo biurtu zan, eta Klemen'egana joanda auxe esan eutsan:

– Arazoa atonduta dago. Ertzain buruari berari, jazotakoa azaldu dautsat, eta onen aburuz lapurra aalik lasterren arrapatu bear da, bide-txartelarenak adierazoten dauanez, iges egiteko asmotan dabilrelako, eta au gertatzekotan zailla izango litzake erruduna baitzea. Orregaitik baiturea eguberdian jazoko da, jendea bazkaltzera urten daitenean, eta olan Kepa saltsaren erdian arrapa- tuko dabe. Ni Kepa'ren atzetik urtengo naz, eta suur-zapiñoa atara dagida- nean, nire aurretik doana baituko dabe. Zer deritxazu asmoari, Klemen...?

“Bikain”eko nagusiaren semeari sasi-naigabezko asperen bat iges egi yakon, eta gero mintzo negartsuz,

– Tamal itzela emoten badaust be, egin bedi bidezkoa dana. Ai ene, aitak lapurreta orreri buruz jakin dagianean...!

– Zorionez, zure aita atzerrian dago, eta biurtu daitenean, arazoa ebatzia izango da. Milloi bi laurleko asko da, baiña “Bikain” baltzua sendo ta osa- suntsua izanik, onik urtengo da.

– Bai, pozik nago araiñegun aita Guinea'rako urten dala an illabete bat

emoteko zur-erosketan. Baiña olan eta guzti be, atsekabe andia artuko dau biurtzean. Itzi dagigun bakean ba,bidegite atsegiña izan dagiala, eta illabete orren ostean, arazoa amaituta, lapurretea gitxiago irudituko yako.

Eguberdian, Donosti'rako bialketea egiñik, Kepa Mirena biurtu zan idaz- tegira, eta kontularitza-saillan eskuratu ebazan urtendako gaien agiriak. Gero, Klemen'ek eskutitz batzuk iradatzi eutsazan.

Pozik urten zan Kepa Mirena egun aretan lantegitik. Larunbat izanik, arratsaldeko jaia ustiatuz, Gabonetako jaiak urrengo astean ospatzeko ziran ezkerro, amarekin sasoiko erosketea egingo leukela erabagi izan eben. Kepa Mirena'k ez eban mundu onetan beste maitasunik amarena baiño. Bion arteko lotureak sendo iraun eban beti, baiña aita il zanetik areago. "Bikain"en idaztegiatan eban garbiketa-jardunetik ama jarei ikustea, mutillaren nairik biziena zan. Bai, egunen baten aalegiñaren-aalegiñez zerbait izatera elduko litzake, eta bere ama guztitariko nasaitasunez inguratuko leuke. Bitartean, lantegian jarduna amaitzen zanean, mutilla amaren begira egoan, eta garbiketea egiten laguntzen eutsan, gero alkarrekin etxera biurtzeko. Arratsalde aretako lenengo orduetan oiko garbialdia amaituta, ama-semeak dendarik-denda joango litzakez, Gabonetako giro alai ta argitsua gozatzeko. Erosketak eginda, urrengo egunean, au da, Igandean, itsasaldetik egurastu atsegiña izango leukie.

Gogoeta oneitan murgildurik joiala, alako baten gizon bik inguratuta beso banari oratu eutsoen, eta areitariko batek domiñaren antzeko ezaugarria erakutsirik,

- Aizu, mutil -zakar esan eutsan-, baituta zagoz. Zatoz gurekin.
- Baiña zer da au...? Ni baituta, zergaitik, baiña...?
- Zatoz gurekin, eta laster jakingo dozu zergaitia.

Kepa Mirena'k teinkada bataz bere burua jaregin gura izan eban, baiña gizon areikandik askatzerik ez.

- Begira, mutil -esan eutsan areitariko batek-, ez zakiguz jarki ez baidozu ezer onik lortuko, eta gaiñera zure buruari kalte egingo dautsazu.

- Zer egin dot, baiña, olan erabilli nagizuen...? Zuek, antza oker zagoze, eta beste baten orde, gaizkillatzat artu nozue.

- Errubakoa ba'zara, ez yatzu iñongo kalterik etorriko. Zatoz ba.

Euren ondoan gelditutako berebil batera sartu eben, eta gidariari ertzainde-gira joateko agintza emonda, abiatu ziran. Bere buruari iñotsan Kepa Mirena'k, guzti aretan oker bat egoala, eta dana argituta, laster joango litzakela etxera. Ordu aretan joan-etorri ugariz beteriko kaleetan zear zuzendu, eta noizbait er-



tzaindegira eldu ziran. Ertzain biek saiestuta, lenengo soruko ate bat jo eben, eta baimena emonda, areto eder apain batera sartu, eta mutillak bere aurrean begi zorrotzeko gizon lodikote bat, mai eder baten atzetik ikusi eban.

– Aizu, nagusi Jauna –bitariko ertzain batek begirunez–, ona emen zure aginduari jarraituz, baitu dogun urlia.

Ertzain nagusiak Kepa Mirena tinko-tinko begiztatu eban, eta txokor bateri mustada luzea emonik,

– Arakatu egizue zeatz-zeatz –agindu eutsen menpekoai–, ia somatzen doguna dakarren.

Aginduta egin eben ertzain biek, eta andik laster oneitariko batek soingaiñeko barru-sakelatik estalki bat atara, eta mai-gaiñean laga eban. Nagusiak estalki-barrutiko diru-mordoa atara ondoren, diru-txartelak zenbatu ebazan, eta,

– Nire suzmoak bete dira –esan eban baituari zorrotz begiraturz–, Ona emen berreun milla laurleko, eta gaiñera, gaur bertan Madrid'era joateko bide-txartela.

Eta gero Kepa Mirena'ri,

– Ez dago txarto –esan eutsan– zuk asmatutako eginbidea. Dirua ostu, eta gero iñork oartu aurretik, arin baten Madrid'era gau-trenaz. Baiña oraingo onetan egitasmoa ustel urten yatzu, eta saltzaren erdian arrapatu zaitugu.

Kepa Mirena'k ezin egikean siñistu jazoten yakona, eta bere buruari itauntzen eutsan amesetan izango ez ete. Ezpaibarik, oker baten oparia zan. Orduan mintzo totelaz,

– Ertzaintzaren Nagusi Jauna –arrenkatu eutsan gizon lodiari–. Nik ezin dagiket ulertu guzti au, eta ziñez diñotsut, ez dautsadala iñoiz zentimo bat bera be iñori kendu. Agi danez, baten batek, dirua ta bide– txartela nire soingaiñeko sakelara sartu, berea zalakoan, eta orra or oker guztia.

– Orduan, dirua ta txartela –esan eutsan ertzain-nagusiak bere aurrean estalkia astinduz– estalki onetan sartu dozuzala ukatzen dozu, ezta...?

– Ziñez diñotsut, Jauna. Nik ez dot ezer ostu, eta arazo guzti au bere garaian argituko dala ziur nago. Jarduten dodan idaztegian danek dakie zelakoa nazan...

– Gizaki bat epaiteko balio dan bakarra, ekintzak dira, eta ez ustekeriak edo beste guzurrak. Begira gazte, nik urte askotan ertzaintza-arazoetan diardut, eta auxe diñotsut argi ta garbi: oba dozu beingoan zure lapurketea autortzea, guzurrezko aiko-maikotan ibilli baiño. Azkenengoz itauntzen dautsut, beraz, zure burua lapurtzat autortzen dozun ala ez.

– Jauna –mintzo urratuaz erantzun eutsan Kepa Mirena'k–, nik ez dot iñongo zer-ikusirik arazo onetan. Ziñez diñotsut...

Une batez isillik iraun eban ertzaiñen buruak, eta noizbait salatuari tinko-tinko begiraturik, bere menpekoai,

– Eroan egizue ziegara –agindu eutsen–, ia an obeto pentsaten dauan.

Menpekoak baituarekin ostentzeko zorian zirala, atean zear auxe jaurti eutsen:

– Berenetan jarraitzen ba'dau, “bigundu” egizue.

Ertzain biek etxepeko ziega estu, zikin, illun batera eroan eben Kepa Mirena, eta danbada bataz itxita joan ziran.

Ziega itxi ta illun a, metro bi luze ta bat zabal izango zan, ate-gaiñeko leiatilla batetik argi urri, ituna, sartzen yakola. Alde bateko luzeran olezko jarleku bat egoan ormeari eratsita. Dardar baten, nekaturik eta jausteko zorian oartzen zan Kepa Mirena, jesarri zan aurpegia eskuen artean estaltzen ebal. Ezin egikean sinistu jazoten yakona, bere amaren irudia gogotik kendu eziñik. Arratsaldea zan orduko, eta semea oraindiño etxera etorri barik, amaika gogoeta larrrik erasoko leuskioe orduko, ulertu eziñik semeari jazoko litzakiona. Baiña laster, idaztegiko laguneren batek jakiñerazoko leuskio, bere biotzeko semea lapurtzat eroan izan ebela ertzaindegira... Noizean bein, larritasunak sorturiko aiene ta intziriak iges egiten yakozan, ezin bestez eskuak alkar biurrikatzen ebazala.

Egoera mingarri onetan zala, ziegako atea zabaldu zan, eta ertzain batek ogitarteko bat eta ontzi bete ur aulki-gaiñean itzi ebazan. Jarraian, itz bat bera be esan barik, atea itxi, eta joan zan. Ogitartekoari agiñak sartzea aalegindu zan Kepa Mirena, baiña ezin egikean iruntsi, eta aulki-gaiñean laga eban; ura osterara, erabatean edan eban ontzia ustu arte. Gero, ordubete bi astiro ta izugarriak igaro ziran, eta noizbait, atea zabaldu zan barriro, mintzo latz batek zutundu ta jarraitu egitsan iñotsala. Ertzaiñaren jarraian etxapetik goiko gela argi batera igon, eta an ertzaiñak bakarrik itzi eban. Leio baten zear kaleko joan-etorria ta oinkarien oiur motelak aditzen ziran, beragan askatasun-joran bizia sortzen yakola. Era onetan leio-aurrean zutunik egoala, atea zabaldu zan, eta eguber-dian mutilla baitu eben ertzain biak sartu ziran. Bata bizardun, lodikote ta itxura zakarrekoa; bigarrena, osterara, argala, bere itxura onberatsuari pentsalari baten usaiña erion. Urteak ziran alkarrekin ziarduela, ertzain “Okerra” ta “Ona”ren bikotea egiñez, eta izan be, ederto alkartzen ziran euren eginkizunetan.

Bizardun lodia, Kepa Mirena ta leioaren arteko mai-ondoan jesarri zan, albo baten argala jesarten zala. Idaztekoa ta txatal bat artuta, “Okerra”k zorrotz begiratzen eutsala, mintzo garratzaz,



– Aizu, “Laubegi” –asi zan–, esan egistazuz lapurketearen gora-beera guztiak, dagokizun autorpena izenpetu dagizun.

– Nik ez dot iñongo lapurketarik egin.

Begiai txinpartak eriezala, “Okerra” jagi zan, eta bere biziko matraillekoa emon eutsan. Iraiñaren sumiña nekez menperaturik, Kepa Mirena’k burua makurtu eban, isil eta geldirik geratzen zala.

– Agiñak ukabilka atarako dautsudaz, “Laubegi” madarikatua...!

Begiak soruan josita, Kepa Mirena’k isillik zirauan. Alako baten, “Ona”ren abotsa bere lagunari akar egiñez, onetaraxe aditu zan:

– Aski bedi, lagun...! Ez dozu iñongo eskubiderik baitu bat edu onetan erabilteko. Ertzaiñai ez dagokigu zigortzea, egia ataratea baiño, eta zure jokabidea ezin dagikedanez jasan, gela onetatik urtengo naz, dagokionari zure zakartasuna salatzeke.

Urten zan ertzain “Ona”, eta orduan “Okerra”k,

– Aizu, “Laubegi” –zemaitu eban–, ordubete baten buruan nire jardunaldia amaitzen yat, eta ori baiño len, autorpena izenpetu dagidazula bear dot. Eta au zure onerako diñotsut.

– Jauna, egin ez dodana, ez dot autortzerik.

Berba oneik esan baiño ez, belarrondoko itzel batek aidean zear jaurti eutsazan betaurrekoak, eta jarraian ukabilkada izugarriek aurpegia maillukatu eutsoen. Ezinbestez, aurpegia babestearren Kepa Mirena’k eskuakaz estaldu eban, baiña ertzaiñak ostikoka jarraitu.

Zigor basati aren pean bere buruaren jabetasuna ia galduña, besteari merezitakoa emoteko zorian zala, zorionez aalegin itzelaz bere burua menperatu eban. Zigorra emoteari jarraitu eutsan ertzaiñak, arnas-estuka gelditu bear izan eban arte, eta orduan,

– “Laubegi” madarikatua, itz egiten irakatsiko dautsut...! Orain artu egizuz ang txokoraiño joan diran zure betaurreko zikiñok...!

Begi lausotuakaz, aztamuka billatu ebazan Kepa Mirena’k betaurrekoak, batetik bestera belaunika. Noizbait, txoko baten idoro ebazan, baiña ipintera-koan oartu zan adartxu bat autsi izan zala, eta suur-gaiñean jarterik ez egoan ezkerro, sakel batera sartu ebazan. Zutuntzeko zorian zala, ertzaiñak ostikada itzela atzekaldean emonda, aozpez igorri eban soru-gaiñera. “Okerra”k barre-santzo zaratatsua jaurtirik,

– Ipiñi, ipiñi egizuz betaurrekoak –irrilari esan eutsan–, ispilluaren aurrean ikusi dagizun zeure aurpegi zikiña...!

Izan be, Kepa Mirena’reñ itxurea negargarrria zan. Suurrean beera odola parrastaka erion; abo anpatutik erdiz autsitako ortz bat ikusten yakon.

Aurpegi andituak amaika ukabilkaden aztarnak erakusten ebazan, eta begi bat odol-batu andipean nekez igarten yakon. Onezaz gaiñera, ankazur ostikatuak ubelduraz beterik ebazan. Papparreko korapilloa itxurabakotua, arkondarea odolez gorrituta, betaurrebako begikada motz eta motela utsari begira, bazirudian gizaki baten txingotea.

Ertzaiñari arnasa lengora biurtu yakonean, mai-ondoan jesarrita, onetara-xe itaundu eutsan barriro:

– Orain urreratu zaitez, eta izenpetu lapurretaren egillea zarala.

Baiña geldi-geldi Kepa Mirena’k isillik zirauan. Mutillegandik autorpenik ez egoala ikusirik, mintzo zemaikorraz,

– Begira, “Laubegi” zikiña –esan eutsan “Okerra”k–, zeregin batera joan egin bear dot, baiña gero emen izango nozu ostera, eta orduan agiria izenpetu gura ez ba’dozu, leku onetatik ez zara bizirik urtengo.

Au esanik, jagi, eta zemaikor begiratu ondoren, ate-danbada bat az urten zan gelatik. Kepa Mirena indarren azkenean oartzen zan, eta ez jaustearren aulki baten jesarri bear izan eban. Apurtuta, apalduta, minduta sentitzen zan, eta une batez eriotza nai izan eban, baiña barruan eban kemen ezkutu batek jarkitera bultzaten eban, eta orduan bere buruari zin egin eutsan aulkieriari jarkiko litzakiola azkeneraiño. Gogoeta oneitan zala, esku bat lepoan kokatu yakon, norbaitek mintzo arraiaz auxe zirautsala:

– Tamal dot, mutil, zu olan ikustea. Nire laguna sutua da, eta batzutan esku luzekoa, baiña benetan esateko barru onekoa da, ondo ezagutzen dot-eta. Dana-dala, oraingo au larregia da, eta ertzainburuagana joango naz dagokidan salakuntza egiteko

Ertzain “Ona” zan, eta so egiten eutsan adiskidetsu. Izan be, jasandako zigor basatiaren ostean, edu aretan erabili izatea aringarria zan. Alako baten ertzaiñak,

– Non dozuz betaurrekoak...? –galde egin eutsan–.

Sakeletik atara ebazan Kepa Mirena’k, eta,

– Zure lagunak –esan eutsan–, ukabilkada bat az lurrera jaurti daustaz, eta adartxu bat autsi yake.

Orduan ertzain “Ona”k eskuari oratu eutsan, eta alboan egoan iroldegi batera sartu-erazo eban auxe iñotsala:

– Garbitu egizu aurpegia, gizaki baten itxurea artu dagizun, eta jarraian biok adiskideen antzera berba egingo dogu.

Mindutako aurpegia astiro ta arduratsu garbitu ondoren, Kepa Mirena’k billo naasiak orraztu ebazan. Ain zuzen be, orain askozaz obeto sentitzen zan, eta ertzain “Ona”rekiko eskerronezko oarpenaz beterik, gelara biurtu zan.



Ertzaiñak aulki bat eskiñi eutsan, eta bera maiaz bestaldean jesarten zala, kuxtatilla batetik zigarrotxu bat eskiñi eutsan. Errelari ez izanik, Kepa Mirena'k eskerrak emonik baztertu eban. Ertzaiña atzerantz egokitu zan besaulkian, eta ke-bafada urdinzka jaurtirik, maitero itz egiten asi yakon onetaraxe:

– Ezin dagikezu asmatu zein atsedengarria dan, norberaren nasaigarriztat noizean bein zigarrotxu bateri pautada batzuk emotea. Gure egitekoa txarretarikoa da, gaizkilleak arrapatuz gizarteari kalterik ez egioen, baiña ekintza onetan munduko zitalkeririk nazkagarrien artean bizi izan bear dogu. Iroldegi baten eragin bear antzekoa da, satza ta zikinkerien sundaz beti inguraturik, gogoaren edertasunak txastau eziñik... Augaitik, gutariko bakanen bat latz eta zakarra azalez biurtu daiten ez da arritzekoa, nire lagunari, len aztertu dautsuanari gertatu yakon lez. Baiña ziñez diñotsut gaiztoa ez dala, ez urrik emon be...Eguneroko eginkizun zantarrak orretara bultzatu arren, barru oneko laguna da, eta bearrezkoa izanik, lagun-urkoaren alde bere bizitza eskiñiko leuke. Ni, baiña, beste eritxikoa naz, edozein gaizkillegan gure antzeko gizasemea ikusten dodala beti, danok Jaungoikoaren semeak gara-ta...

Luzaro samar irauñ eban era onetan ertzain “Ona”k, Kepa Mirena'k bere buruari itauntzen eutsala, noraiño joan nai eban berbalapiko arek. Alako baten, bakarrizketeari eten egin eutsan ertzaiñak, eta isillune labur baten ostean,

– Eta orain, lagun –itxura maitetsuz esan eutsan–, zergaitik ez dozu zure burua lapurketearen egilletzat autortzen...? Aulkeri-une baten, egokia ez dana edonork egin dagike, baiña egiñak egin, gure ekintzaren ondoreari aurre egin bear dautsagu.

– Zuzen zagoz, Jauna –erantzun eutsan Kepa Mirena'k–, eta zurekin bat nator, baiña arazo onetan ezin naitekizu lapurtzat autortu, egozten daustena ez dodalako egin.

– Tamal dot, lagun, baiña zure jokabide orrek arazoa txarragotuko dautsu.

– Baiña zelan autortu guzur bat...?

– Ai ene...! Lagundu gura izan dautsut, eta dana alperrik...! Ez al-dozu ikusten, zure setakeri ori kalterako izango dozunik...? Epaikariek zuzentasuna nai dabe oroz gain, eta egia ukatzen dauan salatu baten aurrean, ebazpena gogortu egiten dabe. Gaizkille izanez gaiñera, guzurti.. Ez orixe...!

– Baiña barriro be badiñotsut arazo onetan errubakoa nazala...

Azken berba oneik entzutean, ertzain “Ona” jagi zan, eta baitua itxura errukitsuz begiztatzen ebala,

– Orduan, or konpon –esan eutsan–. Nire barrukoaz bakean nago, gizaki

artez bateri dagokiona egin dodalako, eta gero gerokoak... Bildur naz, baiña, nire lagunak gauzak beste ikuspegi batetik artuta, txarto erabilli zagizan barriro...

Biotz-ikara batek menperatu eban Kepa Mirena, lengo astiñaldia gogoratuz, baiña isillik irauñ eban, begi motelak utsari begira. Jarraian, ertzaiñak menpeko bateri agindu eutsan baitua ziegara eroateko, eta etxapeko gelatxu its, illunera, urrats kolokaz biurtu zan Kepa Mirena. Zorionez, orduko, bere jardunaldia amaituta “Okerra” etxera joana zan, eta baitua bakean itzi eban.

Gau betea zala, ziegako atea zabaldu zan, eta menpeko batek ogitarteko bat eta kafe-esnea ekarri eutsazan. Ate-gaiñeko leiatillaren zear etorkion argi urribean, Kepa Mirena jaten asi zan, baiña ogitartekoaren erdia nekez iruntsita, laga eban, eta kafe-esnea utsiturik, nekearen-nekez jarlekuan etzan zan. Baitu izan zanetik ordu gitxi batzuk igaro izan arren, berarentzat aldi luze amaibakoa billakatu izan yakon. Ezin egikean ama gogotik kendu, aren nekaldi izugarria asmatzen ebala, semea baitua izan zalaren oldozkunak etenbarik eraso. Gero, burura etorkion, edozein unean ziegako atea zabalduko litzakela, eta gora barriro beste itaunketa basati bat jasateko. Zorionez, gau aretan bakean itxi eben. Izan be, ostuketa arrunta zan, eta baziran beste arazo garrantzitsuago batzuk ertzaintzarentzat. Onezaz gaiñera, Larunbat-Igande arteko gaba izanik, kaleak, dantza-lekuak, etab. zaintza estuagoa eskatzen eben. Noizbait, lo urduri batek artu eban eta amestxarrek jazartuta, olezko jarleku aretatik jausteko zorian zala, orduak igaro ziran, eta goizaldean soiña minduta ebala, jesarri zan.

Andik laster, gosari ariña ekarri eutsoen, eta jarlekuan jesarrita, ordu larrien jarraigo amaibakoan itxaron eta itxaron zeri ez ekiala. Igandea zan eta augaitik-edo, bakean itzi eben, bere buruari itauntzen eutsala Kepa Mirena'k, bera aztu ete eben... Baiña ez, urrengo goizean gosaria artu ta ordubete batera, ertzain batek jarraitu egiola agindu, eta ertzainburuaren gelara eroan eban.

Astelen goiz aretan, oi eban lez zortziretan inguru, ertzainburua bere idaztegira eldu zanean, aurregunean jazotakoaren barriak irakurten asi zan, eta oar batzuk idatzi ondoren, ertzaindegian egozan baitutakoen izen-zerrendea irakurri eban. Alako baten, begiz izen bat jo eban, Orueta tar Kepa Mirena. Zer billakatuko zan larunbatean baitu izandako gaztea... Barruko deigailuaz agindu bat egin eban. Andik laster, “Oker” eta “Ona” baimena eskatuta sartu ziran.

– Nagusi Jauna, zure aginduetara gaituzu.

– Gauza bat jakin nai neuke, eta auxe alegia: zertan amaitu da Kepa Mirena'ren arazoa...? Badira egun bi baitu zala.



– Begira, nagusi –asi zan “Okerra”–, bide guztiak erabili arren be, ezin izan dogu bere burua erruduntzat autortu dagiala. Niretara “bigundu” egin dot, baiña alperrik. Guzurre dirudi, abadegai baten itxura dauan “Laubegi” ori orren egos-gogorra azaldu daitela. Ez dot egundo be, bera baizen tematsua danik ikusi. Narrutuko bagenduke be, ez dot uste ezer lortuko gendukenik beragandik.

– Neu be –autuan tartetu zan “Ona” –saiatu naz niretara autorpen ori lortzeko, baiña sermoi luzea erabili eta nire burua laguntzat agertu arren, ez dot beragandik ezer lortu. Ez dakit zelako egurrez egiña dan baiña arrituta nago.

Une batez ertzainburuak oldozkor iraun eban, eta gero menpekoai,

– Gure aldetik –esan eutsen– besterik ezean, arazoa amaitutzat joko dogu, dalako mutilla epaikariagana bialduz. Atondu oiko zeatzak, eta eguberdian auzitegiko txanda-epaikariagana eroango dozue, baituarekin zer egin ebatzi dagian. Joan zaiteze ta gertutu dana. Edozelan be, etorri dakidala baitua, ori baiño len autu bat berarekin izan gura dot-eta.

Kepa Mirena ertzainburuaren idaztegiara sartu zanean, onek idazten ziar-  
duan. Burua maitik jaso, eta baitua begiztatu ebanean, zur eta lur geratu zan. Egun bi lenago ertzaindegira sartutako mutil eder sendoak, giza-utzikiña zirudian. Ikusmen laburreko begi motelak utsari begira, aurpegia jote-aztarnaz andituta, arkondara zikiña odolez orbanduta, ule naroak naasita, eta indarren mugaraiño nekatuta aurrean ikusten eban giza-txingotea, bere lanean gogorturiko ertzaiña izan arren, unkiagarria zan. Une batez zer esan ez ekiala geratu zan ertzainburua, eta gero,

– Kaixo, mutil –esan eutsan mintzo bigunaz–, asiera baten ez zaitut ezagutu; betaurreko barik ikusten zaitudalako izango da, urrean. Baiña jesarri zaitez orko aulkian.

Erdi-aztamuka billatu eban aulkia Kepa Mirena’k, eta jesarri zan. Orduan ertzainburuak,

– Aizu, gazte –itaundu eutsan– zergaitik ez dozuz ipinten betaurrekoak...?

Kepa Mirena’k atara ebazan sakelatik, eta,

– Autsi yake adartxu bat –erantzun eutsan–, eta ezin dodaz jarri.

– Autsi...? Zelan autsi yatzuz ba...?

– Zure ertzainetako batek zartada bataz erauzi, eta sorua jotean gertatu da ori.

Ertzainburuak bere kautan auxe eban asarez: “Agindu neutsen zeozer biguntzeko, baiña ez orraiño. Nire menpekoak esku-luze dira, eta bein asita, neurritasuna galtzen dabe. Agiri da, gazte au emen txarto erabilia izan

dala, eta txanda-epaikariak itsu ez ba’da, bereala oartuko dau, begi-inguran dauan odolbatu itzelagaitik batez be...” Gero, baituari itz egiñez,

– Begira, gazte: tamal dot zu orren txarto erabili izanagaitik, baiña gauzatu orreik batzutan uxaeziñak dira. Dana-dala, orren egilleari kontuak eskatuko yakoz, eta merezitakoa artuko dau, bai orixe...! Baiña ori alde batera itzirik, zergaitik ez dozu lapurreta orren autorpena egin gura...?

– Jauna, nik ez dot ezer ostu.

– Orduan, zelan joan da diru ori zure sakelara...?

Jagi zan ertzainburua, eta diru-estalkia Kepa Mirena’re aurrean astinduz,

– Esan gura daustazu, onen barruan dagozan diru ta bide-txartela ez dozuzala ezagutzen...?

Bapatean, biotz-ikara batek artuta, Kepa Mirena zoratzeko zorian billakatu zan... Estalkiari erion usaiña...! Ondo ezagutzen eban berak idaztegi-  
txoko baten egoan alkanfor-zurez egindako idaz-mai ederra. Sortaldeko ertilana zan, amaika iruditxu bakanegaz zur-landua. On Klemen’ek Txina’ra egindako txango batetik ekarririkoa zan, eta semeari benetan atsegin izan yakon ezkerero, oneri emon eutsan. Idaz-mai aretako giltza eban bakarra, Klemen zan, eta barruan gordeten zan guztiari alkanfor usain gozoa erion...

Aalegin andia egiñez, murgilduta egoan zorabio antzeko aretatik bere senetara etorten zanean, ertzainburuak estalkia mai-gaiñean lagata, auxe inotsan:

– Begira, gazte, agiri dana ukatzea alperrikoa dozu. Zure jokaera orrek uste dozun baiño kalte geiago ekarriko dautsu. Eta ona ezkerero, non dago milloiraiño enparaua...? Atzera emoten ez ba’dozu ostutako guztia, zure egoerea naikoa larri biurtuko da.

Kepa Mirena’k, baiña, ez eutsan entzuten. Azken egun bi areitan etenbarrik jazarten eban itauna, argitua zan noizbait: Klemen zitala zantarkeriaren egillea zan. Orain buruaustearen zatiak alkartzen asten ziran. Goiz aretan Donosti’rako erredizen bialketea jagotearren atxakiz, Klemen’ek gordetegi-  
igorri eban gauzak bere aukeran atontzeko. Erraza gertatu yakon diruz beteriko estalkia bere soingaiñeko sakelara sartzea, ertzaindegira joan, eta baiturea atontzea. Onaiño gauzak ondo samar alkartzen ziran, baiña zein zan jokaera ziztrinaren zioa...?

Une aretan, ertzainburuak auxe zirautsan:

– Azkenengoz eskatzen dautsut erruduntzat autortu zaitezala, bestelan zuretzat are txarrago izango da. Torizu luma au, eta izenpetu agiri onen oiñean.

Au esatean, idazteko bat eskiñi eutsan, baiña Kepa Mirena’k:



– Ezin dagiket, Jauna, errubakoa naz-eta. Ez dakit zelan agertu dan estalki ori nire sakelan, baiña baten batek jakingo dau ori.

– Nork, Baiña...?

– Suzmo txar bat gogotik yabilt, baiña oraingoz ezin dot egiztatu.

– Ez etorri nigana ipuiñakaz. Agiria izenpetu gura ez ba’dozu, or konpon. Eguberdian txandako epaikariagana eroango zaitugu, aren aurrean autorpena egin dagizun.

Txiliña jo eban, eta ertzain bat baitua eroateko sartzeko zorian zala, Kepa Mirena’ri auxe esan eutsan:

– Aizu, gazte, epaikariak itauntzen ba’dautsu, zelan sortu yatzun beginguruko ubeldura ori, kontuz gero esaten dautsazunaz. Emen egiña dala esaten ba’dautsazu, gaizki-esaletzat salatuko zaitugu, eta orduan jazorikoa egiztatu bear izango dozu, eta ziñez auxe diñotsut: Nekez izango yatzu dalako egiztapena egitea.

Une aretan, menpeko bat sartu, eta etxepeko ziegara lagundu eutsan. Gelatik urten zanean, nagusiak ertzain “Ona” etorteko agindu eban, eta au etorri zanean,

– Aizu –esan eutsan–, amaiketan “Laubegi” epaitegira eroango dozue epaikariak autorpena artu dagion. Baiña orren aurretik, baituaren betaurreko adartxua, kalez bestaldean dagoan betaurrelariagana atontzeko eroango dozu, eta onezaz gaiñera, arkondara garbi bat emongo dautsazu, odolez orbandua ordezteko. Auzitegitik biurtu zaitezenean arazoa amaitutzat emongo dogu.

– Bai, nagusi Jauna.

Ziegan, Kepa Mirena’k epaitegira joateko ordua itxaroten eban, eta etortekoak zelanbait kezkatzen baeban be, neurri baten pozik egoan zulo zikin aretatik urteteko, baita ertzaindegiko giro ta jendea atzean izteko be. Baiña ezin egikean burutik kendu Klemen’en zitalkeria, gero ta argiago gauza bat agertzen yakola, eta auxe alegia: milloi biren lapurketeaz salatzen ba’eben, orrek esan gura eban berak eretia eukala kutxea zabaltzeko, baiña zelan egiztatu au edegiteko giltzarik ez izanda, ezta izki-jarreraren ezagutzerik be...? Izan be, zailla izango litzake bera lapurra zala egiztatzea. Oldozkun onek baretu eban Kepa Mirena. Gogoeta oneitan zala, ziegako atea zabaldu, eta ertzain “Ona” agertu zan.

– Aizu, lagun –esan eutsan–, ona emen zure betaurrekoak konponduta, eta arkondara garbi bat, ordu lauren baten buruan nire lagunak eta biok epaitegira eroango zaitugu-ta.

– Ipiñita dodanaz ara joan naiago dot, neuria dalako.

– Gure nagusiaren agindua dozu ori, eta nai-ta-ez aren esanetara makurtu bear.

– Jakiña, leku onetako erabiltea zabaldu ez daiten.

Ertzain “Ona”k ez eutsan erantzunik emon, eta joan zan. Luzaro barik biurtu, eta esku-lotukiak jarrita, leiatillabako berebil batera sartu-erazo eban. Ertzain “Okerra” ta “Ona”ren artean jesarrita, kaleetan zear epaitegira joan ziran. Ona elduta, zurubi eder baten gora igon-erazo eben eta ango morroi bateri, txanda-epaikariagana, baitu bat ekarrela esan eutsoen. Itxaron bitartean, aulki baten jesarri ziran. Igarobidetik jende asko batetik bestera joian, eta lotsaz beterik beragan oinkarien begikadak untzatuak oartzean, iñoiz ez ezaguturiko ikara gorriak, Kepa Mirena’ri burua makurtzera beartu eutsan. Andik ordu-erdira gitxi gora beera, lengo morroiak areto apain bateraiño lagundu eutsen, eta ertzain biak alboan ebazala, Kepa Mirena’k epaikari baten aurrean bere burua ikusi eban.

Gazte itxurakoa zan txanda-epaikaria, eta ertzain biek eskuraturik, agiria irakurri aurretik, jesarri zeitezana agindu eutsen, eta jarraian, ertzaintzaren salakuntza ardurarik andienaz irakurten asi zan. Noizean bein, une batez, irakurketeari eten egiten eutsan, baituari begiratzeko barrero jarraitu baiño len. Amaitu ebanean,

– Aizu, gazte –esan eutsan Kepa Mirena’ri–, lapurketearen egiztapenak larriak izan arren, zuk ez dozu zure burua lapurtzat autortu gura. Zergaitik...?

– Errubakoa nazalako.

– Egiztapenak larri-larriak dira. Emen salatzen yatzu milloi biren lapurtzat. Non dago diru ori...?

– Iñon be ez, ez dot ostu-ta.

– Begira, mutil, niri dagokit zu jareitu, ala espetxera bialdu epaiketea jazo arte, baiña orren aurretik, ziurtasunik andienaz ebatzi gura dot, eta orretarako lagundu egin bear daustazu. Emen argi agertzen da, baitu zinduzenean eskuen artean daukadan estalki onen barruan, berrogei milla ogerleko zeroizala, eta ori ukaeziña dan ezkerro, oba zenduke zure burua lapurtzat autortzea, eta enparauko dirua atzera emotea. Olan izatekotan, emongo yatzun zigorra askozaz ariñagoa izango da.

– Jauna, ezin dagiket autortu, egin ez dodana.

– Aizu, mutil, aultasun-une baten egiñikoa, lenengoz izanik batez be, barkagarria da, baiña damu-aztarnarik ez danean, zigorra andiagooa izan oi da.

Begiak soruan josita, Kepa Mirena’k ez eutsan erantzun. Au ikusirik epaikariak barrero,



– Orduan ez dot beste biderik, zu espetxera bialtzea baiño epaiketea ger-tatu arte. Ertzaiñok, eroan baitua espetxera.

Ertzaiñek inguratuta jagi zan Kepa Mirena, eta orduan epaikari argitzai-leak, baituaren begi-inguruko ubeldura ikusirik,

– Aizu, mutil –galdetu eutsan–, zelan sortu yatzu ubeldura ori...?

Une batez, Kepa Mirena jazotakoaren egia esateko zorian aurkitu zan, baiña ertzainburuaren oarra gomutara ekarrita,

– Ez dakit, Jauna –erantzun eutsan–. Ez naz gogoratzen.

Epai-kari argitzailleak suzmo txarrak artuta begiratu eutsan, eta beste barik gelatik urten zan. Gero, kalean begira eban berebillera ertzaiñekin sartu zan, eta kaleetan gora uriko espetxera abiatu ziran. Au aldamenetan egoan, eta ordu-erdi igarorik, zibiliek zaindutako burdiñezko atetzar batera eldu ziran. Ertzain batek eskuratu eutsan epaitegiko agiria irakurrita gero, atezai-ñak bide egin, eta berebilla beste ate baten aurrean gelditu zan. Emen, giltzari batek baitua gela batera sartuerazo eban, eta bertan egoan espetxelari batek, izen abizenak eta guztitariko gora-beerak itaundu eutsazan. Azkenean, atza-marretako atzak irarri ebazan txatal baten, eta jarraian espetxeratuen jantzia emon eutsan. Kalekoa arasa batera sartuta, eun zakarreko soiñeko itsusi are-kin, Kepa Mirena ez zan iñongo gizakia, zenbaki bat baiño. Onen ostean, beste espetxelari batek lagunduta, burdiñezko ate bi zearkatu ebazan. Gero, ezker-eskoi gelen erreskadak ertzeturiko igarobide zabal baten zear, gelatxuen aldera eldu ziran. Ona elduta, giltz andi bat az edegirik, espetxelariak ezer esan barik sartu-erazo eban.

Leiatilla txiki bat az argituriko gelatxuak, alde bateko txokoan oatzea eban, eta bestaldekoan irola ta konketea. Atea itxi zanean, Kepa Mirena oatze-ko ertzean jesarri zan, eta etsiak artuta intziri luze amaibakoaz oiñaze larriari emon eutsan. Iru egun soillik igaro izan ziran baitu ebenetik, eta bazirudian aspaldi luze izugarria igaroa zala. Bere egoera negargarriaren erruduna, Klemen, bere nagusia zan, eta konturatzen ez bazan be, gorroto eutsan, gero ta andiago egiten yakon sentipenaz. Zergaitik egin eutsan zitalkeri siñistezin a...? Kepa Mirena'k ezin egikean ekintza aren zergaitia ulertu, egoera larri aretan bere adimena laiñotuta ebalako, urrean, baiña luzaro barik argi-argi ikusiko leuke dana.

Geien mintzen ebana, baiña, amak jasango leuken oiñaze bizia zan. Gaixoa, bera baiño larriago aurkituko litzake, seme kutunari jazoten yakona ulertu eziñik. Aita il zanetik, ama-semeen arteko maitasun-lokarria are andia-goia billakatua zan, eta euren bakartasunak estuago alkartzen ebazan. Iru egun lenago, Gabonetako jaiak ospatzeko poztasunez gaiñezka egozanean eta

sasoiko erosketak egiteko dendarik-denda joatea erabagi izan ebenean, bapa-teko zorigatxak jota egozan. Oldozkun oneitan ziarduala, gelatxuko atea zabaldu, eta espetxelariak lagunduta, bizargiña sartu zan.

Atxillo zan onek, espetxera sartzen ziran guztiai ulea mozten yakiel-a azaldu eutsan, eta gaiñera, gelatxuan itxita iru eguneko epea jasan bear-ko leu-kela bakartasun osoan. Ule naroko bere burua bizargiñaren artazien pean kaska-motz billakatzen zala, lengo oiñaze biziari, apaldua izatearen sentipena geitzen yakon, eta bizargiñaren autuari jaramonik egiteke, Kepa Mirena'k itz bat bera be esan barik iraun eban. Noizbait, lana amaituta bizargiña joan zan, eta bakarrik geratu zanean, gero ta lur-jotago oartu zan. Illuntzean atea edegi zan barriro, eta ezer esan barik giltzari batek opiltxu bat eta erratillu sukalki ekarri eutsazan. Atea itxi zanean, eta goserik izan ez arren, jabetzen eban makaltasunari aurre egiteko, zeozer jan bear izango ebala ebatzi eban, eta jaten asi zan. Jakia ez yakon atsegin, baiña aalegin andia egiñik, geiena irun-tsi eban.

Gau betea egin zanean, ate-danbaden artean giltzariek lagunduta, espe-txelariak baituen zenbaketea egin eben. Bere atea edegi zanean, mintzo zemaikor batek,

– Zutunik...! –oiu egin eutsan–, Atea edegiten dan bakotxean zutundu bear da, bestelan bizkarra berotuko dautsut...!

Aginduta lez egin eban. Gero, espetxelariak onetaraxe jarraitu eban:

– Txiliñaren jote luzea entzun dagizunean, oera sartzeko deia izango da, eta biar goizean beste jote luze bat entzutean, jagiko zara, oea atonduko dozu, eta garbitu ondoren, gosaria banatuko yatzu. Entzun...?

– Bai.

– Bai, Jauna, erantzun bear dozu...! Dirudianez arroxko zara, baiña laster irakatsiko dautsuguz leku onetako legeak. Entzun...?

– Bai, Jauna.

Espetxelariak begikada zorrotza jaurti eutsan, eta danbada bat az atea itxi-ta, zenbaketea jarraitu eban. Lo-deia aditu zanean, nekearen-nekez apurtuta, Kepa Mirena oeratu zan atsedean artzeko asmotan, baiña lo urduri ta amestxa-rruz beterik izan eban.

Iru egun luze, izugarri igaro ziran bakartasun oso aretan, guztitariko oldozkun jasangaitzek jazartuta. Laugarrena asten zanean, espetxelari batek,

– Artu egizuz lastamarraga, burusiak eta burukoa –esan eutsan–, eta jarraitu egistazu. Bakarraldia amaituta, ogei ta amar laguneko dan 3'gn gelan egokituko zara, eta zure onerako auxe diñotsut: egotaldi txarra ez ba' dozu jasan nai, egokitu zaitez espetxeko legeetara, eta kontuz beste espetxekidee-



kin burrukan egitea, zure burua ez ba' dozu txarto ikusi gura. Espetxe onetan, guztietan lez, gaizkille asko dago, eta aldiak artuta dagozanean...

Espetxea iru soru-maillakoa zan. Beekaldean idaztegi bi egozan, bata espetxelari arruntentzat, eta bestea jardun goragokoentzat. Mailla onetan be, txirriotegi ta garbitegia kokatzen ziran, zigor-gelatxuak, eta espetxe-lanetan ziarduenen atxilloenak. Gaiñetik soru-mailla bi egozan, baktotxean ogei ta amar baituentzako gela zabal batzuk kokatzen zirala. Lenengo maillean egoan oneitariko areto batera eroan eban Kepa Mirena espetxelariak, eta 3'gn "aretoa" idatzita eban ate bat zabaldua, sartu zeiten agindu eutsan esanez,

– Auxe izango da zure gela. Egokitu zaitez zure aukeran.

Eta au esanik, espetxelariak alde egin eban. Egun otz eta euritsua izanik, atxilloek larraiñera urteterik ezean, kiribildutako illazkitan jesarrita egozan, batzuk autuan, besteak irakurten, angoak buru-makur gogoeta illunetan murgilduta. Kepa Mirena sartu zanean, isillune osoa edatu zan, sartu-barria ikusnaiaz aztertzen ebela, eta gero, baktotxak lengo jardunari emon eutsan. Zer egin ez ekiala, Kepa Mirena'k lastamarraga soru-gaiñean itzi, eta begiakaz leku utsen bat billatu eban. Lau ormen luzeeran jarrita egozan lastamarragak, erdikunea jarej geratu zeiten. Aalegintzen bazan be, Kepa Mirena'k ezin egi-kean utsunerik ikusi bere illazkia kokatzeko. Edu onetan ezpaitsu egoala, lagun bat urreratu yakon, eta mintzo zakarraz,

– Aizu, "Laubegi" orrek, eun pezeta emoten ba' daustazuz lekuri egingo dautsut, edo emongo daustazuzala aal dozunean itz emotekotan.

Arriutako Kepa Mirena'k aurrean eban gizontzar indartsuari zur eta lur eginda begiratu eutsan, ulertu eziñik espetxean lo egiteko ordaindu bear izango ebala. Era onetan egoala, begikada ta jas irmotako beste lagun bat urreratu yakon, eta gizontzarrari lepoan ukutuz,

– Aizu, Mingo –esan eutsan–, laga mutil au bakean.

Au entzutean, Kepa Mirena'k uste izan eban, dalako Mingo zakarrak, olan itz egiten eutsana furrustada bat az xatuko leukela, baiña arrituta egiztatu eban, Mingo anditzarrak itzik esan barik alde egiten ebala. Agiri zan Mingo'k besteari bildur andia eutsala. Orduan onek,

– Aizu, lagun –esan eutsan Kepa Mirena'ri–, itxaron apur baten eta utsune bat egingo dautsut.

Au esanik, jesarrita egozan lagun batzua, illazkiak estutu egiezan utsune bat egiteko agindu eutsen, eta andik laster, Kepa Mirena'k lekua izan eban. Orduan, bere ongilleagana joanda,

– Ez dakit zelan deritxazun– esan eutsan–, baiña eskertu nai dautsut nire alde egiñikoa.

– Niri "Txinbo" esaten dauste, baiña ez daustazu eskerrik emon bear.

Orduan oartzen asi zan Kepa Mirena, aurrean eban gizona apartekoa zala. Goibe ertaiñekoa zan, eta ogei ta amar urte inguruko gizon areri barrutik indar bakana erion. Begien so bildurbakoak, izaera zangarreko gizakia iragarten eban, zeozer bigunduta irribarre egiten ebanean. Oartzeke, Txinbo eritxan lagun arentzat erkarpen andia oartzen asi zan.

Andik laster, atea edegi zan, eta espetxelari batek iragarri eban, lantegian ziarduenak oiko zeregiñetara joan zeitezala. Au entzutean, gelako batzuk, artean Txinbo zala, urten ziran, eta atea barriro itxita, Kepa Mirena illazkiaren gaiñean jesarri zan, bere egoera larria ta amaren oiñazea burutik kendu eziñik.

Eguberdian, atea zabaldu zan barriro atxilloak irolara joan zeitezana, eta jarraian, bazkaria banandu eutsien. Txilistazko lapikokoa zan, eta ano baktotxarekin ogitxu ta larraran bana. Janaria erdipurdikoa zan, baiña ordurarte ia barau osoa jasandako Kepa Mirena'k, bere zatia arin baten garbitu eban.

Eguraldia txarra zan ezkerro, larraiñerako urtenaldirik ez eben atxilloek, oiko egurastua izateko. Augaitik, arratsaldea amaibakoa azaldu zan, eta areago lagun zantarkeri ta birao ugariek inguratuta. Onezaz gaiñera, negua izanik, leiatilla geienak itxita egozan, eta barruko giroa nazkagarri ta kirastsua zan. Illuntze-irian, espetxeko lantegian ziarduenak gelara biurtu ziran, eta irolarako urtenaldia izanik, eguberdikoaz aren baten egoan aparta banandu eutsien, eta bereala espetxelari batek atxilloen zenbaketea egiñik, lo-aurretik illazkiak edatuta, etzan ziran. Zorionez, Kepa Mirena'ren ondoan Txinbo egoan, eta onen aboz espetxeko gora-beerak ezagutzen asi zan. Amarretan, txilin bañek lo-aldia iragarri eban, eta argiak itzungita, isiltasuna danaz jabetu zan.

Egun batzuk igaro ziran, eta Igandea elduta, oi lez abade batek mezea emon eban beekaldeko igarobide zabal baten. Betiko oitureari jarraituz Kepa Mirena'k mezea entzun eban, baita otoi luze bat az bera ta amaren alde eskatu be. Egun aretan berantetsia egoan eguberdia eldu zeiten, Igandea ikerraldiak egiteko eguna zan-eta. Izan be, amabiak doi-doi ziran, lagun batek ikerraldia ebenen izenak aretorik-areto aldarrikatu ebazan. Bere izena entzutean, Kepa Mirena ikoti bat az jagi, eta beste lagunekin ikertegira joan zan. Txanda baktotxa ogei bat lagunentzat izaten zan. Sartu zanean, burni-sare bikotxaren zear ikerleen erreskadea begiz aztertu eban. Noizbait, txoko baten bere amaren irudi ezaiña ikusi eban, eta araturik, burdin-sareari eskuakaz oratuz,

– Ama...! –oiu egin eban–.

Agate gaixoa negar baten egoan, eta ainbeste malko -isurtzeak gorritutako begiakaz semea ikusi ebanean,



– Kepatxu, nire Kepa Mirena...! –oiu egin eban gaixoak–.

Eta beste barbarik jaurti eziñik, negar etsi bateri emon eutsan. Noizbait, semearen itz adoretseuek zerbait baretuta,

– Kepa Mirena –itaundu eutsan–, zer jazo yatzu, baiña...? Jakingo ba'zendu egunokaz igaro dodan larrialdia...! Etxera ez zintzazala biurtzen ikusirik, eta argibideren bat izateko lantegira joateko zorian nintzala, zure lagun bat etorri yatan, eta ertzain bik baitua izan zintzazala esan eustan. Arin baten ertzaindegira joan, baiña salakuntza larriagaitik baituta izanik, ezin zengikedazala ikusi, esan eusten. Arren eta arrenka eskatu neutsen unetxu batez bederik, zu ikusten laga nengien, baiña dana alperrik gertatu zan. Egunoro ertzaindegira joaten jarraitu neban, eta noizbait esan eusten espetxera eroan zinduezala. Jarraian ona etorri nintzan, baiña urrengo Iganderarte ikusterik ez nebala esan eusten. Au dala-ta, emen nozu gaur, seme, eta izan be, zoratzeko zorian nozu jazo dana ulertu eziñik. Gauza asko ulertu dagiket, baiña zu Kepa Mirena lapurtzat salatua izatea, orrek nire burura ez dau sar-terrik. Esan egistazu dana, seme...

Orduan Kepa Mirena'k jazotakoa edestu eutsan. Amaitzean, Agate'k,

– Baiña seme –esan eutsan–, zu giltzapean izateko, diru ori zeuk ostu dozula egiztatu bear izango dabe, ezta...?

– Bai, ama, eta ori ez da erraza izango errubakoa naz-eta. Diru ori beste batek ostu egin dau.

– Nork, baiña...?

– Klemen'ek, ugazabaren semeak.

Eta jarraian amari esan eutsan, zelan alkanferraren usaiñari esker baekia-la benetako lapurra nor zan.

Gora-beera oneitan, ikerraldia amaitzeko zorian zala jakiñerazo eutsen espetxelari batek. Joan aurretik, Agate gaixoak,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan–, jateko batzuk ekarri dautsudaz. Beste ezer ekarri dagitsudala urrengo baten nai al-dozu...?

– Ez, ama, emengo janaria onenatarikoa izan ez arren, ez da guztiz txarra. Gauza bat zugandik gura dot, baiña, eta auxe izan be: aalegindu zaitezala beste iñon lana idoroteko. Ez dot nai ezelan be, ni ona ekarri nauan sugearen zuloan jardun dagizun.

– Bai, seme, beste iñora joateko saiatuko naz. Zaindu zure kurua, Kepa Mirena, eta itxaron Jaungoikoagan, Arek dana atonduko dau-ta. Agur, seme laztana.

– Agur, ama.

Oiñaze bizipean ikusi eban Kepa Mirena'k bere amaren irudia atean zear

ostentzen zala. Bazirudian, egun gitxi areitan erkindu ta irotu izan zala, eta amaren aurpegian marrazturiko zimurrak eta begi motelen itxura, biotzaren sakoneneraño sartu yakozan. Gela iguingarrira biurtzen zala, gorrotoaren sumiña bere baitan sustraiten yakola sentitzen eban.

Eta olan astero amak ikertzen ebala, Kepa Mirena'rentzat nekaldi amaibakoa asi zan. Astirotasun jasangaitzaz alkarri erraikioren orduak, etsiak jota sentitzen zala. Arratsaldeetan Txinbo espetxeko lantegitik gelara biurtzen zanean, Kepa Mirena'rentzat eguneko aringarri bakarra zan. Txinbo anarkista edo legebakoa zan, eta izan be, bere izaera ezeukiari ta urrezko biotzari ondoren etorkiena. Goiburuzale onentzat legeak eta agintzak mundutik kendu bear izango litzakez, legereri ta agintzakeri biurtu ez zeitezan. Gizakia, berez, ona ta arteza da, eta alkartasun txikitan bilduta, iñongo kutsuetatik jare, mundu au zeru biurtuko litzake.

Kepa Mirena'k lagun barriaren tolesgetasuna ederresten eban, eta berarekin bat etorri ez arren, ez yakon jarkiten, ontzat emonez legebakoaren amesak. Izan be, Txinbo'ren barru-ontasuna zala-ta, Kepa Mirena aregana erakarrita sentitzen zan, eta irrikan egoan lan egitetik noiz biurtuko litzaken, eta orduan, lo egiteko txiliñaren jote arte alkarriketa atsegiñari emotsoen. Olan ba, Txinbo'ren gora-beerak ezagutzen asi zan. Txinbo'ren aburuz, lapurketak aberatsen eta ezeukien bitartea gitxiten ebazan ezkerro, zillegia zan. Erljio zale izan ez arren, Jesukristo'ren irudia ederresten eban. Gau guztietan legebakoak lagun barriari bere elburuak azaldu oi eutsazan, eta ez-arian ez-arian Kepa Mirena areganako eraspén andia oartzen asi zan, biok adiskide miñak biurtu arte.

Egunak, baiña, Kepa Mirena'ri amaibakoak egiten yakozan, eta Txinbo lantegira joanda, irrikan egoan larriñera urteteko, eta emen baitukideakandik aalik urrunen egurasteari emoten eutsan. Ezin egikeazan eroan lagun arein birao ta autu zikiñak, eta naiago eban, beraz, aal eban guztietan bakarrik ego-tea. Noizean bein, Mingo, gizontzarraren begi ankerrak beragan gorrotoz josi-ta oartzen ebazan. Jaiegunetan ikerraldia izanik, Agate gaixoa ikustera etorkion, eta poz andiaz alkarrekin izketan ziarduen ordu-erdiko solas areitan. Poztasun oneri askotan mingostasuna erasten yakon, amaren itxura mindua ta begien dizdir motela oartzean. Bazirudian Agate'ren soiña gero ta erkiñago biurtzen zala, seme bakarragandik aldendua izateak bizitzarako jorana kendu izan bai'leutsan. Ikerraldi areitan, semeari diru gitxi batzuk ekarkiozan. Augaitik, Kepa Mirena'k amari akar egiten eutsan, iñongo dirurik ez ebala bear esaten eutsala, baiña dana alperrik, urrengo ikertaldian Agate'k semearen kontura dirua sartzen eban.



Bein baten, ikerraldia amaitzeko zorian zala,

– Aizu seme –esan eutsan Agate’k–, poztu zaitez. “Bikain” itzi, eta denda andi baten jarduna idoro dot, baita sari obeaz be.

Poztasun andia jabetu zan Kepa Mirena’z, eta,

– Ama –esan eutsan–, niretzat barri ona da benetan, Klemen’ekin, pizti arekin zer-ikusirik ez dozula jakitean.

– Bai, seme, neu be poztu nintzan “Bikain” laga nebanean. Andik agurtu nintzanean, edozein larrialdian beragana joateko esan eustan Klemen’ek, bere aldetik dana aztuta egoala, eta...

– Zital alena...! –oiu egin eban Kepa Mirena’k– nik ezin dagiket orixe bera esan.

– Aizu, seme –ebagi eutsan Agate’k autu-gaia aldatzearren–, zure arazoa laster ikusiko dala, esan eusten lengo egunean epaitegian.

– Aalik lasterren izango al da...!

Arratsalde baten, larriñetik gelara biurtuta gero, Mingo urreratu yakon, eta itxura zemaikorraz,

– Aizu “Laubegi” geldoa –esan eutsan–, emon egidazuz sakelean gorde daroazuzan ekonomatoko txartel bat, eta andienetarikoa gero, bestelan...!

Jaramonik egiteke, Kepa Mirena’k illazki-gaiñean jesarrita jarraitu eban. Alako baten, Mingo’k soñiekoari eldu eutsan, eta bultzada indartsuz lurrera jaurti eban, eta bularrean jesarrita, mintzo zemaikorraz,

– Emoistazu –oiu egin eutsan– gorde daroazuzan orreitariko bat, bestelan...

Bere amaren aalegiñak txarri arentzat izango litzakezan oldoztean, Kepa Mirena jarki yakon, eta ezetz esan eutsan. Orduan, Mingo basatia ukabilka joten asi yakon errukibage... luzaro ez, baiña. Ustekabez, lantegitik eldubarria zan Txinbo’k, Mingo’reñ iduneari oratu ta auxe esan eutsan:

– Geldi, Mingo, ostantzean...!

Tximistaren antzera biurtu zan Mingo, eta bere buruaren jabetasuna galduta, Txinbo’ri eraso eutsan. Au saiestu zan, eta eskua sakelera sartuta, ezustez, labana baten dizdira ikusi zan, eta tximistaren arintasunaz Mingo saietsean zauritu eban. Onek, eskua zaurian ipiñi eban, odol-jarioari eten egitearren, baiña gorpu baten zurbiltasunak artuta, jesarri bear izan eban. Lagun batek atea ukabilkatu ondoren, espetxelari bat etorri zan, eta kordebagetzeko zorian zan Mingo, espetxeko geisotegira eroan eban.

Andik laster, buruzagi batekin espetxelari bi sartu ziran, eta arek,

– Nor izan da erasotzaillea...? –begi zorrotzakaz itaundu eban–.

Espetxearen legeari jarraituz, danok isillik iraun eban. Barriro be itaun

berbera, eta ostera be erantzunik ez. Buruzagiak, orduan, espetxelariak, baitu guztiak arakatu egiezan agindu eutsen. Lerro bitan eraturik, arakatze zeatza gertatu zan, baiña alperrik, ez zan iñongo labanik azaldu. Au ikustean, buruzagiak baituak larraieñera urten zeitezan agindu eban, gelako illazki ta zorroak arakatzeko. Barriro be, dana alperrik gertatu zan, eta atxilloak biurtu ziran gelara. Buruzagiak ostera be, nor zan Mingo zauritu ebana, baiña barriro be, euren legeari jarraituz, danak isillik. Orduan, buruzagiak,

– Erasotzaillea agertu arte –zemaitu eutsen–, emen itxita iraungo dozue, iñongo artu-emonik etxekoekin izan barik.

Au esanik urten zan, eta aparria oi lez bananduta, oeratu ziran. Kepa Mirena’k bere alde egiñikoa eskertu eutsan Txinbo’ri, eta,

– Aizu Txinbo –itaundu eutsan–, ez al-dozu uste, Mingo’k salatuko zaituanik...?

– Ezelan be ez.

– Zelan orren ziur...?

– Begira, Kepa Mirena: babalasto orrek badaki zauritzailletzat salatuko ba’nindu, bere azkena litzakela, eta orregaitik isildu da.

– Eta ilteko zorian aurkituko ba’litz...?

– Ez, adiskide, ez da ilgo. Ondo neurtu dot sastakadea olakorik jazo ez daiten.

– Eta emen dagozanen artean, salatariren bat mintzatuko ba’litz...?

– Saria ez litzake andirik izango; bai, ostera, nigandik artuko leuken apentza. Nasaitu zaitez, adiskide, gauzak ez dira urrunegi joango.

Zuzen egoan Txinbo. Mingo ez zan il, eta andik laster, arazoa bein betiko aztuta, urak lengora biurtu ziran, eta Mingo osatu zanean, beste gela batera sartu eban. Arrezkero, aspaldi luze batez Kepa Mirena’k ez eban barriro ikusi.

Astero etorkion ama oiko jaiegunetako ikertaldia egitearren, eta bidebatez lotuki bat ekartsan espetxeko janariari laguntzeko. Areitariko ikertaldi baten, Agate’k,

– Aizu, seme –esan eutsan–, araiñegun, zure arazoa darabilen auzitegiko idaztegira joan nintzan, eta ango idaz-mutil bateri, zure arazoari buruz itaundu neutsan. A-715 /X zenbakiaz izendatua dala esan eustan, eta luzaro barik, illabete baten buruan-edo beranduenez ikusiko dala. Orrek poztu ninduan, laster aske ikusiko zaitudala uste dot-eta.

Ain zuzen be, amaren barria egi biurtu zan luzaro barik. Goiz baten, espetxelari bat gelara sartu zan, eta jarraitu egiola agindu eutsan Kepa Mirena’ri. Andik laster, beeko soruko ate baten aurrean espetxelariak atea jo,



eta sartzeko baimena eskatu eban. Barruko batek baietza emonda, sartu ziran, eta janzki apaiñeko jaun bat ikusi eban mutillak maiaz bestaldean. Urrezko apainkiak erabillezan sorbaldan eta mauka-barrenetan. Onezaz gaiñera, kapel dotorea, urrezko ariz apainduta; espetxeko zuzendaria, urrean, somatu eban Kepa Mirena'k, eta izan be ez egoan oker.

Bere aurrean baitua zutunik egoala, mai-gaiñeko idazki bat erakutsi eutsan, eta astirik galtzeke, mamiñari ekin eutsan, onetaraxe:

– Aizu, gazte, gaur bertan idazki au eskuetara eldu yat. Zu Orueta' tar Kepa Mirena zara, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Bai, Jaun Zuzendaria esan bear daustazu.

– Bai, Jaun Zuzendaria.

– Ara ba... Idazki onek jakiñerazoten dautsu, laster ikusiko dan zure auzirako, lege-gizon jagolea aukeratu bear dozula. Tori idazkia, eta irakurri egizu.

Kepa Mirena'k agindutakoa egin, eta atzera eskuratu eutsan.

– Jakiñaren gaiñean ipiñi izan zaran ezkeru, zein jagole aukeratzen dozu...?

– Iñor ez, Jaun Zuzendaria, lege-gizonik ez dot ezagutzen-eta. Gaiñera dirurik ez dot orretarako.

– Orduan txanda-jagolea etorriko yatzu. Jakin bear dozu, olako aldetzailleak duan izan oi dirala, aukerako legegizonik ordaindu ez dagientzat. Ez dogu besterik esan bear, beraz.

Au esanik, txiliña jo, eta alboko gelatik zaindari bat sartuta, auxe esan eutsan:

– Atondu egizu agiri bat idazki oneri erantzuna emonez. A-715/X'ko auzia darabilan epaikari argitzailleari idatziko dautsazu jakiñerazoz salatuak uko egiten dautsala jagole-izendatzeari, eta beraz, txandakoa izango dauala. Agiria idatzita, baitu onek izenpetuko dau, eta bereala Auzitegira igorriko dozu. Entzun...?

– Bai, Jaun Zuzendaria.

Andik laster dalako agiria izenpetuta, Kepa Mirena bere gelara biurtu zan. Astebete bi inguru igarorik, goiz baten esan eutsoen, ikerle-bat begira ebala, eta beraz, iker-gelara joateko. Nor izan zeitekean bere buruari itauntzen eutsala, asteguna zan-eta, iker-gela txiki batera sartuerazo eben. Burdiñezko sareaz bestaldean, gazte ezezagun batek itxaroten eutsan. Orduantxe, nor zan igarri eban Kepa Mirena'k. Oso gaztea zirudian ikerleak, ogei ta bost urteko izango zan gitxi gora-beera. Onek ez eban poztu Kepa Mirena, bere alde jardungo leukena, zaarragoa, egiñagoa, naiago ebalako, ez Ikastola Nagusitik urten-barri izaniko lege-gizona. Gogoeta oneitan egoala,

– Aizu, lagun –esan eutsan ikerleak–, txandako jagoletzat izendatu nabe, zuriketean egin dagitsudan. Nire izena Ibarra'tar Manu da, baiña obeto Manu bakarrik esaten ba'daustazu, gazteen artean egokiagoa da-ta.

Au esanik, maitxu baten aurrean jesarrita, idaztekoa ta papera aren gaiñean ipiñita,

– Orain, Kepa Mirena –esan eutsan– edestu egistazu dana zeatz-zeatz ezetariko gora-beerarik aztu egin bage, nire jardunerako edozein txikikeriak balio dau-ta.

Kepa Mirena orduan, astiro ta argi jazotakoaren zertzelada guztiak edesten asi yakon, eta Manu'k idatzi bitartean, noizean bein edeskiari eten egiñik, zeatzen bat argitu egitsan eskatzen eutsan, eta barrero be idazteari. Edu onetan, ordubete luze bi igaro ziran, eta noizbait, edeskia amaituta, Manu'k auxe irautsi eutsan:

– Esan daustazuna guztiz zudugarria da, eta zure aurka gora-beera asko izanik be, badira beste batzuk alde dozuzanak. Dana-dala zure argibideakaz idatzi dodana, astiro ta ondo aztertuko dot. Auzia, illabete baten buruan ospatuko da, baiña epe ori baiño len, barrero etorriko naiatzu bearrezko izatekotan, azken baten nire lana bear dan lez atontzeko.

Au esanik, lege-gizonak agur egin eutsan, eta Kepa Mirena gelara biurtu zan, bere jagoleari buruz ezelako eritxirik eratu ezin. Oi eban lez, illazki gaiñean jesarrita, eta gero larraiñean zear batetik bestera urduri ibilli ebillela, ezin egikean jazorikoa burutik kendu, epai-egunaren begira berantetsia. Noizbait illabete bateko epea igaro baiño len, iker-gelara eroan eben barrero, eta jagolearen aurrean aurkitu zan.

– Aizu, adiskide –esan eutsan Manu lege-gizonak–, zure arazoa sakon eta zeatz aztertu ondoren, uste dot onik atara zaitukedala, gauzak okertzen ez ba'dira. Auziaren salatario edo fiskala, Txomin Azeria deritxana da, eta maltzur itzela izanez gaiñera, asko-ikusita ta asko-ikasita da; izan be, etorri leitekizunik txarrena. Auzia, gaur amar egunera izango da, eta epaikaria, On Koldo edo Mustur-baltza izango da, zorrotz eta gogorra berau. Au dala-ta, kontuz ibilli bear izango dogu, eta gauzak ondoen lotzeko etorri naiatzu gaur, esan dagistazun "Bikain" lantegian, zure alde zeintzuk lagun emon dagikien autorpen ona.

Kepa Mirena'k oldozkor iraun eban une batez, eta,

– Nire aurka gauzarik txikiena be esan dagikenik –erantzun eutsan–, ez da, iñor izango, baiña izen pare bat aukeratze kotan, ba... Aintzane urrutizkin-laria, eta Mikel bialketen arduraduna aipatuko neuskizuz.

Manu'k txataltxu baten izen biok idatzi ebazan, eta jagi zan alde egiteko. Joan aurretik, baiña,



– Aizu, lagun –esan eutsan–, zeuk aipatutakoekin biar bertan alkarrizketa bat izango dot, eta zure alde argibide onak emoteko gerturik ba'legoz, alde-autorletzat aurkeztuko dodaz. Dana-dala, bearrezkoa ba'litz, barriro etorriko naz, edo bestelan auzi-egunean epaiketearen aurretik alkar ikusiko dogu. Biotz on, eta ikusi arte.

Epaiketearen aurregunean, Manu ikertzero etorri yakon ostera be, eta auxe esan eutsan:

– Begira, adiskide, Aintzane ta Mikel “Bikain” lantegiko zure lagunak gerturik azaldu dira, zure alde autorpen ona egiteko. Auzia aalik ondoen aztertu dot, eta gauzak okertzen ez ba'dira onik urtengo zara.

Kepa Mirena'ri Manu'ren begitartean kezka baten aztarna ekusala begitandu yakon, eta orduan,

– Aizu, Manu –itaundu eutsan–, ez zaitut ikusten zure berbok itarantzuten daben baizen nasai. Esan, zerk kezkatzen zaitu...?

Une batez isillik iraun eban Manu'k, eta gero astiro,

– Izan be –erantzun eutsan–, zure auzia ez da beste munduko gauza, baiña “Mustur-baltza” epaikari zorrotz eta norbaitzuen eritxiz errukibakoa izan arren, Txomin Azeria salatzaileari bildur dautsadana da. Bizitzak asko irakatsi dautso, eta badira urteak salataritzat diarduana. Erakarpen andiko izlaria, bere abotsak aretoan durunda dagianean, badirudi salatuaren aurka Jaungoikoaren asarrea aretoan isurtzen dala. Bere jardunaldiek izen andia bere buruari ekarri dautsoe, eta irabaziriko aipu ona andiagotzeko, edozein bidea aukeratzeko gai da. Lengo egunean auzi baten ikusi neban, eta Txomin Azeria'ren berba-jarioak txundituta itzi ninduan. Doan bidetik, laster gora egingo ei'dau. Tamala benetan, beste leku batera igorri izan ez zeiten... Baiña biotz on, Kepa Mirena, eta biar arte.

Joan zan Manu, eta arrenkura bakanak artuta, Kepa Mirena gelara biurtu zan bildur-antzeko zerbaitek zapaltzen ebala.

On Koldo, edo Mustur-baltza ezizenez ezagaturiko epaikaria, goiz aretan ez egoan aldarterik onenean, eta izan be, baebazan orretarako zioak. Eguraldi ederreko egun aretan, asteburu emoteko itsasaldean eban landetxera joatea erabagi izan eban, eta au dala-ta, emazteari agindu izan eutsan bazkaria oi baiño lenago atondu egian, aalik ariñen itsasaldera joatearren. Amabiak laster izango litzakez, eta oraindiño, egun aretako irugarren eta azken auzia asi barik egoan. Lenengo biak uste baiño geiago luzatu izan ziran, eta orra or irugarrenerako etorteko zan salatua, oraindiño espetxetik etorri barik, eta ori dana, lapurreta bateko saltsaren erdian baitutako gazte baten auzia. Musturbaltzak arazoa ondo aztertu izan eban, eta onen ondorioz, berarentzat argi egoan emoteko eban epaia.

Au dana oldoztu bitartean, kaiola baten esitutako leoi baten antzera, idaztegiko alde batetik bestera asarre gorrian ibilli ebillen. Noizea bein, txiliñajote batz morroi bateri dei egitsan, ia salatua eldu ete zan jakiteko, baiña menpekoaren erantzuna, ezetz, ordurarte ez zala azaldu izaten zan. Abopeko berba lodiak jaurtiz, On Koldo'k bere ibiltari jarraitzen eutsan.

Egun aretan uriko berebilen joan-etorria oi baiño lodiagoa izanik, espetxetik etorren berebilla atzeratu egin zan. Noizbait, amabi-amabietan, ertzain bik alboratuta, eldu zan Kepa Mirena eskuak alkar lotuta, gaizkille andia bai'litzan. Epaiariaren aginduari men egiñez, auzitegiko morroi batek epai-aretoa sarrazo eban, eta alde baten zutunik egoteko agindu eutsan Kepa Mirena'ri. Bitartean, Manu urreratu yakon, eta aboepan,

– Aizu, adiskide –esan eutsan–, lengo egunean zeuk autorle edo lekukotzat aukeraturiko lantegiko lagun biekin berba egin neban, eta baietz, gerturik dagozala zure alde autortzeko esan eusten, eta ori bada zeozer. Urduri zakust, lagun, baiña zure onerako nasai egoteko diñotsut, eta gero egingo yatzuzan itaunai erantzun aurretik, astiro pentsatu dagizula, oker esateak ondorio txarrak ekarri dagikezuz-eta.

Bitartean, banaka batzuk sartu izan ziran, onein artean On Endika, Klemen, Aintzane urrutizkin-neskea, eta Mikel arduraduna ikusi zeitekezala.



Etorri-barri oneik, aretoa zati bitan bereizten eban eskudel baten atzean jesarri ziran, au da, ikusleentzako aukietan. Alako baten, larritasun andipean, bere ama aretoko atean zear ibilte kolokaz sartzan zala ikusi eban Kepa Mirena'k. Agate gaixoak amar urtez zaarragoa zirudian, soin erkiña makurtuta, eta aurpegi zimurtsuko begi gorritak nora zuzendu ez ekiala. Semea ikusi ebanean, aalik ariñen oldartu yakon, auxe iñotsala:

– Kepa Mirena, nire mutilla...!

Baiña semea besarkatu barik, ertzain batek besoari eutsirik, auxe oiukatu eutsan zakar,

– Andrea, debekatua da salatuagana urreratzea. Jesarri zaitez ango aukietan, eta itxaron.

Malkoak begietan Agate gaixoa eskudelaz araindiko aulki batera urrats neketsuz abiatu zan, bere buruari iñotsala zergaitik ziran legeak orren ankerak. Suminduta, Kepa Mirena'k amaren irudi makurtuari begiratzen eutsan, berekiko iñoala: “Jauna, Jauna, zergaitik zigortzen gozuz olan...? Eta amarekiko errukiz beterik begiak laiñotu yakozan, iñoizkorik zoribakoen sentitzen zala. Gero, begitarte gogor zemaikorraz Klemen begiztatu eban, eta gorroto neurribagea bere arimaz jabetu zan.

Une aretan, morroi batek isildu zeiten agindu eutsan jendeari, eta jarraian salatariak eta jagoleak aurreratuta, Mustur-baltza epaikaria sartu zan. Jesarri baiño ez, maillu bat az maia jo eban auxe iñoala:

– Auzia asten da. Idazkari Jaunak Epaikari argitzaillearen txostena irakurri dagiala.

Alboko maitxu baten aurrean jesarrita egoan idazkaria dalako txostena irakurten asi zan. Gitxi gora-beera auxe iñoan: Ertzaindegian, “Bikain” errediza-lantegitik salakuntza bat etorri izan zala, eta onen ondorioz azaldu zan milloi bi pezetako lapurreta gertatu izan zala, eta zantzu guztiak lantegiko ogipekoa zan Orueta'tar Kepa Mirena eritxana, egilletzat salatzen ebela. Bazirudian, egun aretan bertan, dalako Kepa Mirena'k ostutako diruketa bat lantegitik atara nai ebela. Ertzain bik lantegiko urtenbidean jarrita, salatua baitu eben, eta berreun milla laurleko ta Madrid'erako bidai-txartel bat eroiazala ikusi eben ertzaindegian. Diru ta txartelaren etorrerea ez ekiala, autortu izan eban salatuak, bein eta barriro bere burua errubakotzat etsirik. Dirua ta tren-txartelaren egiztapena uka-eziñak izan arren, dalako baituak bein eta barriro errubakotzat eban bere burua.

Onaiño epaikari argitzaillearen txostena. Irakurketea amaitu zanean, Epaikariak auxe agindu eban:

– Zutundu bedi salatua.

Eta Kepa Mirena jagi zanean,

– Esan egiskuzuz, izen-abizenak.

– Orueta Aranaga'tar Kepa Mirena.

– Zure burua errudun ala errubakotzat autorten dozu...?

– Errubakotzat, Jauna.

Mustur-baltza epaikariak begikada illuna jaurti eutsan. Izan be, salatua-  
ren setakeriak auzia luzatuko leuke gaur, berak iñoizkorik goizen etxera biur-  
tu nai ebanean. Asarrea menperatuz,

– Salatari Jaunak itaunketea asi dagike.

Txomin Azeria jagi zan, eta Kepa Mirena'gana urreraturik,

– Aizu –itaundu eutsan–, dirua ta bidai-txartela zeugan aurkitu arren,  
errubakoa zarala diñozu...?

– Bai, Jauna.

– Orrek esan gura dau, beste iñork zu galtzeko, sakelean sartu eutsuzala  
ezta...?

– Bai, Jauna.

– Nor izan daiteke dalako ori...?

Isildu zan Kepa Mirena. Bere jagole Manu'k, lengo alkarrikuste baten ,  
Klemen agirian ez salatzea esonatu izan eutsan. Lantegiko ugazabaren  
semeari iñongo egiztapen barik lapurretea egozte, bere aurka jokatu leu-  
ken gauza izan leiteke-ta. Augaitik, Kepa Mirena'k ez eutsan erantzunik  
emon. Erantzuna ez egoala ikusirik,

– Orduan zuk –jarraitu eban salatariak– nor dan ez dakizun bat salatzen  
dozu...?

– Nik ez dot iñor salatzen, Jauna.

– Baiña diru orren lapurra ez zarala diñozunean, beste baten lepora bota-  
ten dozu errua.

Une aretan, Manu jagi, eta asarre-antzean auxe esan eban:

– Jaun epaikaria, ostera egiten dot salatari Jaunak esanagaitik.

– Osterea onartzen da –esan eban Mustur-baltza'k–, salatari Jaunak diño-  
ana, neurtu dagiala.

– Aditu beist ondo auxe salatuak –jarraitu eban Txomin Azeria'k–. Egia al-  
da zure amak garbitzailletzat ziarduala “Bikain”en idazgelatan, lan-aldia amai-  
tzen zanean...?

– Bai, Jauna.

– Egia da, baita be, iñor ez egoanean dalako idazgelatan, amari laguntze-  
ko atxakiaz, aldi orretan zeu be idaztegian geratzen zintzazala...?

– Epaikari Jauna, ostera dagit barriro.



– Osterea onartzen da –esan eban epaikariak–. Salatzaile Jauna ez da nor esateko salatuaren atxakia zala amari laguntzea.

– Egia al-da –jarraitu eban salatariak –”Bikain” lantegian zerabiltzun jarduna, On Klemen Nagusi Jaunari zor zeutsala, zure amak ari egiñiko erreguari esker...?

– Bai, Jauna.

– “Bikain”eko agintariak ondo ala txarto erabilten zinduezan...?

– Ondo ninderabilten.

– Epaikari Jauna, ez dot besterik itauntzeko salatuari, baiña gauzak argitzearren, Berorren baimenaz, emen dagozan zenbait lekukoai, itaun batzuk egitea nai izango neuke.

– Egin dagikezuz.

– Agertu bedi On Endika Ugarteburu, “Bikain”en diruzaiña.

On Endika urreratu zan, eta gurutz baten aurrean idazkariak zintzotasunaren ziñespena artuta gero, lekukoen tokira joan zan.

– Esan egizkuzu, Ugarteburu Jauna, “Bikain”en diruzaiña zaran ezkerorren bat urtez jardun dozu baltzu orretan...?

– Berrogetak urtez, Jauna.

– Eta epe luze orretan, iñork dirurik ostu al-eutsun...?

– Ez Jauna, orain arte ez dot iñongo lapurketarik ezagutu.

– Nortzuk diardue kutxa-gelan...?

– Klemen, salatua, eta irurok.

– Diruaren egiztapena noiztik nora egiten dozu...?

– Illean bein, eta azkenengo egunetan, ain zuzen be.

– Erraza al-da diru-kutxea edegitea...?

– Gurea beintzat oso zailla da zabaltzea.

– Azalduko zeunskiguz kutxa orren gora-beerak...?

– Bai, Juana, eta gogoz azalduko be. Gure kutxa edegiteko, giltzaz gaiñera idazkun bat ezagutu bear da, eta gurpiltxuan idazkun orren izkiak marratxu baten parean ipiñi ondoren, orduan bakarrik erabili daiteke giltza kutxea edegiteko.

– Idazkuna ezagutuz gaiñera, nortzuk jabetzen dabe dalako giltza...?

– On Klemen ugazabaren semeak eta biok.

– Edestuko zeunskigu, Endika Jauna, zoritzarreko egun aretan jazo zana...?

– Ara ba... Gabonetako aurregun otz aretan, idazgelara sartu nintzanean, nire nagusia dan Klemen, On Klemen'en semea, urduri ta lur-jota egoala begitandu yatan. Langilleen sariak gertatzen niarduala, Klemen urreratu

yatan, eta aurpegian oiñaze andiaren aztarnak agiri ebazala, bazirala egunak lo egin eziñik egoala esan eustan, eta nire itaunai erantzun emonez, aspaldi aretan gurekin ziarduan Kepa'gan, jokabide ez-oitua oartzen asi izan zala, arrenkura andipean esan eustan. Gure lana amaituta urtetan gintzazanean, amari laguntzeko atxakiaz, idaztegiaren bakarrik geratzen zala ia egunoro, bederatziak arte. Asiera baten ez eutsan jaramon andirik egin orreri, baiña egun baten... kutxea zabaltzeko erabilten giltza ostendua zala konturatu zan. Ez eban ezer esan, baiña urrengo egunean diru-etxetik biurtzean, dalako giltza oiko lekuan aurkitzen zan ostera be. Orduan, buruari ekin eta ekin, bere suzmoak orko salatuagan jarri ziran.

Ona elduta, oldozkunak taiutzeko ta arnas artzearren, une batez isildu zan On Endika, eta gero onerataraxe jarraitu eban,

– Gutariko iruren artean lapur bat izatekotan, aukerea erraza zan. Nire atarakuntzearen arauz, ebazpen onetara eldu nintzan: amarekin idaztegiaren bakarrik geratuko zan bein baten, giltza jaso, aldaki bat agindu, eta lengo lekuan lagako eban. Baiña olan eta guzti be, kutxea edegiteko idazkuna ezagutu bear... Badirudi, orraitio, atzamarretan ukimen bereiziz ornitutako jendeak, gurpiltxua arretarik andienaz erabilliz, izkien jarrerea igarteko gai dirala. Baiña goazkion arazoaren mamiñari. Giltzarena jazo zanetik, gabero amarretan etorten asi zan Klemen, au da, ama-semeak joanak ziranean, eta kutxatik norbaitek dirua ataraten ebala oartu zan. Baitura-egunean, idaztegiara goiztar etorri zanean Klemen, diruaren zenbaketea egitean, berreun milla laurleko uts emon ebazan. Aurreguneko gabean diru ori kutxean egoan ezkerorren, lapurrak goiz aretan bertan, diruketa ori ostu bear izan eban, eta suzmo txar batek jota, jantzitegiara joanda, Kepa'ren soingaiñeko barru-sakelari berreun laurlekook, eta Madrid'erako tren-txartel bat ikusi ebazan. Au jakitean, orduantxe diruaren egiztapena egin gura izan neban, baiña ori baiño len, ertzaindegian salakuntza bat egitea egokiagoa izango litzakela esan eustan Klemen'ek. Olan eginda, eguberdi aretan idaztegitik urtetan zanean, ertzain bik baituta, ertzaindegian dalako dirua ta txartela beragan idoro ebezan, epaikari argitzailearen txostenak diñoanez...

– Aizu, Endika Jauna –eten egin eutsan Txomin Azeria'k–, kutxako diruaren ainbaketea egin zenduan...?

– Bai, Jauna, ertzaindegitik biurtuta, eta milloi bitik gora zala ostutakoa, egiztatu neban.

– Esan dagikeguz diruketearen kopuru zeatza...?

– Izan be, milloi bi ta larogei milla zan ostutakoa.

– Eskerrik asko, Endika Jauna. Biurtu zaitekez lengo lekura. Orain, epai-



kari Jauna –jarraitu eban salatariak–, zure baimenaz, Klemen Jaunari, baltzuko ugazabearen semeari, itaun batzuk egingo neuskioz.

– Baimena emonda –erantzun eutsan Mustur-baltza’k.

Klemen ibillera errimez jatsi zan bere lekutik, eta gurutzaren aurrean oiko zintzotasun-zinespeña eginda,

– Aizu, Klemen Jauna, “Bikain” baltzuaren ugazabaren semea zaitugu, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Zelan sartu zan or dagoan salatua, zuen lantegira...?

– Ara ba... Idaztegiko garbitzailletzat ziarduan Kepa’reñ amak, semearentzat jardun bat eskatu eutsan nire aitari, eta onek idaztegiara sartu eban.

– Aizu, Klemen Jauna, jardun ori bearrezkoa al-zan...?

– Bear-bearrezkoa ez, baiña badakizu, aitari biotza bigundu yakon, eta...

Orduan berekiko itz egingo bai’leuan, Txomin Azeria’k,

– Jagon egizuz belak, eta begiak...

Jarraian, itaunketeari jarraituz,

– Aizu, Klemen Jauna –itaundu eutsan–, noiz oartu zintzazan kutxako dirua peitzen zala...?

– Amabost bat egun Kepa baitu aurretik, nire giltza ostendu zanean, alegia.

– Eta zergaitik ez zenduan egin orduan bertan salakuntzea...?

– Begira, Jauna –itxura oiñazetuaz Klemen’ek–, lelokerizat artu daiteke, baiña ezin nengikean siñistu Kepa lapurra zeitekeanik, eta izatekotan be, baleiteke bearrian gorrian aurkitu zeiten... eta gero gauzak bareturik, ostutakoa atzera kutxara sartu egian... Baiña goiz aretan bere soingaiñean berreun milla laurleko areik, eta Madrid’erako bidai-txartela idoro nebazanean, gauzak ezin nengikeazala luzaroagorik ezkutatu erabagi neban, eta ezinbestez, beraz, On Endikari, gure diruzaiñari, arazoa azaldu neutsan. On Endika ta biok egoera aztertu ondoren, ertzaindegian salatzea baiño beste biderik ez egoala oartu gintzazan, eta gure diruzaiña ertzainburuagana joanda, baltzuari egokion salakuntzea egin eban. Onen ostean, eguberdi aretan etxera joian Kepa baitu eben, eta aipaturiko diru ta tren-txartela estalki baten barruan azaldu ziran.

– Esan, Klemen Jauna –itaundu eutsan Txomin Azeria’k–, zelakoa zan zuen menpekoa lapurretaren aurretik...?

– Mutil ona ta isilla.Siñisteziña da, beraz...

– Aizu, Klemen Jauna –eten egin eutsan salatariak–, non gorde zeroian dalako kutxaren giltza...?

– Mai-gaiñeko narruzko karpeta baten barruan.

– Ez al-deritxazu gordetegi erraza dala idoro nai dauanarentzat...?

– Bai, baiña nork uste izan...

– Egia da, Klemen Jauna. Biurtu zaitekez zure lekura, eta eskerrik asko.

– Orain Epaikari Jauna –jarraitu eban salatariak–, zeugandiko baimena nai izango neuke, lekuko baten autorpena entzuteko.

– Baimena emoten da.

Orduan Txomin Azeria’k keiñu batz, lekuko bateri dei egin eutsan, eta berrogeitsu urteko gizon txiki bat aurreratu zan. Begi bizi, dizdiratsuak eban, eta aren itxureak bere buruaren jabetasuna iragarten eban. Oiko ziñesta-pena egiñik,

– Ona emen –asi zan salatariak– Arizaga Jauna, diru-kutxetan ezagulari ospetsua dana. Esan egiskuzu Arizaga Jauna, “Bikain” baltzuko diru-kutxea ezagutzen al-dozu...?

– Bai, Jauna, gure etxeko 101 ereduakoa da.

– Noiz erosi zan...?

– Orain amar urte gitxi gora-beera.

– Uste al-dozu, Arizaga Jauna, kutxaren izkien jarrerea ez dakianak, gurpiltxuari ekiñaren-ekiñez, dalako jarrerea zein dan ezagutu dagikeanik

– Eredu batzutan bai, atzamarretan oarmen bereizia izatekotan. Eta izan be, lapur batzuk ekiñaren-ekiñez oarmen bakan ori jaritsi dagikie. Orretarako, baiña, atz-buru sentikorra izan bear, baiña bereiztasun au gitxi batzuk izan oi dabe.

– Esan Arizaga Jauna: “Bikain” baltzuko diru kutxea zein ereduakoa zan.

– Dalako baltzuak kutxea erosi euskun garaian, eredia aldatu genduan sasoiari dagokio.

– Zergaitik aldatu zan eredia...?

– Eredu edegi-eziñak beste baltzuak saltzen asiak zirala jakin genduan, eta augaitik bezeroak ez galtzarren, dalako eredu barria aztertzen asi gintzazan, eta onen ondorioz, geuk be asmatu genduan eredu barria, et arrezkeroko gure kutxak atz-buruaren oarmenaz edegi-eziñak billakatu ziran.

– Orain, aitu ondo nire itaunari: “Bikain” baltzuak zuei erosiako eredia, edegikoia ala edegi-eziña zan...?

– Edegi-eziñetakoa zan, Jauna.

– Arizaga Jauna –txundituta itaundu eutsan barrero Txomin Azeria’k– ez dakit ondo ulertu daustazun ala ez. Augaitik, galdetuko daustut barrero: “Bikain”en idaztegiaren orain erabilten dan diru-kutxea, atz-buruaren oarmenaz gurpiltxuaren izkien jarrera igarri daiteke, ala ez...?

– Ez Jauna, ezin daiteke igarri, eredu barriakoa dalako.



Txomin Azeria, salataria, agobete agiñakaz geratu zan. Auzi guziaren gora-beerak, oi eban lez, ardurarik andienaz aztertu izan ebazan, eta augaitik, bere salakuntzea gertatzen ziarduala, Arizaga Jaunagana joan izan zan, eta onek jakiñerazo eutsan dalako diru-kutxea bere ustez, eredu zaarrekoa zala, eta Kepa Mirena'ren errua egiztatzeko zertzelada ori garrantzitsua izanik, kutxegillearen maisua lekukotzat ekartea erabagi izan eban. Eta orra or, blindiblaust...! bere errazoi-bidea pikotara joanda. Orduan bere begi sarkorrek Arizaga Jaunagan josita,

– Ez zeustan esan ba, antxiñako eredukoa zala...?

– Bai, Jauna. Nire ustez eredu zaarrekoa zala, esan neutsun. Baiña zu joanda gero, aldi areitako agiriak birrikusten asi nintzan, eta orduan ikusi neban nire eritxia okerra zala, eta “Bikain”eri saldutako kutxea eredu barrikoa zala.

– Eta zergaitik ez zeustan zertzelada orreri buruz ezer esan...?

– Begira, Jauna: dei egin neutsun epaitegira urrutizkiñez birritan, baiña idoro-eziña zintzazala esan eusten, eta gero arazoa aztu egin yatan.

Bitarte onetan, asmamen aberatsekoa zan Txomin Azeria'k bere egoera gogaikarriarentzat urtenbide eroso idoro izan eban, eta,

– Aizu, Arizaga Jauna –esan eutsan–, zeuk diñozun ezkerolan izango da, eta niketz ez dot zeuk esana zalantzan jarriko. Naikoa bedi oraingotz. Biurtu zaitkez zure lekura.

Eta isil-une baten ondoren,

– Ain zuzen be –jarraitu eban–, ez dakit zergaitik arduratu nazan zertzelada oneri merezi dauan baiño garrantzi geiago emoteko. Gauza bat argi dago niretzat, eta oraintxe bertan egiztatuko dot.

Lekukoen tokira urreratu zan, eta “Bikain”en diruzaiñari aurrez-aurre begiratu,

– Entzun egistazu ondo, Endika Jauna –esan eutsan adiskidetsu–, noz edo noz ez zenduan “Bika” dan gurpiltxuaren jarrera agirian itziko...? Auxe adierazo nai dautsut: kutxea ixten dan bakotxean, izkien jarrera erabagetzen da, iñork jakin ez dagian. Augaitik ez zenduan iñoiz aztu egingo dalako jarrea erabagetu barik lagako...?

Une batez itxaron eban On Endika'k erantzun baiño len, eta gero,

– Ez, Jauna –mintzo irmoz esan eban–, bere burua benetako diruzaintzat daukanak ezin dagike olako zabarkeririk egin, ez orixe...!

Biurtu zan orduan salataria Klemen'gana, eta astiro, “Bikain” baltzuaren oiñordeak ondo ulertu egitsan erara, auxe esan eutsan:

– Zoriona emon bear izango dautsagu zure baltzuari, orren diruzain arduratsua daualako. Benetan bere arazoa ondo beteten dauan gizona dogula

agiri da...baiña zeuk gazte orrek, eta ez zaitetz mindu nire itaunagaitik: ez dozu iñoiz kutxearen dalako jarrera erabagetu barik itzi...?

Bereala oartu zan Klemen zitara, itaunak ekarren garrantzia, eta kezkatia-  
ren itxurakoa egiñez,

– Izan be –erantzun eban–, ezin dagikeot orreri ziurtasun beteaz erantzun. Batzutan ba... badakizu... arin baten ibilli... eta zintzotasunari zor yakon benetasunaz ba... baietz, esan bearrean nozu, badaitekela ori bein baiño sarriagotan jazo izatea. Gaiñera... nork pentsau gure artean ba...

– Ederto Klemen Jauna. Orixe zan jakin gura nebana. Orain biurtu zaitkez zure lekura.

Orduan epaikariagana biurtuta, salatariak,

– Epaikari Jauna –eskatu eutsan–, zure baimenaz itaun bat egin nai izango neuskio salatuari.

– Baimena emoten da.

Txomin Azeria Kepa Mirena'gana urreratu zan, eta begi zorrotz erruki-  
bakoak bere aurpegian untzatuz,

– Aizu, Orueta Jauna –esan eutsan–, emen ez da besterik aipatu, zeugan zeroiazan berreun milla pezeta areik baiño, eta kopuru ori baiño azkozaz beinagoa dan bi milloiraiño enparauari buruz zer...? Salatu izan zara milloi bitik goragoko dirua ostuteagaitik. Non dago enparaua.

– Barrero be badiñotsut, ez dodala dirurik ostu.

– Begira, Kepa: diru ori legezko ugazabeari atzera emongo ba'zeuskio, etorri leitekizun zigorra, askozaz arinduko litzakizu. Bestelan, legearen zigor bete zuegana erakarriko dozu.

Au entzutean, Kepa Mirena'ren barrukoenetik oiurri auxe aditu zan:

– Zelan esango dautsut, baiña, errubakoa nazana...?

Salataria biurtu zan orduan epaikariaganantz, eta,

– Epaikari Jauna –itxura minduaz esan eutsan–, ez dot besterik itaundu bear.

Au esanik, Txomin Azeria, ibilte arranditsuz bere lekura biurtu, eta jesarri zan. Jarraian, epaikariak, ordulariari begiratu ostean, auxe aldarrikatu eban:

– Jagole Jaunaren txandea dator. Asi bedi, baiña arren, astirik galtzeke arazoaren mamiñari ekin dagiola.

Zutundu zan Manu, eta Kepa Mirena lekukoen oltzara eratorririk, onetaxa asi eban itaunketea:

– Zenbat urteko zintzazan aita il yatzunean...?

– Amazazpiko, Jauna.



- Esan, zeintzuk asmo zenduzan orduan...?
- BUP amaitu barria nintzanez, Ikastola Nagusira sartzeko gertatzen niarduan, baiña aitaren eriotzagaitik nire asmoak pot egin eban.
- Esan egiskuzu arrezkero jazo yatzuna.
- Estu ta larri biziten asi gintzazan ama ta biok. Orduan bera lanaren billa asi, eta ezagun baten bidez "BIKAIN" baltzuan idaztegi-garbitzailletzat zeregiña aurkitu eban. Ni, ostera, janari-dénda baten mutiltzat sartu nintzan. Irabazten nebana amari emoten neutsan, baiña gitxi izanik, beste jardun baten billa asita, noizbait, amari esker "Bikain" lantegian idaztegi-mutiltzat asi nintzan...
- Zein adiñekoa zintzazan orduan...?
- Ogei urteko nintzan, eta BOUP'en egindako ikasketai esker, diruzaiña-ren idaztegiara sartu ninduen.
- Nortzuk zenduzan nagusi...?
- Diruzaiña bera, eta Klemen, ugazabearen semea.
- Ondo zindarabiltzen Jaun orreik...?
- Bai, ez dot zer esaterik.
- Zergaitik laguntzen zeutsan amari idaztegi-garbiketari, lagunartean ibilli barik...?
- Amak ez eban osasun andirik, eta egunoro nire lana amaituta laguntzen neutsan, biok etxera biurtu arte. Orduan, diru-aldetik obeto genbiltzan, eta augaitik, aurrezturiko diruaz, liburuak erosten asi nintzan datorren ikastaroan Ikastola Nagusira sartzeko.
- Zeintzuk ikasketa egitea asmatzen zenduan...?
- Baltzularitza-ikasketak (Estudios Empresariales)
- Esan, Orueta Jauna, zure burua errubakotzat aldarrikatzen dozun ezke-ro, zelan daiteke izan, berreun milla laurlekook zure sakelan idoro egiezan er-tzaiñek...?
- Ori ezin dagiket ulertu.
- Orduan, Orueta Jauna, baten batek zu salatzearren sartu eutsun sakelara diru ori, ezta ...?
- Olan izan bear...
- Nor zeitekean doillorkeri ori egin eutsuna...?
- Une aretan, suge batek ziztatua bai'litzan, jagi zan Txomin Azeria eta,
- Ostera dagit, epaikari Jauna -didar egin eban-, iñongo egiztapen barik aldezelek salatuaren errua beste norbaiteri egotzi gura dautsalako...!
- Osterea onartzen da.
- Barkatu, epaikari Jauna -jarraitu eban Manu'k-, baiña itauna aldatuko dot. Orueta Jauna, zelako azalpena emoten dautsazu diru ori zeugan agertzeari...?

- Ni ez naz nor orreri buruz iñongo azalpenik emoteko, bai ostera, zitalkeri orren egillea.
- Suzmorik ete dozuz aren nortasunari buruz.
- Bai, baiña ezin dot iñor salatu egiztapen barik.
- Bai al-dakizu doillorkeri orren egillea nor dan...?
- Bai, baiña une onetan aren errua ezin dagiket egiztatu. Naiago dot, beraz, isiltzea. Zitalkeri orren egillearen nortasuna jakin-erazo eustan zeatza ezabatu da onezkero, baiña bere garaian, bear izaten neban argibidea emon eustan.
- Isillune astuna edatu zan aretoan zear berba orrein ostean. Orduan, Manu'ren mintzoa aditu zan onetaraxe:
- Epaikari Jauna, neuk dei egiñiko autorle biri itaundu gura dautset.
- Epaiariak baimena emonda, Aintzane, "Bikain" en urrutizkiña erabilten eban neskea lekukoen oltzan jesarri zan. Aurpegi atsegiñeko ta irudi txairokoa zan neskaltillari,
- Aizu, Aintzane -itaundu eutsan Manu'k -, Kepa Mirena salatua noiztik ona ezagutzen dozu...?
- Lantegira sartu zanetik, au da, urte bi gitxi gora-beera.
- Zelako ustea dozu beragan...?
- On-ona benetan. Beti adiskidetsu erabili nau, eta edozeiñetan beti gerturik egoan niri laguntzeko.
- Uste al-dozu, milloi bi laurlekoen lapurra izan daitekenik...?
- Lapurra diñozu...? Amari berak lez laguntzen dautsana ezin daiteke lapurra izan, santua baiño. Diru ori ostu egin ebala esan eustenean ez neban siñistu. Ziur naz arazo orretan oker andiren bat dabillela.
- Ederto Aintzane, eta eskerrik asko.
- Jarraian, Mikel, gordetegiko arduraduna aurkeztu zan. Itxura zintzokoa, begien so artezak bere jasaren zintzotasuna iragarten eban.
- Mikel -itaundu eutsan jagoleak-, zelako jarduna dozu lantegian.
- Erredizen gordetegiko arduraduna naz.
- Ezagutzen dozu ondo Kepa Mirena salatua...?
- Lantegira etorri zanetik, alegia.
- Zelako ustea dozu beragan...?
- Ezin obea. Lapurra zala esan eustenean ez neban siñistu aal, eta Aintzane esan dauskuaneez, ziur naz emen oker andi bat gertatu dala.
- Esan dagikeguzu jazoeren bat bere alde...?
- Bai, eta ez edozelakoa. Bein baten, Iruña'rako errediza batzuen lorke-tea egiteko, lantegiko gordetegira kamioi edo zama-berebil bat eldu zan, eta



an egoan Kepa'k, erredizak sartzer lagundu euskun. Iruña'ra eldu zanean, gidariak estu ta larri dei egin, eta itaundu euskun, ia gordetegiko lekuren baten, berak galdutako amar milla ogerleko agertu ete izan ziran. Arakatu genduzan txoko guztiak, baiña dalako dirua agertu ez. Orduan Kepa jakifiaren gaiñean ipiñi neban, eta gau aretan oi eban lez amari laguntzen eutsala, gordetegira jatsi, eta dana zeatz arakaturik, noizbait, euritako-ontzi baten zokondoan, amar milla ogerlekook aurkiturik, urrengo egunean kamioilariari dirua igorri geuntsan. Dirudianez, sakeletik suur-zapiñoa ataratean, dalako dirua ontzira jausi yakon. Kepa nire laguna lapurra ba'litz ez eban olakorik egingo, eta berarentzat gordeko leukean.

Onaño izan zan Mikel'en autorpena, eta amaitu ebanean, pozik ez egoan Txomin Azeria, lekukoen aulkitara urreraturik, Aintzane ta Mikel zorrotz begizatzen ebazala,

– Ez dot ukatzen –esan eutsen–, zuek esanikoa egia daitekenik, zuen aitorpena zinpean egin dozue-ta, baiña zer da ori, salatuak artu ebazan milloi bi orrein ondoan...? Eta gaiñera ogia zor dautsazuen lantegiari diruketa ori galdu dauana da. Dirudianez, zuei bost ardura larpurketa ori, baiña kontuan artu bear dozue, bizibidea ataraten dozuen baltzuari, kalte andia ekarri dautsala diru-galtze orrek.

Jagi zan orduan Manu asarre bizian, eta oiuka,

– Ostera dagit barriro, Epaikari Jauna –esan eban–. Nik aurkeztutako lekukoek, ez dabe besterik esan egia baiño, eta salatari Jaunak darabillean bide maltzurak ezin dagikedaz onartu.

Epaikariak baiña, ordulariari begiratu eutsan, auziak berak uste izaniko baiño luzeago irauten ebalako, eta mintzo urduriz,

– Jaunak –erabagi eban–, lekukoen agerpena amaitutzat joten dot. Salatari ta aldeze Jaunak, beraz, dagokiezan ondorioak jarraian aurkeztu dagiezala. Salatari Jauna, gerturik al-zagoz zure ondorioak aurkezteko

– Bai, Jauna.

– Asi bei, orduan, salatari Jaunak bere txostena.

Txomin Azeria izlari urtena zan, eta iñoana ziur eta itz arranditsuakaz bota oi eban. Entzuleakan, zarrastada andia eragiten eban argi ta garbi jaurtitakoak, eta edozein zeatz, txiki ta ezaiña izan arren, bere erretolikak ekintza zauskagarria biurtzen eban. Onezaz gaiñara, mintzo sakon eta betekoa izanik, bere itzaldiak ospetsuak ziran auzitegi aretan. Izan be, oraingoa baiño jardun ohea merezi eban, eta bere gora-naia zala-ta, ez eutsen iñongo errukirik erakusten salatuai.

Manu, ostera, askozaz bakunagoa, eta gaiñera gazteegi izanik, ez eban

bearrezko bizikaspena Txomin Azeria lako bateri aurre egiteko. Gaztetasunak eta abotsak ez eutsoen laguntzen asko, eta salatariaren itz-erakarpenetik urrun egoan. Erraldoi ta ipotx baten arteko burruka ezbardaña zan.

Jagi zan ba, Txomin Azeria, eta astiro ta duintasunez aretoan zear ibilli ebillela, mintzo beteaz,

– Orra or Jaun-andreok -salatua atzamarraz erakutsirik asi zan–, gazte bat iñoiz billakatu bear ez danaren eredia. Sendi apal baten altzoan jaiorik, ez zan etorkion biziareaz artaratu, bai zera...! Andinaiez jabeturiko gazte orrek, elmenetik-at egoana irrikatzen eban, eta noizbait eretia aurkeztu yakonean, bere guraria beteteko aalegindu zan. Ain zuzen be, ama alargun gaixoaren bidez lortu eban irrikatutakoa...

Une batez gelditurik, isildu zan Txomin Azeria, lenengo Kepa Mirena'ri begira, eta gero entzuleai. Onen ostean onetaraxe jarraitu eban,

– Ames egindako ereti edo abagunea etorri yakon, noizbait, bere amaren eskaerai erantzunez, On Klemen, baltzuaren ugazaba emonkorrak, ama alargun bateri poztasuna emotearren, mutilla idaztegiara sartu ebanean. Baiña... uste al-dozue Kepa dalakoak bere alde egiñikoa ugazabari ordaindu eutsanik...? Bai, eta zelako esker-sariaz...! Ama gaixoari laguntzeko atxakiaz, egunero edo ia egunero, bere lana amaituta batetik bestera usainka ebillen eretiren baten begira, eta azkenean, billaturikoa aurkeztu yakon...

Isildu zan une batez Txomin Azeria, eta gero,

– Bai, Jaun-andreok –jarraitu eban–, bein baten oartu zan, urrean, gurtxuaren izkien jarrera erabagetu barik egoala Klemen'en uste ona zala-ta, eta olan estalgetu eban “Bika” itzaren ezkutua, lau izkitako berba miraritsua... Lortua zan billatzen ebanaren erdia, baiña diru-kutxea edegiteko beste erdia bear... bearrezko giltza, izan be. Dalako giltza esku bitan egoan, bata On Endika diruzain zintzoarenean, eta bestea Klemen, ugazabaren semearenean. On Endika'k diruzain arduratsu bateri dagokionez, dalako giltza beragan eroian beti, eta eziña zan beraz, agaz jabetzea. Klemen'ek baiña, bere mai-gaiñeko karpeta baten gorde eroian, berak uste izanik toki ziuerean egoala, eta beste jaramonik, beraz, ez eutsan egiten. Izan be, zuzena dana, beste guztiak aiurri bardiñekoa diralaren eritxikoa da-ta. Baiña kutxako giltza beti edo ia beti erabillena On Endika izanik, Kepa'k ez ekian beste giltzik ete egoan, eta are gitxiago be, non aurkitu zeitekean.

Egunen baten, baiña, beste giltz bat baegoala be jakin eban, eta Klemen'en eskuetan ain zuzen be. Orduan, iradu barik, bere aukeran ordu asko ebazan-eta, Kepa, dalako bigarren giltzaren billa asi zan. Arazoa ez zan erraza izango, giltzak geienetan mai-kutxatxuetan gordeten diralako, eta ez



mai-gaiñeko zorrotan. Ekiñaren-ekiñez, baiña, bein baten giltzaren ezkutunea ezagutu eban. Klemen' en giltza erabilliko ba'leu bein bakarrik, gaur, dalako Kepa ez litzake areto onetan salatua izango, baiña berak a lako beste giltza bat gura, eta onek galdu eban...

Ona elduta, Txomin Azeria isildu zan, entzuleakan egiñiko zarrastadea egizatzearen, eta gero,

– Bai, Jaun-andreok –jarraitu eban ibiltea birrasiz batean–, gora-beera ezain orrek galdu eban aurrean dozuen gazte ori... Urrengo egunean, edozein tresnategian gabea arrapaturiko giltzaren aldaki bat agindu eban. Zoritxarrez, edo obeto esateko, zorionez, goiz aretan agiri baten billa zorrotxo arakatzen ebala, giltza an ez egoala oartu zan Klemen, baiña eguberdian, mezu batetik Kepa etorrita gero, dalako giltza oiko lekuan agertu zan barrero. Ugazabaren semea orduan suzmo txarrak artuta, kutxako dirua zenbatzen asi zan egunero, iñork ez ekusanean, eta dirua uts egiten asten zala egiztatu eban. Ostutakoa baiño, minduko eban bere alboko batek, ogipekoa zan batek, beragan ipiñitako uste onaz baliaturik, bere aitaren lantegian ostu egiten ebala. Nor izango ete...? Zana-zala, ugazabaren seme artezak uste izango eban, tentaldi txar bateko ondorioa izan zeitekeala, eta ziltza edo tentaziñoa joanda, egilleak dirua atzera biurtuko leukela...

Isildu zan une batez salataria urruma egiteko, eta,

– Baiña, entzuleok –jarraitu eban mintzo durundatsuz–, dirua gero ta geiago peitzen zanez, zeozer egiteko zan astirik galtzeke. Baiña zelan arrapatu lapurra saltsaren erdian...? Gabonetako egun zoribako aretan idaztegira goizerik etorrita, orko salatuari, edozein atxakiz kanpora betekizunen bat egitera igorri eban, eta Kepa joana zala, kutxako diru-zenbaketea egitean, berreun milla pezeta, iñoizkorik geien, uts emon ebazan. Aurreguneko gabea amasemeak etxera joanda, oi eban lez idaztegira biurtuta, Klemen'ek zenbaketea egin izan eban, eta diru ori oraindiño kutxan egoan, beraz... goiz aretan bertan ostu izanik, lapurrak diru ori beragan izango leuke. Kepa biurtu zanean, beste atxaki batz erredizen bialketa bat jagon egian gordetegira bialdu eban, eta astirik galtzeke, jantzitegira joanda, Kepa'ren soingaiñeko barru-sakela arakaturik, berreun milla laurlekook idoro ebazan, baita Madrid'erako burnibide-txartel bat be. Orduko, milloi bitik gorakoa zan ostutako dirua. Argi egoan beraz, ebatsitakoaz, beste iñon arazo bat sortzen, urrean, asmatzen ebala.... Orra or, eskerbako baten ekintza: bizibidea emoten dautsanari eskertu-bearrean, suge baten antzera, ogia damotsan eskuari usigi egiten dautso...

Menperatzen eban oiñazeak abailduta bai'litzan, letradu salatariak itzaldia eten eginda, begien so naigabetua entzuleakan kokatu eban geldita ta isillik.

Gero, itxura minduaz, eta baituaren ekintza zitalak lur-jota bai'litzan, begiak sabaian josi ebazan, eta asperen luze bat jaurtirik,

– Bai, Jaun-andreok –jarraitu eban–, ez dodaz bearreko itzak gazte orren joko iguingarria gaitzesteko. Nik neuk ulertzen dot, zorigaitzoko une baten pekatu bat egin daitekela, baiña gero damututa, betirako zintzo izango dala. Uste dozue, baiña, or dagoan salatuak olakorik egin ebala...? Bai zera...! Ostutakoa ez biurtuz gaiñera, bere burua errugabetzat aldarrikatzen dau... Augaitik, beraz, berarentzat eskatzen dodan zigorra auxe da: amabi urtebete-ko espetxaldia. Jakiña, ostutako milloi biotatik biurtuko leukena, zigorraren eskaerea aren giñoan gitxituko litzakio.

Itz oneik esanda, ibilte arranditsuz Txomin Azeria bere aulkira biurtu, eta aretoan danak isil-isillik egozala duintasunez gaiñezka jesarri zan. Salatariaren azalpenak irauten ebala, Kepa Mirena'k ezin egikean siñistu, legegizon aren itzak egizkoak litzakezanik, eta ainbeste guzur entzutean, bere buruari iñotsan, beste iñor baten aurka salakuntza izango ez ete. Epaikariaren berbok, baiña, bere einera biurtu eben auxe iñoanean:

– Aldezle jaunari datorkio txandea. Asi bei, beraz, azalpena.

Legegizon gaztea jagi zan, eta bere oldozkunak une batez taiutu ondoren,

– Jaun-andreok –asi zan–, erretolikaren zati bikain-bikaiña entzu dogu, baiña zoritxarrez, gauzak argitu-bearrean areago korapillotu dira. Izan be, Jaun-andreok, salatzaillaren ari oso orretan, ez da iñongo egiztapenik agertu, eta burubide gutzia ustekeritan oiñarritu da, benetako errazoi bat bera be ekarri barik. Ikusagun...

Une batez isildu zan Manu, eta onetaraxe jarraitu eban:

– Salatzaill Jaunak onartu egin dau aurretiaz, Orueta Jauna suge baten antzera, bere ama alargunaren bitartez “Bikain” lantegira sartu zala, asmo bakar batz, eta auxe alegia: Ostutearren. Eta nik diñodana auxe da: nori sartzen yako burura, Kepa Mirena'k nire bezeroak, bere amak lan egiten eban lekuan ostuten asmatzen ebala...? Salatzaill Jaunak esan dausku, Kepa Mirena gazteak baitu zan unean diruarekin Madrid'erako bide-txartel bat eroiala. Orrek adierazoten dau, baituak gau aretan iges egitea asmatzen ebala, bere ama bertanbera bakarrik lagata, eta onezaz gaiñera, bost ardura seme zitalari, ama gaixoak lantegiko jarduna, au da, bere bizibidea galdu egiala...

Ona elduta isildu zan Manu urruma egiteko, eta,

– Ez, Jaun-andreok –jarraitu eban–, burubide orrek ez dau bururik ez buztanik. Ezagutua da ama-semeak lotzen dauzan maitasuna, eta augaitik, ez beste edozergaitik, egunero edo ia egunero, lana amaituta Kepa Mirena idaztegiaren geratzen zan amari laguntzearen, eta orretarako bakarrik. Ezaguna da



ama-semeak bizi izaten diran etxe-inguruko jendeak, biokan uste on-ona jarrita dabela, eta ezin siñistu, beraz, gazte au gaizkille izan daitekela. Baiña goakion salakuntzaren mamiñari.

Salatari Jaunak esan dauskunez, Klemen'en ezuste bat ustiatuz, Orueta Jaunak kutxearen gurriltxuaren izkien jarrerea ezagutu ebalu, baiña au asma-keri utsa da iñongo egiztapen barik. Gero giltzarena dator: dirudiane, maigaiñeko karpeta baten barruan egoan, leku ez-egokian izan be, baiña goazen aurrera. Ainbeste arakatzez, noizbait, Orueta Jaunak dalako giltza aurkitu eban, eta salatzaile Jaunaren arauz, giltza orren aldaki bat egitea agindu eban. Zertarako, baiña, aldaki bat, karpeta barruan bere aukeran noizgura izanik...? Ekin dagiogun orain ostuketeari:

Ez ete da umekeri utsa, Madrid'erako bide-txartela atara baiño len apurka-apurka kutxatik ostutea, alperriko arriskuak jasanik...? Madrid'era iges egiterakoan, egun berean edo geienez aurrekoan, milloi bi orreik era batean ostu ta anka egingo eban. Au zentzudunena baita biderik ziurrena be izango litzakean. Ez, Jaun-andreok, esandakoagaitik argi dago, Orueta Jaunak ez daukala lapurketa ori egin. Geienetan, ebasleak ez dira ergelak, eta euren ekin-tza zitalak egiteko, biderik errazena aukeratzen dabe, ez zaillena. Augaitik ba, Kepa Mirena ez dala lapurra adimenak diñosku. Baiña baten batek auxe esango dau: eta beragan eroian dirua ertzaintzak baitu ebanean...?

Ona emen, Jaun-andreok, arazo guzti onen ardatza, eta Orueta Jauna ebasletzat salatzen dauana. Ezin dagikegu ukatu nire bezeroak berreun milla laurleko ta bide-txartel bat beragan eroiazala baitu izan zanean, baiña zertzelada onek erakusten ete dausku nai-ta-ez, berak dirua ostu izan ebalu...? Ez dautsuet esango benetako gaizkillea nor dan, orretarako egiztapenik ezin dagiket azaldu-ta, baiña egin dagigun, alboko jantzitegian laga egin dodan nire soingaiñean, baten batek dirua sartu egin daustala, kalera orduko ni lapurtzat salatzekeo...

Une aretan bertan, epaikariak eten egin eutsan onetaraxe:

– Jagole Jauna, kontuz diñozunaz. Areto onetan salatua bat baiño ez dago, eta dirudiane, zure bezeroa zuritzeko beste iñori lapurretea leporatu gura dautsazu, Ori, benetakoa ez dan ezker, ez dautsut baimenik emongo bide irriskorretik joan zaitez, beste baten dedua zalantzan jarteko. On yatzu, aldezuaren errubakotasuna egiztatzearen aalegindu zaitezala, baiña beste iñoren aipu ona lorrindu barik.

– Barkatu beist epaikari Jaunak. Nik ez dausat beste iñori errurik egotzi gura, baiña gazte ori errubakoa ba'da, nai-ta-ez beste bat errudun izan bear-ko... eta emen gizadi guztia sartu daiteken ezker, ez dot iñor berariz salatzen.

Arira biurtuz ba, auxe diñot: edonor erruduntzat zigortzeko, egiztapenak aurkeztu bear dira, eta nire ustez, auzi onetan ez da egiztatu, ez urrik emon be, salatu orreri egozten yakon lapurreta, berak egin dauanik. Eta onekin amaitzera noatzue: areto onetan gazte on baten etorkizuna jokoan dago, errubako baten eta bere amaren zoriona izan be, eta augaitik ba, bere erabateko askatasuna eskatzen dot. Besterik ez, Jaun-andreok.

Manu'k bere txostena amaitu ebanean, aretoan zear isiltasun osoa edatu zan. Izan be, legegizon jagolearen erretolikea ez zan dizdiratsua gertatu, ez urrik emon be, salatariarena baizen-sarkor eta lilluragarria, baiña onen bikaintasunetik urrun ibilli arren, Manu'ren burubidea arteza ta argia izan zan. Aretoko isillaldiari eten egiñez, maigaiñean maillukada bat emonez, epaikariaren itzok aditu ziran:

– Auzia, erbagiaren begira dago.

Eta astirik galtzeke, On Koldo epaikari Jauna, Mustur-baltza ezizenekoa, arin baten bere idaztegiara biurtu zan, eta idazkariñeari dei egiñik, erabakia iradatzi eutsan. Berantetsia aurkitzen zan egun aretan Mustur-baltza epaikaria, berak nai izandako baiño beranduago zalako. Ordu biak izanik, garaia zan emaztearekin. itsasaldera joateko, egun aretako eguraldi zoragarria kanpotar janari on bat az ospatzeko. Somatzen eban On Koldo epaikariak etxeratzean emazte ospintsuaren furrustadea, orren berandu izateagaitik. Eta ori dana auzi arrunt bategaitik, bost miñutu baiño geiago iraun bear ez leuken ezerezkeriagaitik. Askotan epaitu oi ebazan On Koldo epaikariak alako gertaerak, saltsaren erdian arrapaturiko lapur ergelak, goizago edo beranduago ezinbestean baitu izaten ziran okerturiko gazteak. Batzutan zailla zan epaiketazuzenak egitea, egiztapenik ez egoanean batez be, baiña "Bikain" buruzko auzi arek ez eban korapillo andirik aurkezten. Augaitik, eta galduriko astia irabaztearren, Mustur-baltza epaikariak, itz ziur eta ariñakaz idaz-neskeari auziaren epai iradatzi eutsan.

Bitartean, auzi-aretoan, Kepa Mirena'k zalantza andipean Manu bere jagolearekin itz egiten eban. Onen eritxiz, auzia ez zan erraza erabagiteko. Arazoaren zeatzak oso ezpaituak ziran Kepa Mirena lapurtzat eukiteko, eta au agirian jarri izan eban Manu'k bere txostenean. Salatua milloi biren lapurra ba'litz, ostu izango ebazan azken egunean, au da, Madrid'era joatea asmatzen eban egun berean edo aurregunean, eta ez apurka epe luze baten zear. Gauza batek, baiña, kezkatzen eban letradu aldezea: Kepa Mirena baitu ebanean, berreun milla laurleko ta bidai-txartela beragan izatea. Augaitik ez ba'litz... Une aretan bertan, On Koldo epaikaria aretora sartu, eta mintzo ozenaz jendeari isildu zeiten agindu eutsan. Jarraian, onetaraxe asi zan:



– Ardurarik andienaz aztertu doguz auzi onetako gora-beera guztiak, eta onen ondorioz ona emen gure atarakuntzak:

1.– Argi dago, ertzaintzak batu izan zanean berreun milla laurleko beragan erioizala salatutako Orueta Jaunak, baita be Madrid'erako burnibide-txartel bat egun bertarako. Zeatz bi oneik salatuak berak ez dauz ukatu.

2.– Argi dago baita be, “Bikain” baltzuaren diruzaiñak, milloi biren ostuketea salatu ebala ertzaindegian egun berean, au da, dalako Kepa lapurtzat baitu ebenean. Dirudianez, diru-kutxaren egiztapena ez da egiten illeko azken egunetan baiño, lan-sariak ordaintzen diranean. Izan be, enparauko milloi bat ta zortzireun milla laurlekoren zantzurik ez dago, baiña Klemen gaztearen eta diruzain zintzoaren aitopenek ezpaibarik bultzaten gaitu, onein bien azalpenak ontzat emoteko.

3.– Argi dago era berean, Kepa Orueta salatuaren jokaera zitala. Amaren bitartez On Klemen'ek emondako jarduna ustiatuz, beragan jarritako uste onaren ordaiñez, ostu egin dauz baltzuaren erabilterako bearrekoak ziran milloi bi orreik. Eta orain, diru ori bere jabeari atzera emon dagiola eskatzen yakonean, ebaslea ez dala esanez, enparauko milloi eta zortzireun milla laurlekook, lekuren baten ondo gordeta dagoz, askatasuna lortu orduko areitzaz jabetzeko, urrean.

Azaldu doguzan zioakaitik, gure ustez zigortu egin bear dogu, eta ain zuzen be zigortzen dogu dalako Orueta baitua, zortzi urtebeteko espetxaldia bete dagiola, onetaraxe osotua: urtebete bi beragan ostuta erioizan berreun milla laurlekoakaitik, eta sei urtebete, orren aurretik ostutako milloi bat eta zortzireun milla laurlekoakaitik.

Oarra: Azken diruketa ori atzera kiurtuko ba'leu, espetxaldia urte bikoa izango litzake. Eta onenbestez, auzia amaitutzat joten dot.

Itz oneik esatean, Mustur-baltza epaikariak maillukada bat maian emonda, arin baten aretoko aterantz abiatu zan astirik galtzeke, emaztearekin asmaturiko landa-bazkaria izateko, arratsaldeko ordu bi ta erdiak baziran-eta. Baiña aretoko atetik zearkatzeko zorian zala, argi ta ozen, berak zortzi urtez zigortutako Kepa Mirena'ren mintzo ozen eta etsia, onetaraxe aditu zan,

– Jaungoikaren aurrean zin dagit, errubakoa nazala...!

Itz onein oiartzuna amaitu aurretik, Agate'ren bularrean gora, malko samíñez lagundutako oiur larri ta etsia ler egin eban. Egun aretako itsasaldeko ertzean izan eban bazkaria, jaki gozoakaz gertatu izan arren, On Koldo epaikariak ez eban merezi eban beste ederretsi aal izan. Berak epaitutako mutillaren azken didarra eta bere amaren negar-zotin etsia, ezin egikeazan gogotik kendu, eta gogait-eraginda, uste izandako baiño len etxera biurtu zan emaztearekin.

Auzi-aretoko ormatik eskegita egoan gurutzaren aurrean barrutik urten yakon zifia jaurti baiño ez, zorabio batek artuta, Kepa Mirena'k aulki baten gaiñean jesarri bear izan eban, eta aurpegia eskuen artean ostenduta jaurti eban intziri luze, etsia, bere amaren oiur larriarekin bat egin zan. Oarmenera etorri yakon orduan, bere oiñaze larria berekiko iruntsi bear izango ebala, eta oroz gain amaren biotz-min andia arintzea egokiola. Zutundu zan, eta txoko baten negarrez egoan amagana joan gura izan eban, baiña ertzaiñetariko batek eragotzi eutsan auxe iñotsala:

– Au ez dozu ikerraldia. Gurekin biurtu bear dozu espetxera lenbailen .

Sumiñezko erasoaldi batek artuta, Kepa Mirena'k ertzaiña alde batera bultzateko zorian zala, onen laguna tartetu zan, auxe iñotsala:

– Aizu, lagun, zuri ta niri ez dauzku ardurarik mutil onek ama besarkatu dagian ala ez. Semea gaitzetsia izan arren, bere amak ez dau iñongo errurik. Ez al-dozu maite zure ama...?

– Zuzen zagoz, lagun –eta Kepa Mirena'ri zuzenduz–, ama besarkatu dagikezu luzaro ez izatekotan, entzun...?

Agate gaixoa semeagana oldartu zan, eta negar-zotiñak menperatu eziñik, bein eta barrero besarkatzen ebala,

– Kepa Mirena, neure mutilla –iñotsan–, au bai ezbear larria...! Zortzi urtebeteko espetxaldia errubage izanik...! Jaungoikoak eta biok badakigu lapurra ez zareana, eta Berak au dana jazo daiten lagaten ba'dau, zio ezkutu bategaitik izango da. Ez etsi, seme, jarri dagigun uste osoa Jaungoikoagan.

Une aretan urreratu izan yaken Manu aldezeleak, ama-semeai auxe esan eutsen:

– Auzi onetan gauza bitxiak gertatu dira, eta ezin dot ulertu benetako epaikari batek zelan jokatu dagiken orren zentzunbako. Kepa Mirena diru orren ebaslea danik ez da ezelan be egiztatu. Niketz, auzia berrikusi daiten aaleginduko naz. Ez da arazo erraza izango baiña legearen arauz aal dagidanean, eskaera bat egingo dot auzi au osteria ikusi daiten.

– Bai –eratsi eban Agate'k –, orduan danek ikusiko dabe errubakoa zara-la, eta aipu ona birrirabaziko dozu.

Baiña amaren aurrean adoretua agertu arren be, Kepa Mirena lur-jota egoan, eta barruko egoera larria aurpegian igarten yakon. Arimarako inpernu aretan, geien mintzen ebana amaren naigabe itzela zan. Bere aalmenean ba'le-go aren oiñaze latza zelanbait arintzea...!

– Begira, Kepa Mirena –esaten jarraitu eban Manu'k zurubian beera irurok joiazala –, txarrean be, zortzi urteok bost biurtu daitekizuz oiko beera-kadea jaristekotan, eta...



Atzetik ertzain biek erraikiela, autu onetan auzitegiko urtenbidera urratzen ziran. Alako baten, ate-ondoan lagun batekin eragoion Klemen ikusi eban Kepa Mirena'k. Aterantz joiazala urreratu yakon, eta begiai txinpartak eriezala abopeka auxe esan eutsan:

– Zeuk sartu nozu espetxera, madarikatu alena...! Aipu ona lorrindu daustazu ta nire ama zoribakoa biurtu, baiña ziñez auxe diñotsut: egunen baten zapalduko zaitut, suge bat oinperatzen dan antzera...!

– Ertzaiñok...! –bildur bakanak artuta oiuegin eban Klemen'ek– ken egistazue lapur au begiminetik, eta eroan merezi dauan lekura...!

Eta gero lagunagana biurtuz,

– Gure baltzura milloi bi pezeta ostuteagaitik, zortzi urteko espetxaldiz zigortu izan da, eta lapurtzat salatu dogun ezkerok, bere apentzaz zemaitzen nau. Zer deritxazu orreri...?

– Nasaitu zaitetz, Klemen, lapur guztiak jas bardiñekoa dira.

Ertzaiñak Kepa Mirena berebillera sartzeko zorian zirala, amari azken besarkadea emon eutsan auxe iñotsala:

– Agur, ama, eta biotz on...!

– Bai, seme. Astero ikustera joango naiatzu. Dana-dala ikusiko dozu zein arin joaten dan aldia...

– Aizu, Manu –oiuegin eutsan Kepa Mirena'k berebilla abiatzeko zorian zala –, arren lagundu egiozu nire amari etxera.

– Bai, Kepa Mirena, nasaitu zaitetz, orren aurretik neurera eroango dot, eta bazkaldu bitartean, nire ama ezagutuko dau.

Une aretan espetxe-berebilla abiatu zan, eta Agate'ren besoari eutsirik, astiro-astiro Manu'k bere etxera eroan eban. Legegizona lur-jota oartzen zan. Jagoletzat ez eban bizikaspas andirik, eta izan be, axe zan lenengoz iñor aldezten ebala, eta bere lenengo ekitaldi onen ostean, etsiak artuta sentitzen zan, bere bezeroa errubakoa zala ondo bai ondo ekialako. Kepa Mirena'rekin izandako artu-emonetan bereala oartu izan zan, zitalkeri izugarri baten oparia zala, eta ertzaindegian diru-estalkiari erion alkanfor usaiñagaitik baekiala Klemen marrokeri aren egillea zala esan eutsanean, bete-betean siñistu eutsan. Itzela zan bera lako giristiño zuzen eta errukitsuarentzat, errubako bat zortzi urtebeteko espetxaldiz zigortua izan zeitela. Onezaz gaiñera, Agate gaixoaren zorigatxak biotz-min andia ekarkion, bere amatzaz gogoratzen zanean batez be. Au danagaitik, arratsalde aretan bere amarekin eta Agate'rekin Kepa Mirena'ren etxe txiki txukunera joanean, bere buruari zin egin eutsan mutillaren alde aal izango eban guztiak egingo leukela. Ezin egi-kean espetxetik atara, baiña Agate gaixoaren alde aaleginduko litzake bide

guztiakaz. Geroago, egunen baten auzia birredegi aal ba'legi egokiozan urratsak emongo leukez, baiña bitartean itxaron egin bear...

Espetxera eldu zanean, etsiak jota Kepa Mirena kiribildutako lastaiaren gaiñean jesarrita eta aurpegia eskuen artean, munduko gizonik zoribakoen oartu zan. Zortzi urtebeteko espetxaldia beste batek egindako erruagaitik, eta gaiñera onek berak salatua...! Zortzi urtebete inpernu aretan atxillo, bere bizitzako zortzi urte ederrenak izaera lotsagarri amaibakoan, amagandik baztertua. Ama gaixoa...! Auxe izango litzake ezpaibarik geien minduko leukena etorteko ziran urte amaibakoetan. Bizitzak latz erabilli izan eban bere ama ona ta apala, eta noizbait, semea jadanik azita, bere ortziko odei astunek bitargiak erakusten ebezanean, ezbear izugarri arek amaibako illuntasunean murgiltzen eban. Mundu onetan geien maite izaten ebana, bere seme ona ta zintzoa, zortzi urte baltzetan jopu, eta gero betirako laidotuta.

Kepa Mirena zoratzeko zorian oartzen zan, eta bere buruari itauntzen eutsan, bizirik iraun aal izango ete itxaroten eutsan inpernu aretan. Aurpegia eskuen artean ebala, noizean bein intziri mingarri, etenak iges egiten yakozan, eta oartzeke, bere barruenetik ilteko gurari bizia oartzen eban... eta une aretan, arimaren sakonetik gorroto itzungi-eziña sortzen asi yakon, ezerk itzali ezin legikion mendeku-egarri neurribakoa.

Gau aretan espetxeko lantegitik Txinbo biurtuta, epaiketeari buruzkoa jakin ebanean,

– Begira, lagun –esan eutsan–, dalako Klemen ori pizti iguingarria da, eta piztiak erail bear dira. Egunen baten jareizango zara, eta orduan garbitu egizu. Orduko, neue be aske izango naz, eta zure apentza burutzen lagunduko dautsut, bai orixe...! Bere gora-beera guztiak aztertu, eta eretia aurkeztu daki-gunean, blindiblaust...! beste nundurako txartela emon.

Au esatean, norbaiten idunea aizto bat az moztuten ebalakoa egin eban. Kepa Mirena'k, baiña, baekian bere mendekua ez zala izango ori. Ordurarte ez eban asmatu zelakoa izango zan Klemen zitalari emongo leuskion ordaiña, eta izan be, zortzi urtebete areitan asti ugaria izango leuke bere apentzaren egitasmoa burutzeko. Gauza bat az ziur egoan, eta auxe alegia: egunen baten Klemen doillor alenari, egiñikoa biurtuko leuskiola, orretarako bizitza galdu bear izango ba'leu be.

– Ez, Txinbo, ez –erantzun eutsan irribarre itunaz–. Eskertzen dautsut zure eskintza, baiña ori ez da izango nire mendekua, oraindiño zelakoa izango dan ez jakin arren. Asti naia izango dot zortzi urteotan egitasmok atontzeko.

– Begira, Kepa Mirena; lau urteren buruan zigorra bete izango dot, baiña



auxe jakin dagizula gura dot: egunen baten zulo onetatik urtenda, edozertarako nire laguntza bear izango ba'zenduke, gerturik izango nozu zernaitarako.

– Eskerrik asko Txinbo, baiña orren aurretik zortzi urtebeteko zigorra jasan bear izango dot.

– Ez orrenbeste, lagun. Lanen bat egitekotan, dirua irabaziz gaiñera, espetxaldia laburtuko yatzu, eta zortzi urtebeteok sei edo bosteraño gitxituko dira. Zergaitik ez dozu jarduten lantegian nirekin...?

Eta jarraian, Txinbo'k bere lanaren gora-beera zeatzak emon eutsazan. Bitxi-ontzi edo kutxatxuak egiten ebazan Txinbo'k. Zur landuzkoak ziran aldeak eta estalkia antze andiaz apainduta. Barrutik, ostera, ziriko margodunaz jantzita, bitxiak-eta gordeteko emakumeek asko ederresten dabezan kutxatxu orreitakoak. Gizonezkoak ke-bedarra ta beste gaiak sartzeko be erabiltzenetakoak. Kutxatxuak intxaurki edo nogalinaz margoztu ta ondo ezkotuta gero, itxura apaiña artzen eben. Bigarren urratsa, baiña, gaiok saltzea zan, eta au, On Katxi, espetxeko buruzagi baten bidez egiten zan. Dalako On Katxi'k denda batzutan saldu oi ebazan, eta artutako dirutik, iru zati egiten ziran onetaraxe: Bat gaiak ordaintzeko, au da, zura, zirikoa, margoa ta burdinkiak; bigarrena On Katxi'ren bitarte-lana ordaintzeko, eta irugarrena egillearen lan-saria. Izan be, astia emonez gaiñera, baebazan Txinbo'k diru gitxi batzuk, espetxeko janari urri ta erdipurdikoa obatzeko, eta garrantzi andikoa zana, zigorraldia beeratzeko.

Gora-beera oneik azaldu ondoren,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan Txinbo'k–, zergaitik ez dozu nirekin jarduten lankidetzat...? Denbora emoteko onena izanez gaiñera, sakele-rako dirua lortuko dozu, eta bidebatez espetxaldia laburtuko yatzu. Begira: lan egiñez gaiñera, jokabide ona izatekotan, zortzi urteok bost-edo biurtuko litzakizuz. Zer deritxazu orreri...?

– Ez dakit orain zer esan, Txinbo. Niretzat beiñena aalik lasterren urtetea da, baiña arazoa ondo ta zeatz aztertu bear dot, eta orduan urtenbiderik egokiena artu. Lur-jota nozu, eta barruko dendua galduta. Augaitik, inguratzen nauan korapilloa zeozer argitu dakidanean, orduan egitekoa erabagiko dot.

Izan be, Kepa Mirena'ren egoerea larria zan, eta ainbat areago jasateko ebana gogoratzean. Mundu onetan berak maite eban bakarra ama zan, eta onek itxaropen guztia semeagan ipiñita eban; augaitik, Agate gaixoak jasango leukena gogoratzean, etsipen lako zerbait beratzaz jabetzen zan, eta eziñegon arek, pairatzen eban inpernua gorriago biurtzen eutsan; askotan, bere buruari iñotsan, amesetan izango ez ete aspaldi aretan jazoten yakona... Lapurtzat zigortua, eta amagandik baztertua, zelan izan zeitekean...?

Urrengo Igandean, amaren ikerpena izan eban Kepa Mirena'k, eta oi eban lez, Agate zoribakoak semeari janari-zorrotxua ekarri eutsan. Ama ikusi baiño ez, latz-ikara bat Kepa Mirena'z jabetu zan. Amar urtez atsotuago zirudian Agate'k, oi baiño txikiagoa, erkiñagoa emoten ebala, eta bere adats arrea urdintzaren edurra erakusten asten zan. Biotz-ikara batek artuta, Kepa Mirena'k bere amaren aurpegia ardura andiz begiztatu eban. Larminz igatutako aurpegi zimurtsuan begi neketsuen dizdir motelak ondoeza iragarten eban, eta eskuen dardarra ezkutatzearren, burdiñezko sareari eldu eutsan. Agate'ren ezpan margulak irribarre antzeko keiñu bat azabaldur ziran semeari auxe itaundu eutsanean:

– Kepa Mirena, nire maite ori, zelan zagoz...?

– Ondo, ama, baiña zeuk geisorik emoten dozu. Zer dala-ta, ama...?

– Begira, seme, egunokaz zeozer makal sentitzen naz, baiña ez da gauza andirik, eta egun gitxi batzuen buruan betikoa izango naz. Oraingoa ez yat lenengoz jazo, len be oartu izan dot, baiña etorri baizen ezustean joaten da. Ez larritu, seme, laster lengora biurtuko naz-eta...

– Ama, lan egiteari uko egin bear dautsazu, osatu arte beintzat.

– Bai, seme, zeuk diñostazuna egingo dot.

Agate'k semeari ez iñotsana, baiña, astebetean bazala lanari eten egin bear izan eutsala. Ezkututzen eutsan baita be, diru barik aurkitzen zala, eta semeari ekartsan janari-lotukia, Manu'ren amaren emonkortasunari zor eutsala. Legegizon gaztearen gurasoak oso biotzberak ziran, eta euren jokabidean, lagun-urkoarekiko maitasun eta errukia nagusiak ziran. Iru seme-alabak bide orretatik ezi izan ebezan, eta izan be, gurasoen ildo zuzenari erraikioen, arazo guztietan giristiñoen legea erabilliz. Seme ta alaba nagusiak ezkonduak izanik, etxeko kutuna zan Manu, oraindiño ezkongea zan ezkerro, gurasoekin bizi izaten zan.

Epaiketean amaituta gero, eta Kepa Mirena espetxera biurtzen zala, Manu'k taxi baten Agate gurasoen etxera eroan eban. Ain zuzen be, Agate gaixoa indarren mugan aurkitzen zan, eta Manu'ren amak ikusi baiño ez, erruki andia izan eutsan, areago izan be, emakume zoribakoaren itxura makala ikustean. Eldu ta bereala mai-inguruan jesarri ziran danok bazkariari ekiteko. Zaila billakatu yakon Agate'ri ezer irustea, saman eraturiko korapilloak eragozten eutsalako, eta seme zoribakoa gogotik kendu eziñik, aurpegi zimelean beera malko mingotsak eriozan. Bitartean, Manu'k aita-amai auziaren gora-beerak edestu eutsezan, eta amaitzean,

– Arazo onen alderik izugarriena –esan eban–, niretzat beintzat, errubako bat zortzi urtebeteko zigorra epaitu izatea da. Onezaz gaiñera, ezin dagiket



burutuk kendu, beste era batera jokatu ba'neu, ondoreak bestelatsu izan zeitekezala. Kepa Mirena'k aldezerik izendatu ez eban ezkeru, zotz egiñik, niri etorri yatan aren zuriketean egitea, eta baleiteke nik oindiñokarren bearrezko trebetasunik ez izatea...

– Ez dot uste –legegizona be zan aitag eten egin eutsan–, Mustur-baltza epaikaria gizon zuzena danik, eta are gitxiago Txomin Azeria salataria. Azken au berba-lapiko arranditsua da, eta sasi-erretolikea erabiltean maisu andia dogu. Ezin bikote ori baiño egokiagorik edozein salatua giltzapetzeko. Zure azalpena entzunda gero, zu oitubakoa izan arren, erabilli dozun zuriketean benetakoa izan dalakoan nago.

– Bai, Jauna –tartetu zan Agate– nire ustez, Manu'k guztiz ondo jardun dau, eta auziak ondore txarrak ekarri ba'dauskuz, ez dautsagu ezelan be Manu'ri egotzi bear.

– Orain dagokiguna, beraz –esan eban Manu'ren aitag–, auziaren birrikustapena da. Zain egongo gara, eta eretia aurkeztu dakigunean, birrikustearen eskaerea egingo dogu.

– Jaungoikoak ordaindu dagizuela egiñagaitik –esan eban Agate'k–, eta azaltzen dozuen asmoagaitik. Eta orain ordua da etxera joan naiten, naikoa aspertu zaituet-eta.

– Non bizi zara...? –itaundu eutsan Miren'ek, Manu'ren amak.

Agate'k bizilekuaren gora-beerak emon eutsazan, eta orduan Miren'ek,

– Oso urrun bizi zara, Agate –esan eutsan–, bakarrik joateko. Neronek lagunduko dautsut etxeraiño. Goazen ba...

Kalera urtenda, Miren oartu zan, makaltasun utsaz Agate aldarka ebillela, eta beste barik, une aretan aukera etorkien taxi baten Agate'ren etxera joan ziran. Izan be, etxeko itxurea apala zan, eta igokiñik ez eban ezkeru, emakume biak zurubian gora goiko mailla bateraiño igon ziran, astiro izan be, aultasun utsaz Agate'k geldiune ugariak egin bear izan ebazan-eta. Noizbait, laugarren maillara igonik, Agate'k ziskutik giltza atara, eta etxera sartu ziran. Bizilekua txiro ta txikia zan, baiña etxeko txapitela izan arren, garbi ta apaiña. Gorengo mailla izanik, argi ta atsegiña, kaleko zaratea aditzen ez zalako, sukalde naikoa zabala alde batean, eta bestean lo-gela bi, ama-semblearenak.

Sartu baiño ez, Agate'k oso nekatuta zirudiane, Miren'ek erantziten eta oera sartzen lagundu eutsan, eta gero, aren osterai jaramon egiteke, bere ondoan geratu zan, nekearen-nekez Agate lo geratu arte. Gau aretan, Miren arrenkura bizipean etxeratu zan, eta urrengo egunean, etxeko osagilleak lagunduta, Agate'ren etxera biurtu zan. Azterketa zeatza egin eutsan, eta laster oartu zan, Agate minbizi aurreratu batek jota egoala. Esku-sartzerik ez

egoala konturatu zan, eta banazean artuta, olan jakiñerazo eutsan Miren'eri. Geisoarentzat onena, oean etzanda jarraitzea zan, eta oiñazeak osakaiez arindu. Jarraian, osagilleak txataltxu baten osakai eta erabiltarauak idatziz emon eutsazan Miren'eri, eta onek geiso-zaintzaz zeozer ekian ezkeru, geisoari ego-kiozan indiziñoak ipinteko agindu eutsan.

Astebete bat olan igarorik, noizbait, Larunbata eldu zan. Gau aretan Agate'ren miña baretzeko aringarria ipiñi ezkeru, eta Miren bere etxera biurtzeko gertatzen zanean,

– Miren –esan eutsan Agate'k–, biar Igandea izanik, espetxean oiko ikertaldia izango da, eta nire semea ikusi gura dot. Badakit txarto nagoala, eta iraupenik ez luzarorako. Augaitik, eta nire azken ikerpena izango dalakoan, lagundu egistazu espetxera joaten. Aspalditik geisorik nago, eta azken urtebeten onetan gero ta mingarriago dan gatx bat erraetan sentitzen dot. Ez da luzarorako izango, nire azkena ur dago-ta. Azken mezedetzat eskatzen dautsut, Miren; lagunduko daustazu biar azkenengoz nire semea ikustera...?

– Ez zagoz ondo orretarako, Agate.

– Badakit, Miren, baiña kinka larri onetan Kepa Mirena'k iñoizkorik geien bear nau.

Une batez isillik iraun eban Miren'ek, eta gero,

– Bai, Agate, lagunduko dautsut. Aalegindu zaitetz ondo lo egiteko, zure semeak geisorik zagozala oartu ez dagian. Agur, Agate.

– Agur, Miren, Jaungoikoak ordaindu dagitsula nire alde egiñikoa. Berak jarri zaitu nire bidean, au nire oiñaze bizia baretu dakidan.

Urrengo goizean, Miren oi baiño goizago etorri zan, eta gosarlan atonduta gero, Agate garbitu, orraztu, eta apaindu eban aalik ondoen, eta gero Agate'ri zurubian beera lagundu eutsan. Kaleko denda baten jateko batzuk erosi ebazan Miren'ek, eta taxi baten espetxera joan ziran. Ara elduta, Miren'ek ikeraretoraiño lagundu eutsan, eta noizbait, ibillera kolokaz Agate semeagana joan zan.

Izan be, gela aretan ez zan argi andirik, naikoa baiña, Kepa Mirena'k amaren itxura makala oartu egian. Augaitik, lanari uko egiteko eskatu eutsanean, Agate'k baietz, olan egingo leukela esan, baiña bazan astebetean oean etzanda zirauala gaixoak. Ikerraldia amaitu zanean, Kepa Mirena'k burdin-sareari oratuta, amaren ibilte koloka aterantz abiatzen zala ikusi ebanean, zauskada izugarri batek jota, ozta-ozta menperatu aal izan eban etsipenezko intziri bat.



Beste astebete bat igaro zan, larrialdi aretan orduak egunak baizen luzeak biurtzen zirala. Kepa Mirena'k ezin egikean amaren gomutea burutik kendu, aren alde ezin egikeala gauzarik egin, berarentzat larriena izanik. Espetxeko ordu luzeetan buruari ekin eta ekin, gogora etorri yakon bazala aspaldi luze-txua, amaren osasun-beerakadea asi izan zala, baiña amari au aipatzen eutsanean, alai eta baikor azaltzen zan beti, eta au dala-ta, bere arrenkurak ostendu izan ziran, edo gitxitu beintzat. Orain, baiña, biotz-ikara batekin, amaren egoera larria ezin egikean gogotik kendu, etsiak jota batetik bestera ibilli ebillela, arimea inpernu baten murgilduta. Baekian, amak esanda, Miren aren alde arduratzen zala, eta onek neurri baten nasaitzen ba'eban, ezin egikean barruko oiñazea zearo uxatu. Ama zan munduan eban argi ta maitasun bakarra, eta bera barik espetxaldia izugarria billakatuko litzakio.

Aste aretako Igandean, amaren ikerraldiaren begira zala, bere izena aditu ebanean, biotza pilpira zoroan ebilkiola iker-aretoa urrats ariñez abiatu zan. Burdiñezko sarean zear batetik bestera aztertu eban, baiña amaren zantzurik ez. Zer egin ez ekiala ezpaitsu egoanean, abots batek,

– Aizu, Kepa Mirena – esan eutsan–, zure amak ez dau etortterik izan.

Manu'ren mintzo ezaguna zan. Zauskada izugarriean urreratu yakon, eta sareari tinko oratuz,

– Manu – didar egin eutsan–, orren geisorik ete dago...?

– Ez dakit, Kepa Mirena, baiña araiñegun etxeko osagilleak ikertu eban, eta azterketa zeatz baten ostean, arazoak itxura ona ez ebal, eta biar beste osagillekide batekin etorriko dala esan euskun.

Iker-aretoa jira-biraka asten yakola, Kepa Mirena'ri intziri bat iges egin yakon, eta sareari eutsirik, atsekabeak zurbildutako aurpegia Manu'ganantz zuzenduta,

– Arren, Manu – eskatu eutsan–, esaidazu egi osoa, zalantza ezin dagiket jasan-eta. Jakingo ba'zendu zein izugarria dan niretzat amarena, ezer egin ez dagikedanean batez be...!

– Zin dagitsut, adiskide, zure amaren geisotasunari buruz zeozer jakin dagidanean, astirik galtzeke esango dautsudala. Bitartean, ez zaitetz larritu, nire amaren zaintzapean Agate'ri ez yako ezer faltako-ta.



– Estu ta larri nabiltzu aspaldi onetan, nire amak dirurik ez dau-ta, eta izatekotan be, janari ta soñekotan neugan txautu izango eban. Esaiozu ez dodala ezeren bearrik, eta nigaitik ez daitela larritu, ondo nago-ta osasunari buruz batez be.

Isillean Manu'k begiztatu eban errukitsu, eta gero, biotzaren eragintzari jarraituz,

– Aizu, Kepa Mirena – esan eutsan txeratsu–, gurean egunoro zuen bion alde otoitz egiten dogu. Zuzenbagekeri baten opari errubakoak zarie baiña egunen baten egia oroz gain jagiko da. Biotz on, Kepa Mirena...!

– Nire egoerea inpernu jasangaitza biurtu da, orduak egunak baizen luzeak, eta egunak urteak iruditzen yatazala. Ez neuke iñoiz siñistu aal izan, gizaseme bat orren zoribakoa izatera eldu leitekela...

Errukiz gaiñezka begiztatu eban Manu'k. Lapur baten zuriketean egiteko izendatu ebenean, ez leukean iñoiz uste izango, salatutako betaurrekodun gaztea orren sakonki ederrestera elduko litzakiola, eta ainbat areago errubakotzat eukirik. Orduko, ereti ugariak izan ebazan Manu'k Agate'ren semea ezagutzeko, eta izan be, orain burdin-sarez bestaldean ekusan mutil zorigaiztokoa, anaitzat maite izaten ebala oartzan zan. Sentitzen eban biotz-ikarea menperatu naiez, adoretsua nai izaten eban mintzoz, auxe esan eutsan:

– Agur, Kepa Mirena, zure amarena jakin dagidanean, etorriko naitzazu. Anartean, biotz on eta itxaropena...!

Au esanik, begien dizdir malkotsua ezkutatzearren, aretoko atetik ostendu zan ibilte ariñez.

Aspaldi estu ta larria igaro eban Kepa Mirena'k barruko dendu ta bakea idoro eziñik, espetxeko larrañean batetik bestera urduri ebillela edo-ta lo-gela zabalean lastairan etzanda lo-atsedena idoro eziñik, lagun zurrungek eta lekoreko zaindarien “Gertu...!” ko didarrez inguraturiko. Noizbait, egutegitik beste astebete bat jalgi zan, eta eguberdia barik iker-aretora dei egiña izan zan. Zauskada larripean abiatu, eta Manu'gana irrika bizian joanda, onen aurpegian irakurri ebanak lur-jota itzi eban. Burdiñezko sareari oraturik, eta nai-gabez gaiñezka, bere alde zlearen barrien begira geratu zan.

– Aizu, Kepa Mirena – asi yakon Manu mintzo errukitsuz – araiñegun zure amarena jakin dogu, eta... badirudi gauza ona ez dala...

– Manu – oi ugin eutsan Kepa Mirena'k–, arren, esaidazu egia...!

– Dirudianez, zure amari kendutako azterkia, ba... minbizia dala dirudi...

Ezpan itxietan zear, intziri sakon bat iges egin yakon Kepa Mirena'ri, eta zorotasun-dizdiraz begietan,

– Entzun egistazu, Manu – oi ugin eutsan–, orrek esan gura dau, ama

luzarorako ez dala izango, eta beraz, zugandik auxe nai dot: zelan edo alan, ama il baiña len ikusteko baimena lortu dagidazun...!

– Orretarako, zigortu zinduzan epaikariaren baimena bearrekoa da.

– Lortu egistazu baimen ori, Manu.

– Izan be, On Koldo edo Mustur-baltza epaikaria egosgogorra ei'da. Ori bala-bala dabillan gauza da.

– Joan zakioz, eta atara egiozu baimen ori. Esaiozu nai dagizuna, baiña jaritsi egistazu. Mundu onetan jazo dakidana bardin daust onezkero, baiña ama ikusi gura dot bere azkena arintzeko, eta aren oroitzat biotzean betirako gordeteko. Arren, Manu, lortu egistazu ori...!

– Bai, Kepa Mirena, olan egingo dot, eta aalegin orretan pot egitekotan...

– Orduan, il egizu, Manu, il egizu...!

Kepa Mirena'ren begietan zorotasuraren aztarnak agiri ziran, eskuakaz burdin-sareari oratuz, eta sumiñak jota dardar baten egoala. Une batez Manu ikaratu zan, baiña bere lagunaren egoera zoribakoa eraginda,

– Nasaitu zaitez –esan eutsan–; onez-onean dalako baimena jaritsi-eziña ba'da, ostu egingo dautsat, bai orixe...!

Kepa Mirena'ren begietatik zorotasuna bide egiten asi zan, eta gero bere zerera biurtuta, auxe itaundu eutsan:

– Noiz biurtuko zara...?

– Bein baimena lortuta gero, unerik egokienean. Nasaitu zaitez eta atsedan artu egizu, Kepa Mirena, oso nekatuta emoten dozu-ta.

– Ezin dot lorik egin, inpernu baten murgilduta bizi naz-eta. Manu, zergaitik izango naz orren zoribakoa, zer egin dot, baiña, ezbear au etorri daki-dan...?

– Ez dakit, baiña ipiñi zure uste ona Jaungoikoagan.

– Nire uste ona... Aspaldi onetan galdu yatan gauza da ori, baita betirako galdu be, urrean...

– Agur, lagun maite ori, etxean danok gogoan zaitugu.

– Agur, Manu, eta eskerrik asko.

Urrengo egunean amarretan inguru, Manu'k On Koldo epaikariaren idaztegi-atea jo eban. Edegi zanean, idaz-mutil batek,

– Zer nai dozu...? – itaundu eutsan–.

– Epaikari Jauna ikusi gura dot.

– Zertarako...?

– Ori berari esango dautsat. Ez al-nozu ezagutzen...?

– Bai, baiña orain arazopetuta dago.

– Baita neu be. Esaiozu Manu Iturizaga'k ikusi gura dauala.



– On Koldo'ri ez yako atsegin izango gosari-aldiari eten egitea...  
– Niketz, gosariari jarraitu dagikeo, baiña arazo garrantzitsu batek nakar ona.

Idaz-mutillak ostendu zan, eta andik laster agertu zan ostera, auxe iñotsala:

– Sar zaitez, Iturizaga Jauna.

Manu'k bigarren ate bat zearkatu eban, eta Mustur-baltza'ren idaztegi bikaiñean aurkitu zan. Areto ederra izan be; sabaia izan ezik, ormak eta sorua zurraketa apaiñaz estalita egozan, eta idaz-maiaren bestaldean, lau narruzko besaulkik inguraturiko mai txiki baten aurrean, epaikari Jauna, gosari naro bateri emotsan, On Koldo andi, lodikoteari zegokiona, alegia. Une aretan bertan, Mustur-baltza'k guriñaz igurtzitako ogi-xigor baten gaiñean, arretarik andienaz, mertxika-jelea edatzen eban. Idune mardoaren inguruan zapi bat lotuta eban, janzki dotorea zikindu ez ekion, antza. Kapela barik egoanez, burusoil anditzarrak argi dilindari bakotxaren bost dizdirak ispillutzen ebazan. Manu ikusi ebanean, esku bat azaldu eban erakutsi eutsan jesarri zeiten, eta besteaz, ondo zamaturiko ogi-xerra abora sartu eban. Noizbait, bere agin eta matraillagin indartsuek abokadea birrindu ebenean, beste zati bat gertatu bitartean,

– Iturizaga Jauna –itaundu eutsan–, zeri zor dauzat zure etorrerea...?

– Begira, Jaun epaikaria, orain illabete bat-edo, Orueta'tar Kepa Mirena'ren auzia ikusi zan, eta zortzi urteko zigorra emon zeutsan. Oroitzen al-zara...?

– Bai, lapurtzat epaitu neban, ziarduan lantegian milloi bi ostuteagaitik. Negargarria benetan, a lako mutil ederrak jokabide ori aukeratu egian, bere nagusiaren uste onari uts egiñik.

– Ara ba, On Koldo. Mutil orren ama bizien batek jota egun gitxitarako izango da. Augaitik, eta zuri dagokizun arazoa dan ezkerero, egun baterako baimena emon dagiozun eskaereaz natortzu, il baiño len ama ikusi dagian.

– Ez dauzat iñongo baimenik emongo. Ondo dago espetxean, merezi dauana ordainduz.

Manu sumintzen asten zan epaikariaren gogortasuna egiztatzean, baiña bere asarrea menperatuz,

– Aizu, On Koldo – esan eutsan–, baimen ori emoten ez ba'dautsazu, ama izango da oparia, ez beste iñor. Arren, emon egiozu baimen ori.

– Alperrik da, Manu. Ez dauzat dalako baimenik emongo. Lege-ausle orrek dagokiona ordaindu bear dau.

– Begira, epaikari Jauna – esan eutsan Manu'k mintzoa beeratuz–, izugarria izan zan azken ikerraldian ikusi neban. Ama azkenengoz ikusteko bai-

mena lortu nengion eskatu eustanean, mutillari oartu-erazo neutsan, zeu lako epaikari zuzenagandik zailla izango litzakela alako mesedea lortu nengian. Esan ba'neutsan, esan neutsan...! Begiak zorotuta, bein eta barriz oiukatu eban, dalako agiria ez lortzekotan, il egingo zinduzala. Izugarria izan zan, On Koldo, baiña siñistu egistazu, benetan iñoala. Ara... bost bat urteren buruan aske izango dala, eta orduan egon zeitezana egon zeitezala billatuko zaitu, eta txakur amorratu baten antzera erailgo zindukezala, bizitzaldi guztirako zigorra ordaindu bear izatekotan be... Izugarria izan zan, eta ainbat areago, benetan iñoalako...

Bitartean, Mustur-baltza'ren aurpegi biribilla zurbiltzen asia zan eta aurrean eban gosari bikaiña aztu eginda, itxura artegaz,

– Uste al-do zu, Manu – itaundu eutsan–, bene-benetan ziardua ori iñoanean...?

– Bai, On Koldo, eta txarrena auxe da: ezerezkeri utsa baiño ez dan egun bateko baimena ez emoteagaitik, olako izugarrikeria jazo daitela, eta zeu lako gizon zuzen eta guztiek ederretsia dana ezelan be merezi ez dauan olako azken negargarria izatea...

– Naikoa bedi, Manu –eten egin eutsan On Koldo'k aurpegia errautskara biurtuta–. Izan be, zuzen zagoz, eta neu lako baten izaerea ezerezkeri orren askozaz gaiñetik dago. Augaitik ba, egun baterako baimena emongo dauzat, baiña orretarako, nor izango da baimen orren erantzulea...?

– Nerau berme sartuko naz.

– Ederto. Zein egunetarako nai dozu agiria...?

– Egunik ez ipiñi, epaikari Jauna. Ama ilteko zorian, neronek jarriko dot eguna. Dana-dala, ez dakit aste au igaroko ete dauan.

Mustur-baltza idazmaira joan zan, eta egokion irarkia artuta, bete ta sillutu eban. Gero Manu'ri eskuratu eutsan auxe iñotsala:

– Eutsi, eta urrengorarte.

– Agur, On Koldo, eta eskerrik asko.

Nasaitasunezko asperena jaurtita, epaikariaren gelatik urten zan Manu, eta irarkia ondo gordeta, bere aitarekin banatzen eban idaztegiara abiatu zan, berekiko barre egiten ebala, Mustur-baltza'ri sartutako ziriagaitik.

Izan be, Manu'ren suzmo txarrak bete ziran, eta aste aretako goiz baten idaztegi ziardua, urrutizkiñez dei bat artu eban. Bere amarena zan, eta lenbailen Kepa Mirena'ren billa joan zeiten, etxera ekarteko, Agate ilteko zorian zan-eta. Manu gerturik egoan eretirako, eta baimen-agiriari egunaren noizkoa jarrita, taxi baten espetxera joan zan. Eldu baiño ez, ango idaztegiari agiria erakutsita, Kepa Mirena'ren billa etorrela jakiñerazo eban.



Oi eban lez, egun aretan Kepa Mirena larrañean gora ta beera ibilli ebilen. Bazirudian jardun onek bere gogoeta illunak zelanbait arintzen eutsazala. Bere izena aldarrikatu ebenean, zauskada batek jota idaztegiara arindu zan. Izango ete...? Bai olantxe zan, eta aalik ariñen gertatu zeiten kalera joateko. Olan egin eban, eta luzaro barik, atean bere begira egoan Manu besarkatu ondoren, berebillera sartu ziran. Manu taxilariaren ondoan jesarri zan, eta Kepa Mirena atzekaldean ertzain bik alboratuta. Oneitariko batek sakeletik esku-burdiñak atara, eta baituari jarri nai izan eutsazan, baiña ori ikusi eban Manu'k,

– Arren – esan eutsan–, ez egiozuz ipiñi. Ilteko zorian dagoan bere ama ikustera doa.

– Legeak eskuturrekoak ipintea agintzen dau.

– Badakit ori, baiña ez da bearrik. Gaiñera, ni baituaren berme naz, eta badakit ez dauala iges egingo. Legegizona nazan ezkerro, baitu orren jagolea izan naz. Ez ete nozue ezagutzen...?

– Bai, Jauna – esan eutsan beste ertzaiñak–, badakit legegizona zareala, eta zeuk diñozun ezkerro, baituari ez dautsagu esku-burdiñik ipiñiko.

– Eskerrik asko, eta orain aurrera...!

Arin baten urira jatsi, eta kaleetan zear Kepa Mirena'ren etxera eldu ziran. Orduko, eguberdiá zan, eta arrapalada baten ertzaiñek jarraitutako, Kepa Mirena ta Manu zurubian gora igon ziran. Gorengo maillara eldu ziraneko, atea zabalik egoan, eta ate-zubipean Miren'ek itxaroten eutsen, auxe iñotsela:

– Laster, sartu zaitez. Ama zure begira dozu, Kepa Mirena.

Astirik galtzeke, mutilla amaren gelara joan zan, eta une batez zer egin ez ekiala oe-ondoan geratu zan. Agate gaixoak iñoizkorik txikien eta argalen zirudian, billo errautsuak burko-gaiñean sakabanaturik, eta argizagi-itxurako eskuak estalki zuriaren gaiñean. Begiak itxita ebazan, eta ezpan margulak igitzen yakozan, otoika, urrean.

Samurtasun neurribakoa jabetu zan Kepa Mirena'z, eta belaunikotuta, amaren aurpegi zimurtsua eskuetan arturik, musuz bete eban.

– Ama, ama –esan eutsan leun-leun– ez zaitez larritu, emen zurekin nozu noizbait...

Agate'k begiak edegi ebazan, eta alboan ain maite eban semea ikusirik,

– Bedeinkatua bedi Jaungoikoa semea ekarri daustalako... Oraintxe bertan otoi egiten neutsan ekarri zengizan... eta entzun daust.... Zelan zagoz, seme...?

– Ederto, ama, ez zaitez larritu, ondo nago-ta.

– Bai, Kepa Mirena, ondo ikusten zaitut, betiko mutil sendo ta ederra... Bai, mutilletariko ederrena... Izan be, askotan ekarten daustazu gogora zure aita zana... Bai, bera baizen sendo ta ederra, edo areago zara-ta...

Agate'k itz egiten jarraitu nai izan eban, baiña Kepa Mirena'k aurpegi zimela laztantzen eutsala,

– Ama, atsedeen artu, arren –esan eutsan–. Ez dozu berba egiteko bearrik, emen zurekin egongo naz bear beste luzaro.

Agate'k, baiña, ezin egikean atsedeen artu, gatxak barriro be min egiten eutsalako. Andik laster, oiñazea arintzeko, Miren'ek ibigarri bat ziringatu eutsan, eta oi lez, onen ostean lo-kuma batek artu eban. Bitartean, oe-ondoan jesarrita, Kepa Mirena'k amaren eskuai eutsita irauten eban, etenbarik laztantzen eutsazala. Olan ziarduala,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan Miren'ek–, goazen maira, otordua da-ta. Gero amagana biurtuko zara orain loak artuta dago-ta.

Mai-ondoan jesarri ziran Miren, onen senarra, Manu, eta Kepa Mirena. Azken onek, baiña, ezin egikean gauzarik iruntsi, saman eraturiko korapilloa-gaitik. Noizbait ezinduta, jateari uko egin eutsan, eta Miren'en osterak arren amagana biurtu zan. Onek lotan zirauan, eta len lez amari eskuak laztandu eutsazan. Alako baten, Agate'k begiak edegi, eta auxe esan eutsan:

– Kepa Mirena, emen al-zagoz...? Askota asko jasan dot aspaldi onetan, baiña nire oiñazetan Jaunak ez nau bakarrik itzi.. begira... Miren nirekin izan da goizetik gaberaño... eta gabaz etxera biurtzen zanean, lekaima bat nirekin izan dot... Askota zor dautset Manu'ren etxeakoi, eta Jaunaren aurrean naitenean, eurok egiñikoa ordaindu dagitsela eskatuko dautsat...

– Ama, nasaitu zaitez, atsedeen artuizu nekatu egiten zara-ta.

– Laster izango dot betirako atsedena; seme, nire aldia amaitzen yat... Kalte andi-andia egin dauskue, zeuri batez be... baiña dana barkatzen dot... Noan lekutik zure alde erregutuko dot etenbarik, benetako giristiñoa irauan dagizun beti... eta egunen baten, gaur ukatu egin yatzun zoriona ezagutu dagizun...

Gero, itz ulerteziñak esaten jarraitu eban Agate'k. Alako baten argi-argi,

– Kepa Mirena, agur maite ori... Jaunak beragana naroa... emon egistazu eskua...

Bizitzaren arnasa joanda, ilda zetzan Agate, aurpegi zimelaren zear erioztzaren bakeak aurpegia edertzen eutsala. Musu bat bekokian jarrita, Kepa Mirena'k begiak itxi eutsazan, eta gero aulkian jesarrita, aurpegian eskuen artean ezkutauta, bularra zotiñek astinduta, negar mingots, etsi bateri emon eutsan. Ordurarte, ainbeste oiñaze ta naigabetan zear, ez eban malko bat bera



be isuri izan, baiña orain, amaren gorpuaren ondoan, gizontasuna galdu egin bai'leuan, ume baten antzera negar etenbako bateri emotsan, mundu onetan eban maitasun bakarra galtzean. Eta negar mingots arekin batean, berak ez ekian beste sentipen bizi batek izate guztia beteten eutsan izugarritzko indarrak: gorrotoaren oarpen uxaeziña...

Une luze batez olan iraun eban, munduko gizonik zoribakoena sentitzen zala. Alako baten, sorbaldan ukutze leun bat oartu, eta mintzo gozo batek auxe esan eutsan:

– Kepa Mirena, nire mutilla, badakit doakabe sentitzen zareala, eta ainbat areago, egotzi dautsuen ekintzari buruz errubakoa izanik.

Jaso eban burua, eta malkoen laiño-artean, Miren'en aurpegi maitetsua ikusi eban. Manu'ren ama, ontasuna parrastaka erion emakumea zan, eta doai onezaz gaiñera, bere barruan giristiño sutsu baten siñismena ondo sustraituta egoan.

– Baretu zaitez, Kepa Mirena –jarraitu eban Miren'ek–, Jaungoikoak batzutan bere kutunenak era onetan erabilten dauz. Oñazeak gizakiak garbiagotzen eta munduko lokatetik goratzen dauz. Eskatu egiozuz Jaunari bear izango dozuzan indarrak emoteko...

– Bai, Andrea – eten egin eutsan Kepa Mirena'k–, indarrak bear izango dodaz, espetxeko izugarrira sartu nauanari merezitakoa emon dagiodan.

Mutillaren mendeku-egarria oartzean, Miren'ek errukiz begiztatu eban, eta orduan,

– Aizu, Kepa Mirena – esan eutsan–, ulertzen dot zure egoerea, baiña begira...Zeuk beste edo areago pairatu dauan zure ama santua, guztientzako barkamena eskatuz il da.

– Niri egiñikoa barkatu dagiket, baiña amari egin yakona, ezelan be ez. Ama kendu egin dauste, kendu. Bai, illobira eroan dabe oroz gaiñetik maite ninduana... eta gaiñera mundu onetatik joan da, semea zortzi urterako espetxeratua. Uste al-dozu, oldozkun onek bere azken ordua arindu dautsanik...?

– Egia da ori, baiña orain zure ama zorionsua da. Bere azken egunotan, sarri esaten eustan, zure alde otoitz egingo leukela. Beste iñoren erreguak aditzekotan, Jaunak zure amarenak kutunenak izango ebazan. Agate txiroa zan, Kepa Mirena, baiña santutasunean gitxi bera baizen aberats. Barkatu egiozu kalte andia ekarri dautsuanari, zure amak eriotzaldian egin dauan lez.

Une batez, Kepa Mirena burua makurtu eban, eta gero begi gorrituak Miren'enetan josirik,

– Ezin dot, ezin...! –mintzo urratuaz esan eutsan–. Begira Andrea: espetxeko urte izugarrietan, kemena ta indarra emongo daustazanak, apentzaren

egarria izango da. Irrika onek illuntasunean argi bizia ekarriko daust, eta egutegiko orriak jalgiko dira banan-banan, eta jauste bakotxarekin, nire asperkudearen eguna urreratzen yatala oartuko dot. Bai, auxe izango da zutunik iraun-erazoko nauan indarra, espetxaldiko zitalkeritik jasoko nauan itxaropena...!

Miren'ek mutilla errukitsu begiztatu eban, eta gero,

– Maitasuna da, Kepa Mirena –mintzo maitekorrak esan eutsan– gizakiak jaregiten dauzana eta zorion-ekarlerik andiena. Gorrotoa, barriz, arimea kiskaltzen dauan gar basatia, azkenean norberagan ondapen eta antzutasuna sortzeko. Gorrotoak ustuko dautsu arimea ezer onik ekarteke. Arren, Kepa Mirena, uxatu zugandik gorroto kiskalgarri ori...!

– Ezin dot, nire naimena baiño indartsuagoa da-ta.

Alperrik zan autu-gai areri jarraitzea, eta orduan urrengo egunean ospatuko ziran Agate'ren eleizkizunai ekin eutsoen, eta eguberdian izango litzakezala erabagi zan. Arazo au ta beste batzuk erabilli ostean, illuntzea urreratzen zanez, ertzain batek mutillari gomutazo eutsan espetxera biurtzeko ordua zala, eta Kepa Mirena joateko gertatu zan. Orduko, Manu'ren aita etorria zan, eta senar-emazteek ateraiño lagundu eutsoen. Urten aurretik, Miren'ek mutilla besarkatu eban estu-estu, eta,

– Agur, Kepa Mirena, nire mutilla –esan eutsan negarrez–, amaren eta nire otoitzak zure alde izango dira, egunen baten bakea ta zoriona jaritsi dagizuzan.

– Eskerrik asko, Andrea. Asko egin dozue amaren alde, eta ori ez yat egundo be aztu egingo. Agur guztioi.

– Joan aurretik, jakin bear dozu –esan eutsan Miren'ek–, biar eleizkizunak amaituta, zure ama gure sendiko obitegian lurperatuko dogula. Egunen baten zeuk erabagiko dozu nora eroan. Anartean gure arbasoekin egongo da.

Korapillo bat eztarrian kokatuta, Kepa Mirena ozta-ozta auxe bakarrik esateko gai izan zan,

– Eskerrik asko, Andrea...

Eta jarraian, lo-ibiltari baten antzera, ertzain biek eta Manu'k lagunduta, zurubian beera joan, eta kalean begira eban berebillera sartu zan. Begiak urrutian ipiñita egin eban bidaia. Arrezkero, bardin yakon dana; amaren bete-eziñeko utsak bizitzarekiko axolabako ta ardurabakoa biurtzen eban. Espetxera sartzean euria zan; euri-jasa mee ta amaibakoa, barruan sentitzen ebazan kadena ta utsa lakoxe. Bere atzetik burdiñezko atetzarra danbada gortugarriaz itxi zan, eta astiro ta lur-jota, gelatxuen arteko igarobide luzeetan zear, beste atxilloekin bizi izaten zan gela andira abiatu zan, gorrotagarria billakatzen yakon orma itunez eta lagun zantarrakaz beteriko leku iguingarria.



Aspaldi izaugarria asi zan Kepa Mirena'rentzat. Batzutan, bere burua iltea oba izango ez ete litzaken gogora etorkion, baiña laster uxatzen eban burutapen doillor au. Olakorik ez zan benetako gizaki baten ekinbidea, koldar batena baiño. Berari bestera jokatzea egokion; atsegiña lekarkioken mendekua gogora ekartea, inpernu aretan murgildu izan ebanari merezi ebana ordaintzea...

Goizeko ta arratsaldeko urten-aldietan, urduritasun geldieziñak artuta, larraiñean zear batetik bestera egurasten eban, soin-iñarkun arek zelanbait baretuko bai'leuan. Espetxekideekiko arremonak aal giñoan baztertzen eban, onein autu zikin eta zantarkeriek nazkatuta. Uxatu ezin egikeana, baiña, zorriak eta imitxak ziran, eta berak bogadea sarritan egin arren, ezin egikeazan ziztalari arein erasoak eragotzi. Zorionez, askotan ikertzera etorkion Manu, bein baten auxe esan eutsan:

– Aizu, Kepa Mirena, amak esan daust, ikustera gatozkizun bakotxean aldagarri zikiña zorro baten sartu dagizula, eta etxera eroanda, an garbituko yatzula.

Aurrerantzean, Manu edo Miren ikustera etozanean, eretia ustiatuz, zorrotxu baten aldagarri zikiña eroan, eta urrengoan, garbi ta ondo lisa-burdindua atzera ekarkioen. Oneri esker, garbitasun-aldetik Kepa Mirena'ren egoerea obatu zan benetan.

Len esan da, espetxekideen arremonak baztertzen ebazala Kepa Mirena'k, baiña benetan esateko, bazan atsegin yakon norbaiten laguntza; Txinbo'rena alegia. Lege-aurkari begiko au, urrezko barrukoa zan, bere elburua izanik, munduko laterri guztietatik jaurlaritza kendu, eta alkarte txikietan gizasemeek lanari emonda bakean eta alkar-maitasun lokarriakaz batuta, ludi onetan zeruan lez bizi izatea. Bitartean, eta ames ori lortu arte, aberatsai ostutea, eta jende okerra iltea be, guztiz zillegia zan.

Gau guztietan espetxeko lantegitik biurtuta, Kepa Mirena'k Txinbo'rekin guztitariko autuai emotsan. Manu'ren etxekoek, aldagarri garbiz batean jateko aukeratuak ekarkioezan amabostero, eta janari au egunoro-



ko espetxe-lapikokoari obatzeko erabilten eban Kepa Mirena'k. Mokau autatu oneik Txinbo'rekin banatzen ebazan, eta izan be, ekintza onek legebakoaren beraganako eraspina sendotzen eban. Txinbo'k ezagutzen eban bere lagunaren jazokizun negargarria, eta sarri askotan auxe inotsan:

– Entzun, Kepa Mirena, emendik urten zaitezanean il egizu Klemen zital ori. Zeu azartzen ez ba'zara, neronek garbituko dot. Oso erraza izango da, begira... gau baten jarraitu, eta iñork ikusi barik, zartako eder bat buruan, eta ibaira bota...

– Baiña, Txinbo – erantzun oi eutsan Kepa Mirena'k–, ori erailketa iguingarria da, eta nik ez neuke iñoiz olakorik egingo.

– Egin eutsuna ordaintzeke itziko dozu-ala...?

– Ez, egunen baten berea artuko dau, baiña ori niretara jazoko da.

– Zelako zigorra emongo dautsazu ba...?

– Ondiñokarren ez dakit, baiña dana ordainduko daust.

– Badozu astirik ba zure mendekua atontzeko, emen edo beste leku baten bost urteko zigorra begira dozu-ta.

– Luzesten dot benetan, baiña apentzaren ordua zelan edo alan etorriko yat.

– Ba al-dakizu gauza bat, Kepa Mirena...? Zuk olan uste dozun ezkeru, ez dot Klemen garbituko, baiña zure mendekua aurrera eroateko, jakin egizu lagunduko dautsudala. Izan be, atsegingarria litzakit.

– Nasaitu zaitez, Txinbo, garaia etorri dakidanean, jakitun ipiñiko zaitut.

Zortzi urtebeteko espetxaldia etorri izan yakon ezkeru, zigorra beteteko Dueso edo antzeko tokia egokion. Zorionez, baiña, Manu'k arazo ori bere ardurapean artu izan eban, eta zigor-espetxeak bete-beterik izanda alde batetik, eta Kepa Mirena'ren obena baiño askozaz larriagoak ugari izanik bestetik, noizbait, espetxe aretan bertan geratu zeiten jaritsi eban Manu'k. Egoera au guztiz onurgarria azalduko zan berarentzat.

Egunak igaro-ala, gero ta aspertuago sentitzen zan Kepa Mirena.

Urtebete batzuk egoera onetan igaro bear ebalako oldozkunak, larri jarten eban, batzutan zorotasun-antzeko zerbaitek menperatzen ebala oartzerañño. Barruko zerbaitek baiñotsan bere gaztaroa pikotara joana zala betirako, aurrean itxarokiozan urte ustel, utsak, inpernu bat billakatuko litzakezala, gaztaroko urre-aroa betirako ezereztuz. Azken urteetan, aita galdu ebanetik ain zuzen be, asmo kutun bat laztandu izan eban etenbarik, eta auxe alegia: Ikastola Nagusira sartu, eta gero jardun on bat lorturik, bere ama lan egin barik bizi izan zeitela. Orain, ordea, utsa ta ezereza baiño ez eban oartzten bere aurrean, eta oarkizun onek gorroto ta apentza-egarria gar itzungieziña biurtzen ebazan.

Illean birritan Miren'ek eta Manu'k ikertzen eban; legegizonak illaren asieran, eta onen amak andik amabost egunera. Atsegin yakozan mutillari ikertaldi oneik, eta ain zuzen be, basamortuan zearko bere bidaiari, ur ozkirriko iturri atsedengarriak billakatzen yakozan. Manu'rekin izaten ebazan autuak, bere auziari buruz oi ziran. Legegizon gazteak jagole izaten jarraitzen eban, eta biok erabagi izan eban, lenengo abagunean, auziaren birrikustea eskatuko leukiela. Au egiteko, baiña, aldia igaro zeitela itxaron bear. Manu zintzoak baekian arazo au ez litzakela erraza izango, eta olan adierazo eutsan Kepa Mirena'ri, baiña orduko, urtenbide bakarra izanik, ari eusten eutsoen gazte biok. Onezaz gaiñera, Mustur-baltza auziaren birrikustearen alde izan zeitela baldintza laga-eziña zan, eta baldintza au ez litzake erraza izango. Amabosteroko ikertaldi oneik, gazte bion arteko lokarria sendotzen eban, eta alkarganako oneritxia aldiaren bidean indartzen zan.

Baiña Kepa Mirena'rentzat benetako aringarri ta bake-ekarlea, Miren, legegizonaren ama zan. Emakume gailen onek ezin egikean jasan mutillari egiñiko zuzenbagekeria, eta bere buruari zin egin izan eutsan, zelan edo alan Kepa Mirena'ri lagunduko leuskiola, eta izan be, erabagi au beteten eban. Gure errian sarri askotan ikusten diran orreitariko emakume zintzo, Jaungoikozale, errukitsua zan, eta girstiñotasuna barne-muiñetaraiño sartuta izanik, maitasuna egi biurtzen ebenetarikoa zan. Asieratik, Manu'k, bere semeak, Kepa Mirena ta onen ama Agate'ri buruz esan eutsanean, astirik galteke onen etxera joanda, geisorik egoala oartu zanean, etxekoa bai'litzan zaindu eban. Orduak eta orduak aren oe-buruan emonez gaiñera, bear izaniko osakaiak bere pentzutik ordaintzen ebazan, eta Agate'ren osasuna txarragotu zanean, lekaime bat etorri-erazo eban gabaz zaindu egian, bera egunez oe-burutik aldentzen ez zala. Miren'eri esker, Agate'ren eriotzaldia arindu izan zan, eta etxekoen obitegira lurperatuta gero, bere buruari zin egin eutsan, aren semearen alde aaleginduko litzakela, eta areago mutilla etsiak jota, eta gorrotoaren sumiñak iruntsita ikustean.

Illero ikertzen eban Miren'ek, eta aurreko ikustaldian etxera eroandako Jantzi-erantziak, garbi ta ondo burni-lisatuta ekartsan. Era onetan, zorriek jandako mutilla, onein jarei billakatu zan. Onezaz gaiñera, jatekoak ekarri oi eutsazan, espetxeko erdipurdiko janariari laguntzearren. Baiña emakume goren aregandik artzen eban onena, bakea ta maitasuna ziran. Ordu-erdi aretako autua Kepa Mirena'ren gogo mindu ta gartsuari, aizeño ozkirri atsedengarria ekarkion. Argi ekusan, baiña, Miren'ek, mutillaren arima-barruko gorrotoaren suak bizi ta itzungieziña irauten ebala, eta berak ez oartuarena egin arren be, ezin egikean arrenkura andi bat uxatu. Bildur zan Miren, egunen baten gorro-



to aren garrek, mutilla bera kiskalduko ez ete leukien, eta augaitik, egunoroko otoitzetan Kepa Mirena gogoan eban.

Bein baten, oi eban lez lo-deiaren aurretik Txanbo'rekin eragoiala, legebako begikoak auxe esan eutsan,

– Aizu, lagun, badira illabeteak emen zagozala, eta oraindiño ez dozu ezagutzen lantegia. Zergaitik ez zatoz egunen baten a ezagutzera...?

– Ez dakit ba...

– Begira, lagun, biar bertan ango arduradunari, ikertzeko baimen-agiri bat eskatuko dautsat.

– Egin nai dozuna. –gogo barik erantzun eutsan Kepa Mirena'k–.

Esan eta egin. Biaramonean, Txinbo'k aginduriko iker-txartela ekarri eutsan, eta urrengo egunean joan ziran lantegira. Au, estalpe andi bat zan, eta orma-luzeeran guztitariko tresnak ikusten ziran, geienak burdin-lanak egiteko. Erdian, mai-erreskada luzea edatzen zan, ondoko aulkietan esku-langillek ziarduela, otzara, aulki, kutxa, lepoko, giltz-erestun etab, egiñez. Ibilli ebiltzala, Txinbo'k guztitariko argibideak emon eutsazan, eta osteratxua amaitu zanean, erdiko maitxu baten aurrean jesarri zan, eta Kepa Mirena bere aurrean jesarri-erazoz, astiro ta zeatz bere lanari buruz guztitariko gora-beerak emon eutsazan. Txinbo'ren eginkiak, bitxiak-eta gordeteko kutxatillak ziran, eta beraz, txiki ta txukunak. Arrabete bat luze, eta erdi zabal inguru, barrutik zirikoz apainduta, eta kanpotik zur-landuak agertzen ziran. Izan be, Kepa Mirena'k egiztatu aal izan eban, dalako zur-lanak oso bakun eta ume-koiak zirala; geienak jeometri-irudiak itxuratuz, au da, iruki, lauki, seiki ta biribilkiak. Gitxi urtenak ziran, eta bataz beste maisu-lanak izatetik oso urrun. Kepa Mirena berak jakin ez arren be, erti-sen andikoa zan, eta zur-lan areik esku baldar batek egiñak begitandu yakozan. Orain ulertzen eban, zergaitik ainbeste lan egin arren, bere lagunak ez ebazan txin urri batzuk baiño irabazten. Irudi areik oldozkor begiztatzen ebazala,

– Ta, Kepa Mirena – Txinbo'k itaundu eutsan–, zer deritxazu nire kutxatillai...?

– Ez dira txarrak gubi-lan aldetik begiratuta, baiña iruditxuen ertiari buruz, apur bat zera...bakunegiak-edo dirala esango neuke, umekoiak ain zuzen be...

– Baleiteke, lagun, baiña nik ez dakit besterik. Marrazlaritza-ikasketak artu ba'neuz... Baiña ozta-ozta irakurten eta idazten ikasi ostein, denda baten mezu-mutiltzat asi nintzan.

Kepa Mirena'k arkatx bat artu, eta zur-zati baten gaiñean abotik garrak eriozan dragoi edo erensuge bat marrazten asi zan. Txanbo'k abo-zabalik

begiztatzen ebazan Kepa Mirena'ren erraztasun eta gaitasuna, marrazkia erensugearen irudia artzen asi zanean. Irudia amaituta, ezkatak eratsi eutsazan, eta abotik garrak eriozala, erensugeak bizirik zirudian. Une luze batez oneri begira iraun eban Txinbo'k, eta gero bere lagunaganako begirunez jota,

– Irudiak benetakoa emoten dau. Non ikasi dozu, baiña, orren maisuki marrazten...?

– Aspaldian, Ikastola Nagusi-aurreko azken ikastaroan. Beste gaien artean, Erti-ederra irakatsi euskuen, eta arlo orretan irakaslearen aburuz etorri andikoa nintzanez, egunoro ordubete bateko irakaskintza berezia emoten eustan, eta aren ardurapean nire gaitasuna garatu aal izan neban. Zoritxarrez, baiña, ikastaro a azkena billakatu yatan. Dana-dala, irakasle arekin marrazlaritzaren arauak menperatzen ikasi neban.

– Zergaitik ez zenduan jarraitu bide orretatik...?

– Ezin izan neban, Txinbo. Aita il zanean ikasteari uko egin bear izan neutsan, eta “Bikain” errediza-gintzan jardun neban. Madarikatua bedi, leku orretara lan egiteko sartu nintzan eguna...!

Une batez lagun biok isillik iraun eben. Bitartean, Txinbo'k ezin egikeazan erensugetik begiak kendu, eta alako baten, auxe esan eutsan:

– Ba al-dakizu zer egingo dodan...? Oraintxe bertan zeuk marrazturiko irudia zur-landuko dot. Bai orixe...!

Txinbo'k, ol-zatia artu, eta ardurarik andienaz lantzen asi zan, Kepa Mirena'k gubiaren ebateari erraikiola. Izan be, ederresten eban nekatzeke aren antzea lanabesa erabiltean. Astiro-astiro, irudia ol-zatitik sortzen asi zan. Noizean bein, Kepa Mirena'k oarren bat egiten eutsan, au edo bestea aldatu egian. Olan jardun eben bazkalordurarte, eta arratsaldean jarraituta, noizbait, lanaren eten-jotea aditu zaneko, erensugea landuta egoan. Izan be, bizirik zirudian abotik sua eriola, eta gorputza ezkatakaz estalduta.

Gelara joizanean, Txanbo ezitan egoan, eta poza jabetu eziñik,

– Aizu, Kepa Mirena – itaundu eutsan–, zergaitik ez alkarrekin jardun...? Begira... zuk marrazkiak egingo dozuz, eta neuk irudiok landu. Ziurnaz, alkartasun ori oso onuragarria billakatuko litzakigula. Zer deritxazu orre-ri...?

– Ez dakit ba...

Gau aretan oean zetzala, Kepa Mirena'k ezin egikean burutik kendu, zein arin egun aretako orduak igaro izan ziran. Ondo ekusan, zortzi urtebetez baitua igarotea ezer egin barik ordurarte lez, jasangaitza izanik, zoro biurtzeko zorian billakatuko litzakela. Espetxeratu izan zanetik lenengoz, illunpe aretan argi-izpiño bat ikusten ebala iruditu yakon, itxaropen aul bat bere baitan jaiio-



ten asten zala, eta noizbait loak artu egian aurretik, asmo bat sortzen asi yakon.

Urrengo goizean, itxarkunde-soiñua aditu baiño ez, eta jazten ziarduala,

– Aizu, Txinbo –lagunari esan eutsan–, zure atzoko eskintza dala -ta, merezi dauan ardurea emon dautsat bart, eta orren ondorioz onartzen dot. Aurrerantzean zurekin lan egingo dot.

– Iujuuu...! –oiu egin eban Txonbo'k–. Ezin niretzat ori baiño albiste pozgarriagorik, lagun. Gaur bertan, On Katxi'ri, zerbitzuen arduradunari esango dautsat, eta ez dot uste iñongo eragozpenik ipiñiko dauskunik.

Izan be, urrengo egunean On Katxi'k izenpeturiko agiri bat ekarri eban Txinbo'k, eta pozez ler egiteko zorian,

– Lortu dot, lortu...! – didar egin eban–. Emen dozu bearrezko agiria. Onekin lantegira sartzeko eskubidea noiz gura dozu. Zer deritxazu biar bertan asteari...?

– Oba ez, Txinbo...!

Urrengo egunean, adiskide biok lantegira joan, eta maiaren ondoan aurrez-aurre jesarrita, lanari emon eutsoen. Ordukotz, erensuge-irudiko kutxatilla amaitua zan. Barrutik ziriko gorriz jantzita egoan, baita metalezko orpotxuakaz eta giltzaduraz ornituta. Kepa Mirena'k une batez aztertu eban, eta gero,

– Aizu, Txinbo – esan eutsan–, zur-lanaren aldetik nire ustez akatsba-koa da, baiña lana amaitzeke dago.

– Amaitzeke, diñozu...?

– Bai, lagun. Erensugeari dagokion bizitasuna emotearren, margoztu egin bear dozu.

– Margoztu diñostazu...? Nik ez dodaz iñoiz nire lanak margoztu, eta gainera ez dakit zelan egin.

– Begira, Txinbo: margo-ñabartze esaten dautsan ertiak, zati bakotxari dagokion margoaz agertu daiten eskatzen dau. Erensugea estaltzen dabezan ezkata orlegiak izan bear dira, begiak eta abotiko garrak gorriak, eta atzaparrak baltzak.

– Nik ez daukat , baiña, iñongo margozkirik...

– Erosi egizuz ba.

Andik laster, guztitariko margozkiak ekarrezala agertu zan Txinbo, eta bere lagunari emon eutsazan. Erensugea margoztu aurretik, Kepa Mirena'k bearrezko iru koloreak ol txiki baten gaiñean saiatu ebazan, eta jarraian, ardurarik andienaz margozteari emon eutsan. Amaitu ebanean, Txinbo'k adorea menperatu eziñik,

– Irudiaren ederra...! – didar egin eban – Lantegi onetan ez da iñoiz olakorik egin, eta kutxatilla onegaitik polito ordainduko dauskue, bai orixe...!

Egun aretatik Kepa Mirena'k eta Txinbo'k urteak iraungo leuken alkartasun-lan bateri emoten asi ziran. Jakiña, berbaturiko ituna zan, euren artean idatziriko agiririk ez zan bearrezkoa-ta. Kepa Mirena'ren erti-senak guztitariko irudiak sortzen ebazan, au da, giza-irudiak, zaldia, txakurrak, sugeak, leoiak, baita gazteluak, etxeak, zubiak etab. Azkar eta ondo urteten yakozan irudiok, eta jarraian, Txinbo'ren gubiak zur-lantzen ebazan zintzoki. Pozik oartzen zan Txinbo gintza barri au zala-ta, baiña askozaz areago sentitzen zan Kepa Mirena. Orain egunak ez ziran len baizen izugarri ta amaibakoak, eta aldiaren joanean, gero ta ariñago igaroten zirala konturatu zan. Asikerako inperua ostentzen joian, eta orain itxaropen aul bat illunpetan jaioten asten zan.

Jazoera onek Kepa Mirena'gan eragintza andia sortu eban. Txairoago ibilli ebillen; begien lengo moteltasuna ostendua zan bizitasunak ordeztuta, eta argaltasunak itxura osasuntsuari bide egiten eutsan. Miren eta Manu aldakuntza onetzaz oartzen asi ziran, eta zergaitia jakin ebanean, pozez beterik egiztatu eben, egoan arimaren zulo izugarritik, mutilla urteten asten zala. Manu'ren ama onberatsuak, Jaungoikoari esker ugariak emotsazan, eta Kepa Mirena adoretzen saiatzen zan ikerraldi guztietan. Izan be, gero ta semeagotzat eban mutilla.

Olan ba, Txinbo'ren aurrez-aurre jesarrita, marrazkiak sortu bitartean, zur-lantzearen gora-beerak ikasi ebazan. Kutxatillak, On Katxi'ren bitartez uriko bezuza-denda dotore baten saltzen ziran, eta saltoki apain onen jaubeak erti-lanaren giñoan ordaintzen eutsen. Salketa onein diru-zati bat On Katxi'rentzat izaten zan, onen bitarteko-jarduna ta gaien balioa ordaintzeko. Enparaua langille bien artean erdibanatzen zan. On Katxi, espetxeko zerbitzuen arduraduna, gizon arteza izanik, Txinbo ta Kepa Mirena'rekin ondo etorran. Kutxatillak dendako nagusiari eroan eta ordaintza artuz gaiñera, bearrezko len-gaiak erostea bere egitekoa zan.

Ordurarte irabazitako dirua ez zan gauza andirik gertatu. Izan be, Txinbo'k egiñiko kutxatillak erti-lan aldetik oso arruntak ziran, ume batek sortu dagikeazan orreitarikoak, alegia. Augaitik, beraz, irabaztea aren baten joian. Anartean zur-lantzeak Txinbo'ri ekarritako onurarik andiena, arazopetuta egotea izan zan, era onetan egunak ariñago igaroten ziran-eta. Baiña Kepa Mirena'ren lankidetzata artzen asi zanean, kutxatillen arazoa gainbera bestelaturik, iñoiz ames ez egiñiko gorakadea artzen asi zan bere kontu agiria.

Bein baten, On Katxi'ren idazgelara joateko deia artu eben lagun biok.



Sartu ziranean, gizon ez-ezagun bat ikusi eben. On Katxi'k onen aurkezpena onetaraxe egin eban:

– Ona emen, bezuza-dendaren jabea. Zuekin berba egiteko etorri da, eta nigandik baiño beragandik gauzak entzutea egokiagoa dan ezkerero, etorri nai izan dau esatekoa ondo ulertu dagizuen. Entzun egiozue, beraz.

– Begira, gazteok – asi zan dendaria–, zuen kutxatillak arrakasta andia lortzen asi dira, len baiño antzetsuagoak diralako. Eragozpen bat ba'dabe, baiña, eta auxe alegia: erabillitako len-gaiak, zurari dagokionetan batez be, ez dator bat irudien edertasunaz. Zorakeri utsa izango litzake, esaterako, maisulan bat ler edo piñuzko zati bataz egitea. Era berean, orain erabillitako lengaiaren mota ez da ondo alkartzen zura lantzen dozuen ertiarekin.

Isildu zan une batez dendaria, eta gero,

– Augaitik, beraz, jarraitu eban–, aurrerantzean gain-gaiñeko zur-mota erabilliko dozue, au da, ebano, sandalatz, kaoba ta antzekoak. Margozkien ontasuna, bardin, onenarikoa izango da. Kutxatillen apaingarritzat, nakar eta marfilla erabilliko dozue. Olan egitekotan danok irabaziko dogu. Entzun...?

– Bai, Jauna.

– Orduan, ara... orain arte kutxatilla bakotxagaitik, gitxi gora – beera bosteun laurleko ordaindu dautsuedaz. Aurrerantzean, irudien ontasuna azkenetarikoena baizen ona izaten jarraitzekotan, zazpi milla artuko dozue kutxatilla bakotxaren ordaiñez. Zer deritxazue nire eskintza oneri...?

Lagun biak eztitan egozan. Kepa Mirena'k ainbaketa arifña egin eban, eta zazpi milla orreiri len-gaien balioa ta On Katxi'ren bitartekotasuna kendurik, diru-mordo bat letorkiekela oartu zan.

Eretxi eskatu naiean lez, Txinbo'k begi itaunkorraz Kepa Mirena'ri so egin eutsan, eta orduan Kepa Mirena'k dendariari,

– Ondo deritxagu, Jauna – erantzun eutsan–, zure eskintzari. Gaurdanik, baldintza barrien arauz lan egingo dogu.

– Agur ba, mutillok, ia gure ituna luzarorako ta onuragarria billakatzen dan.

– Agur, Jauna.

Lantegira biurtu ziran lagun biak, eta adorez beterik guztitariko egitamuak egin ebezan urrengo egunetarako.

## KEPA MIRENA'REN ASMOA

Arrakasta itzela lortu eban adiskide bien kutxatillak, eta egin aal ebezan baiño eskaera geiago etorkien. Oraingo gintza, baiña, arduratsuegoa izanik, ezin egikiezan len besteko kutxatillak egin, baiña izan be, maisu-lanak ziran bitxi areik, erosleek gero ta ederretsiagoak ebezan. Onen ondorioz, lagun bien diru-sarrerea gorakada polita artzen asi zan.

Sarri askotan, Kepa Mirena'k marrazketan ziarduala, bere lanari eten egiñik, Txinbo'k abo-zabalik begizatzen eban bere lagunaren esku-antze bikaiña. Bein baten, irudi ikusgarri bat marrazten ziarduala, gaiñezkatzen yakon ederrespena jabetu eziñik, Txinbo'k auxe itaundu eutsan:

– Baiña non arraio ikasi dozu marrazlaritza...?

– COU'ko azken urtean, gure aukeran izan genduan maisu marrazlari batek, gogoz ikasi nai ebenentzat, ikastaldi bereizi bat atondu eban. Marrazketea oso atsegin yatanez, ikastaldi bereizi orretarako izena emon neban, eta olan oartzeke marrazlaritzaren ezkutua ikasten asi nintzan.

– Eta zergaitik ez zenduan artu antze ori bizibidetzat...?

– COU amaitu nebanean, aita geisotu, eta andik laster il zanean, Ikastola Nagusiari uko egin bear izan neutsan, eta amari laguntzearren “Bikain” lantegian lanean asi bear izan neban, idaztegiko mutiltzat. Gau-ikasketen bidez Ikastola Nagusiko baimendun agiria lortu gura neban, baiña nire ames ori ustel billakatu yatan...

– Bai, pizti batek espetxeratu zinduzan, eta berak biziera atsegiñari emoten dautsala, emen zaitu zulo onetan, egin ez zenduana ordaintzen.

Isildu zan une batez Txinbo, eta gero,

– Aizu, Kepa Mirena – jarraitu eban–, egunen baten leku onetatik urten-go zara, eta Klemen zitalari merezi dauana emon gura ba'dautsazu, jakin egizu gerturik nozula edozertarako.

Kepa Mirena'k ez eutsan erantzunik emon. Ezpanak estu-estu, begietan argi bakana agertu yakon, esku errimez marrazteari erraikiola. Erantzunik izan ezean,

– Aizu, adiskide –barriro Txinbo'k–, ez al-dozu asmatzen dagokizun mendekua edo apentza egunen baten artzea...? Nerau gerturik nozu orretarako



laguntzeko. Begira, adiskide, bera oartzeke jarraituko dausat, eta leku illun bakarren baten, atzetik urreratu, eta labana sartuta, blindiblaust...! beste mundurako txartela emon. Zer deritxazu orreri...?

– Bein betiko, lagun, olakoak gogotik kendu bear dozuz –esan eutsan Kepa Mirena'k aurpegia marrazkitik jaso barik–. Bide ori, bere burua ederreren dauanak ezin dagike erabili. Zeuek, legebakuok, azken xedea jarriesten kotan edozein bide ontzat dozue, erailketa bat gora-beera bardin yatzuela, baiña ori ez da nire jokaerea. Mendekua artzeko gerturik nozu, baiña bestelakoa izango da. Onezaz gaiñera, nire apentza ez da bapatekoa izango, iraunkorra baiño, eta garaia etorri dakidanean, Klemen doillorak bere zigorraren zergaitia jakingo dau.

– Zelakoa izango da ba, zure mendekua...?

– Oraingotz ezin dagikezut iñongo zeatzik emon, buruan darabildan egitasmoa umotu ta osotu barik dago-ta, baiña ziurtzat emon dagikezu, egunen baten gora-beera guztiak ondo aztertuta, aske urten naitenean, nire mendekua egi biurtzeko gerturik izango nazala.

– Batz beste, Kepa Mirena, alde on guztiak kontuan arturik be, bost urteko espetxaldia ez daustu iñork kenduko.

– Badakit ori, adiskide, eta orretara artaratu naz. Zenbat-gura astirik badot nire aukeran, eta iradu barik gora-beera guztiak aztertuko dodaz.

– Aizu, lagun – esan eutsan Txinbo'k adiskidetsu–, ez al-dakizu epe orretan neu be jarei urtengo nazala...?

– Badakit ori, Txinbo, eta orregaitik arduratsu jokatu bear dozu, iñongo ziltzan edo tentaldian ez jausteko. Aztu egizu ba darabiltzun laban ori, utsegiterik jasan ez dagizun, bestelan ez dozu bost urteko epea izango, askozaz luzeagoa baiño.

Une batez oldozkor egon zan Txinbo, eta gero,

– Entzun, Kepa Mirena – esan eutsan legebakoak–, zure mendeku orretan tartekoa ni izatekotan, eziñekoa egiteko gerturik nozu. Ordua eldu dakizunean, beraz, nitzaz oroituko zara...?

– Bai, lagun, baiña aurretik jakin egizu, nire jokaerea garbi ta arteza izango dala.

– Zeuk agindutakoa egingo dot, lagun, beti zuzen zagoz-eta.

Izan be, Txinbo'k gero ta maiteago eban Kepa Mirena. Bere bizitza zori-bakoan, ordurarte legebakoak ez eban bera lako gizakirik ezagutu. Lenengo unetik beraganantz erakarrira oartu izan zan, eta gero, adiskidearen erti-sena ezagutu ebanean, ederrespen neurribakoak menperatu eban. Ez egoan ezer Kepa Mirena'ren alde egiteko gai ez zana.

Bajoiazan illabeteak aurrera, eta Kepa Mirena beste gizaki bat oartzen zan. Dirua polito metatzen zan espetxeko bere kontu agirian, eta onek nasaitasuna emotsan, baiña onik andiena ekarkiona, gogoia eginkizun baten jarri izatea zan, eta bere ertilariaren jorana beteten ebana, ain zuzen be. Olan ba, illabeteak igaro-ala, asikereako ezin-egotea joanda, oraingo eginkizunaren laguntzaz, barruko bake ta oreka irabazten asi, eta onekin batean gai izan zan, etorkia bildur barik begiztatu, eta iradu barik, bere gogoan itxura artzen asten zan apentzaren egitasmoa burutu...

Miren eta Manu oartzen asiak ziran, Kepa Mirena'ren aldakuntzaz, eta lenengoak batez be, Jaungoikoari eskerrak emotsazan, mutillaren antzaldatze-agaitik, semetzat eban-eta. Bein baten,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan Miren'ek– pozik be pozik nozu aspaldi onetan, beste itxura bat artu dozulako. Agiri da, lanean asi zaranetik ona, loditu ta baretu zarala.

– Bai, Andrea, eta onezaz gaiñera dirua irabazten asi. Bidebatez esan bear dautsut janari-ekarte ta nire aldagarri-garbiketeari uko egin bear dautsazula, orain diruaren jabe billakatu naiatzu-ta.

Irribarrez begiztatu eban Miren'ek, eta,

– Poztuten naz, benetan, Kepa Mirena –esan eutsan–, baiña nik janari ekarteari ta aldagarri-bogadeari jarraituko dauset. Olan, diru geiago izango dozu emendik urten zaitezanean.

Barre egin eban mutillak, eta eskerrik beroena emon eutsan Miren'eri. Izan be, buruan erabillen asmotarako dirua bear izaten eban... Andik egun batzutara Manu ikertzera etorri yakonean, ondo ausnartuta eban auxe esan eutsan:

– Aizu, Manu, nire alde egiñagaitik asko zor dautsut, baiña orain, beste zerbait eskatuko dautsut. Ara...Ikastola Nagusira joan zaitezala Baltzularitza (empresarial) ikasketak buruzko guztia jakitun ipiñi zagiezan, au da, zenbat ikastaro diran, bakotxaren diru-ordaintza, eta arazoari dagokiozan baldintza guztiak. Ezin naiteke legezko ikasletzat joan, baiña bai asketzat gaiak ikasi, eta ikastaroak amaituta, bearrezko azterketak jasan. Egingo dozu ori nire alde...?

– Bai orixe...! –pozik erantzun eutsan Manu'k–. Aste onetan bertan ara joango naz gora-beera guztiak ezagutzeko. Uste dot, baiña, zeuk COU'ko ikasketak egin arren, dalako baltzularitza-ikasketak egiteko, aurretik sartze-azterketa bat jasan bear izango dozula.

– Gerturik nago orretarako, Manu.

– Onezaz gainera, espetxean zagozan ezkerro, baimen bereizi bat lortu



bearko da, sasoia etorri dakizunean Ikastola Nagusira joateko azterketak jasatearren. Nire ustez, baiña, aitaren bitartez jaritsi dagikegu ori, an ezagunak badauz-eta. Niretzat zailena deritxadana, zeuk bakarrik iñoren laguntza barik, gaiak ikasi dagizuzala da.

– Ez zaitez larritu orregaitik, Manu, bearrezko liburuak izatekotan, orreri ez dausat bildurrik. Sartze-azterketearen ordaintza egiteko lain badaukat nire ustez, eta...

– Orreri buruz ez izan kezkarik, Kepa Mirena, lagunduko dautsugu-ta. Kontuan artu bear dozu, baiña, zure lan-orduak bakandu bear izango dozuzala, ikasketari bear dan lez ekitearren.

– Zeatz guztiak aztertu dodaz, eta oztopoak banan-banan garaituak izango dira. Ez aztu, beraz, bear dodazan gora-beera guztiak urrengo ikerraldira ekarte.

– Baita pozik be. Urrerogarte.

– Agur, Manu, ez dakit zelan ordainduko dautsuedan nire alde egiña..

– Ken ortik, mutil, zuri laguntzeak zoriotsuak egiten gaitu, ama batez

be.

Andik astebete batera-edo, iker-gelara joateko agindua artu eban Kepa Mirena'k, eta zarrastada andipean bere begira egoan Manu ikusi eban. Oiko agurrak alkarri esanda,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan legegizon gazteak–, badaukadaz baltzularitzari buruzko gora-beera guztiak. Ara... bost ikasturte dira guztiz, baiña ikasletzat jarduteko, COU'en agiriaz gaiñera, gaitasun-azterketa bat jasan bear izango dozu. Ango irakasle bat aitak ezagutzen dauan ezker, aregana joan naiatzu, eta gaitasun-azterketeari buruzko zeatzak emonez gaiñera, gaien egitama emon daust, baita orreri dagokiozan bost liburuen zerrendea. Gaur goizean erosita gero, emengo atadian laga dodaz emon dakizuzan. Gaitasun-azterketea Irailla'ren azkenetan izango dozu. Garagarrilla'ren erdi-aldean gagozan ezker, illabete bi ta erdiko epea dozu gaiok ikasteko. Naikoa izango al-yatzu...?

– Ez dakit, Manu, orretarako gaien egitama ikusi bear dot-eta, baiña aalegin guztiakaz arloari ekingo dausat. Orain esan egitazu zeuk erosiriko liburuen saria ta azterketearen ordaintza.

– Azken au Irailla'ren asieran egiteko da. Liburuen sariari buruz, ba... aita-amak euren kontura izango dala, eta ez larritzeko esan dauste...

– Aizu, Manu –eten egin eutsan Kepa Mirena'k–, ori ez da legezkoa, eta ez dot ezelan be onartuko. Jakin bear dozu, kutxatillen gintzari esker, badaukadala orretarako beste baita geiago be.

– Nire gurasoak zoriotsuak dira jendeari laguntza emotean, eta areago zeuri, semetzat zaitue-ta.

– Begira, Manu, nik asmo bat gertatu dot, eta orreri zintzo jarraituko dausat. Baltzularitzaren agiria jaristeko bearrezko eralguntza nire pentzutara izango da, orretarako beste, Jaungoikoak lagun irabazteko bidean naz-eta. Nire alde zuek egindakoa ez yat egundo aztuko, maitasuna ez da diruz ordaintzen dan gauza-ta, baiña erabagi onetan irmo nago ta irmo izaten jarraituko be. Beraz, liburuen balioa esaten ez ba'daustazu, ez dodaz onartuko.

Une batez Manu'k isillik iraun eban, eta noizbait, bere lagunak benetan iñoala ikusirik, bost liburuen balioa jakiñerazo eutsan.

– Aizu, Manu, ez txartzat artu, maite zaituet-eta, baiña biar bertan nire kontu agiritik, diru ori bialduko yatzue etxera. Ez artu au arrokeritzat, baiña diruketa orren irukotxa badot aurreztuta onezker.

Manu'k irribarre egin eutsan, eta alkarregandik agurtuta joan zan. Andik laster, On Katxi'ren idaztegiara joateko mezua artu eban Kepa Mirena'k, eta arek bost liburu emon eutsazan. Gelara biurtuta, jaio barria bai'litzan lotukia estalgetu eban. Bost liburukaz gaiñera, sartze-azterketarako gaien egitama agertu zan. Idaztiak banan-banan maitasunik andienaz gaingiroki aztertu eban, eta onoko gaiak zirala egiztatu eban: ludiztia, eliztia, zenbakiztia, izadiztia, eta englisera.

Gau aretan oatzean etzanda egoala, sarrera-azterketea ondo atontzeko bearrezko ziran baldintzak gogoan erabilli ebazan. Naikoa berandu zan lo geratu zanean, baiña orduko, egitekoaren gora-beera guztiak zeatzuta ebazan.

Urrerogarte, Txinbo'rekin jarduten ebala,

– Aizu, Txinbo –esan eutsan–, ordua da asmo baten barria emon dagizudan, eta auxe alegia: baltzularitzaren agiria edo tituloa lortu gura dot, emendik urten naitenean bizitzeari aurre egiteko gai izan naiten. Negargarria litza-ke urteteen, sartu nintzan baiño ezjakiñagoa izatea. Au dala-ta, naikoa ondo aztertu dodaz gora-beera guztiak.

Isildu zan une batez. Txinbo'k kezkaz beterik begiraten eutsan, eta menperatzen eban arrenkurea jabetu eziñik,

– Orduan ni bakarrik itziko nozu...? –esan eutsan–. Zu barik ezin izango dot kutxatillak egiten jarraitu. Au bai tamala, dirua irabazten genduanean, eta nik iñoizkorik pozen erti-lan egiteari emoten neutsanean...!

– Begira, Txinbo, ez dozu larritu bear. Danari begiratu dausat, eta kutxatillen gintzari orain arte lez jardungo dautsagu. Izan be, zur-lantzea marrazketea baiño askozaz astikorragoa da, eta nik ordu bitan marraztu dagikedana, zuk egun osoan nekez landu zengike. Auxe da beraz nire asmoa: goi-



zeco lenengo lan-ordu bietan, emen bertan zurekin jardungo dot marrazkiak atontzearren eta zuretzako egun osoko lana gertatuko dautsut. Gero, gelara biurtuta, ikasteari ekingo dautsat enparauko orduetan. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo deritxat, lagun, baiña zelan lotu zaitezkez liburuai, gure gelan ainbeste zarata izanik...?

– Gaur bertan On Katxi'rekin autu bat izango dot, lenengo soruan dagon gelatxu bat emon dagiskun. Izan be, Txinbo, gogait-eraginda nozu gure gelako lagunen autu zantar eta zaratatsuakaitik. Ezin dagikedaz jasan, eta niretzat areitatik jarei billakatzea on andi-andia litzake, eta orain ori iñoizkorik bearezkoentzat daukat, ikasteari bear dan lez ekiodan.

– Zuzen zagoz, lagun. Ni oituta nago orreri, baiña zeu lako batentzat ezpetxekideen oiturak eta jokabideak jasan-eziñak izan bear. Zu ez zara besteak lakoa, eta inpernu au ez da zuretzat egokia. Ona sartu zinduen eta bereala, gutariko ez zintzazala oartu nintzan, eta aldiak erakutsi daust zuzen nengoala.

Izan be, ezagutu ebanetik, bere biziera zoribakoa ta guzti, Txinbo'k Kepa Mirena'ganako erakarpen andia oartu izan eban, gero ta andiago, alegia. Augaitik, eta beste gaizkilleen artean bildots errubakoaren antzera ikusirik, sartu barria besteen erasoetatik babestea saiatu izan zan. Eta Txinbo, legebako amorratua, bere adiskidearen eragintzaz oarkabez besteratzen joian, bion arteko atxikitasuna sendotzen zala.

Eguberdi aretan berean, Kepa Mirena On Katxi'gana joanda, bere asmoen barriak emon eutsazan, eta azalpena amaitzean, bera ta Txinbo'rentzat bi lagunentzako gelatxu bat eskatu eutsan. Asiera baten, zerbitzuen arduraduna kezkatu zan, kutxatillen irabaztea pikotara joan zeitekeala uste izatean, baiña Kepa Mirena'k aren arrenkurak uxatu ebazan, ziurtatzen eutsala kutxatillen gintzak beti lez jarraituko leukela. Izan be, lagun bientzako gelatxu bat jaristea ez zan arazo erraza, oso ederretsiak ziran-eta, baiña zerbitzuen arduradunari lagun biokin onez egotea benetan egokionez, aaleginduko litzakela agindu eutsan. Andik egun batzutura, espetxeko isil-jotea baiño len, espetxelari batek lagun bieri eskuartekoak artu egiezan esan eutsen, eta beeko soruko ate bat zabaldu ondoren, espetxetik urten artean izango eben gelatxura sartu ziran.

## BAKE TA ITXAROPENA

Arrezkero, gaztearen biziereak aldakuntza andia jasan eban, eta asikera-ko larritasuna joanda, egoera barrira artaratu zan, idaztien laguntzaz orduak eta egunak arin joiakiozala.

Egunero, lagun biok oetik jagi, eta espetxeko gosari urria erosiriko jan-gaiez ondua artu ondoren, lanera abiatzen ziran. Bederatzietatik amaikak arte Kepa Mirena'k marrazteari emotsan, Txinbo'ren gubirako egun aretako lana atontzeko. Jarraian, espetxeko larraiñera joan, eta urrats ariñez batetik bestera ibilli ebillen. Oartua zan mutilla, ezin egikeala osasun onean iraun, beti liburu-ruen gaiñean makurtuta, eta luzarorako espetxaldia jasan bear izango leukenez, iñarkunari emotea ezinbesteko baldintza yakola. Bazkalostean, gelatxuko isiltasun eta bakean, ikasteari emotsan buru-belarri. Ikasgairik geienak lendik ikasita izan arren be, barriro gomutara ekarri bear, urte batzuk igaro izan ziralakoz izandako azken ikastarotik. Olan ba, len ikasiriko gaiak gomutara ekarte-az, eta zenbait gai barriak lenengoz adiraltzen ebazala, orduak arin joiazan eta zortziretan aparirako jotea aditu arte, ikasketan murgilduta irauten eban. Jardun onek poztasun onuragarria ekartsan, eta idaztiak laga bear izaten ebazanean, gosez beterikoak janariari uko egin bear izaten dautsanaren antzekoa gertatzen yakon. Bein baten, lo-jotearen aurretik, Txinbo'k auxe esan eutsan:

– Aizu, adiskide, orain beste bat emoten dozu. Liburuekin asi zintzazane-  
tik, alegia. Lengo argaltasun eta ezinegonaren itxurea zeugandik ezabatu dira, eta gaztetu zarala egingo neuke. Neu be iñoizkorik pozen oartzen naz, eta izan be ez neuke iñoiz uste izan, kutxatillen gintzak ainbeste diru emon leikidanik. On Katxi be badirudi poz baten dabillega, eta beti zirikatzen nau geiago egitera. Zure antzearen edertasunak lortu dau antzaldatzeko ori. Lenengoz oartzen naz orain, benetako zurlantzea zer dan, eta kutxatillaren bat amaitzen dodanean, geien pozten nauana, ez da orren ordaiñez lortuko dodan dirua, lan eder bat egin izatea baiño.

– Bai, adiskide, orixe bera oartzen dot neuk be. Marrazkiak eta ikasteak iñoiz ezagutu ez dodan zorionezko sentipena ekarri dauste, batzutan espetxe baten atxillo nagoala aztu-erazo arte.



– Zorionsua oartzen al-zara, Kepa Mirena...?

– Ez nozu lengo beste zoribakoa, eta orduak arin igaroten yatazala esan bear dautsut, besterik ez. Egunen baten zorionsua izango naz, ona sartu nin-duanak merezitakoa artu dagianean. Ordurarte ez naz benetan zorionsua izango, eta gauero nire bizitzaren egutegitik orri bat igaro dala dakusdanean, nire baitan gero ta andiago biurtzen dan atsegin bakana oartzen dot, egun batez urreratzen baida nire apentzaren ordua. Ezin dagiket aztu, Txinbo, jasan dodan inpernuua, ezta aurretik dodazan espetxeko urte luzeak be.

– Esaidazu, lagun, emendik urten zaitezanean, zer billakatuko naz...? Orain arte lapurretan eta burrukan egiten igaro da nire bizitza, eta gaur dakidan gauza bakarra kutxatillak egitea da, eta au zeuri zor dautsut. Zer billakatuko naz banandu gaitzanean...?

Legebako gaixoari aurpegian oiñazeko keiñu bat agertu yakon.

Ezin egikean Kepa Mirena'k bere lagun zintzoaren naigabea eroan, eta,

– Txinbo –esan eutsan txeratsu–, emendik urteteen, betirako alkarrekin jarraituko dogu.

– Bai, adiskide, eta zure mendekua beteten lagunduko dautsut.

Kepa Mirena'ren ezpanetan irribarre aula agertu zan iñotsanean:

– Bai, Txinbo, orduan alboan bear izango zaitut-eta.

Une aretan bertan, espetxeko argiak itzungi ziran, beste egun bat joana zala iragarrik.

Igaro ziran egunak, eta noizbait Irailla'ren erdi-aldea eldu zan.

Areitariko egun baten, oiko ikerraldira etorri zanean, Manu'k auxe esan eutsan:

– Aizu, Kepa Mirena, gaur zortzi, gaitasun-azterketa izango dozu. Gaur bertan zure izena emon dot. Legeen arauz, espetxean izan arren azterketara joateko eskubide osoa dozu, eta orretarako baimena jaritsi dot. Ikastola Nagusiko Baltzularitza-saillan izango dozu azterketea, eta espetxeratuai dagokienez, joan eta etorriko bidaldian ertzain bik lagunduko dautsue, baiña jendea oartu ez daiten, ertzaiñek gizonezko janzkia erabilli dagien lortu dau aitak. Olan ba, ez dau iñork jakin bear, eta azter-maikoeak are gitxiago, espetxetik zatozala. Esan egistazu, Kepa Mirena, ondo ikasita dozuz ikasgaiak...?

– Baietz esango neuke, baiña batek-baki...! Dana-dala azken egunotan, beste birrikuste bat emoteko astirik nire aukeran dodan ezkerro, buru-belarri jardungo dot.

– Gaitasun-azterketea ondo egiten ba'dozu, bost urteren buruan baimendun-agiria lortu aal izango dozu. Biotz on, Kepa Mirena...!

Irribarre egin eutsan besteak, eta,

– Egunen baten –esan eutsan–, dalako agiria lortzen ba'dot, zuei zor izango dautsuet.

– Ez, Kepa Mirena, zure naimenaren-indarrari zor izango dautsazu, eta ez beste ezeri. Dana-dala, ona etorri aurretik, zure alde bederatzurren bat egingo dauala esan daust amak.

– Emoiozu amari nire eskerrik beroena, eta bidebatez esango dautsazu, ondo jardutekotan, berari zor izango dautsadala.

– Agur, Kepa Mirena, azterketa-egunean aal ba'da, Ikastola Nagusian alkar ikusiko dogu. Aztu baiño len: gaitasun-azterketa ori, goizeko bederatzietan asiko da idatzizko ariketaz, eta gero arratsaldean itaun-erantzunaz. Goizeko zortziretan, beraz, ertzaiñek artuko zaitue, eta arratsaldean azterketa amaiturik, ona lagunduko dautsue. Agur, eta barriro be, biotz on...!

– Agur, Manu, biotzez eskertzen dautsuet nire alde egiñikoa.

Aste aretan, zeatz eta ardurarik andienaz Kepa Mirena'k gai guztiak azkenengoz adiraldu ebazan, eta noizbait, azterketaren eguna etorri zan. Goizean, alboko lekaimetxe bateko joaleak zortzirak jo ebazanean, Miren'ek aurretik bialdutako soiñeko egoki bataz jantzita, Kepa Mirena espetxeko atadian gerturik egoan. Laster azaldu ziran gizonezko soiñekoz jantziriko ertzain biak Manu'k eretirako bialitako taxi baten, eta onein erdian Kepa Mirena jarrita, Ikastola Nagusira abiatu ziran.

Elduta gero, Kepa Mirena'ren itaunai erantzunez, ango ogipeko batek igarobide zabal baten zear, areto batera lagundu eutsan, eta ertzain biek lagunduta, orma-luzetara edaturiko aulki baten jesarri zan, azterketarako deieren begira. Bederatzi ta erdietan, beste ogipeko bat izen-zerrenda bat irakurten asi zan. Bana-banan deitutakoak ikaste-gela batera sartu ziran, eta emen beste zerbitzari batek orri-pillo baten aurrean jesarri-erazo ebazan. Bere izena aldarrikatu zanean, biotz-ikara batek artuta, Kepa Mirena sartu, eta izendaturiko lekuan jesarri zan. Orri-pilloaren ondoan idaztur-andel eta idaztekoa egozan.

Ikasle-gaiak egokitu ziranean, iru irakasle sartu, eta mai andi baten ondoan jesarri ziran. Maipuruak orduan, azterketaren baldintzak jakiñerazo eutsezan, au da, beste lagun bateri lagundu, liburuak erabilli etab. galerazota zala. Baldintz oneik azalduta, lenengo idazte-jarduna asi zan, epai-maiko batek bibliaren zati bat irakurten ebala eta azter-gaiek esanikoa idazten ziarduela. Iradazpena amaitu zanean, ogipeko batek idatzitakoak batu, eta gero, ludiztiari buruzko itaun batzui erantzuna emon bear izan eutsien. Jarraian, zenbakizti gaiak, eta oneik amaituta, izadizti buruzko ariketa luze samar gertatu zan. Amaitzeko, txatal baten englisera idatzitako lerro batzuen biurpen-lana.



Kepa Mirena'rentzat azterketea garrantzi andi-andikoa zan, bere etorki ta asmoak aren ondorioari lotuta egozalako. Au dala-ta, asi zanean biotza taupada zorotan ebilkion, baiña jardunaren mamian sartu-ala, bere buruaren jabetasuna irabazten asi zan, eta andik laster danatzaz aztuta, iñarkunari gogapen argiz ekin eutsan, gero ta ziurrago arloari emotsala. Noizbait, eta ordu bata jo ondoren, idatziz egiñiko azterketea amaitu zan. Urten aurretik, arratsaldeko lauretan abozko jarduna gertatzeko zala, jakiñerazo eutsen maipuruak.

Azterketea amaitu arte espexera biurtzerik ez egoanez, ertzain biek lagunduta Kepa Mirena inguruetakoa jatetxe batera joan zan, janari arrunt bateri emotsala. Kutxatillaren gintzari esker aurrezki batzuk izanik, iruren bazkariak ordaindu ebazan, eta gero iradu barik Ikastola Nagusira biurtu zan. Laurak jota, goizeko morroiek irunan-irunan ikasleai dei egin eutsien, abozko jarduna izateko, eta bakotxak iru epai-maikoen itaunai erantzun bear eutsien. Kepa Mirena azkenetarikoen artean sartu zan, eta goizean baiño nasaiago aurkitzen zala, irakasle baten guztitariko itaunai erantzun eutsen. Ordubeteko jarduna izan eban mutillak, eta zazpiretan inguru azterketea amaitu zanean, ertzaiñek lagundutako espexera biurtzeko zorian zala, Manu ikusi eban, eta alkar besarkatu ondoren,

- Ta -itaundu eutsan legegizonak-, zelan igaro da azterketea...
  - Ez dakit ba, Manu. Nire ustez polito samar jardun dot, baiña eritxi-emotea jakin arte ez naz nasaituko.
  - Noiz izango da eritxi-emote ori...?
  - Esan dauskue, iru egunen buruan oltza baten agertuko dala eritxien zerrenda.
  - Epe ori igarota, ona etorriko naz, eta astirik galtzeke jakiñerazoko dautsut.
- Edu onetan ziarduela, espexera biurtzeko ordua egin zan, eta besarkada andi batatz lagun biok agurtuta, Manu ta ertzaiñak taxi berean urira biurtu ziran.

Estu ta larri ibilli zan Kepa Mirena urrengo iru egunetan, bere arreta ezin egikeala ezertan jarri, eta urduritasuna menperatzearren, marrazketeari emon eutsan buru-belarri, baiña ezin ganora andiko gauzarik egin. Noizbait, eta Irailla amaitzeko zorian zala, iker-gelara dei egiña izanda, zauskada andipean arin baten joan zan.

Ikerlea, Manu bere legegizona izanik, baeban iker-gela bereizi baten aurrez-aurre alkar ikusteko eskubiderik, iñongo burdin-sarerik bage. Eldu zanean, pozez gaiñezka Manu'k besarkatu eban auxe iñotsala:

- Zorionak, Kepa Mirena. Onartua izan zara Ikastola Nagusiko Baltzularitzaren saillean, au nire poza...!

Asiera baten, Kepa Mirena'k ezin izan eutsan erantzunik emon. Zulo izugarri aretara sartu zanetik lenengoz, zorian bakan batek menperatzen eban. Noizbait, bere burujabetasuna irabazita,

- Zuei esker, Manu -malkoak begietan esan eutsan-. Zuekan bear nebana aurkitu dot; maitasuna ta laguntza. Zulo onetan zoratu barik irauteko gai izan ba'naz, zuei zor dautsuet. Egunen baten ordainduko al dautsuet nire alde egiña...!

- Ez dauskuzu iñongo zorrik, giristiñoen legeari jarraitu dautsagu-ta. Zeuri laguntzean, zoriona ta ez txikia jaritsi dogu, eta augaitik, beste mundura barik ordaintza artu dogu.

- Zer diño amak...?

- A gutariko zoriontsuena da. Badakizu bederatziurren bat zure alde egin ebal, baiña onezaz bakarrik pozik ez egoanez, azterketa jasaten zenduan egunean, Andra Mari Miraritsuaren aldara-aurrean, argizagi andi bat piztuta iraun-erazo eban.

- Emoiozu nire eskerrik beroena besarkada batekin.

- Etzi, Igande dan ezkerro, ikertzera erorriko yatzu. Orain, gaia aldatuz, lenengo ikastaroa egitea dagokizu, eta orretarako ikaskaian gora-beerak emongo dautsudaz, baita ikastarorako bear izango dozuzan liburuak ekarriko be.

- Bai, Manu, baiña neuk ordaintzekotan.

- Diruak sakela erretzen ete dautsu...?

- Ez artu arrokeritzat, Manu, baiña kutxatillen gintza polito yoaku, eta idaztietarako beste badaukat. Izan be, jakingo ba'zendu zelako poza oartzen dodan nire lanaren bidez gorengo bizibide bat jaritsi dagikedala burura yator-danean...

- Urrerogorarte, Kepa Mirena. Luzaro barik liburuak ekarriko dautsudaz, aurtengo ikastaroari ekin dagiozun.

- Eskerrikasko, Manu. Izan be, berantetsia nozu liburuok artzeko.

Urrilla'ren lenengo amarrekoan, Manu'k ikasturte aretako liburuak bialdu eutsazan, eta artu baiño ez, arloari emon eutsan buru-belarri. Bere atseginiñerako egiztatu eban, ordaintzeko beste dirurik baeukala, eta adiraltzeari emon eutsan. Guztiz, sei gai ezbaridiñeko liburuak ziran, eta egun oso bat bakotxari emotea erabagi eban. Igandea kenduta, asteari sei egun geratzen yakozan ezkerro, astegun bakotxean gai bakar bateri emoten eutsan; egunoroko goizeko marrazte-lan eta soiñ-iñarkuna kenduta, egunoro lau edo bost orduz ikasteari ekiten eutsan.

Lengo eziñegon larriak bake nasai bateri bide emon eutsan, eta iradu



barik egunak bajoiazan bata bestearen atzetik. Baekian Kepa Mirena'k, itxarokion espetxaldia bataz beste bospasei urtebetekoa izango litzakela, baiña ikasgaien munduan murgilduta, egunak arin samar joiazan, eta oartu zaneke, lenengo espetxaldiko urteurrena igaro zan, andik laster udabarria etorkiola. Luzaro barik Bagilla edo Ekainilla elduta, azterketeari aurre egiteko gertatu zan.

Ikasle askeentzako azterketearen garaia Bagilla'ren azkenean izan oi zan, eta onen aurretik azterketa-zergak ordaintzeko ziran gaien kopuru-giñoan. Zorionez, baeban diru-pillo bat aurreztuta, bearrezkoa zana baiño geiago, eta izen-emotea edegi zanean, Manu'k azterketen gora-beerak emon eutsazan. Len lez orain be, baimen bereizia lortu bear izan eban espetxetik Ikastola Nagusira joateko, baiña gora-beera oneik oi eban lez Manu'k atondu eutsazan. Onen aitak, Baltularitza sailleko irakasle bateri, Kepa Mirena 'ren egoera azaldu ondoren, iñori ez esateko espetxetik etorrela eskatu eutsan. Besteen antzera erabilli izango litzakela agindu eutsan irakasleak, eta gai izatekotan, urrengo ikastaroa egingo leukela.

Eta egun ederreko goiz baten, eguzkiak zabaldia urrez apaintzen ebal, ertzain ezkutu bik lagunduta, Kepa Mirena taxi baten Ikastola Nagusira joan zan. Gaiak ondo ikasita ebazan, eta onek ziurtasun eta nasaitasuna emoten eutsazan, baiña azterketak ustebako egoerak ekarri dagikez eta augaitik, kezka guztiak ezin egikezan uxatu.

Sei ikasle aske aurkeztu ziran, eta idatzizko azterketea goizean izan eben. Arratsaldean, oster, aozko itaunai erantzun bear izan eutsien, eta eskaturiko azalpenak batzutan arbel andi baten emoteko ziran. Iru egun iraun eban ikasturtearen azterketeak, eta dana amaituta espetxera biurtzen zala, Kepa Mirena itxaropentsu aurkitzen zan. Andik egun batzutara, Manu'k eritxien agiriak ekarri eutsazan poz-pozik, eta onak izanik, bigarren ikasturtea egiteko baimendua zan.

Gau aretan zorion bakanak artuta, berandu arte lo egin eziñik iraun eban, batetik bestera iraulkatzen zala oean. Mendekuraino eroian bide aldapatsuko lenengo mailla garaitu izan eban, eta egunen baten, bera ta bere ama gaixoa ain zitalki erabilli izan ebazan doillorak, merezitakoa artuko leuko. Urteak igaro bear orretarako, baiña berak asmatu-eginbideak apentzaren ateraino eroango leuko, eta orduan erruki barik, ain gorroto eutsan suge txatxarrari egokiona emongo leuskio. Bere mendekuaren atsegiña...! Gorroto arek emotsan bearrezko indarra aurrera jarraitzeko, oztopo guztiak garaitzeko, eta espetxeko zoritxarretik iges egian... Bai, Klemen zitalak usterik gitxienean artuko leuko bere ordaintza, eta orretarako mun-

duko lekuri urrunenara joan bear arren, pizti arek beragandik iges egiterik ez leuko izango...

Udea igaro zan, eta Kepa Mirena'k bigarren ikastaroa asi eban, bere apentza aztu barik, liburuen munduan murgiltzen zala. Oartzeke, egunak bajoiazan suntziten, zugaitzen orbelak bai'litzazan, eta urte-aroek alkarri erraikioen urrats geldieziñez.



Baziran iru urtebete espetxean egoala, eta irugarren ikasturtea oiko arrakastaz egiña, Kepa Mirena laugarrena asteko gertatzen zan. Orduko, agiri zan, beste urtebete bi igarorik, baimenduaren agiria jaritsiko leukela. Izan be, gero ta errazagoak egiten yakon ikasgaiak menperatzea. Boskarren eta azken ikasturtea amaituta laster, ezusteren bat etorri ezean, espetxaldi-laburpenak zirala-ta, Kepa Mirena aske urtengo litzake, eta atxilloen mundua aztu eginda, biziera barri bateri emongo leuskio. Oraingoa betikoa zan, au da, goizean Txinbo'k zur-landu egiazan bearrezko marrazkiak atontzen ebazan, eta gero bazkal-aurretik, larraiñean batetik besterako ibillaldia, soiñak bearrezko inar-kuna izan egian. Arratsaldean, gelatxoan adiraltzeari emotsan bake ta isiltasun betean. Espetxean ez eban lagun ugaririk, ezagun bakan batzuk baiño, eta oroz gain Txinbo zintzoaren eraspén andia. Kepa Mirena'ren eragintzapean, lezgebako amorratuak ez-arian lez aldakuntza andia jasaten eban, bere elburua izanik, lanaren bidez egunen baten bere esku izatea. Ez ekian zelan oituko litzaken askatasunean, baiña bere alboan Kepa Mirena izatekotan, ez leuskio ezeri bildurrik izango.

Aspaldi aretan zigor-espetxeetan leku naikorik ezean, urte luzetarako epaituak ziran jende asko, aal eben eran oiko espetxeetan kokatu bear izaten ziran, eta au dala-ta, Kepa Mirena egoan uri-espetxera gaiztoenatariko batzuk ekarri ebezan. Lagun oneik zakarrak izanez gaiñera, urte askotan giltzapetuak izatearen oldozkunak are okerrago biurtzen ebazan.

Olan ba, egunen joanean, oneitariko amar bat lagun batu ziran, espetxeari amaika buruauste ta astrapala ekarririk. Talde onen burua "Txato" ez-izeneko gaizkille indartsu ta azartua zan. Bular eta besoak emakume billuts eta sugeakaz larrantzatuak ebazan, eta bere taldea arrokeriz eta nagusikeriz erabilten eban. Zer esanik ez, bere taldekoe ez ziranak zemaika ta ostikoka erabillezala. Agintzakeria ta inguratzen eban taldetxua ustiatuz, kanpotiko gaiak artzen ebezanak, bakean bizi izateko, zeozer emon bear eutsien. Baziran, baiña, agintzakeri orreri jarki yakozanak...

Izan be, espetxean agiri zan, Txinbo ta Kepa Mirena euren lanari esker,



diruaren aldetik polito ebiltzala. Lagun bion artetik, makalagoa zalakoan-edo, Txato'k Txinbo aukeratu eban oparizat. Bein baten , igarobidetik bakarrik etorrela, Txinbo ikusi eban, eta aurrean jarrita,

– Aizu, gizontxu –jakeari oratuz esan eutsan–, badakit lanaren bidez, zuk eta zure lagun “Laubegi”k diru-mordo bat dozuela. Bardintasuna munduko gauzarik ederrena da, eta beraz, nasai bizi izan gura ba'dozue astero amar ogerleko bana emon bear izango daustazue, bestelan...

Au esanik, txingotearen antzera Txinbo astindu eban. Alako baten, txi-mistaren arintasunaz, Txinbo'k aizto bat bularrean ipiñi eutsan, eta,

– Entzuidazu, arroputz orrek –esan eutsan–, ken egistazuz jaketik esku zikin orreik, bestelan...

Arritutako gaizkilleak agindutakoa egin eban, eta orduan Txinbo'k mintzo aginkorraz,

– Beste urrengo baten –esan eutsan asarrez irakiten–, neugana edo nire lagunagana gaurko moduan ba'zentoz, sabelean zulo bat egingo dautsut eta makallaua baiño sikuago itziko zaitut.

Ezin egikean siñistu Txato'k, gizon txiki arrunt a jarki ekionik, baiña aren begietan irakurri ebanak, atzera eragin, eta berba zantar eta biraoak jaurtiten ebazala, aalik ariñen urrundu zan. Atzetik Txinbo'ren itzok aditu ziran:

– Eta nire lagunagana ba'ziñoaz, zu indartsua izan arren, arek zorri baten antzera zapalduko zaitu, besterik ez zara-ta...

Arrezkero, lagun biok ez eben beste artu-emonik izan Txato ta onen taldearekin, baiña bein baten...

Gaba zan orduko, eta gelatxoan Kepa Mirena oiko ikastaldia ta onen osteko aparria izanda, argiak amatau aurretik oatzean zetzala, Txinbo'ren mintzoa aditu zan auxe zirautsala:

– Aizu, adiskide, gaur arrastian oiko zur-lanean niarduala, saski-gintzan dabillan Basilio urreratu yat, eta Txato'k-eta zeozer asmatzen diarduelaren zurrumurrua bala-bala ei'dabil. Ez dakit, baiña orreikandik gauza onik ez.

– Ez jaramonik egin. Alperkeritan dabiltzenok, beti edozein guzur asma-tu bear dabe.

– Ez dakit ba, Kepa Mirena, baiña Basilio ez da orreitariko barritsua

– Eskatu egiozu, asmo edo dalako orren argibide zeatzak lortu dagiazala . Ez dot uste, baiña, zurrumurru ori benetako gauza izan daitekenik. Espetxe onetan emondako urteetan zear amaika guzur entzun dodaz, baiña bat bera be ez da egi biurtu.

– Bai, zuzen zagoz, baiña orain arte ez dogu ezagutu, bialdu dauskuen gaizkille-talde orren antzekorik.

Urrengo egunetan, oiko zur-lanak lagata, Txato'k-eta asmatzen ebenaren argibideen billa jardun eban Txinbo'k. Zailla zan talde-kanpoentzat gora-beera asko batu egiezan, ereti aretan salatarien bildurrez, asmoa isillean erabil-lako. Taldeak, baiña, txiekiezia izanik, asmatzen ebana aurrera eroateko, talde-kanpoko lagunak nai-ta-ez bear izaten ebazan. Augaitik ba, betiko lagunen bitartez, or-emenka ibillirik, egitamuaren zeatzak batu aal izan ebazan Txinbo'k, eta noizbait, iru egunen buruan, bildutako argibideak Kepa Mirena'ri emoteko gai izan zan.

Goiz aretan, marrazki bat atontzen ziarduan Kepa Mirena'gana joanda, Txinbo jesarri yakon alboan, eta gubiaz zurlan bateri azken ukitzeak emotsazala,

– Aizu, adiskide –esan eutsan–, ez dot ondiñokarren gauza andirik aurkitu, baiña lagun batzuen barriak osotuz, auxe jakin aal izan dot: taldeak dirudianeaz, espetxeari su emotea asmatzen ei'dabe...

– Ipuin orixe berbera –eten egin eutsan Kepa Mirena'k– amaika bidar entzun dot, eta gero ezer ez.

– Ez dakit, baiña oraingo onetan ni ez nintzake orren nasai egongo. Begira, lagun: Espetxe onetan orain arteko atxilloak, urte gitxi batzutarako izan gara, eta orretarako artaratu be. Azken aldiotan etorritako gaizkilleen aldrea, ostera, bizitzaldi osorako zigortuak dira, eta olako jendea etsiak artuta, edozertarako gerturik dagoz, gauza andirik galtzeko ez dabe-ta. Jakin dot, dalako Txato ertzain bat erailtzeagaitik ogei ta amar urterako espetxaldiaz zigortu ebela, eta gero, El Dueso'n espetxekide bat garbitu egin dau. Bataz beste, beraz, ia irurogei urtez giltzapetua izango da. Olako etorkiaren aurrean dagoana, gerturik izango da edozertarako, aukerea etorri dakionean. Eta urte-teko eretiren bat aurkezten ba'yako, zailla ta zentzunbakoa izanik be, matxinada bat sortzeko beti gerturik izango dozu.

Isildu zan Txinbo une batez, eta gero,

– Dirudianeaz –jarraitu eban–, dalako matxinadea datorren Igandeko arratsaldean egitekotan dira. Badakizu, goizeko ikertaldia amaituta, arratsal-dea baketsua izan oi da; orduan espetxezain gitxik diardue, eta onein ardurea lazotzen da. Biagoko ordua amaituta, larraiñera urteteko gelatako ateak edegi dagiezanean, orduan jazoko da matxinadea.

– Zelakoa izango da...?

– Orreri buruz, ezin dagikezut argibide andirik emon. Espetxeari su emongo dautsoela, baiña orren gora-beera andirik ez da jakiten, ezkuturik andienean gordeten dabe-ta.

Biotz-ikara batek artuta, Kepa Mirena'k marrazketeari eten egin eutsan, eta une batez ausnartu ondoren,



– Guretzat barri txarra da ori, Txinbo. Orren bidez ez dogu deus irabaziko, eta bai asko galdu, ostera. Urte bien barruan gitxi gora-beera, zuk eta biok baita beste lagun askok be, askatasuna jaritsiko dogu, baiña matxinada orrek, ezereztu dagike gure zigorraldiaren laburpena, eta ori guztiontzat izugarria litzake.

– Zer egin dagikegu ba...?

– Ez dakit, Txinbo, baiña estu ta larri nozu.

– On Katxi'ri esango ba'geuntso, Txato'ren asmoak txulut egingo leuke... baiña niri beintzat, salakeriak jasan-eziñak yataz.

– Baita niri be. Baiña Txato'k-eta asmo ori aurrera ba'daroe, ondore onik ez, eta gaiñera lagun asko il leiteke. Kontuizu, Txinbo, Igandeko arratsaldean izanik, su-iltzaille ta espetxelari iñoizkorik gitxien...

– Zer egin geinke ba, lagun...? Dana-dala, espetxe bat suaren bidez ondatzea ez da ain erraza.

– Ez uste olakorik. Espetxe au zaarra da, eta zuredia sutan asi ezker...

Isillune luzea egin zan, eta gero larraiñeko iñarkunaldia zalako atxakiz, Kepa Mirena lantegitik urten zan. Arratsalde aretan aurrean idazti bat zabalik ebala, ezin egikean adiraltzeari lotu, bein eta barrero espetxearen ondapena burura etorkiola. Egoera a luzarago jasan eziñik, larraiñera urten zan, eta batetik bestera ibilli ebillela, berak espetxea erre gura izatekotan egingo leukena gogoan erabilli eban. Izan be, espetxea sutan ipintea ez zan gauza erraza. Noizean bein, zororen batek lastamarraga batzui su emon oi eutsen, baiña ke-mordo astuna ta gero ezer ez. Orretarako erregai ugaria bearrezkoa zan, eta atxilloek ez eben eskura olakorik, espetxelariiek gelak egunero aztertzen ebezan-eta. Gaiñera, zelan sartu kanpotik erregaiez beteriko latontzi andiak...? Onaiño elduta, baiña, tximistak jota lez gelditu zan.

Zelan ez lenago bururatu...? Negua zan, eta espetxeko beesoruko azken zatian, berotegia aurkitzen zan, idaztegiak, iker-aretoa, eta espetxeko nagusien bizilekuak berotzeko. Gela txiki onetan, gasoriorren bidez galdara batek ur beroa, aipaturiko lekuetara bialtzen eban. Bearrezko erregaia ontzitar andi baten gorde erioen; milla batzuk litrokoa izan be. Dalako berokiña, atxillo batek zaintzen eban, bere egitekoa, berotasuna, ta ur-zanpaketea zaintzea izanik. Itzelak izango litzakez, benetan, erregai onek ekarriko leukezan ondorioak su artuko ba'leu...! Dana errauts biurtuko litzake.

Gogoratu-ala, gero ta ziurragotzat eban Kepa Mirena'k, asaldatu en elburua berotegia zala. Augaitik korapilloaren askapenari emon eutsan buru-belarri, eta noizbait, urtenbide batzuk alde batera lagata, ondoen eritxan egitasmoren gerkunari emon eutsan.

Gau aretan apaldu baiño ez,

– Aizu, Txinbo –esan eutsan–, gero ta ziurrago deritxat, asaldatu en elburua berotegiaz jabetzea dala, emengo erregaiari su emoteko.

Une batez, Txinbo aulki-gaiñean igitu zan urduri, eta gero,

– Izugarria litzake, adiskide –erantzun eutsan betosko illunaz–. Atzo bertan, erregaiaren ontzia bete zan. Sortuko dan su ta keaz lagun asko ilgo dira, eta enparauai zigorraldiaren laburpena kenduko yake. Orren ordaiñez zer jaritsiko leukie asaldatuok...?

– Etsiak jotako talde orreri, bost ardura enparauai letorkieken ondapena. Euren elburua, askatasuna zelan edo alan lortzea da, eta iges egitea oso zailla izanik be, eurontzat balio dau. Gaiñera, suak sortu leiteken astrapala ta urduritasunaren artean, igesa ez da eziña.

– Zer egin geinke ba...?

– Ara ba... adiskide. Arazoari merezi dauan ardurea emon dautsat, eta zerbait otu egin yat. Baiña aurrera baiño len, ezagutzen al-do zu berotegian diarduan laguna...?

– Bai, “Sagua” esaten dautsoe, eta datorren urtean kalera urtengo da.

– Zelakoa da dalako Sagua...?

– Ez da lagun txarra.

– Orduan ez da asaldatu en alde azalduko, urtean.

– Bai zera...! Uste al-do zu askatasuna orren eskura izan, eta dana blindiblaust...! joan daiten itzi...? Ez orixe...!

– Aizu, Txinbo, gure aldeko zenbat lagun batu dagikezuz...?

Oldozkor geratu zan une batez legebakoa, eta noizbait,

– Ogei bat lagun baietz egingo neuke.

– Entzun ba... Ogeiotatik autu egizuz zintzoenatariko zortzi.

– Ez ete dira gitxiegi izango...?

– Zeu, Sagu ta nirekin, amaika izango gara. Jende asko aukeratzekotan, barritsuren baten erruz gure asmoa galtzorian jarri leiteke. Eta orain beste gai bat: zelako iskillak erabilliko dabez asaldatuok...?

– Aizto ta labanak geienbaten.

– Orain entzun egistazu auxe: iru egunen buruan ekintzaren Igandea izango da, eta oiko bere lana alde batera itzita, amaika burdiñezko aga atonduko dauz lantegiko errementariak, eta galdararen barruko kedarra garbitzeko bearrekoak dirala atxakiaz, Sagua'k banan-banan eroango dauz berotegira. Ulertu dozu ondo...?

– Bai, Kepa Mirena

– Bitartean zure uste oneko zortzi lagunok auxe egiteko gertatuko



dozuz: Igandeko arratsaldean, biago-orduan, giltzariak lagun orreïn gelak morroilloa itxi barik lagako dauz, eta banan-banan berotegira aalik isillen joango dira. Atondu dagikezu arazoa era onetan, iñongo oztopo barik...?

– Baietz uste dot.

– Orduan biar bertan ekiozu arloari; zuur ibilli zaitez, baiña, gure asmoak uts egin ez dagian.

Biaramonean, asmo-atontzeari emon eutsan Txinbo'k, eta Larunbat arratsaldean, Kepa Mirena'ri jakiñerazo eutsan, dana gerturik egoala, eta bere ustez Txato'ren ezagutzera ez zala ezer irazi.

Igandea eguraldi ederreko eguna sortu zan, eta otz izanik be, eguzkiak bazterrak alaitzen ebazan. Goizean, oiko jaiegunetako mezea ospatu ostean, ikertaldia asi zan. Oi eban lez, egun aretan Miren Andrea Kepa Mirena iker-tzera etorri zan. Emakume gain-gaiñeko onen aurrean egoanean, mutilla bake bakanaz beteten zan, eta ikustaldia arin baten igaroten zan. Kepa Mirena'k emakume au gur egiten eban, eta zelanbait bere ama ekarkion gogora. Berak eta bere seme Manu'k inpernu batetik atara izan eben zoratze-ko zorian zala, eta Agate bere ama gaixoa etxean artu izan ebela eriotzal-diko une larrietan maitasunez inguratzearren, bere bizitzan zear aztuko ez leuken gauza zan. Arazo bik beteten eben Kepa Mirena'ren gogoa: Miren eta Manu'ganako ederrespen neurribakoa, eta Klemen zitalarekiko gorroto itzalieziña.

Ikertaldia amaitu zanean, bazkaria izan eben atxilloek, eta jarraian arratsaldeko laurak arte iraungo leuken biagoa. Dana bakean egoan espetxean, eta erdiz lokaturiko zaindariak gogora ekarten eban arratsalde aretan, emaztegaia-rekin egingo eban egurastua, begirari-txandea etorri ez ba'litzakio. Alako baten, isiltasunik andianean gelatxuetako ate batzuk banan-banan edegi ziran, eta mamuak bai'litzazan itzal batzuk berotegira joan, eta onen atea edegita egoanez, barruan biltzen asi ziran. Noizbait, amar lagun batuta ziranean, Sagua'k burdin-agak banandu eutsezan, eta gero Kepa Mirena'k egitekoa azal-duta, jazoeren zain geratu ziran. Agindua argi egoan: zelan edo alan erregaiari su emotea eragotzi egien, ondoreak izugarriak izan leitekez-eta.

Andik laster, larraiñerako jotea aditu zan, eta giltzariak geletako atek edegiten asi ziran, atxilloak urten zeitezan. Oneitariko geienak igarobideetan zear eta zurubian beera lerro luzeka larraiñera abiatu ziran. Amabost inguruko talde bat, ordea, aalik isillen eta ariñen berotegira bideratu zan. Ona eldu aurretik, baiña, atea edegi, eta burdiñagakaz ornituriko talde bat urten zan, sarrerea eragozten eutsela. Kepa Mirena aurreratu zan, eta Txato'ri,

– Aizu, lagun –esan eutsan–, badakigu zertara zatozen, baiña ez dautsue-

gu lagako espetxea ondatu dagizuen, guztien kalterako izango litzake-ta. Jende asko ilgo da suaren ondorioz, eta enparauai espetxaldia ez litzakie gi-txituko.

– Ken ortik, laubegi zikin ori...! –orru egin eban Txato'k–. Lagunok, aurrera, jo ta ke, zapaldu dagiguzan zorritsuok...!

Asalduetuek aitzo ta labanak atararik, aldeztzailleai oldartu yakezan, baiña oneik burdiñagak erabillezala, sarrera eragotzi eutsien. Txato-ta atzera egiten asi ziran, eta asmoa txulut egiteko zorian zala ikusirik, Txato'k zizpolet bat atara, eta Kepa Mirena'ri su egin eutsan. Jaurtikiak lokia igurtzi eutsan, eta konortea galdurik, odola parrastaka eriola, Kepa Mirena sorura jausi zan. Au ikustean, bere lagunak bildurrak jota atzera egiten asi ziran, baiña Txinbo'k maite eban laguna lurrean odolustuten zala ikustean, burdiñaga lurrera bota, aitzo bat atara, eta basakatuaren malgutasunaz, amorru bizian Txato'ri eraso eutsan. Gaizkilleak su egin eban bigarrenez, baiña oraingo onetan uts egiñik, barriro jaurti baiño len, Txinbo'ren aitzoak bularrean zauri sakona egin eut-san. Iñusturiak jota lez, Txato lurrera amildu zan, eta onen lagunak izuak artuta atzera egiten asi ziran. Orduan, Txinbo'k adoreturiko aldeleen taldeak gogor ekin eban, eta noizbait erasotzailleak kemena galduta, igesari emon eutsoen. Zizpoletaren eztandak erakarrita, espetxelari batzuk aalik ariñen oldartu ziran burruka-lekura, eta iskilluak zorrotatik atarata, aidean su egiten asi ziran. Orduko, baiña, aal izan eben modura, asalduetuek igesari emonda, larraiñean egozanekin naasi ziran, jaramonik egiteke lurrean zauriturik egoza-nai.

Astirik galtzeke, Txinbo'k eta Sagu'k lurrean zetzan Kepa Mirena artu, eta arrapalada baten geisotegira eroan eben. Espetxelarien aginduz beste bik Txato'rekin bardin egin eben. Andik laster, iradu bizian dei egiñiko osagillea etorri zan, eta zaurituen egoerea aztertuta gero, Txato gaizki zauritua ikusirik, eri-berebilla dei egin eban, eta uriko geisotegira eroan eben, aitzoak biria alde-rik-alde zearkatu izan eutsalako. Ostera, Kepa Mirena'k buruan artutako zauria ez zan garrantzitsua azaldu. Jaurtikiak loki-saietsean arramaska luze baiña aza-lekoa egin izan eutsan, eta lenengo unean konortea galduz gaiñera, odol-gal-tzeagaitik makal billakatua zan. Laster, baiña, geisotegiko zaintzapean bere senetara biurtu, eta sendagai bat artuta, lo atsedengarriak artu eban.

Urrengo egunean epaikari argitzaille bat etorri, eta aurreguneko matxi-nadan tarteko izan ziranen itaunketea asi zan. Oneik, zigor-gelatxutan giltza-petuak egozan, eta banan-banan itaunduta gero, noizbait, Kepa Mirena'gana joan zan. Au ondo aurkitzen zan, eta burua lotuta izan arren, itxura osasun-tsua erakusten eban. Espetxeko osagilleak orretarako baimena emon ondoren,



argitzailleak arazoari ekin eutsan, eta alboan idazkari bat ebala, Kepa Mirena'ren erantzunak idatziz artu ebazan.

– Aizu, mutil –asi zan argitzaillea–, edestu egistazu atzo jazo zan guztia.

Asi zan ba, Kepa Mirena, arazoaren gora-beera zeatzak emonez, noizean bein epaikariak eten egiten eutsala zeatzen bat argitzeko. Gazteak edeskia amaitu ebanean,

– Zergaitik –itaundu eutsan– ez zeutsan espetxeko nagusi bateri gertatzen zanaren barririk emon...? Era onetan ez zan ezer jazoko.

– Jauna, ori errazena izango litzakean, baiña atxilloek lagunen arteko edozein salakuntza saldukeritzat artzen dabe, eta nik lege orreri jarraitu dau tsat.

– Bada ondo ulertzen ez dodan besterik, eta auxe alegia: burrukan egin bearrean, zergaitik ez zeutsan berotegiko ate lodiari giltza emon...? Olan, asaldatuak ezin izango eutsoen erregaiari su emon.

– Gure ezaguerara etorri izan zan, asaldatuak ate aretako giltza baebela. Nik ez dakit zelan, baiña orren aldaki bat lortu eben.

– Orain, mutil, beste gauza bat. Zuetariko nork sastakatu eban dalako Txato...?

– Ezin dagikezut esan, Jauna. Ori gertatu zaneko, konorte barik nengoan-eta.

– Gauza bitxia da, izan be, zuetariko inork ez dakiala nork zauritu eban Txato.

– Ori espetxeko legea da. Gaiñera, badirudi Txato'ren erasotzaillea zigortu gura dozuela, kontuan artzeke, orreri esker, espetxea erre barik gaur zutunik dagoala.

– Zuzen zagoz, benetan, eta zana-zala Txato zauritu ebana, ondapen izugarria eragotzi dozue. Agur, mutil, eta eskerrak egin dozuenagaitik.

– Agur, Jauna.

Andik iru egun, asaldatuak El Dueso'ko zigor-espetxera eroan ebezan. Bazirudian orduko, Txato sendotzen joiala, ete bere garaian ara bialduko leukiela. Arratsalde aretan espetxeko nagusiak Kepa Mirena ikertu eban geisotegian, eta bere egoeratzaz itaundu ostean,

– Aizu, mutil –esan eutsan–, zuei esker triskantza itzela uxatu izan da. Gaur epaikari argitzaillearen txostena eldu yat, eta irakurri ondoren, zuentzat, aldeleen taldearentzat, aalik eta zigorraldiko laburpenik andiena eskatzea erabagi dot. Au dala-ta, zuen espetxe-agirietan sartuko dot ori, egindakoaren saria artu dagizuen. Zein da zuri emondako zigorraldia...?

– Zortzi urtetakoa, Jauna.

Ainbaketa ariña egin ostean, nagusiak auxe esan eutsan:

– Nire zenbakien arauz, bost urtebete ozta-ozta egiñik, urtengo zara.

– Orduan urte bien buruan; onezkero iru urtebete badira zigortu nindue-netik-eta.

– Barriro be, zorionak, mutil.

Joan zan nagusia, eta begiak itxita, Kepa Mirena'k zorion bakanpean etorkirako bere asmoak laztandu ebazan, irrika bizian itxaroten eban mende-kuaren ordua, izan be. Urtebete bi areago, eta ames egiñikoa egi biurtuko litzake...

Laster urten zan Kepa Mirena espetxeko geisotegitik, eta oiko biziareari emon eutsan. Sartuta egoan zulotik, gero ta biziagoa biurtzen zan argi bat ekusan, eta onekin batean itxaropen zoro batek espetxeko egotaldia jasankoragoa biurtzen eban. Bajoian aurrera baltzularitzako ikasketea, oiko arrakastaz gaiak menperatuz, azterketak inongo oztopo barik igaroten ebazala. Eta olan beste urtebete bat igarorik, boskarren eta azken ikasturtea etorri yakon. Adore andiak artuta, azken ikaste-zatian itxaropenez beterik murgildu zan, eta ikastaro aretan, espetxean izan daiteken beste zorionsua izan zan.

Txinbo'rekiko arremonak betikoak ziran, eta bion arteko lankidetzak, oi lez mozkin politak ekarten eutsezan. Orduko, liburuak eta azterketa-zergak ordaintzeko gai izanez gaiñera, baeban diruketa bat. Txinborena, ostera eralguntzarik ez izanda, askozaz andiagoa zan, eta sarri askotan dirua zelan erabiliko leuken arazoa Kepa Mirena'rekin eztabaidatzen eban. Arrezkero, aberatsen aurkako gorrotoa ta agintzabakotasuna aztu izan yakozan, eta irabazitakoa gogoan laztantzen eban atsegiñez gaiñezka. Bera, Kepa Mirena baiño illabete bi aurretik urtengo litzake, eta oldozkun onek bere poztasuna zelan-bait laiñotzen eban. Bein baten,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan–, badodaz ogerleko batzuk, eta urten naitenean ez dakit zelako erabiltea emon...

– Beti dago dirua zertan erabili, lagun. Etxe bat erosi, edo arazoren baten errentan ipiñi, baita ondasun-zatiak erosi be. Badago bai, orretarako bide ugari.

– Bildur naz, adiskide, nire ezaguera-ezagaitik galduko ez ete dodan guztia. Zergaitik ez daustazu zeuk erabilten...?

– Baiña, Txinbo, uste al-dozu ikasketak egin dodazalako, zure diruak nire eskuetan ugalduko diranik...? Ez neuke lepo-gaiñean olako erantzun-bearrik artu gura. Dana-dala, oraindiño urteteko sei illabete peitzen yatzuzan ezkerro, ez larritu, eta ekin gogoz zur-lanari, ia zure ogerlekook ugaltzen diran.



Zenbait illabete igaro ziran, eta oneikin batean, azken ikastaroa amaituta, Kepa Mirena'k Ikastola Nagusiko baimendun-agiria jaritsi eban. Zauskada bakanpean, eskuak dardarikatzen yakozala, eta begietan laiño baten aztarnak agiri ebazala, Irakasle Nagusiaren eskutik, merezitako agiria artu eban. Areto zabalean, Manu'k eta beronen amak pozaren-pozez Kepa Mirena'ren gurenda begizatzen eben. Urten ziranean, Miren Andreak besarkatu eban auxe iñotsala:

– Zorionak, Kepa Mirena; gitxik lortuko leukiena, zeuk jaritsi dozu.

– Zuei esker izan da, Andrea. Zuek lagundu daustazue era guztietan, eta dana zor dautsuet.

– Ez, mutil, oker zagoz. Zure barruko naimenak jaritsi dau sari ori, eta zu baizen pozik gaituzu. Laster urtengo zara espetxetik, eta orduan, ikasitakoak jauna biurtuko zaitu, eta joanak-joan biziera barria asiko dozu.

Egun eder-ederra izan zan, eta mutillaren arrakasta ospatzeko, Manu'ren gurasoen etxean bazkari bikaiña izan eben, orretarako aurretiaz bearreko baimena lortuta.

Uda zan, eta illabete batzuen buruan, askatasuna etorriko litzakio. Orren aurretik, baiña, Txinbo aske billakatuko litzake, eta epe ori baiño len, Kepa Mirena'k auxe esan eutsan:

– Aizu, Txinbo, gaur illabete bi gitxi gora-beera, kalean izango zara, baiña orren aurretik, lan bat egin dagidazun gura dot. Orretarako kutxatillen gintzari uko egingo dautsazu.

– Esan, ba.

Kepa Mirena'k marrazki bat begien aurretik edatu eutsan, eta orduan zur eta lur eginda, berbeta barik geratu zan Txinbo. Yosu gurutz-untzatu oinaze ta nekaldi bizi-bizian agertzen zan. Txinbo siñisbakoa izanik, beste munduko arazoak berari bost ardura, baiña Jaunaren irudi unkiagarria ikustean, bere baitan ezkuturik egoan zerbaitek zauskada andipean bere barrua dardar jarri eban. Noizbait, eta iruditik begiak kendu eziñik, auxe iges egin yakon:

– Irudiaren oinaze ta anditasuna...!

– Entzuidazu, Txinbo –esan eutsan Kepa Mirena'k–, Gure Jaunaren irudia marfillezkoa izango da, eta gurutza ebanozkoa. Zure ganorarik andiena lan onetan jarri dagizun gura dot. Biar edo etzi marfilla ta ebanoa elduko dira, eta eskuetara baiño ez, lanean asiko zara. Erabillitako aldiaren giñoan ordainduko dautsut, eta...

– Ez orixe...! Lan orregaitik ez daustazu ordaindu bear, zure adiskidea izan nakizun nai ba'dozu. Gaiñera, olako maisu-lan egitea edonorentzat dedu andia da.

Eta gero gurutz-untzatu barrero ikustatz,

– Gorputza marfillezko zati bakarrekoa izango da, baiña besoak gorputzari eratsiak, doitasun andiz jarrita, izan be. Biar bertan, bearrezko tresnak gertatuko dodaz.

Ordutik, kutxatil-gintzari uko egin eutsoen adiskide biok, eta marfilla etorrita, Kepa Mirena'ren zaintzapean, Txinbo'k arloari ekin eutsan, ardurarik andienaz emotsala. Oartzeke, baiña, gurutz-untzatuaren irudi arek erakarren uxaeziña eragin eutsan, eta arrezkero, Kepa Mirena'ri guztitariko itaunak Jaunari buruz egiten eutsazan. Astiro baiña etenbarik, marfil-lantzea bajoian aurrera; eta onekin batean Txinbo'ren jakingurea Kristo'ri buruz. Aal eban giñoan, ekiazan argibideak emotsazan Kepa Mirena'k, eta bein baten entzuten ebazaneakoak adoretuta,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan–, urten naitenean, Kristo'ren edeski bat erosiko dot, zeuk diñostazunegaitik guztiz jakingarria izango da-ta.

– Kristo'ren bizitza on bat nai ba'dozu, itaundu egiozu Miren Andreari urten zaitezanean, eta esango dautsu zein dan onena.

Lana bajoian aurrera, eta soin-enborra amaituta, besoak eratsi eutsazan. Onen ostein, gurutza landu eban. Dana amaitu zanean, marfillezko irudi zuria ebanozko gurutzaren gaiñean, edertasun beteaz nabarmentzen zan; biotz-ikara sakona menperatu eziñik, irudiari begira ta begira, Txinbo'ri auxe iges egin yakon:

– Zeuk munduari esan zeutsana, ezin daiteke guzurra izan.

Andik astebete batera, Txinbo'ri askatasun-agiria etorri yakon, eta bere gauzak lotuki baten bilduta, arratsaldean gerturik egoan urteteko. Orduan Kepa Mirena'k auxe esan eutsan:

– Aizu, adiskide, onezkero Miren Andreak aurkitu izango dautsu, ostatu bat sendi on batenean. Urten baiño ez, aren etxera abiatuko zara, eta dalako ostatura lagunduko dautsu. Biar goizean, diru-etxe baten kontu-agiri bat jarriko dozu.

– Zer egingo dot diru orrekin, baiña...?

– Gorde egizu oraingoz, eta geroago urten naitenean ikusiko dogu. Anartean, Manu'k jardun bat idoroten lagunduko dautsu. Zur-lantzea ondo menperatzen dozun ezkerro, luzaro barik jardun bat jaritsiko dozu.

Joateko ordua zan. Malkoak begietan, Txinbo'k estu-estu besarkatu eban Kepa Mirena, eta,

– Agur, adiskide –esan eutsan–, ta ikusi arte. Asko zor dautsut, asko irakatsi daustazulako...

– Areago zor dautsut nik, Txinbo. Konturatzen ez bazara be, niretzat eredu bikaiña izanez gaiñera, anaitzat zaukat... Agur...



Eta geiago esateko gai ez izanik, lagun biok azken besarkadea alkarri emonda, Txinbo askatasunerantz abiatu zan naigabe esan-eziñak artuta.

Andik egun batzutara, Manu'k oiko ikertaldian Kepa Mirena'ri jakiñerazo eutsan, Txinbo'k kutxa-gintza baten ziarduala, eta ostatuan benetan ederresten ebela. Jakiñerazo eutsan baita be, bere askatasun-agiria etorriko litzakiola, auzitegian dana gerturik egoan-eta.

Ordurarte astia emoteko, Kepa Mirena'k Baltzuitzi-buruzko liburuetan murgildu zan bete-bete. Gau bakotxan, oera orduko, egunaren amaieraz askatasunetik egun bat urrago egoalako oldozkunak, zorion bakana ekartsan. Bai, inpernu aretako bost urteak amaitzera joiazan. Eta Gabonilla eldu zan, bazterrak jai-usaiñez beteten zirala. Bost urte lenago, Gaboneko goizean, lana amaituta amarekin Jaunaren Jaiotza ospatzeko gertatzen zala, atxillotu izan zan, amaibako atsekabe larriaren ostean, espetxerako bidea ta gerena ezaguturik, baiña oroz gai amaren galtzaia izan zan geien uts emon ebana. Zoraldi izugarria atzean geratzen zan, eta aurrean... aurrean bere mendekuak itxaroten eutsan, eta eginkizun oneri buru-belarri ekingo leuskio.

Egubarriko aurregunean, Manu bera askatasun-agiriaz espetxera etorri zan. Kepa Mirena'k bere gauzak zorrotxu baten bildu, eta marfillezko gurutzuntzatu kutxatxu batera sartuta, espetxeko urtenbidera abiatu zan. Atadi-ondoko idaztegian, askatasunaren agiria izenpetu, eta On Katxi'ri azken agurra egiñik, joan zan. Atetzarra zearkatzean, zorion bakanpean bere izaki guztiak dar-dar egiten eban, eta zauskada andiak artuta, lekorean begira eban Manu'rekin besarkada estu-estu batz bildu zan. Eguberdi otza zan neguari zegokionez, baiña bere barruan udabarria lako zerbaitek mugabako bake ta zoriona ekartsazan.

Jarraian, Manu'ren berebillean onen etxera abiatu ziran. Lege-gizonaren gurasoek erabagi izan eben, aspaldi batez Kepa Mirena euren etxean kokatuko litzakela, etorkia zeozer argitu ekion arte. Gaztea asmo oneri jarki izan yakon, sendi aretako askatasuna ez mugatzearren, baiña bere jarkipenari ez eutsoen jaramonik egin. Eguberdi aretan Manu'k atea jo ebanean, Miren Andrea azaldu zan, eta Kepa Mirena'ri besarkada amatarra emon eutsan. Jarraian, txirria artuta, lo-gela batera eroan eban, oegaiñean jarritako soiñe-ta aldagarri barriakaz jantzi zeiten.

Bazkari alaia izan eben, eta Manu'k lagunduta, arratsaldean Kepa Mirena'k ondo ezagutzen ebazan kaleetan zear, ordubete batzuk emon ebazan. Bost urte aretan uri aretako kale batzuk aldakuntza andia erakusten eben, eraikitako etxe barriakaitik batez be. Biurtu ziranean, maia gerturik egoan Gabonetako aparta ospatzeko, eta izan be, guztiz alaia billakatu zan. Txoko baten, margodun argiakaz apainduta, Belen'go jaiotzak bere betiko mezu bakun eta maitetsua barreiatzen eban. Aparta gozoa ta atsegiña izan zan. Onen ostean, alkarri egiñiko bezuzak estalgetu ziran guztien pozerako. Etxekoek Kepa Mirena'ri ordulari bikaiña eskiñi eutsoen, eta mutillak ezkurturrean ipiñi ebanean, berak be baebala esku-erakutsi bat emoteko esanik, lo-gelara joan, eta zerbait paperaz estalita ekarri eban. Ardura andiaz zabal-duta, marfillezko gurutzuntzatu agertu zanean, Miren Andreari eskuratu eutsan auxe iñotsala:



– Eutsi, Andrea, neronek marrazturiko, eta Txinbo’k landutako marfillezko gurutzatu au.

Ertilan bikaiña zan bitxia ikustean, danok zur eta lur geratu ziran itz bat bera be esan eziñik. Aretoko argi bizipean, Kristo’re nalkaldia irudikatzen eban marfillezko lanak, ebanozko gurutzaren gaiñean erakusten eban oiñaze larria, zauskagarria zan . Iruditik begiak noizbait aldenduta, Miren’ek abora eroan eta musu luze bat emonik, Kepa Mirena’ri auxe esan eutsan:

– Ezin niri emon au baiño gauza bikaiñagorik. Ez dot egundo be au baiño gurutzuntzatu erdiragarriagorik ikusi. Zer deritxazu bitxi oneri, Yulen...? –jarraitu eban bere senarrari itz egiñez–.

Senarra erti-arloan ezagulari zorrotza zan, eta gurutza artuta, biotz-ikara bakanak jabetuta, isillean begiztatu eban. Une luze batez aztertu ondoren, astiro ta begirunez,

– Benetako maisu-lana da bitxi au –esan eban–. Badirudi mezu unkigarria gizadiari bialdu nai dautsala. Niretzat ainbatu-eziña da maisu-lan onen balioa, baiña gitxik erosi legikie au lako bitxia.

Pozaren-pozez biotzaren pilpirak arintzen yakozala,

– Nik ez dakit –esan eutsen Kepa Mirena’k–, esku-lan orren balioa, baiña asieratik eta bost urte luze oneitan nire alde egin dozuena, ordaindu ezin daiteken gauza da. Lur-jota, etsia, eta danok aztuta nengoanean, zuen laguntzak inpernutik atara ninduan, eta areago dana, etxe onetan bertan, nire ama artu zenduen, maitasunez inguraturik il zeiten. Zuekin beti zorretan izango nozue...

– Kepa Mirena –eten egin eutsan Miren’ek–, benetan diñotsut: zuri lagundu aal izanak, neurribako atsegiña ekarri dausku, eta areago, errubako baten alde egin dogula kontuan arturik. Itzi dagigun, beraz, autu-gai au alde batera, baiña ziñez auxe diñotsut: zure gaurko emokariak zorion neurribakoa ekarri daust. Eta orain, aparria amaituta goazen guztiok gaberdiko mezatarra.

Gabon zoriotsuak emon ebazan Kepa Mirena’ k etxe aretan. Jaiak amaituta, kezka aztarnak erakusten ebanez, bein baten, Miren’ek,

– Kepa Mirena –esan eutsan–, arrenkura andipean ikusten zaitut, ez alzagoz pozik gurean...?

– Iñoiz asmatu ez nengiken baiño pozago sentitzen naz emen, baiña nik nai dodana jardun bat da. Orretarako ikasketak egin nebazan, eta ordua da nire esku izan naiten.

– Zuzen zagoz, baiña gaurregun jardun on bat jaristeko norberaren itxurari ardura emon bear yako. Jardun orren billa joan zaitezanean, goitik-beera aztertuko zaitue, eta izan be, betaurreko orreikin orain dozun begi-gaizto baten itxurak, ez dautsu asko lagunduko.

– Betaurrekoak ezinbestekoak yataz mundutik ibilteko.

– Begira, Kepa Mirena: betaurrekuok bigarren maillako luma-mutil baten itxura emoten dautsue. Baiña bada beste zerbait kalte andia ekarri dagikezuna, eta auxe: ezagutua izatea. Jardun bat lortu ondoren, baten batek zeugan lapurtzat espexera joan zana ezagutuko ba’leu, txarto ikusiko zenduke zure burua lanean jarraitzeko. Bearrezkoa da, beraz, oraingo itxurea aldatu dagizun iñork ezagutu ez zagizan. Zorionez, baiña, begilaritzak aurrerapen itzelak egin dauz azken aldiotan, eta betaurrekoen ordez begi-eraskiak gero ta geiago erabilten dira orain. Ereti onek itxuraldatzeko lagunduko dautsu. Biar bertan, begilari on bategana joango gara, eraski orreik doitu dagitsuzan.

– Karuak izango dira eraskiok, urrean...

– Ez dakit, eta orrek bost ardura niri. Zelan edo alan lortuko dozuz, eta ez bedi orreri buruz besterik esan.

Biamonean biok begilari bategana joan ziran, eta onek argibideak eskatu ostean, tramankulu bataz mutillari begiak aztertu eutsazan, eta gero zenbaki batzuk egiñik,

– Datorren astean begi-eraskiak gertuta izango dozuz. Asiera baten aspergarriak azalduko yatzuz, baiña egun batzuk igarorik, oituko zara.

– Zenbat balioko dabe....?

Begilariak aipatu eutsan sal-saria ezagutzean, Kepa Mirena nasaitu zan, orretarako beste baeukan-eta.

Esandako epea igarorik, Kepa Mirena begilariagana joan zan, eta onek eraski-betaurrekoak doitu eutsazan. Jarraian, ispillu baten aurrean jarrita, ezin egikean siñistu aurrean ikusten eban gaztearen aurpegia, berea izan zeitekeanik. Izan be, bazirudian gizaki ez-ezaguturiko batek ispillutik begizatzen ebala.

– Asiera baten gogaikarriak izango yatzuz eraskiok, baiña amabost bat egun igarorik, ez dozu ezetariko oztoporik oartuko. Dana-dala, oituko ez ba’zintzaz, etorri zaitekidez bearrezko azken doitasuna egiteko.

Askatasun-sentipenaz urten zan Kepa Mirena. Benetan, orain beste gizaki barria oartzen zan. Kanean beera joiala, denda bateko erakus-leioan, gai batzuk aztertzeke gelditu zan. Alako baten, zur eta lur geratu zan. Nor izango ete, aurrean ekusan gaztea...? Bera zan, bai, eta orduan adore bakanpean bere buruari esan eutsan, berak ezagutzen ez ba’eban, zelan ezagutuko leukie jendeek, bost urte lenago espexera joan zan, “Bikain”eko ogipeko lapurra...?

Etxera biurtuta, Miren’ek ikusi ebanean, ezezagun bat zalakoan, atea itxeto billakatu zan.

– Baiña, Andrea, ez al-nozu ezagutzen...? –esan eutsan gazteak–.



– Ene bada, Kepa Mirena...! –oiu egin eban Miren'ek–. Zelan ezagutuko zindukedaz oraingo itxuraz...? Izan be, esan dagikezut, eraski orrein bidez, zure itxurak obakuntza itzela jasan dauala.

Miren'ek une luze batez begiztatu eban, eta gero burutapen batek jota,

– Entzuidazu, Kepa Mirena –esan eutsan–, itxuraldatze ori andiagoa egi-teko, bizarra azten laga bear izango zenduke. Ez da munduan izango, zure itxuratik antxiña bateko Kepa “Bizkain”en luma-mutilla ezagutu leikenik.

Mutillak, Miren'ek esondaturikoa egin eban, eta andik laster, bizar baltz labur batek aurpegi gizonkorra estali eutsan. Ezin egikien siñistu etxeokok, mutil sendo ta eder a, lengo Kepa betaurredu eta erabetia izan zeitekeanik. Pozik egoan mutilla, jasandako itxuraldatzea ondo bai ondo etorkiolako, aspalditik buruan erabillen asmoa egi biurtzeko.

Goiz guztietan, gosaldurak baiñe ez, egunkarietako lan-iragarkiak ardurarik andienaz irakurri oi ebazan. Jardun asko eskintzen zan egunero, baiña berak billatzen ebana ez zan azaltzen, eta izparringia alde batera itzita, kaiera urte-ten zan lan-bitartekoen idazkaritzetan bear izaten ebana idorotearren. Baiña goizetik gaberarte buru-belarri ekin arren, billaturikoa ez zan iñondik ager-tzen. Etsiak jota, itxaropena galtzeko zorian zala, baiña, ara non egunkari baten onoko iragarki au irakurri eban:

“ Errediza-baltzu garrantzitsu batek, arduradun nagusia bear dau. Jardun-gaiek beean jarritako urrutizkiñera dei egin dagiela. Goi-maillako ikasketak barik jardun ori eskatzea alperrik da.”

Urrutizkin-zenbakia irakurri ta bereala, Kepa Mirena'k dei egin eban. Andereiño baten mintzoak jakifierazo eutsan, andik iru egunetara idaztegi batera joan zeitela goizeko bederatzietan, bearrezko azterketea jasateko. Bereala, Miren'egana joan zan, eta jardun ari buruz jakitun ipiñi eban.

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan Miren'ek–, zure ikasketak oso garrantzitsuak dira dalako jardun ori jaristeko, baiña irudiak be badau zer-iku-sirik. Biar bertan janzki dotore bat erosiko dozuz, eta erdipurdiko bat erosi ez dagizun, neronek lagunduko dautsut.

Biaramonean, janzkitegi on batera joan ziran, eta azterketa zeatza egiñik, Miren'ek janzki oztin illuna aukeratu eban. Neurtu ondoren, eta ondo etorkio-la ikusirik, janzkiari ondo egokion paparrekua erosita, etxera bialtzeko agindu eban Miren'ek. Onen jarkipena ta guzti, Kepa Mirena'k erosirikoa ordaindu eban, orretarako beste dirua baeban-eta.

Azterketaren eguna etorri zan, eta janzki barriaz Kepa Mirena esandako idaztegiara abiatzen zala, Miren'ek bere buruari esan eutsan, mutil a baizen ederra nekez aurkituko litzakela, eta otoi bizi bat egin eban, dalako jarduna lortu egian.

Azterketa-lekura eldu zanean, andereiño batek gora-beera batzuk eskatu eutsazan, eta ikasketaren agiria aztertu ondoren, alboko gela batera sarrerazo eban. Gela onetan zortzi bat gazte egozan orduko, eta amabi-edo batu zirane-an, jaun batek mai andiaren inguruan jesarrierazo ebazan, eta bakotxari gaiak idatziz emonda, azterketearen lenengo zatia asi zan. Au amaitu zanean, beste gela batera banaka joanda, itzezko azterketea asi zan. Gaiak, ludizti, izadizti, zenbakizti ta abarrekoak izan ziran, eta jarraian, ordu-erdiko atsedenaldua izan-ik, beste ekitaldi bateri emon eutsoen. Baltzu bateko urte osoko kontuen garbiketeari orri baten idatzita agertzen zan. Jardun-gai bakotxak garbiketeari buruzko azterketa zeatza egin bear izan eban, agirian ipiñiz baltzu aren egoe-raren alde onak eta txarrak. Ordu bi iraun eban ekitaldi onek, eta amaitu zane-an, astebete baten barruan dei egiña izango litzakenak, beste azterketa bat jasango leukela, esan eutsen azterlariak.

Astebetean amaitu-agiñean zala, eta berantetsia Kepa Mirena'k bere buruari iñotsanean, zapuztua izango ez ete zan, idazki bat eldu yakon, barriro aurkezteko mezuaz. Pozik eta urduri idaztegi aretara joan zan, eta andik laster gela batera sartuta, lengo eguneko azterlariaren aurrean aurkitu zan. Onen ondoan, adiñeko jaun bat egoan, eta oiko agurrak eginda, azterlariak,

– Aizu, gazte –itaundu eutsan–, zein da zure izena...?

– Orueta' tar Kepa Mirena.

– Nongoa zara...?

– Uri onetakoa.

– Gurasoen izenak...?

– Galdu nebazan aspalditik.

– Dirudianez, baltzularitza-ikasketak egin dozuz. Zelan jaritsi dozuz bai-mendun-agiria, edo obeto esateko, zelan ordaindu dozuz ikasketok, guraso-rik ez izanda...?

– Lanaren bidez ordaindu dodaz.

– Zelako lanak...?

Isillune baten ostean, Kepa Mirena'k,

– Zur-lantzean ziarduan lagun batentzat marrazkiak egiñez.

– Non ikasi zenduan marrazlaritza...?

– COU'en azkenengo ikasturtean, maisu on batek irakatsi eustan.

– Zure eritxiz, zeintzuk dira errediza-lantegi batek aurrera joateko bear dauzan baldintzak...?

Oldozkor geratu zan Kepa Mirena une batez, eta gero,

– Lanbide egokiak, ontasunaren elburua, mezu-bide egitiak, bezeroak aintzakotzat artu, saltze-osteko zerbitzu egokia, ogipekoak ondo erabilli alka-



rrekiko begirunez, eta baltzuari bide guztiakaz lagundu gure irabazte-iturria dalako.

– Euskera ta erderaz gaiñera, zein beste izkuntza dakizu...?

– Englisera, Jauna.

– Non ikasi zenduan...?

– Neronek, liburuetan.

– Jarduna lortuko ba'zendu, zenbat nai zenduke irabazi...?

– Ez dakit, Jauna, baiña merezitakoaren giñoan, egokia litzake.

– Nork neurtu dagike, norberak merezi dauana...?

– Ugazaba on eta zuzen batek jakin bear dau ori.

– Esan bear dautsut, jardun ori jaristekotan, uri onetatik urrun samar dagoan erri baten lan egin bearko zendukela.

– Ez yat ardurarik, Jauna, jarduna atsegiña izatekotan.

– Ondo da, gazte –azterlariak esan eutsan–, joan zaitekez. Jarduna zuretzat ba'litz jakiñerazoko dautsugu. Iru egunen buruan gure barririk ezean, jarduna beste batentzat izango zan. Agur, gazte.

– Agur, Jaunak.

Kepa Mirena urten zanean, azterlariak eta alboan egoan jaunak alkarri begiratu eutsoen, eta orduan azterlariak,

– Jauna, zer deritxazu gazte orreri...?

– Ondo deritxat. Eta zeuri...?

– Azterketak amaitu dira, eta orain geuri dagokigu autapena egitea. Niketz, orain urten dan ori aukeratuko neuke, eta gaiñera azterketa osoan jardunerako gai dala egiztatu dau. Nortasunari buruz dagokionetan, gizaki apartekoa dirudi. Orain, baltzuaren jabea zaran aldetik, zuri dagokizu azken erabagia.

– Niri be, dalako Kepa Mirena'k zarrastada ezin ohea egin daust, eta nire ustez, jardun orretarako egokia da. Iru illabeterako baldintzaz artuko dogu, eta epe ori igarorik, gai dala erakusten ba'dau, benetan onartuko dogu.

Andik egun bitara, Kepa Mirena'k “Eredua” eritxan errediza-baltzuan arduradun nagusitzat iru illabeterako onartu izan zan. Epea igarorik, bere jarduna guztien onespena lortzekotan, jarduna betirako izango litzake. Lantegia, uriburutik ogei ta bost kilometrora egoan, eta Kepa Mirena'k Murube eritxan erri aretan bizilekua izatea erabagi eban. Joateko aurreguna Igandea izanik, oi eban lez, arratsaldean Txinbo'rekin egurastean, bere jardunari buruz jakitun ipiñi eban. Agintzabakoak itun eta isillik entzun eutsan, eta onegandik eritxirik ez izatean,

– Zer deritxazu, Txinbo –itaundu eutsan–, nire jardun barriari...?

– Ondo, Kepa Mirena, eta izan be merezi dozuna. Gizaki garrantzitsua billakatuko zara, eta nitzaz aztu be egingo. Dana-dala, zure onerako izango dan ezkerro, pozik nago.

– Aizu, Txinbo, nire adiskidea izanez gaiñera, zur-lantzean gitxi dira zu aiña. Esaidazu, nirekin lan egiteko etorriko zintzakez Murube'ra...?

Zorionezko dizdira agertu zan Txinbo'ren begietan, eta,

– Oba ez, lagun –esan eutsan–, zurekin edonora joango nintzakizu...!



Murube erria zortzi milla biztelekoa zan, eta garbi ta atsegiña izanez gaiñera, inguruko mendi, baserri ta basoek, erakarpen andia emotsoen. Erri onetan errediza-lantegi batzuk egozan, eta antxiñatik etorkion alor onetan irabazitako aipua, ondo irabazia zan. Gizalditik-gizaldi, gazteek arbasoakandik errediza-gintza ikasten eben, arloan aalegin guztiak jarririk.

“Eredua” izeneko lantegia ez zan txikia ez andia, ertaiña baiño. Onen ugazabak errediza-gintza ondo ezagutzen eban, langille izatetik jabea izateraiño biurtu zan-eta. Orain, baiña, ez ebazan bearrezko ezaguerak, andi biurtzen asten yakon lantegia ondo zuzendu aal izateko. Augaitik, asikerako sei langilleen baltzua indartzen eta zabaltzen asi zanean, ezinbestez arduradun bat artu bear izan eban. Au, baiña, zaar-saridun billakatu zan, eta utsunea beteteko, arduradun gazte bat artzea erabagi eban. Olan ba, aurreko atalean azaldu dan lez, Kepa Mirena “Eredua”ren arduradun nagusia billakatu zan, eta jardun barria lortu ebanean, uriburuko lagunakandik agurtuta, Murube’ra trenez joan zan.

Lantegira eldu zanean, Andoni Jauna eritxan berrogei urteko ugazabagana joan zan, eta alkarren arteko oiko agurrak esanda,

– Aizu, gazte –esan eutsan ugazabak–, aspalditxu batez, ez dozu besterik egingo lantegia ondo aztertu baiño, eta epe egokia igarorik, etorriko zaiataz ikusiriko alde onak eta txarrak azaltzeko. Dakizunez, iru illabeteko epea izango dozu zure gaitasuna egiztatzeko. Epea igarota, erbagiko dot zure iraupenari buruz. Eta zeuk, bardin, etxe onetako jarduna atsegin yatzun ala ez jakiteko. Emen diarduzun bitartean, egoitzat, adiñeko senar-emazteen ostatua izango dozu, eta gero zeuk ikusiko ostatu orretan jarraitzea nai dozun ala ez. Orain, lantegia erakutsiko dautsut, eta bidebatez emen jarduten dabena aurkeztuko dautsudaz.

Astebete batez, Kepa Mirena’k ez eban besterik egin, lantegiko gintza-bideak, langilleen jardunak, eta idaztegiko antolabideak ikusi baiño. Arratsaldeetan lana amaituta etxera biurtzen zanean, bere eritxiak txosten baten idazten ebazan. Ostatuko senar-emazteak jende onak ziran, eta toki



baketsu ta isil aretan Kepa Mirena bere aukeran oartzen zan. Lo-gela ederra izanez gaiñera, onen alboan idaz-gela argi ta txukuna bere aukeran eban. Sapailotik mendi ederrak ikusten ziran, eta baratz bateko loreen usaiñak idaz-gela beteten eban. Kepa Mirena'ri atsegin yakozan etxe aretako senar-emazteak baita ango giroa be, eta an jarraitzea erabagi eban. Gaiñera, ostalari-riek semetzat erabilten eben, mutillaren gogokoa zana egiteko aalegintzen zirala.

Ugazaba'k emondako epea igaro zanean, txostena amaituta, Kepa Mirena'k alkarrizketa luzea izan eban Andoni Jaunarekin, eta argi ta garbi, lantegiko alde onak eta txarrak azaldu eutsazan. Ugazabak ardurarik andienaz azaldutako on-gaitzak entzun ebazan, eta izan be, arduradun barriak iñotsana aditzean, bere buruari esan eutsan, apara ona egin ebal aurrean eban gaztea bere lantegirako aukeratzean.

Kepa Mirena'ren aburuz, lantegiko tresnak barri-barriak ez izan arren, ondo samar egokitzen ziran errediza-gintzarako, baiña onen aurrean baziran akats andiak "Eredua"ren etorkia zemaizten ebenak, eta oneitxek ain zuzen be:

a) Saltzen zan giñoan jende lar ziarduan, au da, saltzen zan erredizetarako esku-lana andiegia zan. b) Langilleak ez ziran bear beste aalegintzen, sustapen egokirik ez ebelako. c) Idaztegiko erabidea txarra zan, oso naasia, eta ogipeko lar izanik emen be, tresnak zaarraren zaarrez ezegokiak ziran. Bataz beste, "Eredua"ren egoerea ezin zeitekean ontzat artu.

Azalpen oneik entzutean, ugazaba oldozkor geratu zan une batez. Izan be, Andoni Jaunak baekian bere lantegia ez zala iñongo jarraibidea, izen dotorea erabilli arren, baiña ez eban uste izaten orren txarra zanik. Ordurarte izaniko arduradun zaarra, zintzo ta ona izan zan, baiña berekiko autortu bear eban, asmamen gitxikoa izanik, gauzak ez zirala gaurkotzen, eta "Eredua"ko idaztegi sari askotan naaspil andiak sortzen zirala. Beste aldetik, Andoni Jaunak bere buruari esan eutsan, lantegiak bear beste irabazterik ez emotsala, eta txulut egitetik urrun baegoan be, esku-artean ez eban bearrezko dirurik, baltzuari bearrezko bultzadea emoteko.

Kepa Mirena'k txostenaren azalpenak amaitu ebazanean, "Eredua"ren ugazaba jagi zan, eta auxe esan eutsan:

– Zure azalpen ori dala-ta, gauzak egoera barripean ikusten asi naz. Zeozer somatzen neban, baiña ez zeuk itarauntsuniko beste makala izango litzakela.

Itxura keztatsuz iraun eban ugazabak une batez, eta gero,

– Dana-dala, zeuk aipatu dozuzan gatxak zuzentzeko, egitamu oso bat

egin dagizudan nai dot, baita zenbat balioko leuken "Eredua"ren egoerea zuzentzea be. Orretarako ez dautsut eperik ipiñiko, eta jarten dautsudan baldintza bakarra auxe da: egiti ta zeatza izan daitela. Ekin egiozu arloari ba, eta dana zeaztu ostean, zatozkit barriro.

Illabete bat emon eban Kepa Mirena'k baltzua baldintza barriak aztertu ta ainbatzeko. Amaika aurre-kontuak eskatu ebazan, bearrezko tresna barriak erosteko, idaztegi bategi be. Era berean, langilleen ekarria, langaien lorketea lantegi barruan, etab. Onezaz gaiñera, adore-sariak noraiño igongo litzakezan, eta onen ondorioz zenbat langille bearrezko izango ziran, oraingo salketeai eusteko. Gora-beera oneik zeatz eta arduratsu aztertu ebazan Kepa Mirena'k, eta gerturik ziran, ugazabagana joanda, auxe esan eutsan:

– Andoni Jauna, zuk agindutako gora-beerak zeatz aztertu dodaz, eta ona emen ondorioak. Lantegi onetan diarduen langilletarik, nire eritxiz amabost ez dira barrezkoak. Jarraitu dagien langilleak aalegindu bearko dira, orretarako lan-sariak goratuz egindako lanaren giñoan, baiña alogera-geitze orrek ez dau oztopo andirik ekarriko, kontuan artzen ba'dogu, eginbear bardiñerako langille gitxiago izango dogula, eta bataz beste lantegirako onura naikoa andia izango da. Emen, baiña, azterketa sakona egiñik, amabostetik zortzi laster zaar-sariak izango dirala egiztatu dot, eta erretiroa artzekotan, peitzen yaken dirua baltzu onek emon ezkerero, bi edo urte barruan, gizarteko babesaren pentzura billakatuko dira, eta orduan, "Eredua" betebear ortatik jareituko da.

– Eta zaar-saridun izango ez diran enparauko zazpiak, zer...?

– Orreiri, diruketa bana eskiñiko dautsegu. Zorionez, beste iñon be jardun egokia lortu dagikie, eta orrezaz gaiñera, emongo dautsegun kalte-ordaintzaz, polito konponduko dira. Onaiño, langilleai dagokiona. Ikusagun orain, tresna barrien eralguntza.

Isildu zan une batez Kepa Mirena, oldozkunak taiutzeko, urrean, eta,

– Lantegiko zur-lantzerako tresnaz –jarraitu eban–, bataz beste ondo samar ornituak gareala esan lei, eta bereiziren bat erosi ezkerero, arloari ekiteko gerturik egongo gara. Idaztegi tresnedia, aitzitik, zaarra ta ez-egokia da. Gaurregun erabilten diran "antolatzaile" edo "eratzaille" orreitarikoak bear doguz. Azaletik egiña nire ainbaketearen arauz, idaztegi sei lagunetarik, iru ez dira bear...

– Ori oso polita da, Kepa Mirena –eten egin eutsan ugazabak–, baiña ainbatu dozu ekintza orren domua...?

– Bai, Jauna. Ara...langilleen gitxitea, amar milloiko domua izango da



bataz beste. Tresnadi barria, idaztegirakoa batez be, beste bost milloikoa. Guztiz, beraz, amabost milloiko eralguntza billakatuko da...

– Nondik atarako dot, baiña, diruketa ori...?

– Diru-etxe bateko mailleguaren bidez.

– Uste al-dozu, diru-etxeak "Eredua" baltzuari laguntzeko gerturik egongo diranik...?

– Duan laguntzeko ez, baiña korritu egokia emonez gaiñera, urtero maillegua zati batez gitxitu ezkerro, ez da iñongo oztoporik izango.

Andoni Jauna, Kepa Mirena'k egiñiko zenbakiak aztertu ebazan barriro be, eta onen ostean,

– Zuk ainbaturiko zenbaki oneik –esan eutsan–, ausnartuko dodaz, eta zure asmoai buruz nire erantzuna artuko dozu.

Andik egun batzutara, ugazaba Kepa Mirena'gana joanda, auxe esan eutsan:

– Aztertu dot zure txostena astiro ta zeatz. Onen ondorioz, gerturik nozu lan egiten dogun diru-etxera joateko, ia zelan jaritsi dagikeguzan bearreko amabost milloi orreik.

Joan ziran biok ba dalako diru-etxera, eta nagusiarri alkarrizketa bat eskatu eutsoen. Onek, eskaerea entzunda gero, guztitariko gora-beerak eskatu eutsezan, eta zelako ondasunaz "Eredua"ren jabeak mailleguari erantzun legikion batez be. Kepa Mirena'k aipatu eutsan, lantegiko lurrak eta tresnak diruketa ori baiño askozaz geiago zirala. Diru-etxeko zuzendariak, eskaria gogorik onenaz aztertuko leukela esan eutsen, eta egun batzuen buruan erabagia jakiñerazoko leuskiela.

Urrengo astean, diru-etxeko mezu bat etorri zan, andik igaro zeitezan eskaereaz. Astirik galtzeke joan ziran, eta maillegua emoteko gerturik egoala diru-etxea, esan eutsen zuzendariak, baldintza batzuk bete izatekotan. Maillegua iru urtebetetan kitatzeko zan, eta sei illabetero maillegu osoari zati bat kenduko litzakio. Korritua, euneko amasei izango litzake, eta ordaintza bere garaian ziurtatzearren, lantegiko lurrak eta Andoni Jauna bizi izaten zan etxea baituko litzakez, azken ordaintzaren epea igaro arte. Arazoa ondo ausnartuta eban "Eredua"ren ugazabak, beste barik baldintzok onartu ebazan, eta bearrezko agiriak izenpetuta, arazoa amaitutzat geratu zan.

Ondo bai ondo ekian Kepa Mirena'k bere ugazabak arazo aretan jokatzen ebana, eta bere buruari zin egin eutsan ez leukela aalegiñik ukatuko "Eredua"ren etorkia onik ataratearren. Bere baltzua aurrera atarateko ainbeste jokatu egian, Andoni Jauna benetako nagusitzat bereizten eban, eta ugazabarekiko Kepa Mirena'ren ederrespena mailla asko igon zan. Augaitik ba, lana-

ri buru-belarri emon eutsan, eta sarri askotan lantegiko jarduna amaituta, orduak eta orduak emoten ebazan eginkizunari lotuta.

Asmatua lez, langille zaarrak aurretiaz eskiñitako zaar-atsedena pozik onartu eban. Orobat, lanari uko egiteagaitik eskiñitako milloi bana, gazte batzuk pozik onartu eban, beste tokitan jarduna aurkitzea erraza izanik batez be. Aldi berean, tresna barriak erosita, Kepa Mirena'k lantegiko erabidea atondu eban. Ikusmen argikoa izanez gaiñera, zentzu andiaz ornitua zan, eta illabetea igaro barik, "Eredua"ren barruko ibillereak aldakuntza andia jasan eban. Langilleen lanerako adorea piztuteko, diru-sari erakarkorrek jarri ebazan, ontasuna ta egindakoaren giñoan. Onezaz gaiñera, oartua zan Kepa Mirena, lantegiko jarrerea ez zala askotan egokiena, eta au dala-ta, erredizen zatien jariora alperriko joan-etorriak egitera beartua zala. Arazo au garrantzi andikoa izanik, langilleen bost talde-buruak deituta, batzar luze baten ondoren, egoerea gogoan izan egiela, eta astebate baten barruan bakotxak bere eritxiz tresnen jarrerarik egokiena azaldu egiala erabagi zan. Onen ondorioz, tresna batzuk lekuz aldatu ziran. Gaiñera, langaien eta amaitutako erredizen gordetegia birratondu ziran, eta iru illabete igarorik, "Eredua"k itxura barria erakusten eban.

Baltzuaren diru-egoerea be aren baten aldatu zan, eta laster ikusi zeitekean, Kepa Mirena'k eragindako egitasmoa benetako zala, eta bide aretatik jarraitzekotan, maillegua itunduko epean garbitu zeitekeala. Jardunaren-jardunez, Kepa Mirena'k asko ikasten eban, eta aldiaren joanean, zur-motak, erosketak noiz eta zelan egin, tresnen eta langilleen erabilketea, eta erredizagintzari lotuta egozan beste baldintza batzuk menperatu ebazan. Gintzea, baiña, ez da ondo ta merke egitean soilik oiñarritzen, eta au ezinbestekoa izanik be, arrakasta lortzeko sal-bideari berea emon bear yako. Augaitik ba, sal-sare egokia atondu eban, eta askotan berak bezeroak ikerten ebazam, onein naiak, baldintzak, eta beste gora-beerak ezagutzearren.

Lenengo illabeteak igarorik, esku-lan gitxiago izan arren, "Eredua"ren gintzaketea gora egin eban, eta salketak, beraz, aren baten. Baiña olan eta guzti be, Kepa Mirena ez zan asetzen. Beste baldintza bat bete zeiten nai eban, eta auxe alegia: ontasunaren gorengo mailla. Beragan ertilari baten sena sustraituta egoan, eta sarri askotan, espetxean berak eta Txinbo'k egin ebezan kutxatit bikain areik, uts emotsazan, eta "Eredua" ondo joan arren, ez zan guztiz zorionsua oartzen.

Jaiegun batzutan, Kepa Mirena uriburura joan oi zan, Manu ta onen etxe-koak ikertzearren, sendi onen egizko maitasuna gozatzen ebala. Oso bakarrik bizi izaten zanez, berarentzat ikertaldi oneik bakea ta zoriona ekartsoezan, eta



askotan bere buruari inñotsan, egunen baten sendi a baizen zorionsua berari be sortzea etorriko ete litzakion. Ain zuzen be, ez zan gauza erraza Miren baizen emakume ona, zintzo, eta zoragarria aurkitzea. Bereala, baiña, oldozkun au bere gogotik urruntzen saiatzen zan, buruan erabillen mendeku-asmoaz ondo alkartzen ez zalako. Apentzarako sentipenak, gogo guztia beteten eutsan, eta artutako kalteagaitik oartzten eban mendeku-gurariak, ez eutsan leku andirik lagaten maitasunerako.

Manu'ren etxean izan oi ebazan bazkariak amaituta, aurretiaz dei izanda-ko Txinbo, kafe artzera etortzen zan, eta gero, Murube'rako azken trenararte, espetxekide izaniko lagun biok uriburuko kaleetan zear ebiltzen. Areitariko arratsalde baten,

– Aizu, Txinbo –esan eutsan Kepa Mirena'k–, bein baten, orain dodan jarduna artzeko zorian nintzala, nirekin lan egitera eroango zindukedazala eskiñi neutsun. Etorriko zintzakez "Eredua"ra lan egitera...?

– Bai orixe...! Zurekin edonora joateko gerturik nozu. Oraingo jardunak ez nau zorionsu biurtzen. Gauza bardiñak egiten beti nabiltzu, eta erti-aldetik ez dira ezertarako gauza. Oraingo ugazabak zur-lan asko egin dagiodan gura dau, lanaren edertasunari jaramonik egin bage. Asmamen urrikoa izanik, betiko marrazki ganorabakotik ez daki urtetzen; benetan esateko aspertu eraginda nagotzu. Ain zuzen be, espetxean egiten genduzan kutxatilla areik, oraingoan aldean erti-lanak ziran. Maisu-lan arein ederra...!

Txinbo'ren aurpegiak barruko atzo-miña erakusten eban, eta gero,

– Begira, lagun –jarraitu eban–, zurekin joatekotan, orain damosten erdiaz be pozik joango nintzake. Egia esateko, diruak ez nau erakarten, aregaz zer egin ez dakit-eta...

– Gorde egizu badaezpadakoan egunen baterako. Batek-baki etorkiak ekarri dagikeguna...! Baiña arira biurtuz, orduan "Eredua"ra lan egitera pozik etorriko zintzakez, ezta...?

– Bai benetan, eta aalik lasterren oba...!

– Biar bertan arazoari ekingo dautsat.

Biaramonen, Kepa Mirena'k ugazabagana joanda,

– Aizu, Andoni Jauna –esan eutsan–, aspaldi onetan asmo bat gogotik yabilt, eta auxe alegia: orain arte errediza arrunta egin dogu, eta dirudianez, gero ta etekin andiagoz, baiña bada beste sail bat obari ta ospe andia lekarkiguzana. Antzez edo ertizko erredizak. Bezeroai egiñiko ikerraldietan, badira asko ta asko errediza apaiñak eskatzen dabezanak, eta geuk olakorik eskiñi ez dautsegun ezker, leikideakana doaz. Oiko errediza-gintza menperatzen dogunez, sail barri orreri ardura emotea ondo bai ondo letorkiguke.

– Ez dago txarto, Kepa Mirena, baiña arlo barri orretarako langille auke-  
ratuak bear doguz, eta olakorik ez dago "Eredua"n.

– Gurera lan egiteko pozik etorriko litzakigun lagun antzetsu bat ezagu-  
tzen dot, eta aren ardurapean talde egokia sortu geinke.

– Ondo deritxat orreri, baiña asmogille bat bearrezkoa da, eta marrazki-  
asmo onak egin dagiana ez da gauza erraza idorotea.

– Neronek egingo neukez marrazkiok, aspaldian marrazlaritza ori ikasi  
neban-eta.

Itxura arrituaz begiztatu eban Andoni Jaunak. Izan be, "Eredua"ren uga-  
zabak uste on osoa eban bere zuzendariagan, baiña asmogille ona izatera ez  
zan edonor eltzen. Dana-dala, ez leuke gauza andirik galduko, saio bat egite-  
az –bere buruari esan eutsan– eta bai, ostera, ekarri onak lortuko leukez, dala-  
ko asmoa ondo urtetekotan. Augaitik, ba, auxe esan eutsan:

– Izan be, Kepa Mirena, zuzen zagoz diñostazunetan, eta asmo ori aurre-  
ra eroan dagikezu zure aukeran.

Astirik galtzeke, Kepa Mirena'k Txinbo'ri dei egin eutsan, eta arlo barria  
sortzeko bere asmoak azaldu eutsazan. Bera izango litzake sortzeko zan talde  
barriaren burua, eta lan-saria oraingoa baiña askozaz andiagoa. Pozik artu  
eban Txinbo'k eskintza barria, eta andik laster bere eskuartekoak batu, eta  
Murube'ra joan zan, Kepa Mirena'k idoro eutsan ostatuan kokatzen zala.

Errediza antzetsuen gintza astiro baiña ibilte irmoz garatu zan.  
Txinbo'ren ardurapean lau lagun zur-langintza sortu zan, eta lagun barriak  
egitekoa ikasi-ala, sail au garrantzitsua biurtzen asi zan. Kepa Mirena'ren  
marrazlari-senak guztitariko mai, arasa, aulki, besaulki, oe, kutxak etab.  
asmatzen ebazan. Laster ikusi zeitekean, artutako bidea arrakasta andikoa  
zala, eta "Eredua"ri obari andia ekarriko leuskiola.

Txinbo'ren etorrereak eragintza andia sortu eban Kepa Mirena'gan.  
Jaiegunetan lagunok alkarrekin ebiltzan, eta Kepa Mirena mendi-zale andia  
izanik, Murube barrutiko mendietan zear euren biziko ibillaldiak egin oi  
ebazan. Laster oartu zan Kepa Mirena, aldakuntza andia sortu izan zala bere  
lagunagan. Len, espetxeko garaian, Txinbo'k bere agintzabako amesak  
azaltzen eutsazan, eta jakiña, berak ez eutsen amesoi jaramonik egiten.  
Espetxetik urten zanean, eta orain batez be, Txinbo'k ez eutsan bere anar-  
kisten joereari buruz ezer esaten, eta bazirudian barruko bizitza gartsu baten  
pean egoala. Jakintza urrikoa izanik, sarri askotan beste munduko gauzak,  
amaibako zoriona, Yosuren bizitza ta nekaldia, gizakien izatearen zergaitia,  
etab. aipatuz gaiñera, itaun ugariak jarten eutsazan. Kepa Mirena'k aal eba-  
zan neurrian erantzuten eutsan, bere buruari inñotsala, non egoan aspaldiko



agintzabakoa, orren apal eta alasokoa biurtzeko. Ain zuzen be, giristiñau baten ezkontzea artu izan eban ezker, Kepa Mirena bazan nor erantzun egokiak emoteko, guztiari ez bazan be.

Bein baten, illuntzean, areitariko ibillalдитik Murube'ra sartzeko zorian zirala, Txinbo'k auxe esan eban:

– Kepa Mirena, gauza bat esan bear dautsut. Bataioa artu gura dot.

– Ez al-zaitue bataiatu-ala...?

– Ez dakit, adiskide.

– Baiña ori, gurasoek egiten daben lenengoa da.

– Zeuk badakizu, jaio-barria nintzala, sasikotegi bateko atean idoro ninduela.

– Barkatu egistazu, Txinbo, ori aztu izateagaitik, baiña Jaungoikoaren edozein seme aiñakoa zara.

Isildu zan Txinbo une batez, eta gero,

– Jaungoikoaren benetako seme izatera bataioaz jaristen da.

– Bai, baiña nork ziurtatu ez zenduala artu iñongo bataiorik...?

– Ezta bataiatua nintzala be. Augaitik, Miren Andreak laga eustazan Jaunaren Bizitza ta beste liburuak irakurri ostean, kezka andipean bizi naz. Lengo egunean, erri onetako parrokoagana joan nintzan, eta alkarrizketa luzearen ostean, nire bataioaren ziurtasunik ez izanda, baldintzakoa artuko neukela azaldu eustan. Arakatu dodaz sasitegiko baita inguruko parrokien liburuetan, eta ez dot niri buruz aipamenik idoro. Augaitik, beraz, aspaldi onetan emengo parrokoak niri emondako argibideak gogoan izan dodaz, eta onen ondorioz, gerturik nago bataioa artzeko. Zer deritxazu orreri, adiskide...?

– Oba ez, Txinbo...!

– Olan deritxazun ezker, gerturik egongo zara nire aitabitxi izateko...?

– Baita pozik be...! Eta amabitxi nor izango da...?

– Amaika gogoeta emon dautsadaz arazoari, eta ez dakit egokientzat daukadanak onartuko ete...

– Nori buruz diarduzu...?

– Miren Andreak buruz, baiña ez dakit onartuko ete dauan...

– Ezin ori baiño aukera obarik egin. Begira, Txinbo: datorren Igandean uriburura joango gara, eta Miren Andreakin berba egingo dogu. Ziur nagoz, bene-benetan poztu egingo dala.

Esan eta egin. Urrengo Igandean lagun biok uriburuan bazkalduta gero, Manu'ren etxera joan ziran, eta emen oiko kafe gozoa txastau bitartean, Txinbo'k bere asmoaren barri etxekoai emon eutsen. Amaitzean, lotsaz gorri eginda, auxe esaten azartu zan:

– Aitabitxitzat Kepa Mirena aukeratu dot. Amabitxi izaten, oster, ez dakit zuk, Miren Andrea, onartuko ete zenduken...

– Baita poz-pozik be, Txinbo maite ori...! Ez dakizu zelako poztasuna emoten daustan zure autapen orrek.

Ain zuzen be, Miren'en atsegiña benetakoa zan, eta areago be jakitean, ain maite eban Eleizara, Txinbo mutil on eta zintzoak sartu gura ebal. Espetxetik urtetean, Kepa Mirena'ren aolkuz etxe aretara joan zan, jardun bat jaristeko lagundu egioen. Au zala-ta, Manu'ren etxekoak ezagutzean Miren'eri erion ontasun eta santutasunak irabazita, Jaunaren bizitza irakurri nai ebal esan eutsan, eta zein litzaken berarentzat egokiena. Miren'ek apal baten arakatu ostean, liburu bat aukeratu eban eta emon eutsan auxe iñotsala:

– Eutsi Giovanni Papini'ren "Kristoren edestia". Oso atsegiña dot, eta gogokoa izango yatzula ziur nago.

Astiro ta ardurarik andienaz irakurten asi zan, eta lanetik-at bere aukeran eban astia ustiatus, zudurik andienaz irakurri eban. Aspaldi luze bear izan eban idaztiak edesten ebana eiotzeko. Murube'ko aldietan irakurketea amaitu ebaneko, Kristo'k irazandako Eleizara sartzeta erabagi eban. Au zala-ta, Murube'ko parrokoarekin bearrezko arremonak izan ondoren, bataiorako eguna erabagi zan.

Egun gogoangarria azaldu zan, eta bataioa artzeko zanak Txinbo ezizena baiño besterik ez izanda, Laurentzi, erriko zaindariaren izenaz ugutzatu izan zan. Gero, Murube'ko jatetxe on baten, Miren, onen senarra Yulen, Manu, Kepa Mirena ta Laurentzi barria, mai ugari baten inguruan erriko parrokoarekin batu ziran. Danok pozik egozan, baiña eurerariko zoriontsuena Miren Andrea izan zan. Gau aretan uriburura biurtzeko berebillean sartzeko zorian zala, Miren'ek Kepa Mirena'ri banazean auxe esan eutsan:

– Entzun, Kepa Mirena, zaindu zure lagun maite ori, artutako bidetik iraun dagian. Ez dau gurasorik ezagutu, baiña Jaungoikoak urrezko biotzaz jantzi dau. Maite-maite zaitu, eta beti gerturik dago zure esanetara jarraitzeko. Augaitik lagundu egiozu bere siñiste barrian, oraindiño alor orretan ume bat baiño besterik ez da-ta.

Itz oneik entzutean, Kepa Mirena'ri asperen bat iges egin yakon, eta oartu barik, itz oneik jaurti ebazan:

– Oi, nor bera baizen zintzo ta siñisteduna izan...!

Miren'ek itxura bakanaz begiratu eutsan, eta naigabearen antzekoa zan sentipen batek, egun aretako alaitasuna illundu eutsan.

Andik iru illabetera, lagun oneik Laurentzi'ren Lenengo Jaunartzea ospatu eben. Egun zoragarria benetan.



"Eredua"ren arazoak asiera baten uste izandako baiño obeto joiazan, eta Andoni ugazaba, iñoizkorik pozen oartzen zan, lenengo illabeteetan jasandako larritasunaren ostean batez be. Lortutako arrakastagaitik benetan ederres-ten eban Kepa Mirena, eta onen jardunaldiaren lenengo urtebetea igaro zane-an, lan-saria igon eutsan neurri andian. Izan be, zor andia eutsan arduradun zintzo ta zentzudunari, eta diruaz gaiñera, begirune andiz inguratzen eban.

Oiko erredizen gintzaz gaiñera, antzezko saillak onura andia ekartsan Andoni'ri, eta arlo au etenbarik anditzen joianez, orain amabi langillek ziar-duen. Sail onen burua zan Txinbo'k edo obeto esateko Laurentzi'k, oso polito irabazten ebanez, Aurrezki Kutxako bere diruak gorakada ona artzen asi ziran. Ekiñaren-ekiñez, Txinbo'k ezaguera andia jaritsi eban, eta bere ardura-peko antzezko erredizak, aipu ona lortzen ebenez, sarri askotan estu ta larri ebiltzen, ainbeste lan berbaturiko epean eskuratu aal izateko.

Zer esanik ez, bere aldetik Kepa Mirena'k ezaguera baliotsuak egiten ebazan oraingo jardunean. Lenengo urtebetea igaro zaneko, errediza-gintzari egokion guztia edo ia guztia menperatzen eban. Baekian gintza bakotxari ondoen etorkion zur-mota, eta zelako urratsak erabilli bear ziran, dalako erre-diza merkeen eta ariñen egiteko. Zur-tresnetan ikasitakoak ezaguera andia emotsan lanerako, eta onezaz gaiñera, baeban sen berezia langilleak erabilte-ko, baita diru-etxeekiko arremonetan baldintzarik onenak jaristeko be. Olan ba, "Eredua"ri arazoak iñoizkorik ondoen joiakiozan, eta bere jardunari buru-belarri emonda, Kepa Mirena'ri egunak arintasun siñisteziñaz igaroten yako-zan. Ezin zeitekean bere bizibideaz keixu izan, baiña olan eta guzti be, si-ñisgatxa badirudi be, arrenkura baten arrak barrua irusten eutsan, irrika itzun-gieziñak menperatzen ebal. Bere asmo-bidearen azkeneraiño eltzean baka-rrik, baretuko yakon arimaren oreka galdua. Bai, egunen baten lortuko leuke irrikatzen eban apentza.

Beiñola, Andoni'k dei egin eta auxe esan eutsan:

– Orain bertan, "Gaizkatzaille" izeneko ikastetxetik idazki bat eldu yat, berreun oe-gintzarako aurre-domua eskatuz. Dirudianez amar eguneko epean erantzuna gura dabe. Ona emen eskaturiko baldintzak.

Au esanik, Andonik eskutitza eskuratu eutsan. Zudu bakanak eraginda, Kepa Mirena'k baldintzok aztertu ebazan ardurarik andienaz. Pago-zurezkoak izango ziran, eta azpiko sorua isastu aal izateko beste jasoak; oe-burua zur-zati batekoa. Onezaz gaiñera, oen neurriak eta beste gora-beerak ondo zeaztuak agertzen ziran. Azkenez, oen aurretasmoa bialtzeko zan marrazki argi baten bidez. Luzaro iraun eban Kepa Mirena'k baldintzok aztertuz, enparaukoaz aztuta. Noizbait, ugazabaren berbok bere senetara ekarri eben auxe iñotsanean:

– Zer deritxazu orreri, Kepa Mirena...? Guretzat garrantzi andiko agindua da ori, eta onura edo ekoizpen polita lortu dagikegu oe-gintza ori jaristekotan. Gure ustez, leikiderik andiena "Bikain" errediza-lantegia da, baiña sal-sari ta epe egokiak eskiñiko ba'gendukey...

– Arazoa guretzat garrantzi andikoa da, eta ainbat areago, kontuan artu-rik, aspaldi onetan zeozer gitxitu yakuzala gintza-aginduak. Zudurik andie-naz, banan-banan aztertuko dodaz eskaturiko baldintzok, eta dana gerturik dagoanean, jakiñerazoko dautsut.

Buru-belarri emon eutsan Kepa Mirena'k arloari, eta arretarik andienaz gora-beera guztiak azterturik, eskaturiko marrazkia burutu eban. Oe-buru bakun baiña atsegiña asmatu eban, alde onetan bere ertilari-sena agirian jarriz. Marrazkia egiñik, len-gaien eta gintzaren domuak ainbatu ebazan. Dana gertu-rik egoanean, oe-bakotxari egotziko leuskio irabaztea jarri eban. Au egitean, buruan erabillen "Bikain" baltzuari, zelan edo alan kendu bear izango yakola dalako agindua, eta orretarako une luze batez ainbaketa sakonak egin ebazan. Onein ostean, ugazabagana joan zan, eta auxe esan eutsan:

– Andoni Jauna, lengo egunean artu genduan "Gaizkatzaille" ikastegiko domu-eskatzeari buruz nagotzu. Ona emen asmaturiko oe-marrazkia. Zer deritxazu...?

– Bakun eta apaiña era berean, begiari atsegin yakonekoa, izan be. Itxuraren aldetik ezin dagikezut iñongo atxakirik ipiñi. Zenbatean salduko dogu oe bakotxa...?

– Ogerleko bat gitxi gora-beera, lau milla ta eun laurlekotan izango da lantegiko domua; nire ustez ba, bost milla laurlekotan saldu zeintekoz.

– Bost milla diñozu...? Ori ez da irabazte andirik.

– Ezta gitxi be. Kontuizu "Bikain" baltzua agindu au lortzeko aalegindu-ko dala. Onezaz gaiñera, gagozan urte-aroan, aginduak beti makaltzen dira, eta ondo bai ondo letorkiguke, berreun oe orrein eskaerea jaristea. Dana-dala, zeuri dagokizu sal-saria erabagitea, eta beraz, zeuk esango dozu azken itza.

– Ez dakit ba... Alde batetik oikoa baiño gitxiago irabaziko dogu, eta bes-tetik ez dot ezelan be agindu ori galdu gura... Bai, zuzen zagoz, eskatu egizuz ba bost milla laurlekook sal-saritzat, eta kitto.

– Ederto, Jauna, olan egingo da.

– Beste gauza bat, Kepa Mirena, eta auxe: berreun oe-gintzaren epea illa-bete biko da. Oztoporik izango al-dogu alde onetatik...?

– Ez, Jauna. Epea bete dagikegu, aginduari asierea emoteko bearrezko gintza-gaiak gordetegian doguzalako. Bitartean, beste enparauak garaiz eto-rriko dira.



– Ondo da, Kepa Mirena. Igorri egizu ba gure aurre-domua erabagi izan dan lez, eta ia eskaerea lortzen dogun.

Astirik galtzeke, idazkia bialdu eban Kepa Mirena'k. Baekian, erantzuna izatekotan, amabost egun baiño aurretik ez litzakiela etorriko, eta oiko beste arazoetan murgildu zan. Ezin egikean, baiña, leiaketa aren kilikadura beragandik uxatu, eta goizoro ardurarik andienaz, etorritako idazkiak aztertzen ebazan. Noizbait, irrikatzen ebana eldu zan; berreun oen gintza "Eredua"rentzat zan. Poza menperatu eziñik, ugazabagana joanda, barri ona emon eutsan, poztasun bakanak artuta. Klemen zital alenak burrukea galdu izan eban, eta asko ez izanik be, lenengo gurenda arek poztasun esaneziña ekarri eutsan.

Aurretik asmatua lez, "Gaizkatzaille" ikastetxeko agindua iñongo oztopo barik burutu zan, eta epea igaro baiño len, oeak igorri ziran guztien pozerako.

Bajoiazan asteak eta illabeteak aurrera, eta bigarren urtebetea igaro zan Kepa Mirena'rentzat. Orduko, Andoni Jaunaren seme nagusia ikasketak amaituta, lantegira sartu zan, eta aitarekin baltzuaren ugalak erabillezan. Mutil ona ta zintzoa izanik, ondo alkartzen zan Kepa Mirena'rekin, eta onen laguntzaz aitaren lantegia menperatzen asi zan. Orduko, Kepa Mirena bere garaia elduta uste izanik, arrenkura bizipean aurkitzen zan. Errediza-gintzari egokion guztiari buruz umotasun bete lortu izanik, bere asmoak egi biurtzeko garaia zala oartzten eban. Bai, espetxean buruturiko asmoa aurrera eroateko ordua zan...

## “GOIENA”REN SORKUNDEA

Gau aretan, ostatuko idaztegian jesarrita, Kepa Mirena'k egunkari baten iragarkiak irakurten ziarduan. Baziran egun batzuk eginkizun bardiñari emotsala zerbaiten billa, baiña dana alperrik; itxaroten ebana ez zan iñondik agertzen. Aspertuta, egunkaria alde batera lagateko zorian zala, ara non zirra-ra batek astinduta, begiak iragarki baten kokatu yakozen. Egi izango ete...? Ona emen, iragarkiak iñoana: “Errediza- gintza ondo tinkatua, Arango errian salgai da baldintzarik onenetan. Eskatu gora-beerak urrutizkiñez, zenbaki onetara”.

Zauskada andipean, Kepa Mirena'k dalako zenbakia txatal baten idatzi, eta gero begiak itxita, igige ta isillean geratu zan, aspaldiko egitasmoa gogoan laztanduz. Ain zuzen be, ordurarte arazoak berak uste izandako lez billakatu izan ziran, baiña oraindiño bide-zatirik zaillen eta neketsuena ibilli bear... Gau aretako amesetan, aspaldiko jazoera bat bein eta barrero uxaeziña etorkion, eta auxe izan be: epaikari batek zortzi urtebeteko espexaldiaz zigortzen eban. Alperrik, baiña, bein eta barrero bere burua errubagetzat autortu egian. Ertzaiñek narrazka eroanda, zulo baltz andi batera jaurti eben. Arnas-estuka, oean jesarrita itxartu zan egunsentiko argi gorritak inguruko mendiak argitzen ebazala. Beste ames-txarretik iges egitearren, jagi, txirrio bat artu, eta gosalduta gero, lantegira joan zan.

Nekez gertatu yakon goiz aretan bere oldozkunak taiutu, eta geldi-ezin batek artuta, aurreguneko iragarkian ikusiriko urrutizkiñera dei egin eban. Gizonezko mintzo batek erantzun eutsan, eta alkarrizketa laburraren ostean, lantegi aretako ugazabarekin arazoa erabilteko, Arango errira joango litzakela erabagi zan.

Arango'ko “Onena” eritxan errediza-gintza, ogei ta amar bat urte lenago sortu izan eban erriko arotz baten semeak. Simon eritxan gazte zuur onek aitaren erdipurdiko arazoak, urteen bidean errediza-lantegi polita sortzea lortu eban, baiña azken baten berak asmaturiko ondoreak ez ziran gertatu. Lau seme-alabak izan ebazan, mutil bi ta neskatilla bi. Aldiaren joanean, baiña, neskak ezkondu ziran, eta mutilletarik bat abadetu, eta bestea osagillea billa-



katu zan. Ez egoan nor, beraz, Simon'en arazoari jarraipen emotsanik, eta augaitik, urteak igarotean "Onena" errediza-gintzarako adorea galdurik, zertarako aalegindu, berak ereindako uzta batzeko iñor ez egoanean, Simon'ek bere buruari esan eutsan. Orduko, baeban aurrezturiko ogasun polita, eta oneri eratsita baltzua saltzekotan artuko leukena, baeban bera ta emaztearentzat nasai biziteko beste ta areago. Bazan, baiña, beste zio bat bere lantegia saltzera bultzaten ebana.

Urteen bidean, azkenengoetan batez be, "Onena" lantegia zaarra billakaturik, obariak aren baten bakandu, eta bide onetatik jarraitzekotan baltzua sari onean saltzen gero ta zaillago biurtuko litzake. Onezaz gaiñera, Simon'ek bere baltzuko langilleak maite ebazan, zaarrenak batez be, eta onein etorkiak kezkatzen eban. Jarraitzaille egokia lortuko ba'leu, eta baltzuaren ordaiñez sari polita emongo ba'leutso...

Augaitik, beraz, Kepa Mirena'ren ikerketea pozik artu eban Simon'ek goiz aretan aurkeztu yakonean. Ikusi baiño ez, ikerlearen itxurea atsegin yakon, eta bere buruari esan eutsan, ez leukela abagunea alperrik galduko, eskintza egokia artzekotan.

– Egunon, Jauna, –agurtu eban Kepa Mirena'k–. Iragarkiagaitik natortzu, ia zurekin bat etorri naiteken.

– Ederto, gazte. Nire izena Simon da, eta zeurea...?

– Kepa Mirena.

– Nire ustez, aurretik lantegia ikusi bear dozu, eta onen ostean, diru-arazoari ekingo dautsagu.

– Egokia deritxat orreri.

Jatsi ziran ba idaztegitik lantegira, eta astiro-astiro Simon'ek tresnak eta egiten ziran erredizak erakutsi eutsazan, baita baltzuari egokiozan gora-beerak be. Begi itxidegi baten oartu zan Kepa Mirena, gintza-tresnak zeozer antxiñatuak zirala, eta aldi areitako leikidegoarentzat ezegokiak. Langilleak, ostera, atsegin yakozan, garbi ta arduratsuak zirudien-eta. Erredizak oikoak eta arruntak ziran, baiña arduraz landuak. Azkenean, baltzuari egokiozan lurak erakutsi eutsazan Simon'ek, eta izan be, atsegin izan yakozan Kepa Mirena'ri ikusi eban orubea, egunen baten nai izatekotan, lantegia anditu leiteke beste barik-eta.

Idaztegitik biurtzean, aurrez-aurre jesarrita, sal-sariari ekin eutsoen arduratsu.

– Zenbatean salduko zeuskit baltzua...? –itaundu eutsan Kepa Mirena'k.

Buruari atz egiñez, une batez isillik iraun eban jabeak, eta gero,

– Ez dakit ba... Ikusi dozunez ederra ta garbia da. Gaiñera alboko orubea

zabala izanik, lantegia anditu daiteke. Langilleak, onak, esanekoak, eta eginkizuna ondo bai ondo dakienetariokoak.. Izan be, ba... edozeiñentzat mauka ederra, esango neuke...

– Orretarako, baiña, sal-saria ezagutu bear dot aurretik. Zenbatean salduko zeuskit...?

Simon'ek zerbait urduri emoten eban. Alde batetik zelán edo alan baltzua saldu nai eban, eta gazte areri ez izanik, nori, baiña...? Bestetik, zana-zala ezin egikean bere bizitzako lana ezerezkeri baten saldu. Buruari atz eginda gero, noizbait, auxe esan eutsan erabeti-antzean:

– Ba... amabi milloitan salduko neuke, jendeak ergeltzat artuko ba ninduke be.

– Larregi deritxat orreri, Jauna –ainbaketa ariña egin ostean esan eutsan Kepa Mirena'k–, eta erantzun baiño len, gogoan erabilli bear izango dot. Aitzi-eskintza bat egingo dautsut datorren astean, noraiño eldu naiteken ondo aztertuta gero.

– Emen izango nozu datorren astean, gazte. Baiña ziñez diñotsut, edozeiñentzat, eskaturikoa mauka itzela izango litzakela. Dana-dala, nai dozun arte.

– Agur, Simon Jauna. Atsegin andia izan dot zu ezagutzean, eta arazoarekin jarraitzea erabagiko ba'neu, gaur zortzi emen izango naiatzu.

– Ederto, gazte, nai dozun arte.

Arratsaldean biurtuta, Kepa Mirena'k "Eredua"n lanean ziarduan oi eban lez, eta eguneko idazkiak irakurrita gero, lantegira jatsi zan, egunoroko ikustaldia egiteko, aginduen egoerea ta beste gora-beerak aztertzeke. Eguneko jarduna amaitu-agiñean zala, Txinbo'ri mezu bat bialdu eutsan, gau aretan apalostean ostatura etorri ekion arazo garrantzitsu bat aztertzeke jakiñerazoz. Agindua lez, Kepa Mirena'k ostatuko bere idaztegitik gogoetan ziar duala, jakin-miñez beteriko Txinbo aurkeztu yakon.

– Gabon, Laurentzi –agurtu eban Kepa Mirena'k (esan bearrezko da emen, Txinbo'k Laurentzi izena artu izan ebala bataiotik)–, jesarri zaitez zure aukeran, luzaroko autua izango dogula uste dot-eta.

Ola egin eban bere aspaldiko lagunak, eta astirik galtzeke, Kepa Mirena'k arazoaren mamiñari ekin eutsan, eta egun aretako gora-beera guttiak azalduta, onetaraxe amaitu eban:

– Badakizu, Laurentzi, nire betiko asmoa baltzu bat jabetzea izan dala, eta orra or eretia aurkezten yañala. Erabagia artu baiño len, baiña, nirekin lan egitera etorteko gerturik zagozan ala ez, jakin gura izango neuke.

– Ori ez dozu itaundu bear, Kepa Mirena. Badakizu, baita ondo be, zurekin edonora joango nintzakela.



– Bai, Laurentzi, baiña oraingo arazoa ez da beste iñora joatea lan egiteko, baltzu bat erostea baiña. Baltzu ori erosteko beste dirurik ez daukat, baiña zeuk aurrezturiko diruaz lagunduko ba'zeuskit, arazoak beste ikuspegia erakutsiko leuke. Esaidazu, Laurentzi; zenbat diru sartuko zenduke Arango'ko baltzu orretan...?

– Daukadan gutzia, au da, milloi bi gitxi gora-beera.

Txeratsu begiratu eutsan Kepa Mirena'k, eta samurtasun bakanak artuta, auxe baiña besterik ez zan gai esateko:

– Zeuk burua betiko lepotik, Txinbo maitia...! Emongo daustazun diru ori, ez da izango iñongo maillegurik, ez. Baltzu barriaren jabekidea izango zaitut bakotxak sartutako diruaren giñoan. Neronek aurreztuta daukadanari zeurea geituta, beste itxura emongo dautso gure eskintzari. Aurrera joan aurretik, gora-beera batzuk argitu bear dodaz, eta onen ondorioz arazoa aurrera eroateko aukerarik ikusten ba'dot, orduan zure dirua jabekidetzat sartu baiña len, arazoaren argibideak emongo dautsudaz, dagokizun aukerea artze-ko gai izan zaitez.

– Niri ez daustazun iñongo gora-beerarik emon bear. Zuk esan dagidazu-na egingo dot eta kitto.

Amultsuki begiratu eutsan Kepa Mirena'k, eta bere baitan, Txinbo eza-gutu eban eguna bedekatu eban.

Urrengo egunetan, Murube'ko diru-etxeko nagusiari Arango'ko "Onena"ren argibideak eskatu eutsazan Kepa Mirena'k, eta andik laster jakin eban, Simon'en baltzua benetakoa ta zorbakoa zala, diruaren aldetik nasaiegi ez ibilli arren. Azken urteetan, "Onena"ren ekintzak zeozer gitxitua zirudian, eta diru-etxearen eritxiz, etorkibako lantegia izango litzakela ordurarte joan-dako bidetik jarraitzekotan.

Gora-beera oneik jakinda gero, diru-etxeari eskatu eutsan, zelako baldin-tzen pean diru-aurrerapen bat emongo leuskion, bearrezko barriztapenak egite-ko. Baltzuari baitura bat egiñez, zeozer emon zeitekeala izan zan diru-etxeko erantzuna, baiña orreri buruz, oba izango litzakela itz egitea, asmatu-rosketearen gora-beerak ezagutzean.

Oneik eta beste gaiak gogoan erabillezala, Arango'ra biurtzeko astebete bateko epea igaro zan, eta uriburura joanda, trenez arantza abiatu zan.

Orduko, eskiñi egikeana ondo ausnartu izan eban gazteak. Murube'ko "Eredua"n jardutako urtebete bi areitan, biziera neurritsu ta zuurrari esker, artutako lan-sari ia osoa aurreztu izan eban, eta orain sei milloi gordeta eba-zan aurrezki-kutxan. Txinbo'ren milloi biri eratsita, zortzi milloi bere aukeran eba-zan. Arazoa ondo aztertu ondoren, diruketa onetatik gora ez joatea erabagi

eban. Zorrak egitekotan, tresna barriak erosteko izango ziran, baiña ez aurre-tiaz zorretan asteko. Bere ustez, "Onena" baltzuari itxarokion etorki illuna kontuan arturik, bidezkoa zan zortzi milloi orreititik gora ez eskintzea. Kepa Mirena zuzena zan, eta ez leuke ustiatu "Onena"ren egoerea, jabeari ezerez-keri bat emoteko. Bere ustez, beraz, eskintzeko gerturik egoana egokia zan, eta orretan iraungo leuke.

Noizbait, Arango'ko lantegira eldu zan, eta Simon Jauna agurtu ondoren, besaulki banatan jesarrita alkarrizketea asi zan.

– Aizu, gazte –itaundu eutsan Simon Jaunak–, zer diñostazu eskatu neu-tsun sal-sariari buruz...?

– Amabi milloi orreik ezin dagikezudaz ordaindu, orrenbeste es daukat-eta.

– Zenbat emongo zeuskit...?

– Zortzi milloi.

Oldozkor geratu zan Simon Jauna une batez, eta gero,

– Erdibanatu dagigun ba, bitarte ori. Zer deritxazu amar milloi ordaintze-ari...?

– Ezin dagiket zortzitik gora eskiñi, ori baiña besterik ez daukat-eta.

– Zergaitik ez, milloi bi orrein maillegua eskatu...?

– Ez dot aurretiaz zorretan asi gura. Bear izango dot maillegu bat eskatu tresna barriak erosteko, baiña ori bere garaian eta ez orain.

– Nire ustez, Kepa Mirena Jauna, zortzi gitxiegi da. Ori baiña ez emotekotan, naiago dot beste eskintza bateri itxaron.

– Begira, Simon Jauna: ni zurgintza ta errediza-gintzan ondo sartua nozu, eta ezagutzen dodaz gora-beera guztiak. Zure lantegiak ez dau orrenbeste balio, zaarra billakatzen asi dalako, eta augaitik baltzua-aren etorkia laiñotsua dakust. Onik atarateko, tresnatan domu andia eralgi bear da. Au kontuan artu-rik, beraz, ez deritxat txarto zortzi milloi eskintzeari. Norberaren egoerea, bakotxak beste iñork baiña obeto ezagutzen dau, eta zeuk jakingo dozu gaur dagokizuna, baiña benetan esanda, ez yatzu erraza izango orain eskatzen daustazuna, biar beste iñok ordaindu dagitsula.

– Oartu al-zara, lantegi onek zabaltzeko dituan aukerak...? Estalpetan oraingo beste anditu daiteke.

– Egia da ori, baiña oraingoz dagoan lez eutsi bear baltzuari dagokion abiadea emoteko, eta gero gerokoak...

Edu onetan luzaro samar jardun eben saltzaille-erosleak, bakotxak txin-garra bere opillari urreratuz. Gauza baten, baiña, Kepa Mirena zuzen egoan; Simon Jaunak ain luzaro erredizagintzan jardun ostean, baekian bere lantegi-ko barriztapena ezinbestekoa zala leikidetzari aurre egiteko, baiña orretarako



diruketa andi samarra erabilli bear, eta bide au ez yakon gogokoa. Onezaz gaiñera, irurogetak urteko izanik, ez eban burrukarako adorerik, eta garaia bazala uste izaten eban buruausteak amaituta, bere emaztearekin bizitzeari atsegina apur bat atarateko. Ain zuzen be, Kepa Mirena'rena baiño beste eskintza obarik artuko leukela ez eban uste izaten. Noizbait, Kepa Mirena'ren eskintzea onartu eban, eta euren itun-ezaugarritzat eskuak alkarri emonda, Arango'ko jatetxerik onenean, euren arteko itunbena berbatu zan. Oneixek ziran baldintzak: Kepa Mirena'k zortzi milloiak eskuratzean, baratariaren aurrean sal-erosketea legezatzeko zan. Saltzailletzat Simon Jauna agertuko litzake, eta erosletzat "Goiena" baltzua. Azken au eratu barik egoanez, legez-tatu baizen laster, "Onena" erredizagintza "Goiena" lagundiari salduko litzakio.

Arratsalde aretan Manu'gana joanda, bearrezko urratsak emon egiazan "Goiena" zortzi milloiko baltzua sortzeko, agindu eutsan Kepa Mirena'k. Baltzu barriaren ondasunaren %75 Kepa Mirena'ren, eta %25 Laurentzi'rena izango zan. Zeatz-meatz guztiak gerturik, "Goiena"k "Onena"ren ondasun guztia erosiko leuke. Azken urrats au emoteko, Simon Jaunak, Kepa Mirena'k, Laurentzi'k eta Manu'k baratariaren aurrean sal-erosketea legez-tatu leukie. Bitartean, Kepa Mirena Manu'ren barrien zain egongo litzake.

Gau aretan Murube'ra biurtuta, egindakoari buruz Laurentzi jakitun ipini eban Kepa Mirena'k, eta aren oneritxia lortuta, urrengo egunean Kepa Mirena'k Andoni Jaunarekin autu luzea izan eban. Baekian "Eredua"ren arduradun nagusiak, mingarria izango litzakiola Andoni'ri emongo leuskion barria. Kepa Mirena'ren asmoa jakitean, Andoni Jauna zur eta lur geratu zan, eta beste erredizagintzan jabetzat jardungo leukela azaldu eutsanean, kezka andi batek artu eban. Izan be, arduradun trebetzat eban, eta aurrerantzean leikide izango leukela jakin ebanean, ezin egikean menperatzen eban arrenkurea ezkutatu. Joan ez zeiten, Andoni Jaunak lan-sari andiagoa emongo leuskiola, baiña Kepa Mirena'k ez zala diruaren arazoa, aspaldiko asmo baten burutzea baiño, azaldu eutsan.

– Baiña zergaitik erdipurdiko erredizagintza baten jardun, eta benetakoa dana laga...? – itaundu eutsan Andoni'k.

– Andoni Jauna, ez da diruagaitik, niretzat garrantzitsuagoa dan beste arazo bategaitik baiño.

– Zer da beste ori...?

– Ezin dagikezut esan, baiña niretzat beiñena da.

– Ai, ni gaixoa...! Zelan konponduko naz zeu barik...?

– Begira, Andoni Jauna. Emen illabete batez jardungo dot oraindiño, eta

epe orretan aaleginduko naz zure semeari dakidan guztia irakasteko. Ez larritu, mutil argi ta zintzoa dan ezkerero, erredizagintzari dagokion guztiaz jabetuko da, eta zin dagitsut, joan aurretik neu beste ezagulari billakatuko dala.

– Baiña edozelan be, gure leikidea izango zara.

– Nire berba damotsut, aal dodan guztian arremonik estuenak zurekin izango dodazala, eta gai geinetan bat etorrita ibilliko gara. Gaur jabetzen dozun "Eredua" baltzu errime ta ondo oñarritua da, eta zure semeak zuzenduta, arrakasta andia jaritsiko dau. Gaiñera, beti izango nozue gerturik edozein argibide emoteko.

Itz emonda lez, beste illabete bat jardun eban Kepa Mirena'k, ekian guztia Andoni'ren semeari jakiñerazoz. Izan be, gazte urtena zan, eta esaten yakonaz bereala jabetzen zan. Illabetea igarorik, egun baten aita-semeai besarkada estu bana emonda, tamalezko sentipenaz Kepa Mirena'k "Eredua" itzi eban, barruko eragintza jarki-eziñak agintzen eutsana betetearren. Eta berarekin batean Txinbo'k be Murube'ko lantegia betirako laga eban. Gazte biok alan-olako baltzua aurkitu izan eben, eta orain, asko balio eban baltzu aberats eta errimea atzean geratzen zan. Ain zuzen be, oldozkun au pozgarria zan, maite izaten eben baltzutik betirako joatean.

Aurretiaz asmatua lez, baratari baten aurrean eta Manu'ren laguntzaz, egun baten "Goiena" errediza-baltzua irasi zan, eta jarraian, onek zortzi milloitan Arango'ko "Onena" erosi eban. "Goiena"ren jabeak Kepa Mirena ta Txinbo ziran, lenengoa %75 baltzu barrian jabetzen eban, eta bigarrena %25, au da, bakotxak jarritako diruaren giñoan. Baltzu barriari legezko itxurea emoteko, lau milla laurlekoko bi milla jabe-zatiak irarri ziran, milla ta bos-teun Kepa Mirena'rentzat, eta enparaua Laurentzi'rentzat.

Urrengo egunean, bazkide biok Arango'ko "GOIENA" izeneko baltzu barrira joan ziran, eta eldu baiño ez, lantegiko jatoki zabalean, langille guztiak batu-erazo ebazan Kepa Mirena'k, eta jakitun ipiñi ebazan jazotakoari buruz. Jarraian, diru-egoerea azaldu eutsen, baita zelan etorkibako ateka orretatik urteteko, guztien aalegiñak eta nekeak bearrezkoak ziran be. Kepa Mirena'k berba oneikaz amaitu eban itzaldia:

– Langille maiteok: Guztion ogibidea emen dogu, bai jabeena, bai zuena be. Geuk, jabeok, baltzu onetan jarritako dirua jokatzen dogu, baita diru-etxeari eskatuko dautsagun maillegua tresna barriak erosteko. Zuek, oster, etxe-ko ogia. Aalegindu gaitzean, beraz, gure ontzia portuko babesera eroteko, asiera baten jasan bear izango doguzan neke ta aalegiñai aurre emonez. Ziurtatzen dautsuet, baiña, barri sortutako baltzuari zuen laguntza ukatzen ez ba'dautsazue, luzaro barik, merezitako saria artuko dozuela. Beste au be esan



nai dautsuet: nire idaztegiko atea edozertarako edegirik aurkituko dozuela beti, bai zuen onu ta eritxiak entzuteko, baita zuen osterak-eta entzuteko ta urtenbidea emoteko be.

Itzok entzutean, zaarrenetariko langille bat baimena eskaturik, onetara-xe mintzatu zan:

– Jauna, eskertzen dautsugu esandakoa. Egia da, gure lantegiaren egoerea nai genduken baizen ona ez dala, tresnak zaarrak billakatu diralako, baita etor-ki argirik ez ikustean, gure adorea makaldu dalako be. Zeuk esandakoak aintzakotzat artzen doguz, eta beraz, makezturiko gure gurdia lokatzetik ataratea-rran aaleginduko gara, eta bitartean ez dogu iñongo lansari-geitzerik eskatuko, baltzuaren ibillerea sendotu arte. Ziurtzat joten dogu, bere garaian merezitako ordaintza artuko dogula. Besterik ez.

Giro adiskidetsu onetan batzarra amaitu zan, eta adore barriak artuta bakotxa bere zeregiñetara biurtu zan. Urrengo egunean, Kepa Mirena Arango'ko diru-etxe batera joanda, maillegu baten eskaerea egin eban. Ordeztetxe onetako nagusiak Kepa Mirena'ri buruzko argibideak Murube'koai eskatu eutsezan eta artutako argibideok on-onak ziran ezkeru, Kepa Mirena'ren eskaerea aintzakotzat artzeko azaldu zan Arangoko diru-etxea. Izan be, bearrezkoa zan maillegu ori buruan erabilen asmoa egi biur-tzeko, eta augaitik sendo jokatzeko gerturik egoan Kepa Mirena. Onen ondo-rioz, diru-etxeak baibentzat, lantegia bera ta onen lurrak eskatu eutsanean, baietza emon eban. Andik amabost egunera lau milloiko maillegua baieztu zan. Onen aurretik, baiña, Kepa Mirena'k bearreko tresnen aurre-kontuak eskatu ebazan, eta maillegua artu orduko, astirik galtzeke aukeraturiko langai-lluak agindu ebazan.

Zur-langintzaren arloan ezaguera andia jaritsi izan eban Kepa Mirena'k, eta augaitik, orain aginduriko lanabesak edo tresnak barrienetakoak ziran, onein artean elektro-agintzadunak izanik. Karuak ziran baiña ekarritako ondoreak arrigarriak. Luzaro ta gogor eztabaidatu ebazan tresnagilleekin lanabes barrien baldintzak, baiña noizbait, tresna-sorta bikaiñaren jabe billa-katu zan. Onein artean bazan bat, marrazki baten bidez, errediza-zatiak zint-zotasun arrigarriaz egiten ebazana. Asiera baten, zenbait oztopo aurkeztu ziran tresna orreik erabilteko, baiña tresnegilleen laguntzaz eta ekiñaren-eki-ñez, oztopo guztiak garaitu ziran. Tresna barriak lantegira eldu ta illabete batera, aspaldiko "Onena" baltzuko langilleek, elektroidunen erabiltea men-peratzen eben, eta betidanik artaratuak lez erabilten zituen. Lan-egite barri onek jendearen kemena piztu eban, eta bazirudian mendu barri batek itxaro-pen bizia guztiakan sortzen ebala.

Aspalditik asmatu izan eban Kepa Mirena'k eretia etorrita egingo leuke-na, eta arduratsu ta astiro izan be. Sail bi izango ebazan "Goiena" k, batak errediza arrunt eta merkeak multzoka (en serie) egingo leukenak, eta bestea baltzu barriko bitxia izango litzakena, au da, erti-lanaren saila. Azken arlo onek "Goiena"ri aipu ona emonez gaiñera, dirua ekarriko leuskio, eta multzo-gintzak dirurik emon ez arren be, erti-gintzak jarraipenari eusteko beste onura ekarriko leuke.

Lenengo astebeteak igarorik, eta gintza barria menperatzen asten zanean, Kepa Mirena'k Txinbo'ri dei egin eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Laurentzi, ordua da merezi dauan garrantzia erti-gintzeari emon dagiogun. Artuizuz gure langilletariko amar onenak, eta asi zaitez erti-sail on-ona sortzen. Bear izandako tresnen diruari jaramonik egiteke, ekiozu arloari. Ondo menperatzen dozu eginkizun ori, eta kutxak, arasak, aulkiak, maiak, oak, kako-mutillak etab, egiten asiko zarie. Kontuan artu gure bal-tzuaren etorkia erti-saillean datzala. Multzo-gintzari buruz ez naz orren itxa-ropentsua, eta onurak emotekotan, luzean izango da, baiña erti-gintza ondo joatekotan, ez naz ezeren bildur izango. Augaitik ba, aukeratu egizuz langi-llerik onenak, eta ekin aurrera. Nik esango neuskizu euskal kutxai ardurarik andiena emon dagiezula, "Eredua" n giñarduanean gure kutxak arrakasta andia artu eben-eta.

Baekian Kepa Mirena'k lenengo urtebetean "Goiena" ren etorkia jokutzen zala, eta erti-sailak Txinbo' ren erabiltepean iñongo buruausterik ez leuskiola emongo jakiñik, multzo-gintzari ekin eutsan buru-belarri. Sail au langille zaar eta saiatu baten pean lagata, berak multzo-gintzari dagokionez, lan-atonketea-ri emon eutsan, likatze ta margo-sailak aztu barik. Onezaz gaiñera, lantegi-barruko lorketea obatu eban, baita idaztegia be, elektroidun gailluakaz ornidu ebanean.

Edu onetan, oartu zaneke, lenengo urtebetea igarora zan, zailena izan be. Urteko garbiketea egiñik, mailleguaren urteko korritua ordaindu ondoren, diruketa polita irabazi izan ebela azaldu zan. Irabazpen osoa, multzo-gintzan erabiltea erabagi eban Kepa Mirena'k, eta arlo onentzat tresnarik barriak erositak, bere asmoari jo ta ke emon eutsan. Erti-gintzaren sailak, berak uste izandako baiño arrakasta geiago lortu eban. Areitezko euskal kutxak batez be, eurrez saltzen ziran, eta tokirik urruntsuenetik zenbat-gura eskaerak etor-kiozan "Goiena"ri. Orduko, sail onen langilleen trebetasunak ez eban kideko-rik ezagutzen, eta augaitik, arlo onek emotsan ziurtasunak eraginda, ain luza-ro laztanduriko asmoa egi biurteko garaia zala erabagi eban Kepa Mirena'k.

Bein baten, etxeko ordezkariak batu, eta auxe esan eutsen:



– Gure multzo-gintza asko anditu dogu azken aspaldi onetan, eta eskubide osoa damotsuet, beraz, gure erredizen sal-sariak beeratu dagizuezan bear beste, erosleen aginduak gureganatzeko. Gaurregun, “Bikain” errediza-gintza gure leikiderik andiena da, eta auxe nai dot: zelan edo alan aalegindu zaitezela, leikide orren sal-sariak ezagutzeko, eta berak, amar milletan saltzen dauana, zuek bederatzu milletaraiño beeratu. Bardin, aren eskuratze-epea iru illa-betekoa ba’litz, geurea bikoa izango da, eta ontasunari buruz, guztitariko ziurtasunak emon. Bezeroren batek ordaintza-epea luzatu dagiogun eskatzen ba’dautsue, onartu aren eskaerea beste barik. Edozein kezkarik sortuko ba’litzakizue, urrutizkiñez dei egistazue, bezeroraren naiak zelan edo alan bete dagiguzan. Gaur, gure gintzaren gaitasuna igazko bikotxa da, eta orren giñoan anditu bear doguz bezeroen aginduak, beraz.

Aaleginduko litzakezala agindu eutsoen ordezkariak, eta Kepa Mirena’reu adorea kutsuturik, indar barrituaz saltzeari emongo leuskioela itz emonda, euren barrutiko bezeroak ikertzera abiatu ziran. Baekian Kepa Mirena’k, bere asmoak bete zeitezana, aldiari berea emon bear izango yakola, eta augaitik, iradu barik jazoeren begira geratu zan.

Orduko, idaztegiko arazoak garrantzi andia artzen eben ezkeru, diru-etxearekiko arremonak batez be, Arango’n eban egoitza kendu, eta uriburura aldatzea erabagi eban Kepa Mirena’k. Olan ba, Manu’reu laguntzaz, sendi on batenean ostatua idoro eban, eta astirik galtzeke egoitza barrira aldatu zan. Egun guztietan goizerik jagita, kafetegi baten gosaria artzen eban, eta gero diru-etxeak ikertuta, eta bidalgo-kutxako idazkiak jasorik, baita bear izatekotan bezeroren bat ikusi ostein, Arango’rako trena artu oi eban, eta eguberdia barik lantegiko idaztegian zan. Ona eldu baiño ez, arazoen barriak emotsoezana, eta bearrezko erabagiak artuta, lantegitik ikerraldi bat egin oi eban. Gero, jatokian bazkaldu bitartean, arazorik beiñenak Txinbo’reu erabillezan, eta arrastian barriro lanean ziarduan. Eguneroko jarduna amaitzeko zorian zala, urrengo goizerako arazoak gertatu, eta Txinbo’k lagunduta geltokiraiño joian uriburura biurtzeko.

Uriburura bizi izatera joan eta laster, buruan erabillen asmoak eraginda, bein baten egokiozan argibideak eskatuta, “Begirariak” izeneko azterlarien taldea itarantzun eutsen, eta astirik galtzeke, arein idaztegia joanda, atezaiñari auxe esan eutsan:

– Aizu, nagusia ikusi nai dot.

Bereala gela batera sartuta, berrogeitsu urteko gizon baten aurrean aurkitu zan. Ertzain-oia zan onek, begi sarkorrez aztertu eban, eta,

– Zer nai dozu, Jauna –itaundu eutsan aulki bat eskintzen eutsala.

– Begira, zuen argibideak ustiatzeko natortzu.

– Esan, Jauna. Aurrera joan baiño len, baiña, jakiñerazo bear dautsut, zure arazoa aal dan ezkutuen erabilliko dogula. Augaitik, beraz, itz egidazu argi ta garbi.

– Olan egingo dot. Begira... “Bikain” izeneko errediza-gintzaren nagusia dan Klemen Jaunaren gora-beera guztiak jakin gura dodaz.

– Zelako gora-beerak...?

– Non bizi dan, norekin dabillan, lanaren kanpoz zertan diarduan, nora doan oporraldietan etab, au da, bere ekintzen azalpen osoa.

– Ori karutxu billakatuko yatzu.

– Bearrekoa ordainduko dautsut. Oroz gain gura dodana auxe da, baiña: Aren gora-beeren argibide zeatzak, ezer isildu barik ezgauza iruditu arren.

“Begilariak” taldeko nagusiak, Kepa Mirena’k eskaturiko gora-beerak idatzi ostein, norabidea ta urrutizkin-zenbakia eskatu eutsazan.

– Ederto, Jauna –esan eutsan–. Iraduz al-zabiltz...?

– Ez dot iñongo premiñarik. Oroz gain argibide egitiak nai dodaz. Besterik ez.

– Bere garaian izango dozu eskaturikoa. Anartean, Agur, Jauna.

– Agur.

Eguneroko ibillaldia uriko egurastegitik eginda gero, egun aretan Kepa Mirena ostatura biurtzen zanean, bere buruari iñotsan, aspaldiz atondutako egitasmoa egi biurtzeko garaia urreratzen zala. Eta eskaturiko argibideen



begira, oiko jardunari emoten jarraitu eban. Andik illabete batera-edo, "Begilariak" taldeak igorritako idazki bat jaso eban, eta estalkia urratuta, irakurten asi zan. Guztitariko argibideak emotsazan zeaztasunik andienaz. Ona emen laburtuta, iñotsana.

Dalako Klemen Jauna "Bikain" baltzuaren ugazaba zan, aita il egin yakonetik, eta orain urtebete bat ugazaba bakarra zala. Aurreko urteetan txoriburu anditzat jokatu izan eban, guztitariko zorakeri ta griñetan murgilduta bizi izaten zala. Azken aldiotan, baiña, bazirudian dalako Klemen'ek damutu-ta-edo, biziera baketsu ta neurtuagoa erabililela. "Bikain" baltzuan irabazitako obariakaz, itsasaldean etxe eder apaiña udaldirako eraiki izan eban, eta onezaz gaiñera, baebazan aitak lagatako beste ondasunak. Berebil eder, indartsuen zale porrokatua zan, eta oneitariko batzuk bere aukeran ebazan. "Bikain"en arazoak polito ei'joiazan, eta diru aldetik nasai bizi izaten zan ezkeru, naikeri guztiak lortzen ebazan, eta erabilen bizi-moduaren eralguntza andia zan. Uriburuan amarekin bizi izaten zan etxean, guztitariko neskame, sukaldari, berebillariak etabar egozan. Etxean ospatzen ziran bazkari-apariak entzutetsuak ziran, uriburu aretako jenderik ospetsuena biltzen zala, jaki ta edaririk gozuen eta aukeratuenak gozatzearren.

"Begilariak" taldearen idazkiak edu onetako beste gora-beera batzuk jakinerazoten ebazan, Klemen gizaki garrantzitsu ta ederretsia zala uriburuko andikien artean, agirian jarririk. Idazkiaren azkenean, eta zudubako albisteá bai'litzan, auxe iñoan: "Orain gitxi dala, noizean bein andereiño batekin ikusten da, baiña ez dirudi au zudugarria danik, auxe Klemen'en betiko oiturea izan da-ta."

Idazkiaren irakurketea amaituta gero, Kepa Mirena'k eskutitza bere agiritagian gorde eban, eta oera joan zan. Orduko, ez eban beste egitekorik, jazoeren begira egon baiño, eta berak artutako eginbidearen ondorioai itxaron.

Urrengo egunean, oi eban lez trenez Arango'ra abiatzen zala, ezustean, aurreguneko idazkia burura etorri yakon, eta zorrotik atarata, idazkiaren azken lerroak birirakurri ebazan. Zauskada batek eraginda, bein eta osterá, barri ezain aren garrantzia aurkeztu yakon, eta oartu barik gogarte sakonari emon eutsan.

Lantegira eldu zanean, oiko eginkizunai emon eutsen, baiña gogoan ebil-kionari jarki eziñik, bazkal-aurretik urrutizkiñez dei bat egin eban.

- "Begilariak" taldea al-da ori...?
- Bai, Jauna.
- Nagusiarekin itz egin gura dot.
- Oraintxe bertan.

Eta andik laster,

- Bai, nor da...?

- Begira, Jauna, Kepa Mirena nozu, eta atzo jaso neban zure idazkiari buruz nagotzu. Eskerrik asko zuen txostena dala-ta, argibide zudugarriak emoten daustazuzalako. Azken zatian, Klemen batzutan neskatilla batekin ikusi izan dala irakurri dot, eta auxe nai izango neuke zeugandik: dalako andereiño orren gora-beera guztiak emon dagidazuzala. Orretarako ez erabili idazkirik. Zerbait jakingarria izanik, dei egistazue urrutizkiñez, eta zuekana joango naz.

- Ederto, Jauna, olan egingo dogu. Agur.

Andik egun batzutara, "Begilariak" taldetik joateko mezua artu eban. Astirik gatzeko illuntze aretan aratu zan. Bereala artu eban ango nagusiak, eta auxe esan eutsan:

- Jauna, zuk eskaturikoa jakiteko, bearrezko azterketea eginda gero, ona emen neska orreri buruz jakin aal izan doguna.

Isildu zan azterlarien nagusia, eta mai-gaiñeko txatal bat artuta, irakurten asi zan onetaraxe: "Gentzane Aldagan, ogeitsu urteko neskatilea, Kale Nagusiko 28'gneko etxean bere amarekin bizi da. Aita, orain urte bi il egin yakon, eta artutako argibideen arauz, iltean aberastasun andia itzi ei'eban. Ama-alabak oso fededunak ei'dira, eta diru asko izan arren, ez dabe iñongo arrandirik erakusten. Beartsuai diru-laguntza ugari emoten ei'dautsie".

Irakurketea amaituta,

- Auxe da, Kepa Mirena Jauna -esan eutsan "Begilariak" taldeko nagusiak-, orain artean jakin aal izan doguna. Areago nai izatekotan, esan egistazu, eta nire jendeak azterketa zeatzak egingo dauz.

- Eskerrikasko, baiña oraingotz naikoa da. Argibide geiágo gura izango ba'neu, jakiñerazoko dautsut. Orain arte egindako zuen lanagaitik igorri egistazu ordain-agiria, eta txeke bat bialduko dautsut. Agur, Jauna.

- Gabon, Kepa Mirena Jauna. Zure aukeran nozu.

Etxera biurten zala, Kepa Mirena'k ezin egikean gogora etorkion azpikeria burutik kendu. Patuaren ereti bikaiña...! Ain biziro irrikaturiko apentzaldia ona emen aurkezten asten yakola... Bai, Klemen doillorraren ondasunegarriari aalik eta kalterik andiena ekarriz gaiñera, maite izaten eban neskea kenduko leuskio. Baiña Klemen'ek neskatilea maite izango leuke, ala onen ondasuna...? Au gogoratzean, Kepa Mirena'k barre egin eban berekiko. Izan be, Gentzane bera maite izan, ala onen ondasunaren atzetik ibiltekotan, naikoa atsekabea ekarriko leuskio Klemen'eri Aldagan andereiñoa galduko ba'leu. Ezin keixu izan, alabearrak ekarkion mendeku-eretiagaitik. Ostatura biurtu



zanean, amaika asmo egin ebazan Kepa Mirena'k bere elburua jaristeko, baiña azken baten danak zapuztu ebazan. Lenengo, neskatillea ezagutu, eta gero... gerokoak.

Arrezkeroko egunetan, aurre-kontu garrantzitsua eskuen artean erabille-la-ta, Kepa Mirena lanpetuta billakatu zan, baiña arazoa amaituta, onura andiaz gaiñera, bazala ordua Gentzane'rekiko asmoari ekiteko, bere buruari esan eutsan. Olan ba, aal izango ebazan arratsalde guztietan, Arango'tik uriburura biurtuta, neskearen etxeko inguruetatik zelatari egotea erabagi eban. Bein baten, begirari egoala, Klemen urreratzen zala ikusi eban. Orduko, bere nagusi-oia, ogei ta amabost urtekoa izango litzake, baiña urdintzen asten yakozan billo urriek, baita betazpi nabari ta aurpegiko zimurrek, aurretiaz zaarra billakaturiko baten itxurea emotsoen.

Zortzi urtebete igaroak ziran azkenengoz ikusi ebanetik, baiña ondapenera eroan izan eban nagusi zitala ezagutzean, biotz-ikara zoroepen Kepa Mirena dardarez asi zan, gorrotoz beteriko begiak aregandik kendu eziniñik. Eragintza basatiaren menpe, une aretan oldartuko litzakion, ukabilka ta ostikoka irudi gorrotagarria ondatzearren. Baiña, ez, ori baiño askozaz mingarriagoa izango litzaken beste zigor andi batatz mendekua artuko leuke, Aldagan andereiñoa galduko ba'leu.

Une aretan, Klemen'ek ateko txiliña jo, eta itxaron bitartean espaloian gora ta beera asi zan. Andik bost miñutura-edo, atea edegi, eta neska bat agertu zan. Klemen alboratu yakon, eta biok alkarrizketan kalean beera abiatu ziran. Kepa Mirena arein jarraian asi zan, bikotearen ibiltari berea egokituz. Neskearen irudi txairoa, jas eta lerdentasunaz beterikoa zala egiztatu eban Kepa Mirena'k. Ain zuzen be, janzkia ez zan azkenengo erabiltekoa, baiña olan eta guzti be, txairotasunari ez eutsan ezer kentzen. Zelakoa izango litzake, baiña, aren aurpegia...? Orretarako aurrez-aurre begiratu bear... Eta Klemen'ek ezagutuko ba'leu...? Ordurarte, gazte garai, eder, zaloi aregan ez eban iñork aspaldiko Kepa "laubegi" ezaiña ezagutu. Zergaitik ezagutuko eban ba, bere buruari bakarrik ardura emoten eutsan Klemen arroputzak...?

Kaleko muturrera eltzean, bikotea biurtu, eta kalean gora ibiltan asi zan. Une batez Kepa Mirena'k neskea aurrez-aurre ikusteko aukerea izan eban. Ain zuzen be, ez zan beste munduko gauza, billoen orrazketeak emotsan lekaime-itxuraz .. Dirua izango zan, beraz, Klemen erakarriko leukena, eta ez Gentzane arrunta. Bere buruari gogoeta oneik egiten eutsazala, bikotea berearekin gurutzatu zan, eta Kepa Mirena'k begimenetik galdu ebazan. Etxera biurtzean, bere buruari itauntzen eutsan zer ikusi egikean neskatilleak Klemen'gan, onekin ibilteko. Dirua izango ete...? Gentzane berez aberatsa

izanik, ondo biziteko ez eban beste iñoren ondasunik bear. Ala neskatilleak "Bikain"en ugazabagan zeozer bereizi, ezkutua, ederresten eban...?

Ostatura sartzean, bere buruari zin egin eutsan Kepa Mirena'k, zelan edo alan Klemen'eri neskatillea kenduko leuskiola. Orretarako bere doai guztiak erabilliko leukez, baita luzaro barik badaezpadakoan, berandu billakatu ez zeiten. Baiña zerk eragiten eban Gentzane lako ogeitsu urteko neska bat, aurretiaz agureturiko Klemen'gana...? Izan be, Klemen'en alboan ikusiriko neskeak ez eban maitemindu-itxurarik erakusten, eta aitzitik, bazirudian bere gogoa andik urrun ebilkiola...

Egia, baiña, auxe zan: Klemen eta Gentzane'ren sendiak aspaldiko ezagunak ziran, eta gazte bion aitek diru-arazoakaitik arremon estuak izan ebezan. Augaitik, Klemen eta Gentzane betiko adiskideak ziran. "Bikain"en Nagusi zaarra il zanetik, alargunak bere seme bakarria buztartu zeiten nai eban, ezkontzaren bidez zentzutu, eta erabillen biziera zantarrari uko egian. Arazoa ainbat eta erakarkorragoa zan, kontuan arturik, Gentzane oso aberatsa zala. Bost ardura Klemen'eri amaren guraria, baiña aspaldi aretan "Bikain"en irabazteak, leikidetza zala-ta, naikoa urritu izan ziran, eta orain dirua bear izaten eban baltzuaren egoerea sendotzeko. Augaitik ba, Gentzane'rekin urtetan asi zan. Ain zuzen be, neskeak ez zirudian guztiz zorionsua egoera barri onetan, baiña ezin egikean beste barik aspaldiko Klemen zapuztu, eta gogoz ez izanik be, noizean bein Klemen'ekin urtetan asi zan. Onek, baekusan Gentzane'ren eraspen urria, baiña berekiko iñoan, aldiaren bidean neskearen oztasuna garaituko, eta bearrezkoa yakon dirua eskuratuko leukela. Gauzak ez dira begi-itxedegi baten jaristen, eta bere burua On Juan batetzat eban ezkerro, luzaro barik neska kokoloa bere lapi-korako izango litzake. Augaitik ba, lagunarteko biziereari zearo uko egin barik, astean birritan-edo, Gentzane'rekin urtetan asi zan.

Egun areitan, ezin egikean Kepa Mirena'k Gentzane burutik kendu. Zelan edo alan, Klemen doillorri neskatillea kenduko leuskio, eta gero or konpon. Orretarako, baiña, neskatillearekin zelan asi arremonetan...? Ezin egikean beste barik, beragana joan eta berbetan asi, au zorakeri utsa zan-eta. Eretiren bat aurkeztuko ba'litzakio...! Gentzane'ren joan-etorriak ezagutzeak asko lagunduko leuskio, eta augaitik, jaiegunetako neskatillearen joan-etorriak barrandatzen asi zan. Igande baten, etxeko atadiaren aurrean zelatan egoala, amak lagunduta urten zan Gentzane, eta biok kalean gora asi ziran. Begitandu yakon Kepa Mirena'ri, mezatara abiatuko litzakezala, eta izan be, zuzen egoan. Andik laster, Sendi Donearen parrokira elduta sartu ziran. Amabitako mezea amaituta, ama-alabak etxera biurtu ziran. Arratsaldean



barrero zelatan jarrita, zazpiretan inguru Klemen agertu zan, eta andik laster, Gentzane'rekin akeitetxe batera sartu, eta gero kaleetan zear egurasten bederatzia arte.

Bidaldiren bat aurkezten ez yakonetan, Igandea elduta Kepa Mirena Sendi Donea'ra amabitako mezetara joian ama-alabai jarraituz, eta gero etxerakoan, atzetik erraikien berak ez ekian zeren begira... Bein baten, baiña, itxaroten eban eretia aurkeztu yakon. Eleizatik urtetean, ama-alabak Miren'ekin alkarrizketan ikusi ebazan. Antxiña bateko ezagunak ziran, antza, alkarri egin outsoen agurrakaitik. Olan ziarduela, igarotean, Kepa Mirena'k Miren agurtu eban adiskidetsu. Manu'ren amak gaztea ezagutzean,

– Kaixo aspaldiko –esan eutsan–, nondik zabiltz azken aldiotan gure etxetik ez agertzeko...? Asarre gaituzu, mutil, baiña emen zaitudan ezker, nire ezagun oneik aurkeztuko dautsudaz. Ona emen Martiñe, Aldagan Jaunaren alarguna, eta Gentzane bere alabea –eta ama-alabai itz egiñez–, ona emen etxekotzat dogun Kepa Mirena.

Eskuak alkarri emon outsoezan, eta andik laster Miren eta Martiñe kalean beera autu bateri emotsoela, atzetik Gentzane ta Kepa ibiltzen asi ziran. Izan be, Kepa Mirena ez zan oituta neskeekin ibiltera, eta asieran Gentzane'ren alboan isillik joan zan. Oartu zan, baiña, ezin egikeala olan jarraitu, kokolotzat artu izatea nai ez ba'eban, eta besterik ezean eguraldiari buruz zeozer esaten otu yakon. Gentzane'k oiko erantzunak emon bitartean, aukera izan eban Kepa Mirena'k neskatillea urretik aztertzeke. Lenengo zantzuaren arauz, Gentzane ez zan ezertan nabarmentzen, oso arrunta emonez gaiñera, berba urrikoa zalako. Azken bereiztasun au ordeztzeko, urrean, bere mintzoa gozo ta atsegiña zan, eta Kepa Mirena'k bere buruari autortu eutsan, aren abotsak beragan eresi eder baten zauskadea eragiten ebala. Aurpegiz ez ederra ez itsusia, politagoa azalduko litzakean, billo gaztinkara naroak antze andiangoaz orraztuko ba'leuzan. Atezuan orrazturiko adats yaukala gatzbako txorta baten korapillotua, neskararren itxura emotsan, edo lekaime-gai baten jasa. Abo ez andi ez txikiaren gaiñean, suur txanbeliña kokatzen zan, eta onen goikaldean urre-begi andiak. Zorritzarrez, baiña, onein betazalen zear ikusten ziran betseiñek, ez eben erakusten gaztediaren dizdira, guztiarekiko ardura-eza baiño. Ain zuzen be, Gentzane ez zan edertasun-eredua, eta are gitxiago be, bera baiño ogei urtez neska zaarrago bateri egokion janzki arekin.

Bidetik joiazala, bere buruari iñotsan Kepa Mirena'k, alboan eban neskatilleak konbenturako zan lekaime-gai emoten ez ete eban... edo-ta danatzaz aspertu eragindako neska ezkibela. Mutilla, baiña, arazo onetan oker egoan... Gentzane, arimea lotan eban neskea zan, itxarten ez dan ames senti-

korra, eguzkiaren dizdir ernegarria oraindiño artzeke dagoan neguko lora aztua, edo-ta ordurarte agertu ez dan olerkiaren egaketa illauna.

Aldagandarren etxera elduta, ama-alabak agurtu ondoren ostatura biur-tzen zala, bere buruari iñotsan Kepa Mirena'k, Gentzane beste munduko gauza izan ez arren, Klemen'eri kentzeko aaleginduko litzakela, eta orretarako neskearen adiskidetasuna lortuko leukela. Aspaldiko nagusiari eutsan gorrotoa, lagungarria azalduko litzakio, neskearen ondoan jasango leukezan neke ta asperraldiai aurre egiteko.

Eta izan be, asmo oneri zintzo jarraitu eutsan. Jaiegun guztietan, atzerri-rako bidairik ez izatekotan, Sendi Donea'ko eguberduko mezetara joanda, urtetean ustebako ikuslearena egiten eban, eta oiko agurrak alkarri esanda, ama-alabai etxeraiño lagundu oi eutsen. Bidean zear joiazala oiko leloak erabillezan, eguraldiari buruz, edo-ta jazoera nabarmen bat aututzat artuta. Kepa Mirena'ren asmo bakarra, Gentzane Klemen'egandik urruntzea izanik, ez eban adore andirik erakusten neskea erakarteko, ganora gitxiko autagaia baiño erabillirik. Barruko zerbaitek, baiña, baiñotsan neskeaganako jokaerea ez zala zuzena, eta augaitik, Klemen uxatu ondoren, Gentzane'gandik apurka-apurka urrunduko litzakela, neskea aalik eta gitxien mintzearren. Auxe zan Kepa Mirena'ren asmoa, eta oneri jarraitu eutsan aspaldi batez, baiña arazoaren korapilloa ez zan askatzen, eta beraz, jokabidea bestelatu bear izan eban.

Jaiegunetako arratsalde guztietan, oi eban antzera, Klemen Aldagandarren etxera urreratzen zan, eta emen Gentzane'rekin bilduta, egurastu astiotsua egin ondoren, kafetegi batera sartu, eta askaria izanda gero, etxeratzen ziran.

Bazirudian, bide onetatik Kepa Mirena'ren asmoak txulut egingo leukela, eta auxe jazo zeiten aurretik, mutillak ekitea erabagi eban. Igande baten Gentzane'rekin bakarrik onen etxera biurten zala, neskatillearen ama geisoirik egoan-eta, Kepa Mirena'k auxe esaten azartu zan:

– Aizu, Gentzane, ez dakit ontzat artuko ete dozun, baiña jaiegunetako arrastiak, aspergarriak azaltzen yataz, eta barkatu, baiña... ez dakit azartegia irudituko ez ete yatzun... Ni ba... pozik urtengo nintzake zurekin, bakarrik nago-ta... Baiña arren, ez txartzat artu...

Gentzane'k itxura bakanaz begiratu eutsan, betseiñetan dizdir ez-oitua agertzen yakola, eta orduan,

– Barkatu, Kepa Mirena –erantzun eutsan–, baiña Klemen deritxan aspaldiko ezagun batekin urtetan naz jaiegunetako arrastietan.

– Olan izatekotan, ez dot zer esaterik. Barkatu, Gentzane, eta ez txartzat artu nik esanikoa.



Isildu ziran biok une batez, eta mutillak oster,

– Olan dan ezker, ez dakit egokia izango ete dan zu etxera laguntzea...

Zolitasun ez-oiuaz Gentzane'k eten egin eutsan onetaraxe:

– Mezatatik etxera laguntzeari ez deritxat ezegokia. Gaiñera, Klemen eta bion artean, ez dago lotura bereizirik, laguna baiño ez dot-eta.

Beste barik neskatilearen etxera eldu ziran, eta oiko "agur" alkarri esanda banandu ziran. Ostatura biurtzen zala, bere buruari iñotsan Kepa Mirena'k, Klemen'egandik artu nai izaten eban apentzak, arrezkero pot egingo ez leuken... Baiña edozelan be, ordurarte lez meza-osteko etxeratzean Gentzane'ri lagunduko leuskio. Ez ekian zer izango ete, baiña baeritxan txikia izanik be, neskeagan aldakuntza bat ikusten ebala.

Ain zuzen be, Gentzane'k ez eban iñongo erakarpenik oartzten Klemen'ganako, eta izan be, aspaldiko ezagunak izan arren, aren laguntasuna gero ta aspergarriagoa azaltzen yakon, eta oartzeko, gazte biak burua bat egiten asi zan. Ez egoan bion arteko iñongo antzik. Klemen'ek, zan baiño zaaragoa zirudian, eta askotan danatzaz gogaituta bai'litzan jokatzten eban. Erdipurdiko kulturakoa izanez gaiñera, bere autua aspergarria zan betiko leloa erabillela: azken erositako berebillaren bikaintasuna, eta onen bidez lortzen ebazan ekintza arrigarriak. Besteetan, "Bikain" baltzuak jaristen eban arrakastea, bere zuertasunari esker. Izan be, nekagarria azaltzen yakon arroputz aren autugaia. Guztiz bestelakoa iruditzen yakon, oster, Kepa Mirena, eta Gentzane'k berak oartzeko, mutillaren edertasun eta jasa, baiña beragan igarri egikean gizontasun eta barruko indarra batez be, bere naimenaz jabetzen asten ziran. Kepa Mirena ez zan orreitariko agobero edo berbalapiko ganorabakoa; berba urrikoa zan, baiña esaten ebana zentzuz eta zudugarria izanez gaiñera, bere buruaz nekez itz egiten ebanetakoa zan, baiña agiri zan egiñiko ikasketak emoten eutsoezan jakintza ta ezaguera.

Ez egoan beraz, bien arteko bekaldetzerik, eta Kepa Mirena gero ta begikoagoa billakatzen yakonez, Klemen'ekiko loturea eten egitea erabagi eban Gentzane'k. Olan ba, Igande bateko illuntzean etxera biurtzen zirala, indarrak baturik, Gentzane'k laguntzailleari auxe esan eutsan agurtzeko zorian zirala:

– Begira, Klemen, alkarrekin urteteari laga egin bear dautsagu. Ez txarizat artu auxe, Klemen, baiña nik ez zaitut maite, eta bion onerako, beraz, oba litzake gure arremonai eten egitea.

– Jakin daiteke, ba, neugan zer ikusi dozu olako erabagia artzeko...? Badira or bazterretan amaika neska nirekin pozik ezkonduko litzakezanak...

Orduan, gozotasunik andienaz, Gentzane'k,

– Egia da ori, Klemen –esan eutsan–, baiña jendeak ezkongaitzat artzen

asi gaitue, eta egia ez danari ez dautsagu biderik emon bear. Benetan mingarria yat au esatea, baiña guretzat onena da. Agur, Klemen, eta eskerrik asko nire alde egiñagaitik.

Klemen'ek furrustada bataz erantzun, eta asarre bitsetan alde egin eban, Gentzane'ri erabagia ulertu eziñik. Gabeko ozkirriak, baiña, bere senetara ekarri eban, eta atsekaberik andienaz oartu zan, "Bikain"ek bear ebazan aldakuntzarako, Gentzane'ren dirua bearrekoa zala. Zelan erosi bestelan, lantegia gaurkotzeko bearrekoak ziran langaillu barriak...? Dana-dala, uriburu aretan baziran beste neska polit batzuk eta aberatsak baita be, esaterako uriko alkatearen loba zoragarria... Zer uste izaten eban neskaazar itxurako Gentzane ezaiñak, bera lako uriko seme ospetsua uxatzeko...?

Astebete batzuk igaro ziran, eta bein baten, Kepa Mirena'k "Begilariak" taldeko nagusiaren deia artu eban. Itundu izan zan, Klemen'eri buruzko edozein barri jakitean, jakiñerazoko leuskioela.

– Aizu, Kepa Mirena Jauna –esan eutsan ango nagusiak–, aspaldi onetan Klemen'ek eten egin dauz Gentzane'kiko arremonak, eta orain alkatearen loba batekin agirian dabillega jakin dogu. Badaezpadakoan jakiñerazo nai dautsugu zeatz ori.

– Eskerrik asko, eta jarraitu Klemen'en gora-beerak zelatatzen.

– Olan egingo dogu, Jauna.

Luzaro samar gogoan izan eban Kepa Mirena'k, zelako jokabidea erabili leuken Gentzane'ri buruz. Izan be, ez eban neskatileganako erakarpen andirik oartzten, eta orduko Klemen'eri neska kendu egin eutsala esan zeitekean, baiña egoera aretan Gentzane'ganako arremonak eten egingo ba'leuz, Klemen'ek jakitekotan ez litzake biurtuko neskeagana...? Arazoari merezitako ardurea emonda gero, Gentzane'rekin jarraitzea erabagi eban, baiña larregi lotu barik. Berak eretia egokitzen uste izan baiño ez, ostenduko litzake, eta kitto.

Olan ba, azaleko arremonak izaten jarraitu eban, bere burua larregi bear tu barik. Gentzane'k, baiña, Kepa Mirena gero ta ederretsiago eban, eta Igande eder baten mezatatik etxera laguntzen eutsala, neskatileak auxe esan eutsan:

– Eguraldiaren ederra...! Atsegiña litzake benetan, itsasaldetik egurasten ibiltea..

– Ori erraza dozu. Lagundu dagitsun baiño ez dozu besterik esan bear Klemen'eri.

– Klemen'ek nire laguntzeari uko egin dautso aspaldi onetan.

Kepa Mirena'k ondo ekian gauza zan ori, baiña ezjakiñarena egiñez,



– Zer ba, geisorik-edo aurkitzen da...?

– Ez, baiña lotura sendorik ez danean, bakotxak bere askatasuna naiago...

Argi egoan egun aretan Gentzane'ren naia zein zan, eta zakartzat ez azaltzearren, arratsalde aretan itsasaldetik ostera bat egiteko lagunduko leuskiola esan eutsan Kepa Mirena'k, eta Gentzane'k pozik onartu eban.

Arratsalde zoragarria azaldu zan, itsas-ertzetik joiazala aizeñoak eta ugiñen urrumak inguraturik. Gero, ondartza-ondoan askaria izanda, illuntzean urirako trena artu eben. Esana dan lez, Kepa Mirena itz urrikoa zan, baiña gauzak azaltzeko doai bereiziaz ornitua. Arratsalde aretan, Gentzane'ren itaunai erantzunez iñoizkorik edegien asazkatu zan, berari buruz guztitariko argibideak emonez. Lengo bere bizitzaz, baiña, ez eutsan azalpen andirik emon gura. Gurasoak aspalditik il egin yakozala, eta ikasketak lanaren bidez burutu izan ebazala baiño, beste gora-beerarik ez eutsan emon gura.

Gau aretan alkarri agur esatean, Gentzane'ren urre-begietan argi bakana ikusten zan, eta ezpanetan gozotasun ez-oitua. Ostatura biurtzean, bere buruari iñotsan Kepa Mirena'k, azaletik zirudian baiño atsegiñagoa zala Gentzane, eta neskazarraren itxureari uko egingo ba'leutso, askozaz erakarkorragoa azalduko litzakela. Edozelan be, arratsaldea uste baiño atsegiñagoa billakatu izan zan, baiña aurrerantzean kontuz ibilli bearko, arremon areik estuegi lotu ez zeitezan, egunen bat etentzeko ba'ziran.

Eta norberak oartzeke oiturak sortzen diran lez, arrezkero, Jaieguneko arratsaldeetan alkarrekin urtetan asi ziran, batzutan egurasten ibilteko, edo-ta kinetxe batera eguraldia txarra zanean. Gero, kafetegia bateko mai-aurrean askariari ekin bitartean, kontu-kontari...

Gentzane'gan lotan egoan arimea oartzeke itxarten asi zan, eta gaindegietako edurraren antzera, Kepa Mirena'ren eragintzapean bere gogoia lurmentzen asi zan. Itxarkunde onetan, Gentzane'gan ilduratu egoan olermena borborka isurtzen yakon, asiera baten leun-leun, baiña gero ta indartusago, mendietatik datorren uren joaira oldartien antzera. Argi barripean, neskearen urre-begiak arimaren ispillu yaukalak biurtzen asten ziran, eta lengo betsein motel bizibakoek, orain izarrak bai'litzazan olermenaren aintza isurtzen eben parrastaka. Maitasuna norberaren naimenaz jabetzen dan lapurra da, eta Gentzane oartu zaneke zearo maitemindua zan. Aspaldi zoragarria asi zan berarentzat, dana edertasunaren argipean ekusala. Maitasunak maitasuna eskatzen dau ordaiñez, eta Kepa Mirena'ren maitasuna jaristeko, eskura eban bide guztiak erabilten asi zan urrezko begien neskatillea.

Ama beti aalegindu izan arren, Gentzane'k ez eutsan bere apaintasunari iñongo ardurarik emon, eta ordurarte lekaimeen ikastetxetan neskatillek daro-

en itxura berbera erabilli izan eban, baiña orain, maitasunaren eragintzapean, bere buruarekiko ardurea gainbeera aldatu zan, eta maite izaten ebana erakartearren, bideak asmatzen asi be. Lengo janzki ganorabakoak bein betiko baztertu ebazan, eta amaren pozerako joskillerik onenetan janzkiak agindu, oiñetako dotoreak erosi, eta beiñena zana, billo naro zirikotsuak orrazkille bikain baten ardurapean apaindu. Baiña beragan aldakuntzarik agiriena, aurpegian sortu izan yakon bizitasuna zan. Dizdir zoragarriaz ederturiko begiai gazte-diaren erakarpina erien, ezpan gorri biziak udabariaren loratasun zolipean zabaltzen ziran, eta matraillek zuri-gorritasun yaukala erakusten eben. Onezaz gaiñera, maitasunaren eragintzaz bere irudiaren jasak eta azkai ederrak erakarpen jarki-eziña emotsoen.

Jaiegun bateko arratsaldean Kepa Mirena begira egoala, Gentzane kale-ratzean, mutillari une batez arnasa gelditu yakon. Beraganantz etorren neska liraiña izango ete lengo neskazaar ezain eta erabetia...? Gentzane ikustean bere buruari autortu bear izan eutsan Kepa Mirena'k, ezin egikeala ulertu, zelan lengo ezgauzatik orain lako bitxia sortu zeitekean. Oartzeke, mutillak ezin eban ezkutatu ederrespeneko keiñua, eta au ikusirik, Gentzane'ren matrail leunak lotsa-gorritu ziran. Arratsalde ederra billakatu zan, eta Gentzane'k gero ta zentzudunagoa zirudiala oartu zan Kepa Mirena. Izan be, neskatillea ez yakon len baizen aspergarria gertatzen, eta arratsalde aretako egurastaldian, Gentzane'ren ezpanetatik dilindan egon zan, neskeak iñotsana irribarrez entzuten ebala.

Gau aretan ostatura biurtzen zala, Gentzane gero ta erakarkorragoa billakatzen yakola oartu zan Kepa Mirena, eta ezustean, atsekabe lako sentipena beratzaz jabetu zan, arremon areik egunen baten amaitzera epaituak zirala oartzean, eta ori dendua galtzeko arriskua izango ez ete, bere buruari esaten asi yakon. Oean etzanda, mutillaren gogora etorri yakon, onena izango ez ete, atzerrira joan bear izango leukelako atxakiaz, aspaldi batez Gentzane ez ikusi. Baiña erabagi sendoa zirudiana ezerezean geratu zan, atxakia ipinteko orduan Kepa Mirena'ri adorea uts egiten yakon-eta. Edu onetan, bere naimenaren aurka bazan be, oartu barik Gentzane biotzerago sartzen yakon...



Goiz aretan, “Bikain” lantegira joan aurretik, Elene kafetxe batera sartu zan, oiko gosaria izatearren. Ogei ta zortzi urteko neska polita zan, eta izan be, oartzen asia zan, bere adiñetara ezkerro, ezin egikeazala ezkontzeko eretiak galdu. “Bikain” lantegian idazkinlariñea zan, eta baziran urteak lan orretan ziarduala, amazortzi urteko zala bearrean asi zanetik, alegia. Egun a aspergarria izango litzakio, urtea amaitzeko zorian izanik, amaibako imitorio-ari emonda iraun bear izango leukelako. Asperen bat jaurti ondoren, andik joateko zorian zala, mutil eder txairo bat sartu zan kafetxera, eta au ikustean, mai-zaiñak beste barik kafe-esne edontzi betea ta opil batzuk ekarri eutsazan. Bere buruari esan eutsan Elene’k bezero ezaguna izango zala, antza, eta barruko zerbaitek eraginda neskeak itxaron eban.

Mai-ondoan jesarrita, gosaldur bitartean gazteak egunkaria irakurten ziar-  
duan. Elene’k ez eutsazan begiak kentzen, eta berekiko iñoan gazte arek ez-  
gunaren antzeko zerbait baebala, eta beste iñon ikusia izango ez ete. Mutil  
ederra zan benetan, bai jasaz bai aurpegiaren karantzez be. A lako senarra lor-  
tuko ba’leu, bizitzaren zoriona...! Une aretan, gosaria amaituta gaztea zutun-  
du zan, eta mai-zaiñari,

– Aizu, Martin –itaundu eutsan–, zenbat zor dauzute...?

Abotsa entzutean, biotz-ikara batek astindu eban neskea, bein eta barriro  
bere kautan iñoala, mutillaren mintzoa lendik ezaguna yakola. Gaztea urten  
zanean, kalean beera jarraitu eutsan Elene’k, eta ibilli ebillela gero ta ziurra-  
gotzat eban lendik ezagutu izatea. Noizbait, bere lantegira joatearren Elene  
saiestu zan, eta luzaro barik, idazkiñaren aurrean atzamar-eragiteari emon  
eutsan.

Elene entzumen urtenekoa zan, eta bein mintzo bat aditurik, oroimenean  
betirako irarrita gorde eroian. Goiz aretan imitorio aspergarria idazkiñean jar-  
ten ebala, lan aretatik urrun ebilkion gogo. Nor izango ba, goizean ikusiriko  
mutil ederra...? Ustekabez, tximistaren antzera irudi bat gogora etorri yakon...  
Bai, Kepa zan, lantegian bertan jardun izaniko eta lapurtzat giltzapetu eben  
Klemen’en orduko laguntzaillea. Onetzaz oartu zanean, Elene’ri biotza taupada



zorotan asi yakon. Mutil ederra zan Kepa, "Laubegi" esaten eutsoen mutilla, eta ordutik zortzi urtebete igaro izan arren, bere jas eta azkaia betikoa zan. Ain zuzen be, mutillak ez erabillezan orain aspaldiko betaurreko itsusi merke areik, baiña Elene'k baekian azkenengo aldietan betaurreko itsusien orde, begi-eras-kiak erabilten zirala. Zalantza barik, ordezte onek mutillari aldakuntza andia emon izan eutsan aurpegira, beste bat iruditu arteraiño, izan be. Gogora etorri yakon orduan, Kepa'ganako beti erakarpen andia oartu izan ebala, eta batek-baki jazoera negargarri a jazo ez ba'litz, noraiño elduko litzakean bion artekoa... Dana-dala, ziurtasuna sendotzeko, neskeak zelatan astea erabagi eban, eta gero ikusiko litzake.

Erabagi oneri jarraituz, Elene goizoro kafetxera sartzen zan, mutilla joian ordu berean, eta onen maitik ur samar jesarrira, ez eutsazan begiak kentzen, eta entzumena batez be ernai, ez ebazan galtzen gaztearen berbak. Laster oartu zan Elene, mutilla Kepa berbera zala iñongo ezpaibarik, eta onekiko gero ta zaletuago, bein baten uste izan eban bazala garaia ekintzeari emoteko.

Goiz aretan, gosalduta gero Kepa Mirena Arango'rako trenan artzearren kafetxetik urtetan zanean, atzetiko mintzo batek,

– Aizu, Kepa...! –esan eutsan.

Mutilla biurtu zan, eta bere aurrean Elene ikusi eban. Baziran egunak Kepa Mirena'k neskea kafetxeko leku berean ikusten ebala, norbaiten begira bai'legoan. Asiera batetik ezagutu izan eban aspaldiko "Bikain"en idazkinla-riña, baiña onek ezagutuko ez ebalakoan, ez eutsan beste jaramonik egin. Orain, baiña, bere alboan jarrita Elene'k irribarretsu begizatzen eban, eta igesbiderik ez ebala oartu zan. Une aretan bertan, neskeak,

– Baiña Kepa –esan eutsan–, ez al-dozu "Bikain"eko idaztegiaren zurekin ziarduan Elene ezagutzen...?

– Bai, ezagutzen zaitut.

– Ara... kafetxean lenengoz ikusi zindudazanean, nire buruari auxe esan neutsan: "Orra or aspaldiko Kepa, len "Bikain"en ziarduana".

– Dirudianez, espetxetik urtenda gero, arazoak polito doatzuz, ezta...?

– Ezin dot ukatu ori.

– Ai mutil, mutil...nork esango, antxiñako betaurrekun mutilla orren gizon dotore ta jas onekoa biurtu zeitekeanik...! Ziñisteziña, edonoregan betaurrekoek sortzen daben aldakuntza arrigarria...!

Saietsetik mutillaren begietara so egiñez,

– Izan be –jarraitu eban–, ez zaitut ezagutu abotsaz baiño, eta zure lenen- go itzak aditu baiño ez, antxiña bateko Kepa zintzazala begitandu yat...

– Barkatu, baiña ni ez naz Kepa, Kepa Mirena baiño –zeozer pipertuta esan eutsan mutillak–.

– Barkatu, mutil, eta ez zaitez orren prakerre azaldu. Esan gura dodana auxe da: itxuraz zearo bestelatu arren, nire entzumenari esker, "Bikain"eko aspaldiko mutil begikoa zintzazala, beingoan oartu naz.

Une batez isildu zan Elene, eta gero mutillari lilluratsu begiratuz,

– Benetan, Kepa .. barkatu Kepa Mirena –esan eutsan–, atsekabe itzela artu neban ezbear zital a jazo zanean. Ezin nengikean siñistu erruduna zintzakezanik, eta arrezkero zuzenbagekeriaren oparizat izan zaitut. Epaiketa arek zelako naigabe andia ekarri eustan jakingo ba'zendu...!

Ona eldurik, Elene'ri asperen luzea iges egin yakon. Kepa Mirena'ren ezpanetan, barriz, zirta-irriñoa agertzen yakola, bere kautan auxe iñoan: Neska gaixoa... atsekabe esan-eziña nigaitik jasan, eta espetxeko bost urtebete areitan beragandik itz bat bera be artu barik...!"

Neskearen zurikeria uxatzearen, mutillak auxe esan eutsan:

– Esan, Elene, ondiñokarren "Bikain" lantegian diarduzu...?

– Bai, antxe nozu idazkiña jo ta jo.

– Zelan dabiz arazoak orain...? Len Euzkadi'ko onenatarikoa ei'zan...

– Ugazakak ez dausku gora-beera andirik emoten, baiña ba'dabiltz zurrumuru ugariak aspaldi onetan.

– Zelako zurrumuruak...?

– Ba... zarata txarrak entzuten dira ortik "Bikain"eri buruz. Edozelan be, lana gitxitu yakula ezin ukatu daiteken gauza da, baiña azken baten dana atonduko ei'da.

– Zelan ba...?

– Klemen gure ugazaba, alkatearen loba batekin ei'dabil, eta au egia izatekotan...

Edu onetan ziarduela, lantegira joatearren Elene'k saiets-bide bat artu bear ebala-ta, gazte biok alkarri agur esanda, aldendu ziran.

Egunoro kafetxean gosalduta gero, Elene Kepa Mirena'ren alboan jarten zan, eta bide-zati batez alkarrizketan joiazan. Kepa Mirena'ri ez yakon bape atsegin neska txatxalaren autu uts eta koipetsua. Onezaz gaiñera, Elene gero ta berba labanagoko azaltzen zan, mutilla asetzeraño izan be. Bildur zan, neskeak "Goiena" errediza-baltzuko jabea zala jakin egian. Onezaz gaiñera, Elene'k beraganako zaletasuna ezkututzen ez ekianez, noizbait, arremon areik bein betiko eten egitea erabagi eban Kepa Mirena'k. Egun baten, beraz, oiko kafetxera joateari uko egin eutsan, eta Elene'ren bizitzatik ostendu zan. Ain zuzen be, aspaldi aretan baeban zeri eldu Kepa Mirena'k.



Erti-gintzaren saillak berak uste izaniko baiño askozaz geiago emoten eutsan. Txinbo'ren edo orain Laurentzi'ren zuzendaritzapean, ogei langille trebek ziarduen guztitariko kutxak, maiak, arasak, aulkiak, oeak etab. egiñez. Erti-kutxak batez be, arrakasta andikoak azaldu ziran, eta atzerritik be eskaerak etorkiezan. Gintza-sail onek "Goiena"ri ekarkion mozkiñari esker, aspal-diko asmoa egi biurtzeko zorian zan Kepa Mirena. Esandako obariaren bidez, erredizen multzo-gintzari adorerik andienaz emon eutsan, bearrezko elektroidun langailluak erosirik. Augaitik, bidaldi ugari egin bear izaten eban atzerri-  
ra, sail onetako gintza-gaillurik barrienak erostearren, eta olan, erti-saillak emotsan ekoizpenaren bidez, multzo-gintzaren saillarik onenetariko lortu eban.

Eldu izan zan aspaldiko asmoari ekiteko garaia, eta bere aginduari jarraituz, "Goiena"ren ordezkariak leku guztietatik sakabanaturik, gaien sal-sariak leikideenak baiño merkeagoak eskintzen ebezan. Auxe agindu eban Kepa Mirena'k batez be: zelan edo alan "Bikain"en sal-sariak baiño merkeago saltzea, eta iñongo atxakiaz agindu bat bera be ez galtzea. Onen ondorioz, asiera baten multzo-gintzak ez eutsan irabazte andirik emon, baiña aldiaren bidean gora ta gora etozan aginduai aurre egiteko, gintza-gaitasuna egokia izanik, sail au mozkiñak ekarten asi zan, gintza-domuak beerantza joiazan giñoan.

Klemen, baiña, "Goiena"ren leikidetzari jarki yakon, eta erredizak gero ta merkeagoak saltzen asi zan bera be. Au jakitean, poztu zan Kepa Mirena, Klemen bera baizen ondo burrukarako gerturik ez egoalako, "Bikain"en tresnak askozaz zaarragoak ziran-eta. Sal-sarien burruka iñongo barealdi barik aurrera joian, eta aldiaren bidean, Kepa Mirena'k irabazte politak egin bitartean, gero ta bildurtiago aurkitzen zan Klemen, aitagandik yarauntsiriko baltzua pikotarako bidetik lerratzen zala ikustean batez be, baiña ez leuke amor egingo, ez orixe...! Baebazan aitagandik yarauntsiriko baso ederrak, ariztiak batez be. Klemen zaarra gizon zuurra izanik, aldi areitan egindako mozkiñakaz baso eder batzuk erosi ebezan, eta augaitik, aren semeak leikidetzari aurre egiteko gai zala uste izan eban, orretarako baso-saillen bat saldu bear izango baeban be.

"Bikain"en jabeak baiña, berarentzat urtenbiderik ez egoala ez ekian, bera etenbarik galduz joan bitartean, "Goiena"k erti ta multzo-gintzari esker, irabazte andiak egiten ebazalako. "Bikain" baltzuaren egoera estuari aurre egitearren, Klemen'ek aitagandik yarauntsitako areizti ederrak saltzen asi bear izan eban, eta galpenen zulo asekaizak banan-banan lengo obariak irun-tsi ebezan. Olan eta guzti be, baso-salketa oneik, ez ziran naikorik azaldu, eta Klemen'ek baltzuaren izaeraren lenengoz, erositako len-gaien ordaintza gero-

ratu bear izan eban. Ekintza onek, baiña, gatx andia ekarri eutsan; ornitzaille-en uste ona galtzea, izan be, eta onen ondorioz lengaien urritasuna. "Bikain"en egoerea eutsi-eziña azaltzen asi zan, len-gaiak ezinbestekoak ziran-eta. Noizbait, gaiak eskudiruz erosi bear izan ebezan eta kinka larri oneri aurre egiteko, bere azken basoa zan Lardigane'ko ariztia salgai ipiñi eban. Arizti eder au, yarauntsiriko ederrena, bitxi bikaiña zan, gitxitan ikusten danetarikoa. Ariztia eun urte baiño zaarragoa zan, eta ango tantaiak oso ederre-  
tsiak.

Kepa Mirena ta Manu'ren arteko adiskidetasunak, betikoa edo areago izaten jarraitzen eban, eta "Goiena"ren lege-arazoak Manu'k erabillezan, bal-tzu-legetako arloan bereizlaria billakatu izan zan-eta. Augaitik, ba, gazte bion arremanek iñoizkorik lotuen ziraue. Bein baten, eguneko lana amaituta, Kepa Mirena lantegitik urteteko zorian zala, urrutizkiñez dei egin eutsan Manu'k, auxe iñotsala:

– Aizu, Kepa Mirena, jakin-barri dot, Klemen Lardigane'ko arizti yauka-la saltzeko asmotan dala. Zer deritxazu erosteari...?

– Orren aurretik, baso-sailla ikusi gura izango neuke. Ara... biar goizean urreratuko naz, eta orduan ikusiko dogu. Zenbatean saltzen da...?

– Oraingoz ez dakit, baiña biar jakingo dot, eta arratsaldean zeuk ariztia ikertu ostean, dei egingo dautsut barrero, eta sal-saria jakinda, zeuk erabagiko dozu.

– Ederto, Manu, biar arte ba.

Urrengo egunean, Arango'tik ogeitsu kilometrora egoan Lardigane'ko ariztia ikustera trenez joan zan Kepa Mirena. Aspaldi aretan, ertiko zurlanak lortu izan eban garrantzia zala-ta, "Goiena"k zur ugaria bear izaten eban bezeroen aginduai aurre egiteko. Izan be, erti-saillak gorakada itzela artuta, kutxetan batez be, areizkia ezinbestekoa zan, eta egur orren urritasunagaitik, batzutan zailla gertatzen zan bearrezko len-gaia eskura izatea. Augaitik ba, Kepa Mirena ez zan aiko-maikotan ibiltzen erosteko orduan, dalako egurra ona izatekotan batez be.

Iru ordu erabili ebezan Lardigane'ko arizti bikaiña aztertzeke, eta iker-  
raldia amaituta, bere buruari esan eutsan aaleginduko litzakela zugaitz-sail ederra erosteko. Baso garbia izanez gaiñera, tantai lodi, urtetsuakaz osotua zan, eta bere ainbaketearen arauz, urtebete bitako areizkia lortuko leuke sail aretatik, eta beraz, iñongo buruausterik bage, aspaldi luze baterako. Jakiña, azken baten sal-sariari begiratu bear izango yako, baiña karuegi ez izateko-  
tan...

Gogoeta oneitan, Lardigane'tik ur samar egoan jatetxe baten bazkaldu,



eta astirik galtzeke lantegira biurtu zan arrasterdian. Andik laster, Manu'rekin urrutizkiñez ziarduan.

– Ta, Kepa Mirena, zer deritxazu Lardigane'ko ariztiari...?

– Ederra benetan, Manu. Eskatzen daukuen sal-saria astakeririk ez ba'lit, erostekotan nabiltzu.

– Banekian baiña zala. Niketz, Klemen'en bitartekoaz mintzatu naz goizean, eta sei milloitan salgai dala, eta ortik ogerleko bat bera be ez dauala gitxituko, eta gaiñera, esku-diruz ordaintzekotan, bestelan saltzerik ez. Ariztia ikertu ondoren, zeuk esango daustazu erosteko ala ez.

Une batez isillean ainbaketa ariña egin ostean, Kepa Mirena'k auxe esan eutsan:

– Sal-saria ez da makala, baiña ariztia gitxitan ikusten diranetakoa da, eta nire zenbakien arauz, urte birako areizkia izango dogu iñongo buruauste barik.

– Orduan zer...?

– “Goiena”ren ordezkaria zaran aldetik, biar bertan dalako bitartekoarekin arremonetan asi, eta dagokigun ituna egingo dozu, ezaugarritzat oiko eunkala jarritz. Enparaua aste biren buruan ordainduko dogu, dagokigun agiria baratariaren aurrean egin daitenean.

– Ederto, Kepa Mirena, olan egingo dot. Agur.

Kepa Mirena'ren poza neurribakoa zan. Une aretan ez eutsan jaramon andirik emoten ariztiari berari, ezta onek baltzuari ekarriko leuskion onureari be. Ain luzaro irrikaturiko apentza urreratzen zan uxa-eziña, errudun zitalak bere bizitzeari ekarri izan eutsan ondapena ordaindu egian. Espetxeko zulo izugarrian buruturiko asmoa urratsik-urrats bete egiten zan, eta luzaro barik “Bikain” errediza-baltzuak pot egiñik, Klemen doillar eta zirtzillak ondasun guztiak galduko leukez. Baekian Kepa Mirena'k, lapur-laidoaz espetxera sartu ebana estu ta larri ebillela. Bere zorrak ordaintzeko, banan-banan baltzutik-at jabetzen ebazan ondasunak, saltzera beartu izan zan, eta orain, Kepa Mirena'k berak, “Bikain”go ezain, aztu, laidotuak, aspaldiko ugazaba ondapen-bidera eroanez gaiñera, jabetzen eban azken ondasun-zatia erosten eutsan areago ondatu zeiten...

Atsegiñezko sentipen batek artuta, Kepa Mirena'ren ezpanetan irribarre bat agertu zan. Baiña ez ori bakarrik... Ondatuz joian diru-zulo larritik urtete-ko, berak, aspaldiko “Bikain”go “laubegi” txatxarrak, irrikatzen eban neska aberatsa kendu izan eutsan, eta orain urrezko ereti ori galduta or nonbait ebillen beste neska aberatsaren atzetik, azken aalegin zoroan atontze-biderik ez ebana gaizkatzearren. Bere oldozkuna ona elduta, gogora etorri yakon

Gentzane'ren irudi yaukala, ezpanetan oi eban irribarre lilluragarria, eta urre-begietan argi bizi gozoa...

Izan be, Klemen zitalari neskea kenduta, bazan ordua au alde batera laga ta betirako aztu egian. Bein jo-mugara eldu ezkerro, zertarako alperriko arremonetan jarraitu...? Mendeku-egarria asetzeko erabilli izan eban Aldagan aberatsaren alabea; garaia zan, beraz, gauzak lengora biurtu zeitezala. Kepa Mirena'ri, baiña, ez yakon bururatu olakorik... Berak ez baekian be, Gentzane'ren urre-begietan kokatzen zan arimaren argia, oartzeke bere izate guztiaz jabetzen asi izan zan, eta neskatillea urreratzen yakonetan, palmondoa baizen lerdena zan aren irudi yaukalpean, iñoiz ez ezagaturiko zorion bakana naz otseinduta sentitzen zan.



Baziran egunak Elene'k Kepa Mirena ez ekusala. Asiera baten uste izan eban geisorik-edo izango ez ete, baiña aldia igaro-ala, mutillaren zantzurik ezean kezka andia beratzaz jabetzen asi zan, eta noizbait, irrikak eraginda, Kepa Mirena'ri buruzko argibideak billatzen asi zan. Bajoiakiozan urteak, eta garaia zan ezkontzeko, bestelan... Asiera baten, egunoroko alkar-ikuste areik zorion-uneak billakatzen asi ziran Elene'rentzat, mutilla gero ta kutunago ebala. Sentipen onek eraginda, berba labanakaz itz egiten asi yakon, eta minzoz esaten azartzen ez zana, begiakaz adierazoten eutsan. Len esan dan lez, aseturiko Kepa Mirena'k alkar-ikuste areik autsi egitea erabagi eban.

Mutillaren urrutiratze onek, ez eban besterik ekarri Elene'ren irrika baiño, eta kafetxeko morroiaren bidez jakin eban, egunoro Arango'ra trenez joiala. Au jakiñik, "Bikain"en bere lana amaituta, arratsalde baten geltokira joan eta aulki baten jesarrita, trenen etorrerai itxaron eutsen. Noizbait, Kepa Mirena ikusi eban urrats ariñez urteten zala. Jarraitu eutsan, ostatua eban etxera sartu zan arte. Urrengo Igandeko arratsaldean, Elene ostatuko inguruetan begirari egoala, Kepa Mirena urteten ikusirik, jarraitu eutsan. Luzaro barik etxe apain batera elduta, txiliña jo, eta andik laster neska eder dotorea urtenda, Kepa Mirena'rekin batu, eta kalean beera egurasten joan ziran. Atsekabe bizi az Elene'ri biotza biurrikatu yakon, eta bikotearen atzetik, kafe-tegi batera sartzan zirala ikusi eban. Zer egiterik ez eban ezkerro, alde egin eban bekaitz neurribagepean etxera biurtzen zala.

Urrengo egunetan, bekaitzak iruntsita iraun eban zer egin ez ekiala, eta urrengo Igandean, bardin, Gentzane'ren etxe-ondotik begirari egoala, bikotea barrero ikusi eban kalean beera joiala. Une aretan, neskeari begiratzuz Kepa Mirena'k irribarre egin eutsan. Irribarrearen gozotasuna...! Bekaitzaren amorrua ezpata baizen mingarria oartu eban barrueneraño, eta zoratuta, kaleetan zear norabarik abiatu zan. Noizbait, uriko egurastegian zear joiala, aulki baten jesarri, eta bere gogoetak zeozer bareturik, arazoa otzean aztertzen asi zan. Alako baten, bere naasiriko oldozkuntan, gero ta biziago biurtzen zan oldozkun bat sortu zan. Bai, berak Kepa Mirena'ren antxiñako ezkutukia ezagutzen



eban, eta onek alde andia emotsan. Alanbearrak, iskillo indartsua eskuetan ipinten eutsan, eta ondo erabili ezker...

Aste oso aretan, gero ta argiago ekusan arazoaren trikimailluari emon eutsan Elene'k ardurarik andienaz, eta dana gerturik egoanean, lege-bitarteko bategana joan, eta auxe esan eutsan:

– Jauna, orain zortzi bat urte uri onetako auzitegian ikusi zan Orueta'tar Kepa Mirena dalako baten aurkako auzi-agiriaren zenbakia jakin nai dot.

– Biar bertan jakiñerazoko dautsut. Orretarako, baiña, auzitegiko morroiari, eskupeko naikoa andia emon bear izango dautsat. Augaitik, eta nire bitartekotasuna dala-ta, aurretiaz bost milla laurleko emon bear daustazuz.

– Ona emen. Eutsiz.

– Ederto. Biar bertan ordu onetan zatoz ona, eta nai dozuna emongo dautsut.

Itunduta lez, Elene urrengo egunean biurtu zan, eta bitartekoak txarteltxu bat eskuratu eutsan. Onetan auxe irakurri zeitekean: A-715/X.

Bere poza ozta-ozta menperaturik, Elene biurtu zan etxera, eta astirik galtzeke, ekintzeari emotea erabagi eban. Larunbat zan orduko, eta bere asmoetarako Astelena aukeratu eban, eta onen arratsaldean betebear laga-eziña ebala atxakiaz Elene'k baimena lortu eban, eta bazkaldu ondoren, Gentzane'ren etxe-inguruan zelatari jarri zan. Arratsaldeko erdi-aldean, Aldagandarren atea edegi, eta Gentzane urten zan. Klean beera joiala, Elene urreratu yakon, eta,

– Barkatu, andereiño –esan eutsan–, baiña benetan dagokizun arazo baten gora-beerak emon gura dautsudaz.

Gentzane'k txundituta begiratu eutsan, besteak zeri buruz ziarduan ulertu eziñik. Baiña azkenean,

– Ez dakit zeri buruz zabiltzan –esan eutsan–, ezta niretzat zudugarria izango ete dan be, baiña zeuk diñozun ezker...

– Bai, ziur naz garrantzitsua izango dala zuretzat. Ara... Badirudi aspaldi onetan Kepa izeneko mutil batek laguntzen daustuala.

– Arazo au ez dagokizu zeuri, ez beste iñori be. Gaiñera, dalako lagun-zaillea ez da Kepa, Kepa Mirena baiño. Au dana, niri bakarrik yatordan arazoa da, eta augaitik eskertu neuskizu bakean laga zakidazala.

– Barkatu, baiña etorri naiatzu, zuretzat garrantzi andiko arazoa dalakoan. Entzun egistazu, beraz, eta orduan jakingo dozu dagokizun ala ez.

Isildu zan Elene une batez esatekoak taituzeko, antza, eta,

– Dalako Kepa Mirena'ren abizena Orueta da –asi zan–, eta antxiña

baten ni nabillan “Bikain” errediza-gintzan ziarduan berak be. Aspaldiko eza-gunak gaituzu, beraz. Idaztegiko mutilla izanik, orduan Klemen, nagusiaren semearekin lan egiten eban, eta Kepa'ren ama, idaztegiak garbitzen ebazan zerbitzaria zan...

Ona elduta, Gentzane une batez ezpaitsu egon zan, neska arek iñotsanari jaramon emongo ala ez, baiña barruko zerbaitek bere naimenaren aurka, azkeneraiño entzutea beartzen eban. Gaiñera, gitxi ekian, izan be, Kepa Mirena'ri buruz, eta nai-ta ez, Elene'k iñoanak jakingarria zirudian.

– ... Ama-semeak –jarraitzen eban Elene'k– txapitela ezain baten bizi izaten ziran. Alkar oso atxikiak, arratsaldeko zeregiña amaituta, Kepa'k lantegian jarraitzen eban amari laguntzearren, eta gero biok etxeratzen ziran. Amari laguntzearren esan dot, baiña gero azaldu zanez, bazirudian dalako mutillak beste zerbaiten billa ziarduala...

Isillune labur baten ostean, Elene'k barriro,

– Bein baten, norbaitek diru-kutxatik ostu egiten ebala oartu zan Klemen, eta asiera baten siñistu eziñik, zelatari jarri, eta lapurra bere menpeko Kepa zala, jakin eban azken baten.

– Guzurre...! –oiu egin eban Gentzane'k– diñostazuna guzur ustela da...! Kepa Mirena ez da orreitariko lapur ziztriña...

– Mezedez, andereiño, entzun egistazu azkeneraiño. Badakit au dana mingarria billakatuko yatzula, baiña egiari aurre egin bear... Lapurrari buruz Klemen ziurtatu zanean, ertzaintzan salatu eban, eta ertzaindegira eroanda, bere soingaiñeko sakel baten, dirutan berreun milla laurleko ta Madrid'erako bidai-txartela idoro ebezan. Au dana, Klemen'eri oso mingarria gertatu ei'yakon. Egiztapenak oso larriak ziran, eta espetxera sartuta, andik iru illabetera auzia ikusi zan.

Une batez isildu zan Elene, begietan malkoak Gentzane zoratzeko zorian oartzen zala, neska aregandik iges egitea ala ez jakin barik. Indar ezkutu batek, baiña, azkeneraiño entzutea beartzen eban.

– Bai –jarraitu eban Elene'k–, noizbait A-715/X auzi-zenbakiko epaiketean egin zan. Dirurik ezean, Manu izeneko legegizonari Kepa'ren arazoa aldezte txandaz etorri yakon, baiña benetan aalegindu bazan be, azkenean Kepa'k milloi bitik gora ostu izan ebazala azaldu zan. Mustur-baltz izeneko epaikari ospetsuak erruduntzat jo, eta zortzi urteko espetxaldiz zigortu eban. Arazo larri ta mingarria guztientzat, baiña geien pairatu ebana Klemen izan zan. Zigorra gitxitu ekiola azkeneraiño aalegindu ei'zan, baiña alperrik, zuzentasunaren gupil indartsuak ez dau eten egiterik. Eta au bai patuaren ondore itzela... Andik laster, Kepa Mirena'ren ama naigabez il zan...!



Barrero isildu zan neska bekaiztia, oraindiño esateko peitzen yakonari, indar geiago emoteko-edo. Gero, astiro ta mintzo garbiz,

– Auzia amaitu zanean –jarraitu eban–, eta Kepa ertzaiñen artean auzitegitik urteteko zorian zala, Klemen ikusi eban, eta gitxi gora– beera aurpegira auxe jaurti ei’ eutsan: “Zeuk sartu nozu espetxera, baiña auxe ziñez dirautsut: lurpean bazengoz be, arrapatu ta zapalduko zaitut, eta aal dagidan kaltea egingo dautsut”.

Sukar-antzeko zerbaiten pean, Gentzane indarren mugan oartzen zan, eta erantzun aal izan eban bakarra, auxe zan:

– Ezin daiteke egia izan, ezin...!

– Eziña dala Kepa Mirena’k Klemen’eri eutsan gorrotoa diñozu...? Ara... Espetxetik urten zanean, Klemen zurekin ebillela jakin ebanean, gorrotoaren-gorrotoz, bere mendekua beteteko abagunerik onena zala ikusi eban. Zer eta aspaldiko ugazabari, Klemen’eri andra-gaia kendu ba’leutso...? Eta gaiñera, neskatiila aberatsa izanik ainbat oba. Bere gorroto itsuan bost ardura berari, zeu lako andereiño errubakoari ekarri legikiozan naigabe ta oiñaze bizia... Berea lako errakunde gorriak ez dau mugarik ezagutzen.

Barrero be isildu zan Elene azken ukaldia gertatzeko, eta,

– Orregaitik –jarraitu eban–, zeu lako uste oneko errubakoak garaiz jakin dagian egia, ori dana azaldu dautsut mutil zital alen ori zure aldetik jaurtiki dagizun...

– Guzurra, guzur utsa –didar egin eban Gentzane’k– ori zerorrek asmatua da...!

– Neuk asmatua, diñozu...?

– Bai, guzur utsa. Kepa Mirena lako gizon batek itarantzun daustazuna ezin egin, ez. Ori dana zeuk asmatua da...! Ken zaitetz nire albotik, suge gaizto ori...!

– Bai, banoatzu... baiña nik esana egia dan ala ez jakiteko, zergaitik ez zoaz auzitegira...? Gomutara ekarri auxe: A-715/X agiria. An datza apal baten autsez beterik, baiña atzoko egia aldarrikatzeko gerturik. Agur...!

Etz ekian Gentzane’k arratsalde aretan zelan eldu zan etxera. Gau osoa emon eban lo egin ezinik oe-gaiñean, batetik bestera etenbage iraulka, Elene’rez itzak maillukadak antzera entzuten ebazala. Ezin zeitekean egia izan, Kepa Mirena’k jasandako antxiñako epaiketea. Bera lapurra...? Bai zera...! Baiña barrero be arrenkura kendu-ezin a etorkion... Elene’k edesturikoa baeban egiaren itxura... Guztitariko gora-beera zeatzak emon eutsazan guzurra izateko...Orduan egirik izango ete, Klemen’eri neskea kentzearren beragana etorri izan zala, mendekua asetzearren...? Orren zitala izan leiteke

Kepa Mirena, aspaldiko zorra garbitzearren, neska errubako bat jostailutzat artzeko...? Izan be, arek ez eutsan iñoiz maitasunik autortu, baiña mutillaren begietan noiz edo noiz agertzen zan argia, eta ezpanen irribarre gozoa guzurra izan zeitekezan...? Baiña lapur bategandik beste jokaera zelan itxaron...?

Ezustean, baiña, izugarri ta otza, galdera auxe etorri yakon: zuk bera maite dozu, baiña berak maite izango zaitu...? Olan ba’litz, berak onezkero esango eutsun argi ta garbi, baiña olakorik ez dautsu iñoiz autortu. Beste guttia irudikeri utsa da, gogoaren asmakeri zentzunbakoa ... Zalantzok uxatzeko, zergaitik ez esanikoa egiztatu...? Erraza zan benetan... A-715/X auzi-agiria aztertu ta kitto. Zertarako burua autsi, orren erraz egiztatu zeitekeanean...? Apal baten zetzan autsez beterik, baiña egia aldarrikatzeko gerturik...Bai, goiz aretan bertan auzitegira joango litzake bein betiko egia jakitezaren.

Goiz aretan gosalduta gero, Gentzane auzitegira joan, eta ango morroi bategana urreratuta, auzi-agiri bat aztertu nai ebala esan eutsan. Morroiak bigarren maillan egoan agiritegira igorri eban. Agiritegi onen atean, mai-ondo bateko beste morroi bateri, bere guraria azaldu eutsan. Orduan, zerbizari onek,

– Barkatu, andereiño –esan eutsan–, baiña orretarako epaikariaren idatziriko baimena bearrezkoa da.

Gentzane’k eskuzorroa ikertzen ebalakoa egin bitartean, diru-txartel andi bat eskuratuta eutsan isillean. Morroiak arintasun itzelaz sakelera labandu, eta atea edegirik,

– Sar zaitkez barrura –esan eutsan–, baiña iñori ez esatekotan. Zein auzi-agiria ikusi nai dozu...?

– A-715/X. Orain zortzi urte inguru ikusi zana.

– Jesarri zaitetz, eta bereala ekarriko dautsut.

Mai baten aurrean jesarri zan Gentzane. Andik laster morroia biurtu zan, eta autsez estalitako lotuki bat maian lagata, utsa kendu ta askatu ondoren, Gentzane’rez aurrean jarrita, joan zan. Esku dardartsuz neskatiilea azala irauli, eta zauskada larripean irakurten asi zan.

Irakurketeak ordu bete bi iraun eban, eta isiltasunik andienaz inguratuta, astiro ta zeatz aztertu eban auzi-agiria. Amaitu ebanean, amar miñutuko irakurtaldia izan zala begitandu yakon Gentzane’ri, baiña arrezkero eguberdia zan. Lur-jota aurkitzen zan neska gaixoa, eta begiai malkoak mara-mara eriezala, une luze batez jesarrita iraun eban. Argi ta garbi lapurtzat agertzen zan Kepa Mirena, baiña au larria izanik be, ez zan geienik mindu ebana... An agertzen ziran Klemen’en aalegiñak Kepa Mirena errubagetzeko, naigaberik andiena ekarkion. Ostuta izan arren, agiri aretan ondo azalduta etorren zelan Klemen’ek bein eta barrero mintzatua zan, bere menpekoaren errua gitxitea-



rrren. Argi ez bazan be, itz-erdizka orri areitan morroiaren nagusiaganako etsaikeria adierazoten zan, eta izan be, ordaintza zitala, bere menpekoaren alde orren zintzo jokatu ebanarentzat.

Eta orduan, agiritegiko isiltasunak inguratuta, ondorioen mataza askatzen asi zan Gentzane. Espetxetik urtenda gero, gorrotoak eragindako Kepa Mirena'k, zelan edo alan Klemen'eri aalik eta kalterik andienaz ordaintzea erabagi izan eban. Orretarako, Klemen'en gora-beerak aztertu ebazan, eta berarekin, Gentzane'kin, arremonetan ebillela jakin ebanean, eretia elduta erabagi eban Kepa Mirena'k, eta bere itxura ederraz baliaturik, aspaldiko ugazabari neskea kendu eutsan, bost ardura emonik errubako bateri lekarkio-ken atsekabe andia. Olantxe zan bere biotzaz jabetu izan zan gazte zital alena... Jostailutzat artu izan zan, gazte zital batek bere mendekua asetu egian, ardurarik emoteke, biotz bateri ekarkion ondapena... Bai, urte luzeetan zear espetxean izandako lapur baten oparia, amuan untzaturiko amuzki ezaiña billakatua zan, lotsabako batek apentza-egarria asetu egian...

Garaia zan leku isil eta itzaltsua izteko, eta malkoak txukaturik, Gentzane kalera urten zan. Udabarriko egun eder arek margo biziakaz dana apaintzen eban, eta bizitzaren olerkia nonai aditzen zan. Begietara etorkiozan malkoai eutsirik, iñork ikusi ez egian aalik ariñen abiatu zan etxera, eta ona elduta, negar baten oe-gaiñean amildu zan zotiñek astinduta.

Bazkaltzera ez etorrela ikusirik, ama gelara joan yakon, eta alabearen negarrek kezkatuta, burua laztantzen eutsala,

– Baiña nire alabatxua –esan eutsan–, zer dala-ta olan negar egiteko...?

– Atzipetu nau, ama... Jostailu baten antzera erabilli nau aspaldi onetan, bere apentzaren egarria asetzearren.

– Zer diñostazu, Gentzane, nor atzipetu zaitu...?

Negar-zotiñen artean, amari gertaturikoa edestu eutsan neskeak, eta amaitu ebanean,

– Lotsaturik nozu, ama –esan eutsan–, lapur ziztrin baten oparia izan naz. Gorroto utsaz, iñongo arrenkurarik bage nitzaz baliatu da Klemen ongillea zigortzeko. Ama, badakit beste munduko neskatilla ez nazala, baiña batzutan itxura bakanaz begiratzen eustala iruditzen yatan... bai, biotz-ondoraiñoko zorionez bete ninduan begikada irribarretsua. Bestetan, bazirudian niri berba egitean mintzoa dardar egiten yakola, baiña dana guzurra billakatu da. Ama, ezin dagiket ulertu gizon bat orren zitala biurtu daitekenik...

– Dana argituko da, Gentzane. Txukatu egizuz malkook, eta goazen bazkaltzera, ordua da-ta. Baretu zaitezanean, gauzak beste ikuspegi batetik ikusiko dozuz.

Baiña jangar eta nakar, abokada batzuk ozta-ozta iruntsirik, Gentzane jagi zan, eta besaulki baten jesarrita, gogoeta itunpean utsari begira geratu zan. Ama urreratu yakon, eta,

– Aizu, Gentzane –esan eutsan–, ezin dot jasan zu itxura orretan ikusi. Zeozer egin bear dogu. Begira, Kepa Mirena etorri dakizunean...

– Ama, ez dot bera ikusi gura, naikoa iraindu nau-ta. Zeozer egin bear dogula diñostazu, eta zuzen zagoz. Alde egingo dogu emendik.

– Nora, baiña...?

– Itsasaldeko gure landetxera, ia olan aren aztarna iguingarria gogotik ezabatzen yatan...

Arratsalde aretan bertan, abiamenak eginda, ama-alabak urrengo egunean itsaldeko bidegiteari ekin eutsoen. Urteteko zorian zirala, Gentzane'k atezaiñari idazki bat eskuraturik, auxe esan eutsan:

– Bera datorrenean, eskutitz au emon egiozu, eta zeozer itaunduko ba'leutsu, txango bat egitera joan garala esango dautsazu.

– Bai, Gentzane Andereñoa.

Ama– alabak taxi bat artu, eta andik ordubete ta erdira, udea emoten eben landetxe bikaiñera eldu ziran. Etxe au, umebako senar-emazteek zaintzen eben. Sasoi aretan, udatar bako erria baketsu ta atsegiña gertatzen zan, itsas-ertzeko egurastegi ta zidorrak utsik agertzen zirala. Udabarria izanik, lorez eta txoriz beteriko errixkako bazterrek erakarpen berezia erakusten eben. Giro atsegiña, izan be, egurastuteko, eta olan egin eban Gentzane'k, batzutan itsas-ezpondan zear sare baten antzera millazken artean edatzen ziran bidexkatatik ibilliz, edo tarteka, an jarritako aulkiren baten jesarrita, kadenaz beteriko urre-begi andiak itsas-zeruko mugan ipiñita. Besteetan ondarra zapalduz, ler egiten eben ugiñen miazketea oartu arte.

Baiña gogotik kendu gura ebana, ezin uxatu....Bein eta barriro Kepa Mirena'ren irribarre gozo ta samurra, urruntasunetik bizi-bizi agertzen yakon, eta batetik bestera ibilli arren be, gorroto izaten nai eban mutillaren irudia, ezin egikean irudimenetik kendu. Ezagutu izan eban eguna madarikatu arren, barruko zerbaitek ezin egikeala aztu iñotsan. Bera lako gazte zital batek, Gentzane'gan egoan ederrena puxkatu ta lorrindu izan eban, beste bategandik apentza artu nai izan ebalako. Txarrena, baiña, olan eta guzti be, Kepa Mirena maite izaten jarraitzen ebalako sentipena zan.

Ondar eta kresalaren arteko egurastetik, etxera biurtzen zanean, aulki baten jesarrita, begiak utsean, geldi ta isillik zirauan, berekiko iruntsiz etenbarrik naigabetzen eban gomuta samiña. Aurpegi zurbilletik eta ezpan odolge-



tuetatik oiko bizitasuna joana zan, gabeko lo-egin eziñak eta jangartasunak sortuta. Olan ikustean, bein baten amak auxe esan eutsan:

– Entzun, Gentzane, alaitu egizu aurpegia. Aldiaren joanean dana aztuko dozu-ta. Egunen baten, bear dozun gizona agertuko da zure bizitzan, eta oraingo zure oiñazea ezerezkeri utsa irudituko yatzu.

– Ez dot beste iñor maite izango, ama. Maitasun osoa emon neutsan, eta berak zapaldu ta lorrindu egin dau. Ez, ama, naikoa ta lar be izan da niretzat.

– Eskatu egiozu Jaungoikoari, eta bear dozun indarra Berak emongo dautsu.

– Bai, ama, orixe baiño ez dot eskatzen. Aztu egingo al dot bein betirako...!

Egunak bajoiazan aurrera, eta neskatillearen oiñazeak ez eban arintzerik. Bein baten, soak utsari zuzendurik, eta oi eban lez kaden isil arek naigabetzen ebalá, amak bere buruari esan eutsan urtenbide bat aurkitu bear izango leuke-la, eta bere alabea urrengo egunean ondartzatik etxera biurtzen zanean,

– Aizu, alabatxu –esan eutsan amak–, geu bion onerako, asmo egokia bururatu yat, eta auxe alegia: txango luze bat atzerritik egingo dogu.

– Bardin izango da, ama. Oroitzak nonai jazartuko nau.

– Ez dakit, Gentzane, baiña emen egoteaz ez dogu iñongo arintzerik izango. Au dala-ta, bidai-etxe batekin urrutizkiñez berba egin dot, eta etzi bertan bidegite luzea asiko dogu, illabete batekoa gitxi gora-beera. Begira, alabatxua: Prantzia'ko La Riviere dalakoa ikertuko dogu, eta gero, Erroma, Napoli, Capri, Venezia. Milan'en zear Suiza'ra sartuko gara, eta azkenean Prantzia'n zear etxera. Munduko lekurik ederrenetarikoak ikertuko doguz. Bai, aspalditik txirrinta andia sortzen asi yat lurralde orreik birrikusteko, Erroma batez be. Bai, zure aita zanarekin eztaibidaia Erroma'tik egin neban, Italia'ko beste tokiak ikertuz. Ez egistazu ezetz esan, gero...!

– Atsegin ba'yatzu bidegite ori, niketz ez dozu eragozpenik izango.

– Leku eder-ederrak dira, Gentzane. Italia'ko lurralde eguzkitsua ezagutuko dozu, Alpes Mendi garai zoragarriak, baita Prantzia'ko lurralde aberatsa be. Ostaturik bikaiñenetan kokatuko gara, eta otu dakiguna erosiko dogu.

Gogo andi barik, amaren laguntzaz Gentzane'k bide-zorroak atondu eban, eta eguna elduta, aspaldi aretan oi eban lez, isil eta itun, itsasoari azken begiraldia emonda, lekorean igurikan egoan berebillera, sartu ziran ama-alabak. Gau aretan, Prantzia'n zear tren arin apaiñean bidegitea asi eben.

## MARROKERIA

Arratsalde aretan, lantegiko idaztegi erosoan jesarrita, Kepa Mirena'k gogoan aztertzen ebazan azkenengo jazoerak, eta izan be, ezin egikean txartzat jo bere arazoan egoera. Gauzak, berak iñoiz uste izango ez leukean baiño obeto joiakiozan, eta astiro baiña etenbarik, bere mendekuaren ordua urreratzen yakon. Bai, dana gertatzen zan antxiña baten espetxean asmatu-egitasmoaren arauz, eta egunik-egun oartzen zan bere elburura indar geldieziñaz urreratzen zala. Mendekuaren sentipen biziak, asmoak aurrera eroateko bear izaten ebazan indarrak emotsazan, eta orain, espetxetik urten zaneko laugarren urteurrena beteteko zorian zala, garaipena eskuaren elmenean ebalá oartzean, zorion bakanak menperatzen eban.

Urte bi lenago erosiriko errediza-baltzua, betetasun osora eldu izan zan. Orduko, "Goiena" lurralde guztian zear aipurik onenaz ezagutua zan. Jendearentzat izen ori ontasunik onenaren ezaugarria zan. Aspaldiko lantegi zaarra orain andituta, tresnarik barrienakaz iñongo leikidea baiño merkeago ta obeto egiteko gai zan. Izan be, multzo-gintzak arrakasta itzela lortu izan eban, eta asikerako ogei langilleak, irurogei izateraiño eldu izan ziran, eta kopuru au etenbarik geitzen zan.

Jasandako leiaketa gogorragaitik bigarren urtean "Bikain" sal-sariko gudearen aztarnak erakusten asi zan. Bereala konturatu zan Klemen, beste biderik ez egoala burrukan jarraitu baiño, eta uste izaten eban, berari kalte ba'ekartsan, leikideari beste ainbeste lekarkiokela be, eta aspertu-eragindako "Goiena"k burrukeari uko egingo leuskiola. Oker egoan Klemen onetan, Kepa Mirena'ren naimen eta diru-egoera gitxiesten ebazalako. Izan be, egunoroko lana amaituta, "Goiena"ren jabeak zelán edo alan indarrak ataraten ebazan, Txinbo'rekin berandu samar arte, ertilangintzarako marrazki barriak sortzeko. Eta "Goiena" aberasten joian giñoan, "Bikain" ondapen bidetik abiatzen zan.

Arratsalde aretan, atsegiñez gaiñezka gogoan erabilen Kepa Mirena'k, "Bikain"en egoera larria. Azken barriek iñoenez, Klemen'ek estu ikusten eban bere burua, gero ta zailago egiten yakola bearrezko dirua lortzea. Baebiltzen



zurumuruak “Bikain”en kinka larriari buruz, eta olako zaratak asten diranetan, diru-etxeen laguntzak murrizten edo bakantzen dira zearo. Bala-bala ibiltzen asi zan, Klemen’ek ordaintza-epeak luzatzea eskatu izan eutsela arturendunai, baiña olan eta guzti be, uxa-eziña etorkion molokotak beartu izan eban, garai baten Klemen zaarrak erosiriko baso ederrak saltzera, eta berak, Kepa Mirena’k, basoetarik ederrena zan Lardigane’ko arizti bikaiña erosi izan eutsan.

Ona elduta, Kepa Mirena’rez ezpanetan irribarre bat agertu zan. Bere elburua jaristeko zorian zan, eta bizitza samindu izan eutsan ugazaba doillo-rrarentzat, bidezko ordaintza uxaeziña, ur egoan. Egun gitxien buruan, Klemen’eri ondapena etorriko litzakio. Mendekuaren eretia irixteko zan, urratsik-urrats espetxean atondutako egitasmoa bete-agiñean zala.

Atsegiñezko asperena jaurtirik, Kepa Mirena besaulkitik jagi, eta soingaiñekoa jantzita, argiak amaitu ostean urteteko gertatzen zanean, urrutizkiña jotzen asi zan. Nor izango ete ordu aretan...? Urrats ariñez idazmaira biurtu zan, eta,

– Bai, nor da...? – itaundu eban.

Manu zan, eta aren mintzo urduriagaitik arrenkura andipean egoala begitandu yakon.

– Aizu, Kepa Mirena, barri txarra, siñisteziña emon dauste, eta eskertuko neuskizu nire idaztegitik aalik ariñen ba’zentoz.

– Ezin dagikedazu oraintxe esan, ala...?

– Olako arazorik ez dot urrutizkiñez garbitu gura. Zatoz ona, uriburura eldu ta bereala.

– Bai, Manu, oraintxe urten-agiñean nintzan, eta banoatzu astirik galtzeke.

Oi eban lez, trenez biurtu zan uriburura, eta emendik taxi baten bidez, Manu’k eta onen aitak eben idaztegi apaiñera eldu zan. Txiliña jo baiño ez, atea edegi zan, eta begitarte illunaz Manu’k idazgelara lagundu eutsan. Jesarri ziranean,

– Orain, Manu –eskatu eutsan Kepa Mirena’k–, zure dei larri orren zergaitia azaldu egistazu.

– Ostu egin dautsu, Kepa Mirena, ostu...!

– Nork, baiña...?

– Klemen’ek.

– Ez dot ulertzen zital orrek zelan ostu dagikedan...

– Bai ta erraz be. Ara... Bezero baten arazoa zelan dagoan jakiteko, gaur arratsaldean Jabetasun-agiritegira joan naz, eta bidebatez, ango ezagun bateri itaundu dautsat, ia baratariak aurkeztu izan ba’eban zure izenean lerrokatze-

ko, Lardizabal’go eroste-agiria. Une batez oldozkor geratu da, eta gero, baietz, illabete bat lenago jazo izan zala ori. Eziña dala esan dautsat, salerosketea orain amabost egun baiño ez, jazo izan zala baratariarenean, eta or okerren bat egoala. Lerrotegira joanda, andik laster txartel batekin azaldu da nire ezaguna, eta,

– Begira, Manu –esan daust txartela irakurriz–, Lardizabal’go ariztia “Lartz” etxegilleen baltzuari saldu izan zan orain illabete ta erdi, lerrotegian agertzen danez, eta emen lerrokatua izan da orain illabete bat. Arazoa, beraz, argitu bear dozue, legearen arauz, benetako jabea “Lartz” etxegillea dalako.

Jabetasun-agiritegitik urten naz nire buruari itaunduz, ondo entzun dodan ala ez. Onantzakoan, kaleko ozkirriaz oldozkunak taiutu yataz, eta arazoa ondo ikusten asi naz, eta onetaraxe alegia: “Bikain”en egoera larriak eragin da, zoraturiko Klemen’ek Lardigane’ko ariztia birritan saldu egin dau. Zentzutasuna galdu egin dau, antza, olako marrokeria espetxaldi luzeaz ordaintzen da-ta. Zeozer egin bear dogu, baita arin be, bestelan...

– Aizu, Manu –eten egin eutsan Kepa Mirena’k–, ez dot uste Klemen zoratu danik, ez urrik emon be...! Emen beste zeozer eskutatzen da, urrean...

Isildu zan Kepa Mirena, bere adimen argiak lan egiten ebala azkar.

– Baiña, lagun –Manu’k barrero–, egitekoa aalik ariñen burutu bear dogu.

– Manu, oraingoz itzi dana dagoan lez.

– Itzi dagigula ezer egin barik, diñostazu...? Ez ete zara konturatzen, baso-sail orregaitik zeuk ordaindutako sei milloiak jokoan dagozanik...?

– Bai, baiña marrokeri orreri buruz, oraingoz ez dogu iñongo lege-ekin-tzarik erabilliko.

– Baiña, Kepa Mirena, ez al-zara oartzen gizon ziztrin orrek len zeuri egiñaz gaiñera, orain sei milloi ostu egin dautsuzanik...? Benetan esateko, zure itxura baketsua ikustean, ez dakit egitan, zoratu dana Klemen ete dan ala zeu...

– Nire zentzumenaren iñoizkorik jabeen nagotzu, Manu, baiña arazoa niretara eroan gura dot. Au dala-ta, auxe eskatzen dautsut: biar goizean agiritegira joango zara barrero, eta zelan edo alan zure adiskideari eskatuko dautsazu, lengo lerrokatzearen aldaki edo kopi bat emon dagitsula...

– Ez dakit, baiña, orren erraz jaritsiko ete dodan. Olako agiriak emotea gogokoa ez dabe-ta.

– Zeu lako lege-gizona ori ta geiago jaristeko gai da:

– Sal-erospenaren agiria ba’neu, bai, ostantzean ez dakit...

– Dalako agiria nire lantegiko kutxan dago, baiña ez dakit biar zure esku-  
ra elduko litzakizun, eta aldaki ori biar bertan lortu dagizula nai dot, nire eskuetara garaiz etorri dakidan, bestelan beranduegi izan leiteke.



– Zeuk aginduta lez egingo dot. Biar arratsaldean bertan, Arango'tik biurtzean, dalako agiri-aldakia gerturik izango dot. Baiña benetan arritzen nauana, zure jokabide bakana da. Geroratu barik, biar bertan dagokizun lege-ekintza asi bear izango zenduke.

– Ez zaitez, larritu, Manu, eta biar arte.

– Agur, Kepa Mirena.

Ostatura biurtu ta aparria izanda, besaulki nasai baten jesarri zan, eta buruan erabilen egitasmoa garatzen asi zan Kepa Mirena. Andik ordubete bitara, zeatz guztiak ondo lotuta oeratu zan. Uxa-eziña, izugarria, mendekuaren ordua urreratzen zan, bere gaztaroaren urterik onenak inpernu biurtu izan eutsazanari merezitako ordaintza emoteko.

Biaramonean lantegira biurtuta, oi eban egunoroko ikerketa saillik-sail egin eban. Egun aretan, atsegin bakanpean iñoizkorik astiroen batetik bestera joian, zeatz bakotxari ardura bereizia emotsala. Lenengo, Multzo-gintzaren sailla iker-tu eban, langaillu bakotxaren aurrean gelditzen zala, aren jardun bikaiña ardura-rik andienaz begizatzen eba. Eta olan tresnarik-tresna joiala, saillaren ardura-duna urreratu yakon. Langille au, lengo "Onena"ko lantegikoa zan, eta asikerako aldi zailletan, aal eban neurrian jabe barriari laguntzen saiatu izan zanez, saritzat sailburuaren jarduna emon eutsan Kepa Mirena'k. "Goiena" baltzu barria oba-riak egiten asi baiño ez, "Onena"ren langille izandakoai, aalik eta eskuzabalen ordaindu eutsen, aalegiña ta zintzotasuna sarituz. Izan be, "Goiena" baltzuko alogerak, errediza-gintzan erabilten ziranetariko andienak ziran.

Ugazaba ikusi ebanean, Erramon arduraduna urreratu yakon, eta alkarri agurtu ondoren,

– Zelan zabilte gaur sail onetan, Erramon...? – itaundu eutsan Kepa Mirena'k.

– Ondo samar, Jauna. Egunokaz estu ta larri ikusten dogu gure burua, ainbeste aginduari aurre egiteko. Olan jarraitzekotan, estalpea anditu bear izango dogu.

– Ez larritu orregaitik, naikoa leku badogu oraindiño-ta.

– Onezaz gaiñera, tresna barriak garaiz agindu bear...

– Nasaitu zaitez, Erramon. Onezkeru, tresna barrien domua eskatu dogu, eta estalpea anditzeko marrazkiak esku-artean daukaguz.

Jarraian, arduradunak lagundutako, astiro ta arretaz enparauko langai-lluak ikerturik, erti-saillera sartu zan.

Sail onen burua zan Txinbo urreratu yakon, eta biok erti-lanak aztertzen asi ziran. Emen ogei bat langillek ziarduen, bakotxak marrazki zeatz bat eba-lazurera aldatzeko. Marrazkiak Txinbo'k eta beste lagun batek egiten ebezan

Kepa Mirena'ren zuzendaritzapean. Erti-sail au Kepa Mirena'ren kutuna zan, oneri esker bere asmoak aurrera eroateko gai izan zan-eta. Zer esanik ez, aldiaren bidean Txinbo ta Kepa Mirena'ren arteko adiskidetasuna anditu izan zala, anaiak lez alkar maite izateraiño, eta gaiñera, jabe-kide izaten jarraitzen eben, beti lez Txinbo'k baltzuaren laurena jabetzen eba.

Lagun biok banan-banan aztertu ebezan zur-lan guztiak. Azkenera-elduta, onen aurrean une luze batez gelditu ziran. Jaunaren azken aparria irudika-tzen eban. Aberats baten agindua zan, bere jatokiko orma luze baten ipinteko. Areitezkoa zan lan ederra, iru metro ta erdi luze ta metro ta erdi goibekoa zan. Zur-lantzea amaitu barik egoan, baiña "Azken Aparria" zelakoa izango zan ikusi zeitekean orduko.

– Zer deritxazu lanari, Kepa Mirena...?

Luzaro samar adi-adi begiztatu eban, eta gero,

– Ez deritxazu, Laurentzi –erantzun eutsan–, atetik ostentzeko zorian dan Judas'en irudiak bear dauan gaiztotasuna ez dauala erakusten...? Aurpegiari darion itxurea mutil on bateri dagokiona ez al-da...?

Txinbo'k irudia begiztatu ondoren,

– Zuzen zagöz, Kepa Mirena –erantzu eutsan–, baiña marrazkian ager-tzen dan legetxe egiña da.

Kepa Mirena'k ikazkia artuta, esku errimez aurpegiaren itxurea aldatu eutsan.

– Zer deritxazu orain, Laurentzi...?

– Oba ez...!

Lagun biok alkarri agurtzeko zorian zirala,

– Aizu, Laurentzi –eskatu eutsan Kepa Mirena'k–, arratsaldean une batez etorri zakidazala eskertuko neuskizu.

– An izango nozu bostetan inguru.

Jarraian, margo ta bernizte-sailla ikertu ostean, bialgoen estalpera joan zan Kepa Mirena. Guztitariko erredizak zama-berebilletan sartzen ziarduela ikusirik, pozez gaiñezka bere idaztegiara igon zan, oiko idazkiak irakurteko, eta jarraian egokiozan ekintzak agintzeko. Zurubian gora joiala, poztasun bakanaz jabetuta sentitzen zan. Bizitzan zear izandako burrukan garaille billa-katua zan, zenbat-gura aberastasun eba, baita etorki dizdiratsua be. Ain luzaro itxarotako mendekuaren ordua eskuetara etorkion... eta neska baten urre-begi argitsuek laztantzen eben.

Arratsaldeko erdi-aldera, Txinbo idazgelara etorri yakon, eta oi eban lez, kaobazko maias bestaldean jesarri zan. Kepa Mirena besaulkiaren bizkarrean atzera makurtu zan, eta auxe esan eutsan:



– Zeugandik gauza bat gura dot, eta auxe alegia: biar ordu onetan bertan nirekin uriburura etorri zaitezala.

– Zertarako baiña...? Zurketariren edo bezeroren bat ikusteko-edo...?

– Ez bata ez bestea, Laurentzi. Antxiñako nire lagun bat ezagutu dagizun, eta jazoko danaren lekuko edo ziñaldaria izan zaitezan batez be.

– Zerez ziñaldaria...?

– Biar “Bikain”en jazoko danaren ziñaldaria. Bakarrik joan neinteke, baiña ereti onetan lekukotzat lagun bat nai dot, eta nor zeu baiño egokiagorik...?

– Dalako “Bikain” baltzua gure aurkako burrukea dala-ta, estu ta larri dabillega entzun dot. Orren ugazaba ez ete da guzurkeri utsaz espetxera sartu zinduzana...?

– Bai, Laurentzi, berbera da. Etorriko al-zara biar nirekin uriburura, dalako gizakia ezagutzeko...?

– Bai, Kepa Mirena. Badakizu zure alde beti nozula.

– Eskerrik asko, Laurentzi.

Arratsalde aretan zazpirak doi-doi joten ebezala, Manu’ren idazgelara eldu zan. Orduko, ogipekoak joan izan ziran, eta lege-gizonaren idaz-gelako besaulki banatan jesarrita,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan Manu’k itxura kezkatuaz–, zeuk eskaturiko agiri-aldakia lortu egin dot. Ikusi dagikezunez, lenengoz “Laratz” etxegille-baltzuarri saldu izan zan, orain illabete bat gitxi gora-beera.

Manu’k eskuratzen eutsan aldakia irakurri ondoren, Kepa Mirena’ren ezpanetan irribarre aula agertu zan, eta,

– Ederto, Manu –esan eutsan–, auxe da benetan, bear izaten nebana.

Isillune baten ostean,

– Kepa Mirena –itaundu eutsan Manu’k– erabagi dozu, benetan, Klemen’en marrokeria dala-ta salaketarik ez egitea...?

– Oraingotz ez, baiña bada-ezpadakoan, gertatu egizu biar idatziriko salakuntzea, eta gorde egizu. Biar arratsaldean, emen egongo al-zara...?

– Bai, berandutxu arte, lanpeturik nago-ta.

– Biar arratsaldeko zortziretan inguru, urrutizkiñez dei egiten ba’dautsut, salakuntza ori auzitegiko txanda-epaikariagana eroango dozu, aalik lasterren Klemen giltzapetu dagien. Ez dot uste, baiña, au bearrezkoa izango danik.

– Aizu, Kepa Mirena, zer darabiltzu gogoan...?

Irribarre egin eban Kepa Mirena’k, eta,

– Etzi bertan jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut. Nekatuta nozu gaur azalpen luzeetan asteko... Agur, Manu.

– Agur.

Agiriaren aldakia idazki-zorrora sartuta, Kepa Mirena uriburuko kaleetan zear astiro egurasten joiala, ostantura biurtu zan.

Biaramonean, arrastiko lenengo orduan lantegiko eginbearrak lagata, “Goiena”ren jabekide biek uribururako trenara artu eben. Kepa Mirena gogo sakonetan murgilduta egoan, eta bere adiskidearen gogoeta-aria ez etentzearen, bere alboan jesarrita, Txinbo’k lekoreko ikusgaiak isillean begizatzen ebazan, bere buruari iñotsala zer jazoko zan arratsalde aretan

Seiretan inguru uriburura elduta, ibaiaren ondoan egoan “Bikain” lantegira abiatu ziran iradu barik. Iritxi ziranean gau bete zan, eta orduko, lana amaituta, lantegia isil eta illuna ikusten zan. Kepa Mirena’k ondo ezagutzen eban bigarren maillako argi bat piztuta ikusten zan, eta billatzen ebana an egoala jakitean, bere ezpanetan irribarre aula agerturik esku irmoz txiliña jo eban.



Arratsalde aretan, “Bikain”en ogipeko ta langilleak joan ziranean, ibilte neketsuz, idaztegi apaiñera joanda, Klemen besaulki eroso baten gaiñean amildu zan. Ogei ta amabost urtekoa zan baltzu aretako ugazabak, aurretiaz zaartuta zirudian, aurpegi motelaren zimurrak, eta betazpi andiak zirala-ta. Onezaz gainera, garai-aurreko billo-murrizte nabarmenak, zan baiño adiñago-ko itxurea emotsan. Besaulkiko bizkarrean erdiz etzanda eta begiak itxita, azken aldiotako jazoerak izugarri ta uxaeziñak burura etorri yakozan.

Bere buruari erruki eutsan orreitarikoa izanik, gertatzen yakona zorritxar-rraren ondoriotzat eban, aurretik erabagitako patu jarki-eziñaren opari gaixoa, izan be. Azken aldiotan batez be, arazoak buruz bera joan izan yakozan, eta orain ondatuta aurkitzen zan, azkenengoetan izan be, aitagandik artutako bal-tzua betirako galduta. Aalegin guztiakaz ondapenari jarki izan yakon, eskura ebazan bideak erabilliz baiña dana alperrik.

Beerakadea “Goiena” leikidea sortu zanean asi yakon, eta arrezkero ez eban iñongo bake-unerik ezagutu. Baziran urtebete bi, leikide madarikatua agertu zala. Lenengo urtebetea txarra izanik be, tira...! baiña bigarren eta azken urtean, jasanikoa izugarria billakatua zan. “Bikain”en ordezkariak aalik eta merkeen edozein errediza bezeroai eskintzen ba’eutsien, andik laster “Goiena”koek gai merkeagoak eskintzen ebezan. Augaitik, eta bizirik irautea-rran Klemen’ek sariak obatu bear ala aginduak galdu, eta bein eta barriz auxe jazorik, batzutan sal-sari merkeek, edo saldu-eziñak bestetan, diru-egoera larri-larria ekarri eutsoen. “Goiena” madarikatua...! Augaitik ez ba’litz, orain diruz ler egiteko zorian aurkituko zan.

Nor izango ete baltzu denganiño aren jabea...? Artutako argibideen arauz, bazkide biren jabetasuna zan, eta bazirudian Kepa Mirena izenekoa biotarik nagusia zala. Zeaztasun geiago jaristearren, billaketa baten ostean, Orueta abi-zenekoa zala jakin aal izan eban, baiña asko ziran lurralde aretan deitura ori ebenak. Onezaz gaiñera, gazte sendo ta ederra, baita nortasun andikoa zala ezaguerara etorri yakon. Baiña au bost ardura Klemen’eri, urreratzen yakon ondapenaren ondoan. Zana-zala leikidea, lantegiari lana ekartearren sal-sarien beerapen orrek, uxa-eziña zan ondapena ekarri eutsan.



Asieran, "Goiena" k berak baiño lenago txulut egingo leukela uste izan eban, baiña bai zera...! leikide orrek osasun onekoa zirudian, eta noizbait, burruka zentzunbako aren erruz, Klemen'ek pot egin izan eban. Egoera onetan, len-gaiak emotsoen ornitzailleek "Bikain" en kinka larria ikusirik, ordaintzak esku-diruz izatera beartu eban. Onek bere egoerea txarragotu eutsan, eta ezinbestez, salsari-burruka zoro aretan irautearren, aita zanagandik jarauntsiriko azken ondasunak ziran baso-sail batzuk saltzen asi bear... Gora-beera oneik jazo bitartean, etxeko ezagunak ziran Aldagandarrak burura etorri yakozan. Ama-alabak guztiz aberatsak ei'ziran, eta augaitik Gentzane limurtzeko asmotan, laguntzen asi yakon. Andik laster, baiña, neska txotxoloak berarentzat ez litzakela izango adierazo eutsan. Zer uste izaten eban neska zaarraren itxura eban iñuzente arek...! Orduan, uriko alkatearen loba bategan jarri ebazan begiak, baiña onen gurasoak jarki yakozan Klemen'en asmoai, eta orra or bere azken itxaropena pot eginda.

Ona elduta, naibageturiko Klemen'ek atsekabezko asperen bat jaurti eban, bere buruari barriro iñotsala, azken aldiotan patu errukibakoaren opari gaixoa izan zala, eta indar guztiakaz zoritxarrari yarki izanik be, alperrik billakatua zan, bere etorkia izarretan olan idatzita egoalako.

Eta banan-banan, aita zanarenak izan ziran baso-sailen saltzeari jarraitu eutsan. Azken eta ederrena saldu ebanean, olan eta guzti be urtenbiderik ez egoala ikusirik, buruari ekin eta ekin asmakizun bat etorri yakon. Lardigane ariztia "Laratz" baltzuari saldu baiño ez, dana pikotara joiakiola, eta txiroa izateko ez zala jaio ikusirik, asmakeri bat otu yakon. Baso-sail ori lenengoz saldu ebanean, berak izenpeturiko diru-maillegu bat garbitzeko izan zan, bestelan diru-etxeek beraren aurka auzi larria asiko leukien. Zorra kitaturik, eta baltzua zearo ondatuta, bere buruarentzat urtenbide bat billatzeari emon eutsan. Zer egin legiken txirotasunetik iges egiteko...? Estu ta larri ekusan bere burua, eta etorkiak izutzen eban. Alako baten bitxikeri bat otu yakon...

"Laratz" etxegintzari Lardigane ariztia saldu eutsanean, erosleek euren ekien zio bereizi bategaitik, salerostea aalik ezkutuen gordetea eskatu eutsoen, eta ekintza ori isilperik andienaz burutu zan. Andik laster, legegizon bat etorri yakon dalako ariztia "Goiena" rentzat erosteko asmotan, eta orduan bertan, aipaturiko bitxikeria otu yakon, eta auxe alegia: ariztia bigarrenez saltzea, jakiña, orretarako beste baratari bategana joatekotan. Olan diru-mordo batez jabetuko litzake, eta gaiñera marrokeria nori ta "Goiena" ri egin...! Leikide madarikatu au Jabetasun-agiritegira erosketea lerrokatzeko joan zeiteneko, "Laratz" eri saldu izan zala jakinerazoko leuskioe, eta beraz, erosketearen dirua galduta egoala. Onen aurretik, baiña, Klemen'ek anka egingo leukean betirako ostendurik.

Salerosketea sei milloitan egin zan, eta esku-diruz gaiñera. Dirua artu baiño ez, astirik galtzeke Klemen'ek bere asmoa garatu eban. Aspaldiko lagun batek guzurrezko nortasun-agiria lortu eutsan, eta onen izenean Ameriketarako txartela erosi eban. Bein itsasoratu ezker, betirako ostenduko litzake, eta lurralde urruntsu areitan, eroiazan sei milloiakaz bizibide barri bateri emongo leuskio, eta or konpon.

Barikuko arratsalde aretan, "Bikain" betirako lagako leuke. Ondoko dirukutxa aretan salketa izunaren sei milloiak esku-zorro baten gerturik eukazan, eta igande arratsaldean bein betiko ostenduko zan. Bai, azken urte aretan adu txarraren oparia izan zan, baiña une aretan bere bizitzaren patuak, beste norabide salbagarria artzen zirudian. Bazan ordua joateko...

Une aretan bertan, atezaiñak gelako atea zabaldu, eta,

– Jauna –esan eutsan–, sarrerako atean Jaun bi zure begira dagoz.

Klemen'ek, baiña, ez eban ikerlerik artu gura, eta,

– Esaiezu –agindu eutsan– eziñezkoa dala, urteteko zorian naz-eta.

Joan zan atezaiña, baiña andik laster biurtu zan auxe zirautsala:

– Jauna, oso garrantzitsua dala diño.

Barriro be ezetza emon-agiñean zala, atezaiñaren atzetik etorriak ziran Kepa Mirena ta Txinbo idaz-gelara sartu ziran, eta atezaiña joanda, atea itxi eban.

– Klemen Jauna –esan eutsan Kepa Mirena'k– tamal andia da abetaldu gura ez izatea, baiña nire adiskide onek eta biok, uste izan dogu autu bat zurekin izatea guztiz onuragarria litzakela.

Mintzo au entzutean, bere buruari esan eutsan Klemen'ek, ezaguna ez ete yakon; bai, non edo non lendik ezaguna eban, baiña gazte garai aren aurpegia, oster, ez eban iñoiz ikusi. Nor izango ete...? Oldozkun onetan zala,

– Izan be –Kepa Mirena'k barriro–, gela eder onek betiko apain eta ederra emoten dau, On Klemen zaarraren aldiatan lez.

– Ezagutu al-zenduan nire aita...?

– Bai, orain zortzi urte-edo... Aldi aretan, txarto gomutaten ez ba'dot, etxe onetan lapurketa bat jazo zan, ezta...?

– Bai, olan da.

– Zelan gertatu zan...?

– Badakizu esaera zaarrak diñoana: "lagundu urkoari, eta atea edegi lapurrari".

– Zer jazo zan benetan...? Aspaldi aretan naikoa mintzatu zan arazo zikin orreri buruz.

– Betikoa gertatu zan. Ara... idaztegi onetan emakume alargun gaixo



batek garbi-lanetan ziarduan, eta bein baten, seme bakarrarentzat jardun bat eskatu eutsan aitari, eta onek ontasun utsaz, idaztegi onetara mutiltzat sartu eban. Beragan jarri genduan uste ona ustiatuz, diru-kutxa orren giltza-aldakia lortu eban, eta itxituraren jarrereaz jabetu zan. Au egiteko, baiña, idaztegiko lanak amaituta, amari laguntzeko atxakiaz, baeban eretirik diru-kutxa zelan edegiten zan ikasteko, eta geuk oartu orduko, blindiblaust...!

– Diru asko ostu eban...?

– Milloi bi gitxienez.

– Eta gero, zer jazo zan...?

– Oartu genduanean, gure diru-zaiñak ertzaintzari jazo zana salatu, eta diru-mordoz gaiñera, Madrid'erako bide-txartel bat bere janzkian aurkituta, atxillotu eban. Gero, auzia ikusi zan.

– Eta etxe onetan ez zan iñor azaldu, aren alde zeozer egiteko...?

– Izan be, aal nebana bere alde saiatu nintzan, epaikariari amaika bidar eskatuz errukitsu azaldu zeiten, baiña gure ogipekoaren obena agiri-agiria izanik, ezin bere alde gauza andirik egin. Zoribakoa...!

– Eta zer jazo zan...?

– Zortzi urteko espexaldia etorri yakon. Arrezkero, auzia birrikusteko aalegindu nintzan bein eta barrero epaikariagana joaz, baiña dana alperrik.

– Zer billakatu ziran gero, mutilla ta bere ama...?

– Gure eskaerak arren, ama beste nonbaiten lan egitera joan ei'zan. Mutillari buruz ez genduan besterik jakin.

– Espetxean egoan mutillari buruz, ezer ez jakin, diñozu...? Orren errukitsua izanik, zelan laga zenduan zulo izugarri aretan usteldu zeiten...?

– Eskurakaitza ta prakerre itzela azaldu zan. Ara... epaitegitik espexera ertzaiñek eroiela, nire aurretik igarotean, ni erruduntzat salatuz gaiñera, nengoana-nengoala bere mendekuaz zapalduko nindukela zemaitu ninduan...

– Onezkero, baiña, espexetik urtego zan-edo...

– Bai urtean, epea amaitu da-ta.

– Ez al-yatzu iñoiz bururatu, egunen baten etorriko litzakizula, apentza-egarri gaizto ori asetzearen...?

– Nik ez neban espexera sartu. Berez joan zan bidezko auzi baten ondorioz, lege-gizon aldetzaille ta guzti izanda gero.

Alkarrizketa onen bitartean, Kepa Mirena gero ta sumiñago biurtzen asia zan, Klemen'ek betiko guzurti ziztrin biozbakoa irauten ebala egizatzean. Noizbait, asarre gorripean buru-jabetasuna galdurik, begiai gorrotozko txinpartak eriezala, jagi zan, eta Klemen jesarrita egoan besaulkira urreraturik, beso salataria luzatuz, oiuz bizitan,

– Guzurti madarikatua...! –aurpegira jaurti eutsan–. Urteak igaro arren, betiko zital alena izaten jarraituko dozu. Bai, munduko gizonetarik purtzille-netakoa. Aspaldi aretako zure obena estaltzearen, errubako bat zortzi urtez espexera bialtzeko ez zenduan iñongo arrenkurarik izan... Doillorra, besteren doillorra...!

Itzok entzutean, izu bakanak artuta, kikilduriko Klemen'ek begiak zurin-goturik begiztatu eban, zoro baten aurrean bai'litzan-edo. Orduan Kepa Mirena'k astiro ta zemaikor, sakel batetik metaldun adartxuko betaurrekoak atara, eta suur-gaiñean ipiñi ebazan. “Bikain”en lan egiten ebaneko berberak ziran; betaurreko arrunt eta itsusiak, erdipurdiko idaz-mutil baten itxurea emotsoenak. Zer esan ez ekiala, dardar baten begizatzen eban Klemen'ek, eta orduan,

– Ez al-nozu ezagutzen...? –esan eutsan Kepa Mirena'k mintzo gogorraz–. Ez ete dozu ezagutzen orain, aspaldiko Kepa “Lau-begi” ezaiña, zure obena ordaindu eban idaz-mutil ezereza, neskame baten semea baiño ez zana...? Begiratu egistazu, oraingo nire bizarrari jaramonik egiteke. Ez al-nozu ezagutzen...?

Ezin egikean Klemen'ek aregandik begiak kendu. Izu bakanpean, uxa-eziña, zemaikorra, aspaldi aretako bere ekintza zitala, gomutara etorkion, eta noizbait, bere buruaren jabetasuna galduta, auxe ozta-ozta jaurti aal izan eban:

– Zeu, zeu...!

– Bai, neu naz; ez uste gaur agertzen yatzun “Lau-begi”ren mamua nazanik, ez Klemen... Urteetan zear natortzu egun baten ama-semeai egin zeutse-naren kontu estuak eskatzeko. Bai, Klemen, gaur ni neu salataria izango naiatzu, zortzi urte lenago egin zenduan zitalkeriaren salataria, eta gaur emen argituko dan ekintzaren epaikaria, zerori izango zara...

– Kepa, Jaungoikoarren...! –eten egin eutsan Klemen'ek–. Nik ez neutsun iñongo kalterik egin gura. Siñistu egidazu, nire asmoa azken baten ustel urten yatan...! Bai, gauzak okertu ziran, eta benetan espexera sartu zinduan, “Mustur-baltza” izeneko epaikari zantarra izan zan...

– Beti guzurretan ibilli zara, Klemen. Zuk burua lengo lepotik, baiña gaur, Jangoikoarren zin dagit egi utsa agertuko dala emen, nire izen ona bein betiko garbituko dauan egia... Eta auzi onetan epaikaria zeu izango zara, eta dagokizun zigorra, zerorrek erabagiko dozu. Gauzak zelan jazo ta garatu ziran azalduko dodaz asieratik gaurdaiño, gertatu ziran lez. Jakiña, nirekin izan ziran baizen gogor, ez neuke zurekiko izan gura, eta augaitik nire azalpe-naren zear, nai dagizuzan beste argibideak emongo dautsudaz, eta egizkoak



izan be. Gaurko auzi onetan egiaren abotsa mintzatuko da emen, eta ez beste iñorena.

Isildu zan une batez, eta Klemen beragandik begiak kendu eziñik jesarritta egoala, areto zabalean zear batetik bestera ibilli ebillela, onetaraxe asi zan:

– Aita il egin yatan orain amar urte-edo, eta onen ondorioz, ama jardun baten billa asi zan. Patuaren bide ezkutuek nai izan eben, dalako jarduna “Bikain” errediza-gintzan garbitzailletzat jaritsi egian. Baebazan aitak itzita-ko aurrezki urriak, baiña badaezpadakoan, amaitu ekiozan baiño len, lanari lotu yakon . Orduko, daloko COU ikasketak amaitu-barriak nebazan, eta gure egoera larria ikusirik, bein-beiñean Ikastola Nagusira ez sartzea erabagi neban. Nire marrazki-maisuak, baiña, zelan edo alan bere irakaskintzapean jarraitu nengian arrenkatu eustan, eta marrazkilaritza duan irakatsi eustanez, onartu neban.

Isildu zan Kepa Mirena une batez, eta,

– Ama, baiña, gero ta nekatuago nenkusan –jarraitu eban–, eta augaitik, buruari eragiñez, “Bikain”en bertan lan egitea otu yatan. Edu onetan, bion sarreraz polito konponduko gintzakez, eta beiñena zana: idaztegiko nire lana amaituta, amari bere jardunean lagunduko neuskio. Ezinbestez, amak burubide au onartu, eta Klemen zaarragana joanda, azken maillako idaz-mutiltzat dalako jarduna emon eustan. Geroago jakingo nebenez, ama bizien batek jota egoan, eta berak baekian oneri buruz. Agiri zan, nire laguntza zala-ta, amaren beerakadea gelditzen zala, baita aspaldi batez osasuntsuagoa zirudiala be.

Ni, ostera, beeko maillatik asita, baniñoan astiro-astiro gorantza igoten, eta noizbait, egun zoriontsu baten, Klemen gaztea ta Endika diru-zaiñaren laguntzaillea izendatu ninduen. Nagusia kanpoan aurkitzen zanean, Klemen gazteak, ikasketak iñoiz amaitu ez ebazanak, lantegiko ugalak artzen ebazan.

Ona elduta, Kepa Mirena’k isillune bat egin eban, bere oldozkunak taiutzeke, antza, eta Klemen’en aurrean geldituta,

– Bai, Klemen –esan eutsan–, txarto ezitako baten eredu negargarria billakatu zintzazan. Aberatsak izanik, zure gurasoek okerkeri itzela egin eben zurekin, eregu ta bigunkeririk andienakaz eziten ebela seme bakarra. Zure aita jaiotzez bee-maillakoa izanik, lanaren-lanez aberastu zan. Zoritxarrez, baiña, guztitariko naikeriak emon eutsuzan, eta zeugandik benetako gizon bat sortu-bearrean, makurrez beteriko ezgauza biurtu zinduzan. Ikastola Nagusiko lenengo ikasturtetik, zu aurrera joan eziñik ikusirik, azkenean lantegira ekarri zinduzan, eta emeko maillarik apalenetatik asi-bearrean, lantegiko erabiltea ondo ikasi zengian, goiko maillean jarri zinduzan, ekiñaren-ekiñez zure gertuera txarra ordezteko. Baiña zeugan ezkuntza okerrak sorturiko gai-

tzik andiena, zurekikoitasuna zan. Ez egoan ludian lortu ezin zengikean nai-keririk, orretarako lagun-urkoa zapaldu bear izango bazenduan be... Noakion arira, baiña, ekiodan Gabonetako egun areri...

Gomutan dot ereti aretan lantegian egoan giro alai ta adiskidetsua, Gaboneko egunari egokion lez. Orduko, (gero jakin neban auxe) jokoan diru asko galdu izan zenduan, eta zorrak garbitzeko, ezinbestez, lantegiko kutxatik dirua ataraten asi zintzazan, urrengo jokaldian irabazitakoaz ordezteko. Eta olan, Gabon-aurreko aspaldi aretan, milloi biko diruketa kutxatik atara zenduan. Egoera txarra, benetan, urrengo astean illeko azkena izanik, On Endika’k, diruzaiñak, kutxako diruaren egiztapena egingo leuke-ta. Gaboneko goiz aretan, aurretiaz ondo ausnartutako egitasmoa egi biurtzea erabagi zenduan. Orretarako, atxakirik-atxaki goiz osoan idaztegitik kanpora urrundu ninduzun, zure okerkeri zitala egiteko. Ara... jantzitegira joanda, berreun milla laurleko estalki baten barruan nire soingaiñeko sakel batera sartu zeustazan...

Aurpegia gorri-gorri eginda, Klemen oiuka asi zan onetaraxe:

– Guzurra, guzur utsa...! Nik ez neban olakorik egin...! Gaiñera, zelan egiztatu ori...?

– Gero esango dautsut zelan billakatu nintzan jakitun, baiña orren aurretik ekiodan ariari...

Oldozkunak eratzeko isildu zan Kepa Mirena une batez, eta gero,

– Jarraian, ertzaindegia egokion salakuntzea egin bear, eta bere jardunarekin zer-ikusirik andiena eban On Endika diru-zaiña izanik, ara bertaratu zan ni lapurtzat salatzearren. Enparaua berez dator, eta Gaboneko eguberdi aretan, amarekin erosketan arratsaldea emoteko zorionez gaiñezka lantegitik urten nintzanean, ertzain bikote batek atxillo egin, eta eskutur-burdiñakaz lotuta ertzaindegira eroan ninduan, zoratzeko zorian sentitzen nintzala.

Ona elduta, gelatiko ibillaldia eten egiñik, Kepa Mirena’k begi zorrotzak Klemen’egan josita,

– Zeuk zital alen orrek –oiu egin eutsan–, zure obena estaltzearren, erailtzaille gorrotagarriaren antzera ertzaindegira biali ninduzun, neuri, baiña ama gaixoari batez be inpernu izugarria jasan-erazoz. Ez dakizu ertzaindegiak benetan zer diran, eta zelan darabiltzezan ara sartzen diran jendeak, susmogarriak diranean bereziki. Nai-ta-ez lapurtzat izandakoagandik errudun-autorpena lortu bear da, ertzaiñen eginkortasuna agirian azaldu daiten. Bai, Klemen, mundutik baztertuta inpernu aretan egun izugarri bi iraun nebazan, guztitariko bortxakeriak jasanez errudun-agiria izenpetu nengian. Ukabilka ta ostikoka erabilli ninduen, eta bein baten... ikusten dozuz betaurreko oneik...?



Ara ba...zartako bataz gelako txoko batera jaurti eustezan, eta arein billa joan neinten agindu eustenean, barre-santzoka ostikada itzela artu neban belaunika billatzen niarduala. Idoro nebazanean, ikus-leiar bat galdu izanez gaiñera, adartxu bat ausita egoan.

Bai, Klemen, egun izugarri ta amaibako bi irauñ nebazan zulo aretan, baiña geien mintzen ninduana, ama gaixoaren larrialdia zan. Zuk ezin dozu ulertu, baitua dagoan seme bakar maite ta errubakoagaitik, ama batek zelako izugarrikeria jasan dagiken... Bai, nire amaren oiñazea zan, burutik kendu ezin nengikean alamen ikaragarria.

Egoera aretan, ziegako isiltasunak inguratuta nengoala, jasaten neban ezbearrari azalpen bat idoroten saiatu nintzan, baiña ezin, aalegintzen banintzan be, ezin nengikean iñongo erantzunik aurkitu. Eta nire egoerearen erruduna nor zan jakitearren etsiak jota aurkitzen nintzanean, noizbait, zeatz txiki ezain batek jakitun ipiñi ninduan: Ara... azken egunean, eta auzitegira joan aurretik, ertzainburuagana eroan ninduen. Onek, errudunaren aurtorpen-agiria izenpetu nengian eskatu eustan azkenengoz, eta orreri jarki nintzakionean, diru-estalkia nire suurraren aurrean astindu eban, auxe ziraustala:

– Esan gura daustazu, estalki-barruan dagozan diru ta Madrid'erako txartela ez dozuzala ezagutzen...?

Bapatean biotz-ikara batek artu ninduan, zoratzeko zorian sentitzen nintzala... Estalkiari erion usaiña...! Bai, Klemen, usainmenera alkanfor-usaiña etorkidan, Txina'tik ekarritako ta zeuk erabilten zenduan idazmaiarena. Onen kutxatilla baten, estalkiak gordeten zenduzan, eta luzaro egoteagaitik usain sarkor ori erien. Orduan dana argi-argi ikusi neban, eta bapatean, azken aldio-tako zure jokabide makurraren azalpena argi-argi agertu yatan. Zeu benetako lapurra zintzazan, eta zure ekintza zitara ezagutzeko zorian zanean, ostuketea beste iñori leporatzea otu yatzun. Nor, baiña, orretarako egokiena...? Diru-kutxaren inguruan jarduten eban garbiketa-neskamearen seme, "Laubegi" ezaiña, iñoren ederrespen eta begirunerik merezi ez eban "Bikain"en ogipeko geldoa...

Estalki-barruan egozan berreun milla laurlekoak, idaztegian iñor ez egoala zeuk kutxatik ataratakoak ziran, eta tren-txartela, goiz aretan bertan, lantegira joan aurretik, zerorrek erosi zenduan, ezta Klemen...? Asmakeri au otu yatzunean, zure burua munduko gizonik argientzat ederretsiko zenduan. Nire sakelean dirua ta txartela aurkitzean, ez neban iñongo atxakirik izango, eta zeu jarei billakatuko zintzakez. Zure buruaren ondo-izatea zan ederresten zenduan Jaungoiko bakarria, eta oneri jarraituko zeunskio beti.

Egun aretan, bertan, txanda-epaikariagana eroan ninduen. Joan aurretik,

baiña, odolez zipriztindutako arkondarea beste barri bataz ordeztu eusten. Bidebatez, aurpegiko erabilte txarrak sorturiko ubeldurak, neronek egiñak zirala zurubitik jaustean esan nengien, ertzainburuak itarantzun eustan. Txanda-epaikariak, ertzaindegiko argibideai buruz itaundu, eta errudun-agiria izenpetu nengian, ostera be eskatu eustan, baiña nik barriro ezetz. Azkenean, ostutako dirua atzera emotekotan artuko neuken zigorra askozaz gitxituko litzakidala. Nik, baiña, nire aretan nengoan: zelan atzera emon ostu izan ez dana...?

Gero, eskuak lotuta edozein gaizkillearen antzera espetxeratu ninduen. Au, ertzaindegiarekin bekalidetuta, zerua lakoa zan. Eta noizbait, ama ikustera etorri yatan; bai, Klemen, lantegiko neskame garbitzaille ezaiña, seme lapurra ikustera joan zan. Agiri zan bere osasunaren beerakadea, eta zelako oiñaze izugarripean bizi izaten zan. "Bikain" baltzu madarikatua betirako laga aal izateko, jardun bat beste nonbait lortu bear. Zorionez, andik laster lortu eban, baita obeago be denda baten, eta onek benetan poztu ninduan. Ordutik, bere izerdiaz niretzat erosiriko jangaiak, beste txastamenekoak billakatu yatazan. Errubako baten espetxaldia, Klemen, izugarria da, baiña ainbat izugarriagoa nire maitasun bakarria zan ama, oiñazeak erkinduta ikustean. Ez dot uste, baiña, Klemen zurekoitzar orrek, ulertu dagikezunik.

Epaiketea jazo aurretik, legegizon jagolea izendatu nengian eskatu eusten, baiña diru-ezagaitik, txandako bat izendatu izan zan. Onetan, baiña, gero oartu nebanez, Jaungoikoaren naiak nire alde jokatu eban. Manu izan zan jaurri yatan aldezlea, eta bera baiño gizaki argi ta maitetsuagorik nekez idoroko litzake. Asiera batetik erakarri ninduan, eta jazotako guztia edestu neutsanean, eta zeu Klemen, benetako lapurra zintzazala jakitun ipiñi nebanean, alkanfor usaindun estalkiarena ez aipatzea esondu eustan, eta auxegaitik izan be: orduko, estalkia ostendu izango zan, eta gordeta izanik be, oba litzake isiltzea, bestelan nire autorpena oiñarribako gorrototzat artu leiteke. Azken aukera au, beraz, alperrikoa zan... Manu'k, baiña, uste izaten eban nire aurka ez egoala benetako egiztapenik, eta beraz, zigorra ariña izango litzakela.

Noizbait, auzia ikusi zan. Ondo dakizu jazorikoa, lekukotzat an azaldu zintzazan-eta. Epaikaria, Mustur-baltza, eta salataria, Txomin Azeria izendatzea, niretzat ezbear gorria billakatu zan. Batak, epaikariak, egun aretan iraduak artuta zirudian, eta onezaz gaiñera, arazoetan sakontzen ez ekian gizaki buru-ariña. Bestea izlari jatorra, eta bere buruaren etorkiari oroz gain begiratzan eutsana, baita ondo saiaturako salataria. Nire aldeko Manu legegizon gazteak, argi ta artezak, aal eban bide guztiakaz babestu ninduan, eta aurkeztu daitekezan burubide sendoenak erabilli ebazan. Alperrik, baiña, On Endika



kokoloaren eta zure ziñaltza edo lekukotasun amarrutsuek, kalte andia ekarri eusten. Onezaz gaiñera, epaiketea aurretiaz erabagi zala begitandu yatan, eta esan zeitekeana esan zeitekeala alperrikoa zala.

Eta zuk Klemen, guztiz ondo jokatu zenduan, nagusi emonkor, maite-tsuarena egiñez. Bala-bala ebillen auzi-areto aretan, dirua baiño geiago, ogi-pekoaren pekatua sentitzen zenduala. Bai, nagusi on eta eskuzabal bateri datorkioken naigabe bizia, menpeko bategan ipiñitako uste ona ustel azaltzen danean. Bein eta barriz epaikariagana eldu-erazo zenduan zure barkapen-naia, eta epaiketa-orduan errukitsu agertu zeiten. Baiña Txomin Azeria'k salaketa-une baten esan ebanez, ugazaba onberatsuaren begiak atara nai izan nebazan bela gaiztoa nintzan. Izan be, auzi-aretoko giroa ezin gertuagorik gaizkille bateri merezitakoa emoteko.

Ez dodaz gaur, edu txarreko egun aretako epaiketearen zeatz guztiak gogora ekarriko, geiegi luzatuko nintzake-ta, eta gaiñera, badaukat orren oste-an jazo zanari buruz, naikoa esateko. Izan be, kutxaren gurpiltxuaren ezarke-tea aipatu zanean, Txomin Azeria'k estu ta larri ikusi eban bere burua, Julen'ek, kutxa-ezagulariak esan ebanean, "Bikain"en kutxea azkenengo eredu-koa izanik, ezin zeitekeala atzamarren unkimenaz itzen jarrera ezagutu. Baiña benetako azeria izanik, garaille urten zan, zeuk autortu zeuntsanean, baleikela bein edo bein dalako "BIKA" jarrera erabagetea aztu ekizun. Eta jakiña, ardura-eza ori ustiatuz, gurpiltxuaren jarreraz jabetu nintzan...

Baiña an esan zan guzurrik zantarrena, zeurea izan zan, kutxako giltza gau baten bere lekuan ez egoala, eta urrengo goizean betiko lekuan agertu izan zala, azaldu zenduanean. Ain zuzen be, alkanfor-usaiñari ezker, banekian lapurra nor zan, baiña zeatz au ezgutu ez baneu be, giltzari buruzko zure autorpena naikoa izango litzakean zu lapurtzat salatzeke.

Eta egun aretan esan ziran guzur zitalek, nire inguruan jarritako lakioa ezinbestez itxi eben. Manu'k nire jagoleak erabillitako burubide argia naiko-rik izango zan nire errua ezerezteko, auxe esan ebanean: ni erruduna izateko-tan, ostutako milloi bi areik, Madrid'era joan aurretiko gau aretan erabatean ostuko neukezan, eta ez gitxika egunetan zear, alperriko arriskuak jasanez. Baiña len esan dodanez, auzi aren ondorioa aurretiaz erabagia zan.

Gero, Mustur-baltza'k benetako epaiketa egiteko gertatzen zalakoa egin eban, baiña laster agertu zan, bere azalpenak idazteko ozta-ozta astirik izan ebala. Eta epaikari berekoi ganorabako arek zortzi urteko espetxaldia egotzi eustan. Zortzi urteko inpernu, idaztegiko neskamearen seme errubakoari, zure griña gaiztoen ondorioak estaltzeko. Etsiak jota sentitzen nintzan, zigor arek amari ekarriko leuskion oiñazeagaitik batez be, eta epaia amaituta espe-

txera nindaroela ikusi zindudazanean, egunen baten lurpean bazengoz be, idoro-ko zindukedazala suge baten antzera zapaltzeko, esan neutsun. Gomutaten zara, Klemen...? Bai, urrean, eta orregaitik etorri naiatzu gaur, baiña ekiodan gero jazo zanari.

Espetxea zulo ikaragarria da, gizonaren doairik andiena dan askatasuna ezerezten daualako. Baiña, onezaz gaiñera, atxillo dagoana errubakoa ba'da, orduan egoera ori zoratzekoa da. Asko pairatu neban, Klemen, baiña amak areago. Mundu onetan eban maitasun bakarra nintzan, eta berak neuk baizen ondo ekian errubakoa nintzala. Ama baten semeaganako maitasuna, mundu onetan izan daitekenik andiena da... Andik laster ama il egin yatan. Ez dautsut aren iltzailletzat salatuko, Klemen, ama gaixoa bizien batek jota egoala ba'nekian-eta, baiña zure ekintzak bere azkena aurreratuz gaiñera, azken egu-nak izugarriak biurtu eutsazan. Arekin izan ba'nitz, bide guztiakaz saiatuko nintzan bere azkena arintzeko, baiña auxe be ukatu yatan. Azkenetan egoala, berarekin ordubete batzuk egoteko baimena lortu neban Manu'ri esker. Onen etxean il yatan ama, eta au izan zan ainbeste oiñazeen artean, biok ezagutu genduan aringarri bakarra.

Ona elduta, Kepa Mirena gelditu zan, eta begiak Klemen'en aurpegi zur-billean untzaturik,

– Bai al-dakizu, Klemen –itaundu eutsan–, gorrotoa zer dan...? Ara...ari-mea kiskaltzen dauan su itzela ta itzungi-eziña, iñoiz ostentzen ez yatzun sen-tipen eraillea, apentza edo mendekua jaristeraiño bultzaten zaituan indar erraldoia... Eta nire mendekuaren ordua aurretiaz txastatuz, zoraldia nigandik uxatu neban, eta aurrera joateko kemena zelanbait emon eustan. Izan nebazan baita be, nire alde jokatu ebenak, ara... Manu ta onen sendi maitekorra, eta gaur nirekin etorri dan Txinbo, edo obeto esateko, Laurentzi nire adiskide zintzo-zintzoa. Oneik be, zoratasunetik iges egiteko niri lagunduz gaiñera, mundu onetan zeu lako ustelkeriz gaiñera, badirala egizko maitasun eta arimaren anditasuna erakutsi eusten. Asko zor dauset, eta egunen baten euren alde zeozer egiteko eretia izango al-dot...!

Isildu zan Kepa Mirena une batez, eta ibillaldia barrituz,

– Bai, Klemen –jarraitu eban–, gorroto arek indartu ninduan, eta nengoan zuloan, Laurentzi'rekin espetxeko lantegian lan egiñez diru apur bat irabazten nebala, illuntasun artetik asmo bat eratzen asi yatan, nire mendekurako bidea izango litzakena, eta bidebatez espetxetik urtetean bizi aal izateko oiñarri bat emongo leuskidana. Eta olan urterik-urte, baltzularitza-ikasketak bete aal izan nebazan. Boskarren urtea espetxean burutu nebanean, baimendua billakatu nintzan, eta andik laster, ames egindako askatasuna lortu neban.



Apentza-egarria beteteko bidean nengoan, eta ondo asmatuiko asmoa egi biurtzeko gertatu nintzan. Orduan Kepa il, eta Kepa Mirena Jauna baltzularitza – jakintzan baimenduna jaio zan. Luma-morroiarene itxura barregarria emosten betaurrekoak, eraspen-ikuskiñek ordeztu izan ziran, bizar ondo zainduta azten itxi neban, eta jantzi dotore bat agindu. Noizbait, billaturikoa lortu neban, eta arduralari nagusitzat ondo ezagutzen dozun “Eredua” izeneko erre-diza-gintzan jarduna lortu neban. Urte bitan lan gogor egiñez, errediza-gintzari dagokiozanak menperatu nebazan, eta leku aretan jaritsitako poz andienetarikoa izan neban, ikastetxe bateko berreun oeko agindua zure aurka irabazi genduanean.

Nire egitasmoa egi biurtzeko, baiña, beste urrats bat emon bear, eta izan be, emon neban, edo zeatzago esatearren, Laurentzi ta biok emotera azartu gintzazan, Arango’ko “Onena” eritxan errediza-baltzua erosi genduanean. Eta olan, nire mendekuaren azken ekitaldia burutzeko gertatu nintzan. Errediza-gintzari dagokiozan gora-beera guztiak menperatzen nebazan orduko, eta augaitik, diru-etxe bateko mailleguaren bidez, orain lortu daitekezan tresnarik barrienak, au da, elektroidunak, “Gorena” eritxan gure baltzu barriak erosi aal izan ebazan. Onezaz gaiñera, jabekide neban Laurentzi’ren bidez, ertizko zur-lanaren saila abidan jarri genduan. Izan be, sail au gure arrakastaren oiñarria billakatu zan.

Ona eldu nintzanean, burrukea asteko garaia etorri yatan. Gure ordezkari guztiak batzar batera deituta, ezelan be “Bikain” leikidearen aurka batez be, edozein eskaerarik ez galtzea, zorrotz agindu neutsen, eta onen ondorioz, guda gogor errukibakoa leikide guztien aurka, baiña “Bikain”eri buruz batez be, asi genduan. Oroitzen al-zara, Klemen...? Aspaldi izugarria benetan zuretzat. Lengo aldi nasai ta errazak joanak ziran, eta leikide zorrotz, gogor arek asitako burrukeari, zelan erantzun...? Ona emen untzea... Lan barik billakatzeta, baltzu batek egin ez dagiken gauza da, eta augaitik bortxatua da burrukan jarraitzeko, baiña leikidea ondo gerturik dagoanean bai tresnetan, bai erabiltean, arek jarten dauzan prezioai aurre egiteko, galtze utsean saldu bear... eta zu ezinbestez, dirua parrastaka galtzen asi zintzazan, baiña egoera onek diru asko izanik be, nai-ta-ez amaitu bear dau, eta zure egoerea gaur eutsieziña azaldu da... Labur esateko, txulut egin dozu... Gaur ez leuke iñork sos bat bera be emongo zure baltzuagaitik. Bai Klemen, aspaldiko “Bikain”, erredizen izarra edo bitxia izan zana, ondatu da betirako....

Kepa Mirena gelditu zan barrero Klemen’en ondoan, eta ezpanetan irriño maxiatzaillea eratzen yakola, destaiñez auxe esan eutsan:

– Baiña, Klemen, beste gauza bat jakin dagizula nai dot, eta auxe izan be:

bein baten nire barriemouilleak, neska batekin urtetan zintzazala jakin-erazo eustan. Dalako neskatillea Aldagan’en alargun aberatsaren alaba bakarra zan, eta kili-kolo biurtzen asten yatzun “Bikain”entzat euspen bikaiña izango litzaketelakoan, zure emazte biurtzea otu yatzun, ezta Klemen...? Bai, bearrian gorriak eraginda zureganatzeko asmoz, aren biotza irabaztearren aalegindu zintzazan... Baiña zuen bion artean sartu nintzaizuen, eta neskatilla aberatsa kendu neutsun. Edozelan be, neskea maite izatera eldu zintzazanik ez dot uste, zure burua baiño ez dozu besterik maite izango-ta... Bai, Klemen, zure emaztea egiteko aukerea kendu neutsun, eta arentzat ona izan zan, ezkurrik bage itziko zenduan-eta. Gero, badirudi uri onetako alkatearen loba bategana joan zintzazala, eta asmoa ondo urten ba’litzakizu au be ondo lumatua itziko zenduan. Zorionez, baiña, ba’dirudi neska onek muzin egin eutsula, ondo ezagutzen zinduan-eta.

Au entzutean, Klemen’en begiak Kepa Mirena’renetan gorrotoz untzatu ziran, auxe zirautsala:

– Ni, Gentzane’ren diruaren atzetik nenbillen, baiña zeu, zeren billa ziñoiazan...? Ez niri esan gero, maitasunak eraginda-edo...

– Ez, Klemen –eten egin eutsan Kepa Mirena’k–, nik ez dot dirurik bear, eta zeuk, ostera, bai. Esan dautsut len zergaitik urreratu nintzakion. Zeuri aalik eta kalterik andiena egitearren, eta izan be, Gentzane nereganatu dot, edo olan uste dot, beintzat...

Isildu zan Kepa Mirena une batez, Klemen’en aurpegi erkinduan begi zorrotzak untzatu. Gazte zitalaren begietan, bildurra gorroto bizi bateri bide egiten asten zan, eta orduan mintzo asarratuaz,

– Zure salakuntzea entzun dot, eta naikoa bedi onezkero. Joan zaitez etorri zaran bidetik. Ez dautsut besterik entzun gura.

– Etorri naiatu, Klemen, nire mendekuaren ordua dalako... Ikusi nai dot zure aurpegi zital orretan, orain artzen asi dan gorpu baten itxura ori. Niri ta amari ekarri zeuskun nekaldia ordaindu dagizula nire guraririk biziena da. Bene-benetan, eta guzurra badirudi be, pozez bete nintzan, mundu onetan izan dozun guztia galdu dozulako edo galtzeko zorian zagozalako. Baiña zure oraingo nekaldia sakondu nai dot, etsiak jota negarretan asi zaitez arte. Azkeneraiño entzun bear izango daustazu Klemen zital orrek, eta esatekoa amaitu dagidanean, dagokizun epaia zerorrek erabagiko dozu. Bai, bialdu ninduzun zulotik ames egiten neban ordu gorena eldu yat, eta entzun egistazu ondo...

Aitagandik yarauntsiriko guztia galdu dozu onezkero. Bai, nik bultzatu zindudazan salsari-burrukeari aurre egitearren, azken jabetasunak banan-



banan galdu dozuz, au da, baso-sail bikaiñak. Eta bikaiñena zan Lardigane'ko arizti parabagea be, saldu bear izan zenduan, nori ta "Goiena" leikide amorratuari...! Baiña emen be zeuk burua lengo lepotik, eta zure oldeari dagokion gaizakeriaz jokatu zenduan.

Itz oneik esanik, mai-gaiñean egoan idazki—zorroa zabaldu, eta agiri bat atarata, Klemen'en ondoan jesarri zan.

– Begira Klemen –esan eutsan–, agiri onek "Goiena"ren izenean Manu'k baratari baten aurrean zeuri erosiriko Lardigane'ko ariztia legeztatzen dau. Zure azken jabetasuna, Klemen, baiña orain dator siñisteziña dana.

Au esatean, Kepa Mirena'k beste agiri bat Klemen'en aurrean ipiñi eban, eta astiro ta mintzo argiz,

– Bai al-dakizu emen diñoana, Klemen...? –esan eutsan–. Ara...orain illa-bete bat-edo guri saldu aurretik, dalako Lardigane'ko jabetasuna "Laratz" izeneko etxegintzari saldu zeutsala. Alabearrez, baiña, Jabetasun-agiritegian eza-gun bat eban Manu'k gure legegizonak, jakin eban "Goiena"k erositako basoa beste batena zala, lenengoa erosi izan ebalako, eta olakoetan, legea argi ta garbi dago. Bai, Klemen, sei milloiko marrokeria edo lapurreta egin dauskuzu. Aspaldiko egun aretan, zeuk niri atondutako lakioan, milloi bigaitik zortzi urteko espetxaldiaz zigortu ba'ninduen sei milloiagaitik zein izango ete da jaritsiko dozun zigorraldia...? Ez al-zara konturatzen galduta zagozala...?

Klemen'en aurpegia errautskara biurtu izan zan, eta berba egiteko gauza ez izanik, esku dardartsuakaz, begien aurretik eban agiri madarikatua gorrotoz begiraturik, estu ta larri ez ekian zer esan.

– Atzipetu izan dana –jarraitu eban Kepa Mirena'k–, asarre gorrian marrogillearen aurka itzelak bota oi dauz, legearen zigorraz zemaizen dauala. Ni, ostera, poztu egin nintzan, Klemen, nire eskuetan zindudazan-eta. Bai, zerorrek jarritako segadan jausi zara, eta nire eskuetan zaitut... Izan be, Klemen, zure marrokeriaren barri artu nebanean, guzurra badirudi be, pozez bete nintzan. Zeuk idune inguruan eun dozu urkatzeraiño estutuko yatzun sokea.

Orduko, Klemen'en itxurea errukigarria zan. Burutik oiñetaraiño dardar baten egoan, eta buru-makur, begiak soruan josita, ezpan odolgetuetan zear berba ulerkaintzak iges egiten yakozan.

Kepa Mirena'k idazki-zorrotik agiri bat atara eban, eta,

– Aizu, Klemen –esan eutsan–, agiri au izenpetu dagizun gura dot. Beronetan, espetxera igorri ninduan lapurketearen egilletzat zure burua autortzen dozu.

Bereala ulertu eban Klemen'ek agiri aren garrantzia, eta,

– Ez, ez, ori nerau espetxera bialtzea izango litzake.

– Zin dagitsut, Klemen, ez dodala orretarako erabilliko. Egindakoagaitik merezi dozun epaiketea, zeuk erabagiko dozu. Baiña egin ez neban obenetik, nire burua jareitu nai dot. Izenpetu egizu, beraz.

– Ez, ez –dardar baten iñoan Klemen'ek–, ori ezin dot egin...

Kepa Mirena jagi zan, eta urrutizkiñera joanda, jaso eban.

– Begira, Klemen –zemaitu eutsan–, ari onen bestaldean, Manu gure legegizona begira dot bearrezko salakuntzea egiteko auzitegian orain bertan, dana gerturik dago-ta.

– Eta izenpetzen ba'dot...?

– Itz emoten dautsut, salakuntzea ezereztuko dogula.

Ibillera kolokaz jagi zan Klemen, eta esku dardartsuz maira urreratu zan, dalako agiria izenpetzeko. Bere aurpegiaren itxurea izugarria zan. Bazirudian beste mundutik etorritako gizaki baten mamu zurbilla. Begi kiskalgarriakaz billatu eban agiriaren azpikaldea, eta izenpetu eban.

Agiriak auxe iñoan:

– "Nire adimenaren jabetasun osoaz, neuk, Klemen'ek, "Bikain"en jabeak, auxe zin dagit: orain bederatzi urte gure lantegian egindako lapurretaren egillea, ez zala izan Orueta'tar Kepa Mirena, nerau baiño. Neuk atondutako guzurkeriaren oparia izan zan".

Jarraian, eguna agertzen zan.

Izenpetuta gero, Klemen'ek asarre bizian lumea txoko batera jaurtirik, auxe esan eutsan Kepa Mirena'ri:

– Orain, joan zaitex madarikatu ori. Ondatu egin nozu, eta ez zaitut nire aurrean ikusi gura.

– Joango naz, Klemen, baiña pekatua barkatzeko, ostutakoa atzera emon bear yako benetako jabeari, eta zuk marrokeriz guri kendutako sei milloiak, biurtu bear dauskuz.

Klemen'en aurpegiak gorpu baten itxurea artu eban, eta mintzamina ia galduta, berba totelaz,

– Ez... daukat dirurik –esan eban–, da... dana... galdu egin dot..., zin dagitsut.

– Ez dot uste, Klemen. Nire zelatariak ikusi zaitu "Itsaskari" izeneko ontzi-baltzuan, lengo egunean txartel bat erosten zenduan, eta ez dot uste, beste iñora esku-utsik joango zintzakezanik. Ziur naz diru ori eskura dozula.

– Ez, ez...! –oiu egin eban Klemen'ek–, dana galdu egin dot, siñistu egistazu...!

– Diru ori bertanbera agertzen ez ba'da, len aipatu dautsudan salakuntzea auzitegira joango da astirik galtzeke.

Jagi zan, eta urrutizkiñera joaten zalakoa ozta-ozta egiñik,



– Ez, ez ni espetxera sartu –didar baten asi zan Klemen–, ez dot ara joan gura... dirua biurtuko dautsut, itxaron...!

Ibillera kolokaz, oiñak narrazka, alboko gelan egoan diru-kutxan esku dardartsuakaz jardun eban luzaro. Bein eta barriz kutxea zabaldu gura, eta urduritasunagaitik, ezin. Bitartean, Kepa Mirena'k lilluratuta kutxeari begiratzen eutsan... Bai, onetatik milloi biren sasi-lapurretaz salatu eben patu txarreko egun baten, eta ordutik pairamenaren izugarria...! Ainbeste oiñaze artean bere ama bizi-rik urten ba'litz...! Oldozkun onek aspaldiko atsekabea iratzarri eban bere baitan.

Une aretan, noizbait, Klemen'ek diru-kutxaren atea edegi, eta barruko lotuki bat atararik, auxe esan eutsan:

– Eutsi dirua, eta zenbatu nai ba'dozu, baiña osorik dago. Orain joan zaitez, madarikatu ori... Ondapena ekarri daustazu, joan zaitez betirako, betirako...!

Au esanik, Klemen besaulkian amildu zan, eta etsiak artuta, etenbako negar itun bateri emon eutsan. Ainbaketa ariña eginda, Kepa Mirena'k egiztatu aal izan eban diru guztia egoala, eta idazki-zorrotxura sartu eban. Berak aspalditik ames egiñiko lez bete izan zan bere mendekua, eta bapatean, andik urteteko gurari bizi bat beratzaz jabetu zan, eta Txinbo'ri mintzatuz,

– Goazen Laurentzi –esan eutsan–, laga dagigun leku gorrotagarri au.

Gelako atea zearkatzeko zorian zala, une batez burua biurtu, eta Klemen'eri auxe esan eutsan:

– Auziaren ikustaldia amaitu da, eta nik neuk ez zaitut espetxera sartuko. Epaiketea orain zeuri dagokizu, Klemen.

Zurubian beera ate nagusira abiatzen zirala, Klemen'en negar itun, etsia, entzumeneraiño etorkien oraindik. Bazirudian, umezurtz billakatua dan aur baten negar mingotsa...

Urten ziranean, siri-miri lodi batek kalea bustiten eban, eta udabarria izan arren, eguraldia zakarra zan. Kalean zear abiatu ziran, uriko goikaldera joateko asmoz. Ibilli ebillela, baiña, Kepa Mirena sentipen bakanak menperatuta oartzen zan. Garaipenaren ordu gorena etorri izan zan, ain luzaro itxarotako mendekuaren ezti gozoa ezpanetan miazkatzeko ordua, baiña... urteetan zear egarri bizian irrikaturiko apentzak, ez eutsan ekarten ames egindako betetasuna. Aitzitik, ibilli ebillela bazirudian sentipen esan-eziña bere gogoaz jabetzen zala, eta berak aldendu gura izaten eban mintzo ezkutu batek, garaipenaren ordua samintzen eutsan, etenbarik ume baten negar etsia entzumeneraiño etorkiola. Izan be, bere buruaren aurka asarre gorrian egoan Kepa Mirena. Aspaldiz atondutako egitamua oso-osorik egi biurtu, eta zorionaren ordez, gero ta andiagoa biurtzen zan oarpen bakan batek artuta egoan.

Bere ondotik, Txinbo isillik eta buru-makur joian. Otzaren antzeko latz-ika-

ra batek astindu eban Kepa Mirena. Eguraldi txarrak eragindako urrean, eta kafetegi baten aurretik igarotean,

– Aizu, Laurentzi –esan eutsan lagunari–, otzak-edo artuta nago, sartu gaitzean orra barrura zeozer berorik artzeko.

Sartu ziran. Portu-aldeko ardanegi itun eta illunkara zan. Txoko baten, itxaslari-itxurako lau gizaki karta-jokoan ari ziran, eta gure lagunak txokorik urrunenean jesarri ziran. Morroiari kafesne bana eskatu eutsoen, eta gozakia eragin bitartean, Txinbo'ren betosko illuna ikustean,

– Esan, Laurentzi –itaundu eutsan–, zer deritxazu nire mendekuari...?

Txinbo'k, baiña, ez zirudian bere aldarerik onenean, eta begiak maian josita, ezkibel eta isillik zirauan. Erantzunik ezean, barriro,

– Baiña Laurentzi, zer dala-ta orren muturik...? Mendekuaren ordua eldu yat, eta poztu-bearrean ezbear bat jazo bai'litzakizun ikusten zaitut. Ez ete zara gomutaten ain sarritan gure autuetan esaten neutsuna...? Orain, osteria, len ontzat emoten zenduana, zertan gelditu da, Laurentzi...? Aztu egin ete yatzu zital orrek niri ta amari ekarri euskun ondapena...?

– Bai, Kepa Mirena, olan izan da, baiña gaur atsegin ez yatan beste ikuspegi batetik agertu zaiataz... eta gaiñera, baderitxat Klemen'er negar umekoi, etsia, oraindiño dantzudala. Ezin naiteke poztu; apurtuta egoan gizon ezain bat etsipenaren besoetara jaurti dozu iñongo erruki barik. Bada, baiña, mindu nauan beste zer bat...

– Zerk mindu zaitu...?

– Gentzane'rekiko erabilli dozun jokabide zantar, lorriñak. Ez neban iñoiz uste izango, Klemen'egan zure mendekua asetzearen, neska errubako bataz baliatuko zintzakezanik, gaixoari ekarriko zeutsan oiñazea kontuan artzeke. Eta gaiñera, zelako neskatilla zoragarria...! Batzutan ikusi izan dot Gentzane Manu'ren etxean Miren Andrearekin izketan, eta beti aingeru bat begitandu yat. Beragan Jaungoikoaren doaia nabari da, Miren Andreagan lez. Ez dakit doai ori zer dan, baiña ontasuna, garbitasuna dala esango neuke. Ez dozu iñongo arrenkurarik izan, olako aingerua jostaillutzat artzeko, beste baten errua ordaindu dagian... Ori, izugarria da, Kepa Mirena, eta nire buruari itauntzen dautsat, deabruak artuta ez ete zagozan...

Entzun bitartean, Kepa Mirena'ri aurpegia zurbiltzen joiakion, eta Txinbo'ren soak jasan eziñik, aurrean eban katillutxuari begiratzen eutsan. Asarre gorrian egoan bere buruaren aurka, eta ainbat areago adiskide maitearen itz egitiak entzutean. Txinbo'ren azalpenak luzarago jasan eziñik,

– Laurentzi –jaurti eutsan asarrez–, ori ez da egia, niretzat Gentzane ez da iñongo jostaillua...!



– Ezetz...? Ez dauzazu zerorrek Klemen'eri esan oraintxe, zure mendekua betetearren, Gentzane kendu zeutsala, ala guzur utsa esan dauzazu...? Ez dakit egindakoa damu dozun ala ez, baiña zure ezpanetatik entzun dot, eta ori egitzat daukat. Zurekiko izuz beterik nozu; ez neuke inoiz uste izan, zure apentza egi biurtzeko, Gentzane lako aingeru bateri olako laidorik ekarteko gai izango zintzakezanik...

Isildu zan une batez Txinbo, eta Kepa Mirena'ren aurpegi zurbillean begiak josita, onetaraxe jarraitu eban:

– Klemen'eri buruz... Ara... gizon zitala ta koldarra izan da, eta zigor andia merezi ebanik ez dot ukatzen. Zeuri ta zeure amari ekarritako zorigaitza neurribakoa izan da, eta egiana-egiala, ez leukean egiñiko makurra ordainduko. Eta izan be, azken urte biotan urratsik-urrats aren ondapena jaritsi dozu, eta gaiñera, gaur atzoko jazoerak gomutara ekartean, aren azkena izan da. Bere aurpegian agiri zan barruan sentitzen eban inpernua, eta benetan gaur eruki izan dauzat bere doillorkeri ta guzti.

– Bere bizitza osoan oker eta gaiztoa izan da.

– Ez dot zalantzan ipinten ori, Kepa Mirena, baiña alde batetik errukigarria da. Ezkuntza txar baten oparia izan be, aitak emon eutsan bigunkeri ta ereguakaitik. Aberats askoren zorigatxa dogu ori, ustè izaten dabelako euren semeek guztitariko samurkeritan ezi bear dabezala, aberatsak diralako. Onen ondorioz, egunen baten bear izango dabezan ikasketak egin nai ez ba'dabez, oiko bigunkeriari jarraituz, onetan be amor emoten dabe, konturatu barik, biar ez dirala gauza izango yarauntsiko dabezan arazoak erabilteko. Auxe izan da aitak Klemen'eri emondako ezkuntza, eta onek egin eutsun zitalkeria, neurri andi baten aitagandik artutako ezkuntza errazari zor yako.

– Ni ez naz orretan errudun.

Isillune larria sortu zan une batez, eta gero Txinbo'k barriro,

– Ezin dagiket burutik kendu Klemen'en negar urratua idaztegitik urten gintzazanean. Gazte nintzaneke jazoera bat burura dakarkit. Ara, alboko etxe baten amar urteko gaztetxuak ezbear baten, gurasoak galdu ebazan. Egun batzutan zear, mutikoaren negar etsia entzun neban gogotik kendu eziñik, aide batek gaztetxua berarekin eroan eban arte. Gaur, Klemen'en negarra entzutean, ume aren itxaropenbako negar goibela gogora etorri yat. Baderitxat oraindiño dantzudala Klemen'en negar itun eta umekoia.

– Nik ez dauzat zigorrik emon, baiña. Epaiketean berak egingo leukela esan neutsan...

Itz oneik esatean, Txinbo'ren begikada zorrotza jasan eziñik, begitarte illunaz maitxu-zamauan josi eban adikunea. Asarre bizia oartzen eban

Txinbo'k esanagaitik, baiña azkozaz asarreago sentitzen zan bere buruaren aurka. Barrutik ar batek marrazkatzen eban, eta lengo garaipena, aizean ezabatzen dan ke meearen antzekoa billakatua zan. Non egoan berak ain luzaro itxarotako mendekuaren ezti gozoa...? Bere buruari inotsan, ostera be, lortutako gurendea, gizaki zital bateri emoniko ordaintza zala, eta joko garbi baten bidez bere egitasmoa aurrera eroan izan ebala. Alperrik baiña... ezin egikean burutik kendu Klemen'eri len entzundako negar etsia... Oldozkun oneitan murgilduta zala, Txinbo'ren mintzo maitetsua aditu zan auxe inotsala:

– Gomutan dozu espetxean bein baten jazo zana...? Kristo'ren irudia zurlandu nengian marrazki bat atondu zenduan. Zauskagarria zan, eta ikusi baiño ez, zarrastada itzelak menperatu ninduan... Bai, nire bizitza betirako aldatuko leuken biotz-ikara larriak. Gurutzatuaren oiñazeen artean, nik somatzen neban maitasun neurribakoak biotza ukutu eustan. Bai, betirako ukutu eustan miraria... Oroitzen al-zara Kepa Mirena...? Jasan neban umetaro zoribakoan ez eustan inork Beratzaz ezer esan, eta gazte billakatu nintzanean, or-emen zeozer aditu baneban be, oso gitxi izan zan. Jaunaren irudi gurutzatua marraztu zenduan, Areganako erakarpen garaiteziña oartu neban, eta Berari buruz zeozer esan zengidan eskatu neutsun, eta zeuk zenkiana esan zeustan. Ordutik nire jokaerea aldatzen asi zan, eta oartzeke beste bat billakatu nintzan...

Txinbo'ren aurpegian zear maitasun-itxurea edatu zan, eta mintzoa samurturik jarraitu eban,

– Espetxetik urten nintzanean, Miren Andreak esondaturiko, Jaunaren bizitza batzuk irakurri nebazan, eta orduan benetako maitasuna zer dan jakiñik, onekin batean barkatzen ikasi neban. Berak aldatu nau, eta nire bizitzeari sen bereizia emon dautso, bakea ta itxaropena aurkitu dodazala...

Isildu zan une batez, eta gero Kepa Mirena'ri txeratsu begiratzuz,

– Zeuk, Kepa Mirena'k, konturatzen ez bazara be, biotzean daukazu. A lako Jaun gurutzatua marraztu ebanak, bere burua aren izaeraz beterik dago, bestelan ezin ipiñi Aren aurpegiari emon zeutsan maitasun-isuria. Eta au nai-korik ez bai'litzan, urteak dira ezagutzen zaitudala, eta ziur naz gaur egiña damu dozula, eta Klemen'en ondapen osoak eta bere negar etsiak jazarten zaituela, zeugan arrenkura bakana sortuz.

– Arren, Laurentzi –esan eutsan Kepa Mirena'k abots minduaz–, ez jarraitu bide orretatik. Egia da, izan be, arrenkura andipean nagoala, eta nire mendekuak ez daustala zorionik ekarri, baita ames egiñiko gaurko abagunea ezerezkeria biurtu yatala be, baiña egi-egitan gaurko auzian garbi jokatu dot, eta Klemen'ek ez dau besterik artu, dagokion zigorra baiño.



– Egia da ori, eta esan bearrean nozu, zeuk egiñiko azalpenak benetakoak izan dirala, baiña ondatu dozun zoribakoari ez dautsazu iñongo errukirik erakutsi. Egia da baita be, epaiketearen erabagia beragan jarri dozula, baiña zelako erabagia artu dagike etsiak jota aurkitzen danak..? Bildur naz, Kepa Mirena, zelako epaiketea emongo dautsan bere buruari...

Baziran une batzuk arrenkura ori bera, Kepa Mirena'z jabetzen asia zala, eta bere adiskidearen azkenengo itzak entzutean, izu bakanpean ustekabez jagi zan auxe iñoala:

– Goazen, Laurentzi, goazen astirik galtzeke.

– Nora, baiña...?

Itz bat bera be esan barik, Txinbo'k erraikiola Kepa Mirena kalera urten zan. Siri-miri aspergarri lodipean kalea utsik egoan, eta argi motelen artean ibillerea azkartuz, Kepa Mirena bidean beera abiatu zan. Andik laster, "Bikain"en lantegiko iragarki argitua agertu zan. Gabeko bederatziak izanik, portu-aldeko auzo aretan ez zan iñor ikusten. Alako baten, eta urrun samar aurkitzen zirala, lantegiko atea zabaldu, eta ibillera kolokaz gizaki bat urten zan. Lenengo albo-kaletik aren irudi ezabatsua galtzen zala ikusirik, suzmo txar batek jota,

– Goazkion, Laurentzi –oiu egin eban Kepa Mirena'k–, arindu gaitzen ibaira baiño len.

Ibillerea azkartu eben lagun biok. Albo-kalea biurtzean, eta irudia Klemen bera zala ikustean, ariñeketan asi ziran, zubira barik irixteko asmoz. Burdiñezko zubi ederrera eldu zanean, Klemen'ek eskudelari oratu eutsan, eta onen gaiñean ixtaklok jarrita, une batez aiko-maiko, beeko ur illunetarantz begiratu eban. Izandako euri-jasa lodiagaitik, joaira lupetsua arrotuta etorren, zubiko zutoiñak suzmur motelaz miatzkatuz. Olan egoala, arin baten etorren Kepa Mirena'k burdiñezko eskudeletik erauzi eban auxe zirautsala:

– Baiña zer egin gura dozu, zoribako orrek...?

Klemen'en begietan zoratasunaren aztarna agertu zan, eta bestea ezagutzean,

– Zeu, zeu, madarikatu ori... ez dautsut esan len nire begien aurretik kendu zaitezala...?

– Klemen, nasaitu zaitez, eta etorri gurekin zeozer artu dagizun, otzez dardar baten zagoz-eta.

– Bai, Klemen –eratsi eban Txinbo'k–, ez zaitez kezkatu, lagundu gura dautsugu-ta.

Lagun biok Klemen erdian ipiñi eben, eta beso banari eutsita, ibilten asi ziran, baiña Klemen jarki yaken, auxe zirautsela:

– Itzi nagizue bakean nire epaiketea burutu dagidan. Bai, auziaren epaiketea neugan zetzala erabagi da, eta nire burua iltea ebatzi dot. Oba da ori, eskale baten antzera betirako bizi baiño.

Itxura negargarria erakusan zoribakoak, janzki ta ule naasiak bustita. Bazirudian gau aretan amar urtez zaarrago biurtuta. Oñiak eta eskuak dardarikatzen yakozan, eta agiri zan nekez eбилkeala. Ezustean, erruki andiak menperatuta, Kepa Mirena'k txeratsu esan eutsan:

– Begira, Klemen, ez dautsugu iñongo kalterik egin gura, laguntza emon baiño. Joan gaitzen leku epel batera, eta zure egoerea aztertuko dogu.

Lagun biok Klemen galtzarpetik artuta ibilten asi ziran. Gau otz eta euritsu aretan, ez ziran oinkaririk ikusten. Noizbait, lengo kafetegiko ate-aurretik igarotean, Kepa Mirena'k ara sartzea erabagi eban. Barruko giroa atsegiña zan, eta lengo mariñelak joanda, aretoa utsik egoan. Mai baten inguruan jesarri ziran irurok, eta zerbitzariari dei egiñik, Kepa Mirena'k auxe esan eutsan:

– Aizu, apaldu nai dogu. Asteko ekarri egiskuzu salda beroa, eta gero bildoskia.

Agindua lez egin eban morroiak, eta irurok jaten asi ziran. Agiri zan Klemen indarren mugan aurkitzen zala, saldea nekez irunsi egikean-eta. Orduan Kepa Mirena'k,

– Entzun egistazu, Klemen: indarge ta lur-jota ikusten zaitut, eta zure zerera biurtu zaitezala bearrezkoa da, dagokizun arazoari bear dan lez ekin dagiogun.

Bazirudian, astiro-astiro bere einera biurtzen asten zala, eta bildoskiari ekin eutsoenean, aurpegiaren larmintza errauskara bizitasunaren aztarnak erakusten asi zan. Ardao on bat agindu eban Kepa Mirena'k, eta eretia ona zala iruditu yakonean,

– Aizu, Klemen –itaundu eutsan–, zeintzuk asmo dozuz etorkirako...?

– Orain ez dot iñongo asmorik.

– Zein zan zure asmoa len...?

– Etzi Igandean itsasontziz Ameriketara joatea asmatzen neban, baiña orain zertarako...? Eskale bizi izateko ez dot ara joan bearrik.

– Baiña emen zer egingo dozu, Klemen...? Bizitzean zear gurenda lortzeko, adorea bearrezkoa da, eta aalegintzen ba'zara kemenen etorriko yatzu.

– Nik ez dot iñongo kemenik bear, iltea da nai dodana...

Isildu zan une batez Kepa Mirena, eta gero,

– Esaidazu, Klemen –itaundu eutsan–, dirurik ba'zendu zer egin zengike...?

– Argentiña'ra joan, eta an bizimodu barria billatu.



– Zelako bizimodua...?

– Ara... errediza-denda bat jarriko neuke. Ainbeste urte erredizagintzari emon ondoren, zeozer badakit arean.

– Gitxi gora-beera zenbat diru bear izango zenduke orretarako...?

Une batez oldozkor iraun eban Klemen'ek, eta gero,

– Ezin dagikezut zeatz esan, baiña bataz beste milloi bat-edo...

Une aretan zerbitzariak mai-azkenak ekarri ebazan, eta joan zanean,

– Aizu, Laurentzi –itaundu eutsan Kepa Mirena'k–, zubitik onantza gen-  
tozanean burutapen bat etorri yat, baiña aurrera eroateko zure baimena bea-  
rezkoa da. Zer-eta “Goiena”ren diruaz Klemen'eri lagundu...?

– Oba ez...!

– Klemen'ek uste dauanez, milloi bataz naikorik izango da, baiña bada-  
ezpadakoan oba litzake bi emotea, nire ustez beintzat.

– Bai, Kepa Mirena, emon dagioguzan.

Idazki-zorroaren barrutik, Kepa Mirena'k sei milloietatik bi baztertu eba-  
zan, eta estalki batera sartuta,

– Eutsiz, Klemen, zuretzat. Zeuk asmatu lez, etzi Igandea Ameriketarantz itxasoratuko zara, biziera barri bat asteko...

– Baiña –eten egin eutsan Klemen'ek– ez dakit diru ori noiz biurtuko dautsuedan

– Ez dauskuzu atzera emon bear. Olan errazagoa izango yatzu onik urtetea. Klemen'en aurpegia poztasunez argitu zan, eta eskerrona jabetu eziñik,

– Eskerrik asko benetan –esan eutsan–. Ez dakit zuen jokaera ori zelan eskertu, baiña egunoro gogoan izango zaituet.

Orduko, janariak eta diru-emokariak eraginda, Klemen'ek beste gizaki bat zirudian. Bizi-naiak begiai dizdir adoretdua emotsen.

– Entzuidazu au, Klemen –esan eutsan Kepa Mirena'k–, gizaki bateri garaipena dakarkiona barruko indar eta kemena dira. Ameriketara eldu zaitez zanean, adore guztiaz aalegindu zaitez, eta bide orretatik irauten ba' dozu, ziur zaitezke burua jasoko dozula.

– Zelan eskertu nire alde egin dozuena...?

– Leku ta ereti guztietan zuzen jokatu. Orixe izango da guretzat ordain-  
tzarik onena, ezta Laurentzi...?

– Bai benetan.

Irurok alkarrizketari jarraitu eutsoen, eta noizbait urreneko eleizeatik joale batek amaikak jo ebazanean, kalera urten ziran uriko goikaldera joateko. Klemen'ek beste gizon bat zirudian, itsasoz bestaldeko bere denda zelan era-  
billiko leuken azalpen ugariak emonez. Alako baten, Kepa Mirena'k,

– Begira, Klemen –esan eutsan–, ez zaitez larregi arindu. Ara eldutakoan, errediza-denda baten billatu egizu jardun bat, eta ango oiturak, errediza-  
motak, eta jendea ezagutu ondoren, orduan eta ez lenago, daroazun diruaz eta aurreztutakoaz, denda baten ugazaba biurtu zaitez.

– Orixe egingo dot.

Olan ziarduela, uriko kale nagusira eldu izan ziran, eta banatzeko ordua zan. Zauskada andipean eta mintzo dardartsuaz, Klemen'ek Kepa Mirena'ri itz egiñez,

– Damu dot –esan eutsan–, egin neutsun zitalkeria. Ez dakit zelan eskertu nire alde egin dozuna. Nik egiñiko kaltea on-egitez ordaindu daustazu.

– Ez bedi onetzaz besterik esan, Klemen. Gauza bat jakin dagizula nai dot, eta auxe alegia: ilteko zorian zala, nire amak dana barkatu eutsun, eta gaur neuk be orixe egin dot. Agur, Klemen, guztitariko zorionak opa dautsu-  
daz.

Begiak laiñoturik, auxe eskatu eutsan Klemen'ek,

– Joan aurretik, ez nozu besarkatuko...?

– Bai Klemen, biotz-biotzez.

Kepa Mirena ta gero Txinbo besarkatu ebazan Klemen'ek, eta malkoak ezkutatu naiez, urtean, illuntasunean zear ostendu zan.

Kepa Mirena'k eta Txinbo'k leku berean zirauen, itzalen artean Klemen'en irudia ezabatu arte begiztatuz. Asperen bat urten yakon Txinbo'ri, eta,

– Gaur, Kepa Mirena –esan eutsan–, gizaki baten bizitza gaizkatu dozu. Jaunak bedeinkatu zagizala...!

– Benetako salbatzailea zeu izan zara, Laurentzi.

– Barkapena eskatu bear dautsut, portuko kafetegi aretan zure aurka itze-  
lak bota dodaz-eta.

– Ez, Laurentzi, egi biribillak jaurti daustazuz, eta izan be, “Bikain”en idaztegitik urtetean, bayabildan ar marrazkari bat barrutik.

Txinbo'k irribarez begiratu eutsan, eta,

– Ez al-dakizu gauza bat, Kepa Mirena...? Munduko gizonik onena zara. Bai, ain luzaro zure ondoan bizi izanda gero, ori ondo dakidan gauza da.

– Badazagut ni baiño askozaz ohea dana.

– Nor...?

Kepa Mirena'k ez eutsan erantzunik emon. Ibilteari jarraitu eutsoen, eta noizbait aldentzeko garaia eldu yakenean,

– Gauza bat esan gura dautsut, Laurentzi –irautsi eutsan Kepa Mirena'k–. Biar zurketari batzuekin bazkari bat egitekotan nago, baiña etzi Igandea



Gentzane ikusiko dot, eta berari nire doillorkeria azalduta gero, barkapena eskatuko dausat.

– Gentzane dan aingerua...!

– Bai, Laurentzi, gero ta biotzeanago daukadan aingerua... Aspaldi onetan baderitxat aren urrezko begiak etenbarik ikusten dodazala.

– Agur, Kepa Mirena, zuok biontzako guztitariko zorionak opa dautsuedaz.

– Agur, Laurentzi, datorren Astelen arte.

## GALDUTAKOAREN BILLA

Udabarriko arratsalde eder aretan, Kepa Mirena munduko gizonik zoriontsuena sentitzen zan. Eguratseari berpizkundeko giro bereizi maitagarria erion, sasoi orretan izadi guztiari sortzen yakon joran barria, etenbarik barriztuz loaren atzetik jaiotzen dan itxarkunde itxaropentsua. Gentzane ikustera joian bakotxean, baeritxan Kepa Mirena'ri azaldu ezin egikean zorion bakana beratzaz jabetzen zala. Asiera baten, berarentzat mendekua asetzeko jolas baten antzekoa izan zana, aldiaren bidean bere izaera guztiaz jabetu izan zan erakarpen sorgingarria billakatua zan. Klemen'eri neskea kentzearren Gentzane'rekin urteten asi zanean, illabete batzutarako arazoa izango litzake-la uste izaten eban, baiña aldia igaro-ala, Gentzane'gandik erion zer bereizi batek lilluratu izan eban, eta maitasunak argituriko neskatillearen urrezko begiek arimaren sakonenean oartzen ebazan. Asiera baten, neska arrunt eta txotxoloa iruditu yakona, berak oartzeke, emakume maitagarria biurtu izan zan. Orain ez yakon bururatzan, mendekutzat artutako jostaillua alde batera laga betirako, aitzitik, aregandiko zoramenak nonaira laguntzen eutsan.

Pozik joian arratsalde aretan Gentzane ikustera, eta Txinbo'ri agindutakoa betetera. Bai, egun aretan bertan, egia esango leuskio, eta asieratik dana autortu ondoren barkapena eskatzeko gerturik egoan. Neurri baten, oraingo apaltasunaz lengo asmo zitala ordaindu nai eban.

Gogoeta oneitan ibilli ebillela, Aldagandarren etxera eldu zan, eta kalea zearkatu aurretik etxaurreari begiratzan eutsala, oarpen bakanak atzitu eban, eta zergaitia jakiteke, sentipen larri bat beratzaz jabetu zan. Etxeko leio guztiak itxita egozan, an iñor bizi izango ez bai'litzan, eta biotz-ikara bizipean, espaloian geratu zan une batez, etxeari begira ta begira. Gero, kalea zearkatu, eta txiliña jo eban. Andik laster, atezaiña agertu, eta gaztea ikustean,

– Jauna –esan eutsan–, ez ete dakizu joan diranik...?

– Joan... zelan, baiña, nora joan dira...?

– Nik uste izaten neban jakingo zendukela.

Izu bakanpean Kepa Mirena'ren aurpegia zurbildu zan, eta dardar baten,

– Noiz joan dira...? –itaundu eutsan–.



– Gaur amar bat egun bide-zorroak artuta joan ziran, baiña barkatu Jauna, lenagotik esan ez ba'dautsut. Alde egitean, Gentzane Andreiñoak zuretzat eskutitz bat emon eustan. Itxaron apur bat.

Atezaiña ostendu, eta andik laster azaldu zan barrero, eskutitz bat eskuan ekarrela.

– Ona emen eskutitza –esan eutsan–. Ezin dagikezut besterik esan, Jauna.

Eskutitza artuta, Kepa Mirena kalean gora ibiltzen asi zan, esku dardar-tsuaz estalkia urratzen ebalu. Ona emen, txartelak iñoana:

“ Kepa Mirena:

Zure igarotakoaz jakitun nago, alanbear bat az jakin be. Ez neban iñoiz uste izango, orren zitalki jokatu zendukeanik iñongo errurik ez ebanarekin. Gorde zaitez nigandik aalik urrunen, ez zaitut ikusi gura-ta. Dana barkatzen dautsut, baiña arren, ez neugana biurtu.

Gentzane'k.

Gorpu baizen zurbil, zer egin ez ekiala, kaleko aulki baten gainean jesarri bear izan eban, eta aurpegia eskuen artean jarrita, une luze batez oiñaze bizi-pean irau eban, noizean bein antzi bat iges egiten yakola. Bapatean oartua zan Gentzane maite ebalu zoroki, bere izate guztiaz ain zuzen be, eta bera barik bizitza itun eta zoribakoa izango litzakiola. Naskatillagaitik dana emon-go leuke, eta Gentzane betirako galtzekotan, bizi-gurarik ez...

Luzaro samar jesarrita irau eban, eta gero, barruko egoera arintzearren, norabarik ibiltzen asi zan. Noizbait, gautu zanean, oartzeke Manu'ren etxe-aurrean aurkitu zan. Bultz bakanak eraginda, atea jo eban, eta Miren'ek edegi eutsan. Mutillaren itxura larria ikustean, sartu-erazo, eta aretora eroan eban. Miren'en senarra liburutegian egoan bere sillu-bildumea atonduz, eta besaulki banatan jesarri ondoren,

– Baiña Jaungoikoarren, Kepa Mirena –itaundu eutsan Miren'ek–, zer jazo yatzu, mutil, geisorik al-zagoz...?

– Ez, Miren, ori baiño askoz txarrago. Gentzane joan da, baiña irakurri egizu itzi daustan txartel au.

Miren'ek irakurri eban astiro, eta amaitu ebanean,

– Baiña Kepa Mirena, Gentzane'k ez ekian ezer zure igarotakoari buruz...?

– Ez, ez neutsan iñoiz aipatu nire lengo biziera, eta oraingo nire zigor au egokia da, Miren... neuk zital onek jokaera ziztriña erabilli dot Gentzane'ri buruz, eta orain yatordan zigorra merezi dot. Nire apentza asetzearren jostailu baten antzera erabilli dot. Bai, Klemen aren atzetik ebillela jakin nebanean, neskea kenduko neuskiola nire buruari zin egin neutsan, eta izan be, jaritsi

neban. Orain, nire doillorkeria ordaintzea dagokit... Ez dakit zelan jakin dauan nire atzokoa, baiña jakin dau, baita zelako asmoz urreratu nintzakion asiera baten be. Bai, apurka-apurka nik oartu barik, Gentzane biotzera sartu yat eta zelan sartu be... Maite dot oroz gainetik, eta orain galdu dodanean bera barik ezin naitekela bizi oartzan naz... Berandu, baiña...! Ai ene, galdu egin dot...!

Etsiak jota aurkitzen zan Kepa Mirena, eta zeozer baretu zanean, Miren'eri dana azaldu eutsan. Luzaro samar irau eban mutillaren edeskiak, eta amaitzean,

– Ondo ezagutzen dot Gentzane –esan eban Miren'ek–, eta izan be, zoragarria da, gaurregun nekez aurkitu daitekenetakoa.

– Bai, Miren, Laurentzi'k diñoanez, aingeru bat.

– Gentzane'k edozein gizonari zoriona ekarriko leuskio, Kepa Mirena. Beti neska apala izan da, bere buruaren apainketeari jaramon andirik egiten ez dautsanetarikoa, baiña azken aspaldi onetan, nik ez dakit zergaitik, neskati-lla ederra billakatu da. Lotan egoan bere arimea itxartu egin da, eta barruko argia borborka isuriz, bere urrezko begien edertasunak mirari ori egin dau.

– Egia, benetan. Asiera baten lekaime-gaiaren itxurea eban, baiña gero, nik oartu aurretik, edertasun parebagea biurturik, nire biotzaz jabetu egin da. Orain, baiña, galdu egin dot, galdu...!

– Entzuidazu ondo, Kepa Mirena. Bera lako emakumea birrirabaztearren aalegin guztiak egin bear dozuz, jokatzan dozunaren saria neurribakoa da-ta. Joan aren billa munduko azkeneraño joan bear izango bazenduke be. Gero, egia autorturik, barkapena eskatu egiozu.

– Gerturik nago edozertara, baiña non dagoan jakin barik, zelan aurkitu...? Etxeko atezaiñak ez daki nora joan dan, eta dirudiane, ama-alabak ez dabe iñongo argibiderik laga izan gura.

—Begira, Kepa Mirena. Erabilli zure adimena aalik ondoen bere barriak lortzeko. Nire aldetik be aaleginduko naz, eta zeozer ba'neki jakitun ipiñiko zaitut.

– Eskerrikasko, Miren. Ez dakit zelan ordainduko dautsuedan bai zuri, bai zure senar eta semeari nire alde egiñikoa...

– Ondo ordainduta izan gara, Kepa Mirena.

– Agur, Miren, eta Jaungoikoak bedeinkatu zagiezala.

– Agur, Kepa Mirena, eta biotz on...!

Gau aretan lo egin eziñik irau eban Kepa Mirena'k, batetik bestera oean iraulkatzen zala. Egunsentiaz batera jagi zan, eta gosaldue ondoren “Goiena” lantegira urrutizkiñez dei egin eban, Txinbo'ri jakiñerazoteko gertatzen zana,



eta augaitik egun aretan ez litzakela joango lan egitera. Aal eban giñoan lantegiko arazoak bere gain artuko leukezala, esan eutsan Txinbo'k, eta beiñena Gentzane aurkitzea zala.

Jarraian, itsasaldera joanda, Gentzane'ren landetxera abiatu zan. etxeko leioak itxita egozanez, agiri zan ama-alabak an ez zirala aurkitzen. Etxea zaintzen eben senar-emazteak alboko etxetxu baten bizi izaten ziran, eta araturik, Gentzane'ri buruz itaundu eutsen, baiña areik ez ekiela ezer, astebete bat-edo bazala ugazabandrea ta alabea joan izan zirala, baiña nora esan barik.

Lur-jota biurtu zan mutilla urira, eta arratsalde aretan, "Begirariak" taldekoakana joanda, diruari begiratzeke, ama-alaben barriak lortu egiezan agindu eutsen.

Urrengo egunean, lanaren bidez bere ezin-egona baretzearren, lantegira joan zan, eta eguneroko arazoai emon eutsen buru-belarri. Arratsaldean, lantegitik urira biurtzeko zorian zala, "Begirariak"en nagusiak dei egin eutsan esanez, bidai-baltzu ta geltoki guztiak ikertu izan arren, ez egoala arein barriarik. Urira eldu zanean, larritasunari iges-bidea emotearren, erri-berebil eta tren-geltoki batzuk ikertu ebazan, ama-alaben albisteak jakiteko, baiña dana alperrik. Urrengo egunetan ikerketa orreri jarraitu eutsan danak ikusi arte, baiña billatzen ebazanen barriarik ez. Eta olan billaketeari jarraitu eutsan jangar eta nakar, astebetea gero ta larriago emon arte. Igandeko bazkalostean ezin-egona arintzeko irakurten ziarduala, ostatuko urrutizkiñak ots egin eban Kepa Mirena'ren galdez. Miren zan, eta,

– Aizu, Kepa Mirena –esan eutsan–, zatoz arin baten gurera, zuretzat barriak dodaz-eta.

Arrapalada baten aratu zan Kepa Mirena. Une aretan bazkaria doi-doi amaituta, Miren'ek, onen senarrak eta Manu'k oiko maitasunaz abetaldu eben. Eurekin jesarri-erazo, eta kafea artu bitartean, Kepa'k berantetsia,

– Esan, Miren, zelako barriak dozuz niretzat...? –itaundu eutsan–.

– Begira, gure eleizako parrokoak lagun-miñak ditu Aldagandarrak, eta au jakiñik, eguberdiko meza-ostean beragana joanda, ez-arian lez, ia ama-alaben albisteak ete ebazan itaundu dautsat. Baietz esan daust, araiñegun Erroma'tik arein txartel bat artu izan ebala. Onen bidez jakiñerazoten eutsan alargunak, datorren astean Suiza'ko Lausanne'ra joango litzakezala, astebete bat uri onetan igaroteko. Auxe da parrokoak esan daustana.

– Zein ostatuan kokatuko litzakezala, ez al-daustu aipatu...?

– Itaundu dautsat orreri buruz, baiña berak ez ekiala.

– Joan egin bear dot oraintxe bertan Lausanne'ra. Bertaratuta, zeru-lurarak arakatuko dodaz areik aurkitu arte.

– Baretu egizu urduritasuna, mutil. Eurak baiño len ara joatea alperriko

gauza litzake. Aste-erdian ba'ziñoaz, orduko an izango dira, eta orduan asi zaitkez, beraz, arein billa. Nik esondatuko neuskizu datorren eguastenean joateko, eta eldu baiño ez billaketeari emon.

– Ondo deritxat orreri, Miren. Ni beti zorretan zurekin. Ez dakit noiz etorriko yatan eretia, nire alde zuek egiña ordaintzeko.

– Aspalditik ordaindu zeuskun, baita gaiñezka be. Oroitzen al-zara espetetik urtetean emon zeustan marfillezko gurutzatua...? Ikusi dabenek irudi ori ordainteziña dala diño.

– Nire alde zuek egiña, noiz nik ordainduko...!

– Ez zaitetz arduratu, Kepa Mirena. Gentzane birrirabazi dagizula, etxe onetakuok nai doguna da.

– Jaunak bedeinkatu zagiezala. Agur...!

– Agur, Kepa Mirena, eta biotz on...!

Urrengo egunean, bidaitegi baten, txartel bat Lausanne'rako agindu eban Kepa Mirena'k. Eguasteneko arratsaldean urteteke zan, eta Prantzia'n zear gau-trenaz, urrengo egunean elduko litzake. Urten baiño len, "Goiena"ren arazoak Txinbo'ren agintzapean laga, eta besarkada estu bataz aldendu ziran.

Asmatua lez, egueneko goizean, Kepa Mirena Lausanne'ko geltokian jatsi, eta taxi baten aurretiaz berbatutako ostatura joan zan. Bide-zorroa logelan lagata gero, ostatuko jatoki apaiñean gosaria artu eban. Gosaldu bitartean, bidaldian biribildutako asmoa zeaztu eban, eta maitik jagita, taxi bat eskaturik, erriko ertzaindegira abiatu zan. Uria andi samar eta txango-lekua izanik, ostatu ugari kokatzen zan. Luze ta zaila, beraz, ostaturik-ostatu Aldagandarren argibideak jaristea. Ori ertzaindegiaren bidez askozaz arin eta ziurragoa zan.

Sartzean, atezaiñari ertzain-buruak ikusi nai ebala esan eutsan, eta andik laster onen aurrean egoan.

– Jauna –itaundu eutsan onek–, zer da neugana zakazana...?

– Begira, ertzain-buru Jauna. Ezinbestekoa yat, Aldagan abizeneko ama-alabak aurkitu dagidazala lenbailen.

– Zertarako...?

– Diru-arazo txit garrantzitsua da nakarrena. Ustekabez sortutako erabagi beiñena artu bear dabe, eta areik jakitun ipinteko nator.

– Nor zaitut...?

– Euren diru-onularia, Jauna.

– Erakutsi egistazu laterri-arteko agiria.

Kepa Mirena'k eskaturikoa erakutsi eutsan. Ertzain-buruak onen gorabeera batzuk txatal baten idatzi ebazan, eta,



– Begira, Orueta Jauna –esan eutsan–, uri andi onetan ostatu asko dago, eta baktotxa ikertzeko, astirik bear. Dagokidazan azterketak bereala asiko dodaz, eta zeozer jakin dagidanean, esango dautsut. Zein ostatuan kokatzen zara...?

Kepa Mirena'k ostatuaren izena emon eutsan, eta ertzain-buruak,

– Aizu, gazte –esan eutsan–, zeozer jakitekotan, ostatuko artzetegira dei egingo dogu zu jakitun ipinteko.

– Eskerrikasko, Jauna.

Biurtu zan Kepa Mirena ostatura, eta areto nagusian begira jarri zan. Orduak igaro ziran, eta gabeko amarretan inguru, zerbitzari bat urreratu yakon txatal bataz. Onetan auxe idatzita egoan: “Aldagan ama-alabak Lehman izeneko ostatuan dagoz”.

Urrengo egunean gosalduta bereala, biotza pilpira zorotan ebilkiola, Kepa Mirena Lehman ostatu bikaiñera joan zan. Goizeko amarrak izango ziran, artzetegian Gentzane'ri buruz itaundu ebanean. Urrutizkiñez dei eginda gero, neskatilea egurastera joan izan zala esan eutsan arduradunak.

Nora ez ekiala, Kepa Mirena ateraiño joan zan, eta emengo zaindariari Gentzane ikusi ete izan eban itaundu eutsan.

– Bai, Jauna, ordu-erdi dala, ostatuaren atzekaldeko egurastegira joaten ikusi dot.

Dardar baten, Kepa Mirena egurastegian zear abiatu zan, barruko zauskada jorantsua jabetu eziñik. Aulkiakaz ertzaturiko bide garbietan zear edatzen zan egurastegia, izai tantaiek bakezko kutsua emotsoela. Goiz samar izanik, jende gitxi ikusi zeitekean. Aldapatsua zan egurastegia, eta goikaldera eltzeko zorian zala, iñoiz ez ezaguturiko biotz-ikarapean gelditu zan. Beragandik ogei bat metrora aulki baten jesarrita, eta eskuetan liburu bat ebalá, Gentzane ikusi eban. Une aretan, idaztia altzoan zetzakion, eta bere begi andi ederrak, zugaitzez bestaldean jagitzen ziran mendietarantz zuzenduta egozan. Udabarriko goiz zoragarria zan, eta izadiari itxarkundia borborka erion zero oztinpean, urrutiko gaillurren edurra dizdiratzen zala. Zingira-gaiñeko laiñoa eguzkiak eraginda, gaindegietarantz ostentzen zan.

Kepa Mirena bedar-gaiñean ebillela, aalik isillen urreratzen zan. Une aretan, izai baten erpiñean, txindor batek bizi-miña aletzen asi zan. Inguratzen ebana oartzeko, begiak urrutian galduta, neskatileak amesetan zirudian. Alako baten, bere ondoan Kepa Mirena'ren abotsa aditu eban...

– Gentzane...!

Zur eta lur eginda, une batez neskatilea zer esan jakin barik, tximistak jota lez aurpegia zurbil eginda jagi zan, eta mintzo urratuaz.

– Zeu... zeu...! –oiu egin eban–. Zertarako etorri zaiataz..? Ez neutsun esan ba, ez zindudazala ikusi gura be...? Joan zaitetz, laga nagizu bakean... Joan zaitetz bein betiko...!

Gentzane'ri soin osoa burutik oiñetaraiño dardarikatzen yakon, urrezko begi andi ederretan, pairamen esan-eziña agiri ebalá. Bere aurrean burumakur eta begiak lurrean josita, Kepa Mirena'ri itzok urten yakozan:

– Barkapena eskatzera etorri naiatzu, Gentzane. Ez nagizu zapuztu..

– Ez, ez zaitut ikusi gura be, ken zaitetz nire begien aurretik, zital ori...!

– Jaungoikoarren, Gentzane, ezin nagikezu epaitu nire autorpena egin aurretik. Bein baten urteak dirala, egin ez neban obena leporatu eusten. Arren, Gentzane, ez nagizu zapuztu, nire esatekoa entzun barik. Gero, amaitu dagidanean, zure epaia ontzat artuko dot, eta egin dautsudan doillorkeria barkatzen ez ba'daustazu, bein betirako joango naz...

Gentzane jesarri zan begiak urrutiko tontor edurtsuetan jarrita. Bere ondoan, eta maite-miñez mintzoa zerbait koloka, mutilla bere edeskia aletzen asi zan.

– Orain amar bat urte, “Bikain” errediza-gintzan idazmutiltzat niarduanean jazo zan...

Eta astiro, iradu barik, Gentzane'ri aspaldiko jazoerak edesten asi yakon. Klemen'en zitalkeria; ertzaindegian jasandako laidoak; auzitegiko epaia ta bere amaren eriotza; espetxaldi izugarria eta bitartean sortu yakon mendekuegarria; egin ebazan ikasketak eta arrezkeroko askatasuna, bost urtez atxillo iraunda gero. Zelan asi zan errediza-gintza ikasten; onen osteko “Goiena”ren sorkundea Txinbo'rekin jabekidetzat; “Bikain”en aurkako burrukea onen ondapena lortu arte. Eta azkenean...

– Bein baten, Gentzane –jarraitu eban Kepa Mirena'k–, “Begirariak” ize-neko talde batek jakiñerazo eustan, Klemen neska baten atzetik ebillela, eta areri kalterik andiena ekartearren, zure ezaguera jaritsi neban, eta onen ondorioz gaiña artuta, zurekin urtetan asi nintzan. Zu Klemen'eri kenduta, luzaro barik zeugandik aldentzea zan nire asmoa, au da, gauzak urrunegi joan barik, baiña nerau oartzeko, biotzera sartzen asi zintzakidazan, eta zu lagatea aztu egin yatan...

Isildu zan Kepa Mirena une batez, eta txindorrek bere maitasuna aletzen ebalá,

– Asiera baten –jarraitu eban–, neskatilea arrunta, zeozer geldotzat artu zindudazan, baiña lora bat eguzkipean zabaltzen dan antzera, azaldu ezin dagikedan zerbait zeugan argiz betetzen asi zan, eta nire begiak zure urrezkotan kokatzen ziranetan, zerbait esan-eziñak erakarten ninduan, eta oartzeko,



nire bizitzan lenengoz zoriona ezagutzen asi nintzan. Ez nekian maitasuna zer zan, baiña zurekin nengoanean dana edertasunaz argitzen zan, gero ta biotzeanago sartzen zintzakidazala... Eta Igandeko arratsalde aretan zorionez gainezka zoriontsu niñozunean, etxea itxita ikustean, ezin esan alako zarrastadea nitzaz jabetu zan. Atezañari zuk niretzat emondako mezua irakurri nebanean, zorotzeko zorian billakatua, maite-maite zindudazala oartu nintzan, eta etsiak jota, inpernura barriro biurtzen nintzala iruditu yatan...Noizbait, Miren'en bidez jakin neban, ona, Lausanne'ra, aste onetan etortekotan zengozela, eta billa etorri natzaizu. Orain, Gentzane, zure epaiketearen begira nozu, baiña esan bear dautzut, etsi-etsian bear zaitudala. Ez nagizu itzi ene maitia, nirekin betirako izan gura dot zure begien argia...

Gentzane'ren urrezko begiak Kepa Mirena'renetan kokatu ziran dizdiratsu, eta onen eskuai eutsirik, maitasunez gainezka,

– Bai, Kepa Mirena –esan eutsan–, neuk be zorotzeraiño jasan dot zure maitasunagaitik. Zu etenbarik aztu gura, eta ezin... Ez dautsut ezer barkatu bear, nire gaixo ori, naikoa zorigatxa ezagutu dozu-ta. Zuk bear nozu baita neuk zu be. Saiatu gaitez anurrantzean alkarri zoriona emoten. Orain goazen ostatura amari geurea jakiñerazoteko. Aren poza jakin dagianean...!

Jagi ziran, eta Gentzane besarkaturik, Kepa Mirena'k mosu luze samurrrak ezpan-begietan emon eutsazan. Laztanok artzean, Gentzane'ren urrebegiak argi zoragarriaz piztu, eta biok zorionez gainezka ostatura abiatu ziran.

Andik sei egunetara aberrira biurtu, eta sei illabete barik, ezkondu ziran. Gentzane'ren ama ta Txinbo, aita-amabitxiak izan ziran. Jaira dei egiñen artean, Manu'ren sendia aurkitu zan, eta ezkontza gertatu bitartean, Miren'ek ezin egikean zorionezko malkoai eutsi.

Igandeko arratsalde aretan, bazkalostean Kepa Mirena'k eta Gentzane'k areto ederrean autu nasai bateri emotsoen. Etxeko lo-gela batetik amamaren obaubak seaskan zetzan etxeko aurra lo-erazo gura eban, sei illabeteko lensemeak lo egin gura ez eban-eta. Aldagandarren etxea zan, Gentzane alaba bakarra izanik, onen amak etxera ezkondu zeiten nai izan ebalako. Etxeak, baiña aldakuntza andia jasan izan eban, lengo errediza zaarrak Txinbo'k zurlandutako barri ederrakaz ordeztu ziranean eta izan be, etxeari itxura bikaiña emotsoen.

Arazoak ondo joiakiozan Kepa Mirena'ri, eta orain iñoizkorik ondoen, lengo sari-burruga amaitu zanetik batez be. “Bikain” baltzua ostendu izan zan zorrak itota, eta aspaldiko lantegitik ez zan besterik geratzen, ormak eta teillatua baiño. Klemen'ek Ego-ameriketari ziarduan, eta Kepa Mirena'ren aolkuari jarraituz, urtebetea ogipekotzat jardun ostean, esku-aldatzez errediza-denda bat artuta, bazirudian arazoak polito joiakiozala.

Arratsalde aretan senar-emazteak autu nasaiari emotsoela, alako baten Kepa Mirena'k,

– Aizu, Gentzane –esan eutsan–, gaur Txinbo ikertzera etorriko yaku.

– Ongi-etorria bedi. Bera lako gizaki ona ta atsegiñarekin berba egitea pozgarria da. Zerk dakar gurera...?

– Naiago dot, Gentzane, berak esan dagitsula.

– Ez da etorriko emaztegaririk guri aurkezteko-edo...

Irribarre egin eban Kepa Mirena'k, eta,

– Ez, Gentzane, aren maitasuna beste bide batetik doa.

– Bai zorion andia zuretzat, bera lako adiskide zintzo ta atxikia izan dozula.

– Bai benetan. Berak badño beti, niri asko zor daustala, baiña bere adiskidetasuna niretzat ordaintzeiña da. Aspaldi aretan jasadako larrialdian, badirudi Jaungoikoak nitzaz errukiturik, Manu ta Txinbo ipiñi eustazala bidean...

Une aretan txiliña aditu zan, eta neskameak Txinbo'ri atea edegi eutsan. Oiko agurrak alkarri esanda, Gentzane'k,



– Aizu, Laurentzi –esan eutsan–, badirudi gaur barri garrantzitsu baten ekarle zaitugula.

– Bai, Gentzane. Ez al-dautsu esan zeozer Kepa Mirena’k...?

– Ez daust ezer esan gura, eta izan be, berantetsia nozu ori jakitearren.

Txanbo une batez isillean egon zan, eta begi zintzoakaz so egiñez,

– Begira, Gentzane –esan eutsan–, agur esatera etorri naitazu. Dana ger- turik dago biar lekaidetxera sartu naiten.

– Baiña zelan daiteke ori; Laurentzi...? Ezustez artzen nozu.

– Aspalditiko gauza da. Asiera baten ez nekian zer zan barrutik yabildan sentipena, baiña aldiaren bidean dana argi ikusi dot. Jesukristo gure Jauna idoro nebanetik, nire barruan aldakuntza andia sortu yatan, eta ni baiño asko- zaz indartsuagoa dan gurari garaiteziñak Aregana naroa.

– Zein lekaide-motara sartuko zara...?

– Otoizlari-motakoa, zistertarra, alegia. Biar bertan dana lagata, lekaide- txera joango naz. Tamala daustat benetan, zuek itziteari, baiña Jaunaren deia jarki-eziña billakatu yat. Abatearekin auxe erabagia da: otoitzaldien artean, eta lekaidetxeari laguntzearren gogoeta-aldietan zur-lantzean jardungo dot. Aldia isiltasun utsean emongo dogu, otorduetan soillik berba egiteko eskubi- dea. Koruko otoitz eta abestiak izan ezik zur-lantze ta orturik egurasten jar- dungo dot.

– Ez al-yatzu –ebagi eutsan Gentzane’k– gogorregia izango biziera ori...?

– Zoriontsua naz, Jaungoikoari nire lan eta otoitzak emongo daustadazala oldoztean. Gure Jauna idoro neban, eta ez dot besterik gura, berarentzat bizi baiño.

Isillune bat, eta gero,

– Aizu, Laurentzi –esan eutsan Kepa Mirena’k– “Goiena”ren laurena zeu- rea da, eta zuri dagokizu esan, beraz, zelako erabiltea emon ondasun orreri.

– Erabagi dot, aal dagizunean dirutan emon dagidazula. Abatearekin era- bagiko dot zelako erabilte emon diru orreri.

– Olan egingo dot, Laurentzi. Merezi dozun baizen zoriontsua izan zaite- zala opa daustut, eta jakin dagizula nai dot, adiskiderik zintzoen eta mai- teena izan zaiatazala, eta ez Gentzane’k ez neuk, ez zaitugula iñoiz aztuko.

Txinbo’ren begietan malkoen dizdira agertu zan auxe iñotsanean:

– Zeu bai adiskide on eta zintzoa, Kepa Mirena...! –esan eutsan–. Zeuri esker gure Jauna ezagutu neban. Gomutan dozu, egun aretan espetxean, nik zur-lantzeko marraztu zenduan Jesukristo gurutzatua...? Irudi arek biotza astindu eustan, eta oartzeko bereganatu ninduan... Etorriko zakidaze lekaide- txera bein edo bein...?

– Bai, Laurentzi –erantzun eutsan Gentzane’k–, aalik eta sarrien joango gaiatzuz.

– Agur ba, Kepa Mirena ta Gentzane. Zuok biokaitik otoi asko egingo dot, alkarrekiko zoriona jaritsi dagizuen. Zuen seme-alaben alde be otoi egin- go dot. Orain besarkatu nagizue.

Kepa Mirena’k eta Gentzane’k estu-estu besarkatu eben Txinbo. Eta au itz egiteko gauza ez izanik, zurubian beera ostendu zan.

Aretora biurtu ziranean, Gentzane’reu urre-begiai malkoak eriezan, eta burua Kepa Mirena’reu bularrean jarrita,

– Kepa Mirena –esan eutsan mintzo urratuaz–, gure adiskiderik zintzoena bayoaku, baiña pozgarria da pentsaten dodanean Jaunak dei eginda, bere zorionaren billa abiatzen dala.

– Bai, nire maitia, min andia dot nire barruan, lagunik zintzoena eta lan- kiderik trebeena galtzean. Ez dau gurasorik ezagutu, baiña bere bizitzaldi bakartian, diamante baten antzera dizdiraka ikusi dot beti. Oartu barik berak eroan ninduan barriro Jaungoikoagana, mendeku-egarriak itsu eginda nengoan- nean.

Ona elduta, isildu zan une batez, eta gero,

– Zu Gentzane beti aingerutzat izan zaitu, eta Txinbo onetan zuzen egon da beti.

Gentzane’k bere urre-begiakaz so egin eutsan zorionez gaiñezka, eta Kepa Mirena’k polliki ta samur apa-laztandu eban.

† AMAIA